

John Steinbeck

Zeruko belardiak

euskaratzailea: Maria Garikano

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Maria Garikano.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1995
Jatorrizkoaren data: 1932

John Steinbeck euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=140>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1382>

HITZAURREA

John Steinbeck Californiako Salinas hirian jaio zen 1902an. Salinas Pazifikoko kostatik distantzia gutxira dago, eta izen bereko ibarretik hurbil; hantxe kokatuko zituen idazleak, bere jaioterriaren inguru haietan, bere obra gehienak, baita *Zeruko Belardiak* ere. Itsas biologia ikasketak egin zituen Stanford-eko Unibertsitatean, baina graduatu baino lehen, eta idazle izatera erabakita, Unibertsitatea utzi eta New Yorkera jo zuen. Lehen urte haietan, idazteaz batera, eta argitaratu zituen lehen obren salmenta urriak hartara bultzatuta, beste hainbat lanetan jardun beharra izan zuen: ganadua zaintzen eta fruta biltzen ibilizen, pizfaktoria batean egin zuen lan, adreiluak garraiatu zituen Madison Square Garden-en erai-kuntzarako. Bere lehen nobela, *Cup of Gold* (1929), mendiko etxe isolatu eta bakarti bateko zaindari zela idatzi zuen. Tartean obra gehiago plazaratu bazituen ere, *Tortilla Flat* izan zen (1935) hasieratik onespenez zabala izan zuen bere lehen obra. 1940an Pulitzer Saria eman zioten

bere nobelarik ezagunenagatik, *The Grapes of Wrath*, Oklahomako nekazari ezer gabekoen exodoa kontatzen duen kronika epiko hunkigarria. Beste titulu asko ere argitaratu zituen, eta batzuek ospe berezia lortu zuten zineak egindako bertsioengatik: *Perla*, *Of Mice and Men*, *East of Eden*, *The Wayward Bus* eta abar. 1962an Nobel Saria eman ziotenean, hitz hauek esan zituen Sueziako Akademiak Steinbeck-i buruz: «Ez da bere asmoa inor mindu gabe idaztea, irakurlearen lasaitasun eta entretenimendurako. Aitzitik, aukeratzen dituen gaiak serioak eta salatzaileak dira, hala nola Californiako fruta eta kotoi plantazioetako greba gogorrak.»

Zeruko Belardiak 1932an argitaratu zen, eta beraz Steinbeck-en lehen obretako bat da. Idazle oparoa eta eklektikoa izan zen, nobelaz gain ipuinak, bidaia liburuak, satirak, pelikula gidoiak eta antzerkiak idatzi zituena. 1968an hil zen arte idazten eta argitaratzen segitu zuen etenik gabe. Hala aitortzen zuen idazleak berak lagun bati idatzitako eskutitz batean: «Ez dago nigan pertsonala edo behin betikoa den emoziorik. Egia esan, idazten ari ez naizenean, habitatu

gabeko gorputz bat bezala sentitzen naiz. Uste dut halakoetan bakarrik naizela benetan zoritxarreko.»

ZERUKO BELARDIAK

1

California Garaiko Misio karmeldarra eraikitzen ari zirela, 1776garren urte aldera edo, hogeii indio kristautuz osatutako talde batek erlijioa utzi zuen gau batez, eta goizalderako beren txaboletatik alde eginda zeuden. Zisma txiki hark, jarraibide txarra izateaz gain, lana makaldu zuen adobezko adreiluak egiten zituzten buztin-zuloetan.

Agintari erlijioso eta zibilen batzar labor baten ondoren, buruzagi espainiar bat bidera atera zen zaldizko talde batekin ume errebelatu haiek Ama Elizaren altzora itzularazteko. Tropak bide zaila egin zuen Carmelgo ibarrean gora eta harantzagoko mendietatik, eta ibilaldia konplikatua egin zen gainera disidente iheslariak beren aztarnak ezkutatzerakoan erakutsi zuten trebetasun deabruagatik. Soldaduteriak topatu zitueneko aste oso bat igaro zen, baina azkenean aurkitu zituzten, itsuskeriak praktikatzen aurkitu ere, erreka batek zeharkatzen zuen mendi-lepo

garotsu baten hondarrean; esan nahi da hogeit herejeak seko lo zeudela utzikieriazko jarreretan.

Militar irainduiek harrapatu egin zituzten, eta, haien garrasiak aintzat hartu gabe, kate luze eta mehe bati lotuta jarri zituzten. Ondoren kolumnak buelta eman eta berriro ere Carmelorako bidea hartu zuen, neofito gizarajo haiei buztin-zuloetan damutzeko aukera ematearren.

Bigarren eguneko arratsaldearen azken orduan orein txiki bat azaldu zen troparen aurrean, eta bai azkar asko ezkutatu ere tontor baten bestaldean. Buruzagia bere kolumnatik aldendu eta oreinaren atzetik abiatu zen zaldi gainean. Bere zaldi astuna ezinean eta estrope-zuka igo zen aldapa malkartsuan gora; otso-mahatsek beren atzapar txorrotxak luzatzen zituzten buruzagiaren aurpegiaren bila, baina berak hala ere ekin eta ekin jarraitu zuen bere afariaren atzetik. Minutu gutxitan, muinoaren gailurreraino heldu eta gelditu egin zen, zeharo harrituta begi aurrean zeukanarekin: ibar luze bat belardi berdez tapizatua, eta bertan orein talde bat, larrean zebilena. Ibar zoragarri hartako belazeetan haritz bikainak hazten ziren, eta

muinoek arduraz babesten zuten bai behe-laino eta bai haizearen erasotik.

Buruzagi diziplinatua samurtuta sentitu zen edertasun baketsu haren aurrean. Gizon hura, bizkar ilunak zirtzilatzeraino zigortu izan zituen, bere izaera harrapariaraz arraza berri bat sortzen ari zena Californiarako, zibilizazio ekarle bizardun eta basati hura jaitsi zen zaldi gainetik eta altzairuzko kaskoa erantzi zuen.

— Ama Maria Saindua! —xuxurlatu zuen—. Horra Zeruko belardi berdeak. Horra nora gidatzen gaituen gure Jainkoak.

Haren ondorengoak ia zuriak dira gaur egun. Ibarra aurkitzean sentitu zuen emozio sakratu hura berritzea besterik ezin dugu guk egin, baina muino arteko ibar eztiari eman zion izenak hantxe darrai. Gaur egun ere *Las Pasturas del Cielo* bezala ezagutzen dute.

Zorioneko ezbeharren bat medio, lur haiek ez zuten inoren feudope zabalean bukatu. Ez zen Espainiako aitonen semerik haietaz jabetu bere diru edo emaztearen trukean. Bere muino besar-

katzaileen artean ahaztuta gelditu zen luzaro. Buruzagi espainiarra, aurkitzailea, hara itzultzeko asmoz egon zen beti. Gizon bortitz gehienek bezala, hark ere, irrikarik samurrenaz, hil aurretik bake alditxo bat izatea espero zuen, adobezko etxe bat erreka ondoan, eta ganadua gauez hornei uxarka.

Emakume indiar batek sifilisa pasa zion, eta aurpegia zimeltzen hasi zitzaionean, adiskide on batzuek bihitegi zahar batean giltzaperatu zuten inor kutsa ez zezan. Eta hantxe hil zen bake-bakean, zeren sifilisa, inoren aurrerako latza izan arren, ez baita adiskide txarra ostatu-emailearentzat.

Denbora asko igaro ondoren, squatter familia batzuk Zeruko Belardietara etorri eta hesiak altxa eta fruta-arbolak aldatu zituzten. Lurra inorena ez zenez, sesio latzak izan zituzten haren jabe egiteagatik. Ehun urte geroago, hogeit hamar familia zeuden hogeit hamar txikitan Zeruko Belardietan. Ibarren erdialdetik hurbil, denetariko denda eta postetxea zeuden, eta milia erdi bat gorago, erreka ondoan, eskola bat koska eta inizialez betetako paretekin.

Familiak oparo eta bakean bizi ziren azke-
nean. Beren lurra emankorra zen eta landu-erra-
za. Beren baratzetako fruituak Californiako
erdialdean sortutako finenak ziren.

2

Zeruko Belardietako jendearen ustetan Battle granja madarikatuta zegoen, eta umeen ustetan berriz, sorginduta. Lurra ona izan arren, ederki erregaitua eta eman handikoa, ibarrean inor ez zen haren zale, inork ez zuen etxe hartan bizi nahi, zeren bai lurrak bai etxeek, zainduak, maitatuak eta landuak izan direnean, eta gero bertan behera utziak, goibeltasun eta mehatxuz beteak ematen baitute beti. Etxe abandonatu baten inguruan hazten diren zuhaitzak beltzak izaten dira, eta lur gainean luzatzen dituzten itzalek forma kezkarriak izaten dituzte.

Battle granja zaharrak bost urte zeramatzan hutsik. Festa eguneko sasoiez, aitzurraren beldurrik gabe, belar-gaiztoak zuhaitz txikiak adina-koak egin ziren. Baratzean, korapilatuta, sendotuta eta elkarren artean katramilatuta zeuden fruta-arbolak. Haien fruta ugariagoa zen, baina urriagoa tamainari zegokionez. Laharrak hazten ziren erroen inguruan, eroritako frutak irentsiz.

Etxea bera, bi bizitzako egoitza koadratu eta ondo eraikia, dotorea eta duina izan zen bere pintura zuria artean fresko zegoenean, baina ondorengo istorio bitxi batek halako kutsu bakar-ti, eramanezin bat utzi zuen haren inguruan. Belar-gaiztoek portxeetako oholak okertu zituzten, hormak ilundu egin ziren eguraldi txarrekin. Mutikoek, denboraren kide gizonak jasotakoaren aurkako lehian, leiho guztiak puskatu zituzten eta eraman ere bai garraiatzeko modukoa zen guztia. Mutilek uste dute garraiatzeko moduko traste guztiak, bistako jaberik ez dutenak, jostailu bezala erabil daitezkeela etxera eramanez gero. Mutilek etxeari barrua hustu, putzu-zuloak mota desberdinetako hondakinez bete, eta istri-pu hutsez, sarailategian benetako tabakoa fumatzen ari ziren batean, bihitegi zaharra erre zuten. Mundu guztiak eskaleei leporatu zien sutea.

Granja abandonatua ibar estuaren erdialdetik hurbil zegoen. Zeruko Belardietako granja on eta oparoenek mugatzen zuten bi aldeetatik. Mor-doilo sastrakatsu bat zen ederki landu eta mantendutako bi lur sailen artean. Ibarreko jendea-

ren ustez toki hark bazuen madarikazio bitxiren bat, zeren gertaera latz bat eta misterio argiezin bat eman baitziren bertan.

Battle-tarren bi belaunaldi bizi izan ziren granjan. George Battle 1863an etorri zen Mendebaldera New Yorkeko estatuaren iparraldetik; oso gaztea zen ailegatu zenean, soldaduskarako edadean zegoen. Bere amak jarri zuen dirua granja erosteko eta etxe koadratu handia eraikitzeko. Etxea bukatu zutenean, George Battlek bere amaren bila joan zitezten agindu zuen, berekin bizitzera etor zedin. Eta saiatu zen etortzen andre zahar hura, espazioa bere herritik hamar miliara bukatzen zela uste zuena. Toki mitologikoak ikusi zituen, New York, Rio eta Buenos Aires. Baina Patagonia uztera zihoala, hil egin zen, eta itsasontzi bateko zaindari taldeak ozeano grisean ehortzi zuen, hilkutxa bezala bela puska bat zuena eta aingura kate baten hire maila oinei lotuta; nor eta andre hura, bere herriko kanposantuko konpainia ugariaren esperantzaz bizi izandakoa.

George Battlek ondo miatu zituen bazterrak, andre kontuan inbertsio ona egin nahirik. Salina-

sen Miss Myrtle Cameron aurkitu zuen, hogeita hamabost urteko neskazahar bat, fortuna txiki baten jabea. Miss Myrtle bazterrean utzia izan zen epilepsiarako joera arin bat zuelako, garai hartan «aldiak» izenaz ezagutzen zen gaitza eta gehienetan jainkoren baten gaizki-nahiari leporatzen zitzaiona. Georgeri epilepsiak ez zion ardura. Bazekien ezin zuela nahi zuen guztia eduki. Myrtle bere emazte bihurtu zen eta seme bat eman zion, eta gero, bi aldiz etxeari su ematen saiatu ondoren, Lippman Sanitarium izeneko presondegi pribatu txiki batean sartu zuten, San Josen. Bere bizitzaren gainerakoa kakorratz lane-tan pasa zuen, Kristoren bizitza sinboliko bat osatzen kotoi hariz.

Handik aurrera, jenio gaiztoko etxeakoandre andana batek zuzendu zuen Battle granjako etxe handia. Klase bertsukoak ziren denak, iragarkiak jartzen dituzten horietakoak: «Alarguna, 45, etxeakoandre postua nahi granja batean. Sukaldari ona. Ezkontzarik ez.» Bata bestearen atzetik etorri eta aurreneko egunetan eztiro eta tristeki jarduten zuten, Myrtlerena jakin arte. Horren

ondoren begiak ñirñirka zituztela ibiltzen ziren etxetik, abstraktuan bortxatuak sentituz.

Berrogeita hamar urte bete zituenerako zahartuta zegoen George Battle, lanaren poderioz konkortuta, eta bere bizimodua plazerik gabea eta elkorra zen. Bere begiek behin ere ez zuten uzten halako pazientziaz lantzen zuen lurra. Bere eskuak gogortuta eta belztuta eta zirrikitz beteta zeuden, hartz baten hankak bezala. Eta bere granja ederra zen. Baratzeko zuhaitzak inausita eta ondo zainduta zeuden, bakoitza bere kideen pareko. Barazkiak berriz, beren lerro zuzenetan, kirrizkatsu eta berde-berde hazten ziren. Etxeaz ere arduratzen zen George, eta lorategi bat zeukan atarian. Etxearen goiko pisuan ez zen behin ere inor bizi izan. Granja hura adierazpiderik gabeko gizonaren poema zen. Dekoraturia pazientziaz prestatu eta Sylvia bati itxoiten zion. Sylviarik ez zen sekula etorri, baina berak berdin-berdin zaindu zuen lorategia haren esperoan. Bere semearen haurtzaroko urte guztietan, George Battlek oso arreta gutxi eskaini zion. Berarentzat garrantzizko gauza bakarrak fruta-arbolak eta barazki lerro

berde eta freskoak ziren. Halako batean John bere semea karabana batean misiolari joan zenean, Georgek mozdaderik ere ez zuen sentitu. Lanean segitu zuen, urtetik urtera gorputza areago beheratuz bere lur harexen gainean. Auzokoek behin ere ez zioten hitz egiten, berak ez ziolako inoren hizketari jaramonik egiten. Bere eskuak, beti kaketuta egotearen poderioz, hobi modukoak bihurtu ziren, eta erreminten girtenak zehazki egokitzen ziren haien barrura. Hirurogeita bost urte zituela, zahardadeak eta eztul txar batek beste mundura eraman zuten.

John Battle bere karabanan itzuli zen granja erreklamatzeko. Bere amagandik epilepsia eta Jainkoaren ezagutza okerra heredatuak zituen. Deabruen aurkako lehia zen bere bizitzako zeregin bakarra. Kanpamentuz kanpamentu ibilia zen, eskuak astinduz, deabruei hots egin eta ondoren denei nahasmena eraginez, makurkeria gizon-egina exortzizatuz eta larrutuz. Etxera etorri zenean, deabruek bere arreta eskatzen segitu zuten. Aletu egin ziren barazki lerroak, eta beren gogoz ahalegin bat edo beste egin ondoren, amore eman zuten belar-gaiztoen aurrean.

Granja naturaren baitara itzuli zen isilka, baina deabruak indartu eta lotsagabetu egin ziren.

Bere burua babestearren, John Battlek hari zuriko gurutzetxo bete zituen arropak eta sonbreirua, eta horrela armatuta, legio ilunen kontrako lehiari ekin zion. Arrats grisean, granjaren inguruetatik ezkutuka ibiltzen zen makila astun batez armatuta. Sastrakari ekin, makilarekin han eta hemen zartakoak emanaz, eta maldizioak botatzen zituen deabruak beren gordelekitik aterarazi arte. Gauez, lahar artetik arrastaka demonio batzar baten ondora jo, eta aurrerantz oldartzen zen batere beldurrik gabe, bere armarekin kolpeak emanaz zitalki. Egunez berriz, etxera joan eta lo egiten zuen, deabruak ez baitute egun argitan lanik egiten.

Egun batez, arrats geroz ilunagoan, John lila arbolatxo batera inguratu zen arrastaka, bere etxe atarian bertan. Bazekien arbolatxoa deabru bilkura sekretu baten babestoki zela. Haiei alde egiten ez uzteko adina hurbildu zenean, jauzi batez zutitu eta ekin egin zion lilari, makila itsu-mustuan astinduz eta garrasika. Bat-bateko kolpeak esnatuta, suge batek kriskitin hotsa atera

zuen nagi-nagi, buru gogor, txapala goratuz. Johnek makila erortzen utzi eta dardara egin zuen, zeren suge baten abisu lehor, zorrotza soinu ikaragarria baita. Belaunikatu eta errezatu egin zuen une batez. Bat-batean, hala esan zuen garrasika: «Hona hemen suge madarikatua! Alde, deabrua!», eta aurreraka bota zen behatz harrapariekin. Sugeak hiru aldiz egin zion kosk batere gurutze babeslerik gabeko eztarrian. Johnek apenas egin zuen borrokarik, eta minutu gutxiren buruan hil zen.

Auzokoek ez zuten aurkitu putreak zerutik jaisten hasi ziren arte, eta aurkitu zutenarekin Battle granjaren beldur izan ziren aurrerantzean.

Granja landu gabe egon zen hamar urtez. Umeeek esaten zuten etxea sorginduta zegoela, eta gauetz haraino hurbiltzen ziren beren buruak ikaratzeko. Zerbait beldurgarria bazuen etxe handi eta desolatu hark, hain erne begiratzen zuten leiho huts haiekin. Pintura zuria libratu egin zen puska luzeetan; teilatuko oholxak kiribildu egin ziren zeharo. Granja bera guztiz basati bihurtu zen. George Battleren lehengusu urrun bat zen jabea, ikustera ere inoiz etorri ez zena.

1921ean Mistrovic-tarrak egin ziren Battle granjaren jabe. Bat-batekoa eta misteriozua izan zen haien etorrera. Goiz batez hantxe azaldu ziren, gizon zahar bat eta bere emazte zaharra, hezur hutsa biak, azal horia tenk eta distiratsu matrailezur altuetan. Ez batak ez besteak ez zuen ingelesik hitz egiten. Ibarekiko komunikazioaz semea arduratzen zen, gizon luze bat gurasoenak bezalakoxe matrailezur altuekin, ile beltza trakets moztua eta kopetaren erdiraino eroria eta begi beltz ezti, betizuekin. Azentuarekin hitz egiten zuen ingelesa, eta beharrezkoa zitzaiona bakarrik esaten zuen.

Dendan galderak egin zizkioten onez-onean, baina jendeak ez zuen informaziorik lortu.

— Etxe hori sorginduta zegoela uste izan dugu beti. Ez al duzue oraindik fantasmarik ikusi? —galdetu zion T. B. Allen dendariak.

— Ez —esan zuen Mistrovic gazteak.

— Primerako granja da, belar-gaiztoak kenduz gero.

Mistrovic jiratu eta dendatik atera zen.

— Etxe horrek badu zerbait —esan zuen Alleenek—. Hor bizi diren guztiei batere ez zaie gustatzen hitz egitea.

Oso gutxitan ikusten zituzten Mustrovic zaharrak, baina gizon gazteak egunak dituen ordu guztiak granjan lan eta lan pasatzen zituen. Berak bakar-bakarrik garbitu eta erein zuen lurra, inausi eta erregaitu zituen zuhaitzak. Edozein ordutan, lanean ikusten zuten jo eta ke, korrika txikian zeregin batetik bestera, eta aurpegia larrituta, mundua uzta biltzeko beta izan baino lehen buka zitekeelakoan edo.

Familiak etxe handiaren sualdean egiten zuen bizimodua eta loa. Beste gela guztiak itxita eta hutsik zeuden, eta leiho puskatuak konpondu gabe. Sukaldeko leihoetako zuloetan euliak harrapatzeko papera itsatsi zuten haizerik sar ez zedin. Ez zuten ez etxea pintatu, ez beste inola zaindu, baina gizon gaztearen ahalegin frenetikoekin lurra itxura ederra hartzen hasi zen berriro. Bi urtez esklabo batek bezala landu zuen lurhura. Egunsentiaren gristasunean ateratzen zen etxetik, eta ilunabarrak berea emana zuen atzerantz itzultzen zenerako.

Goiz batez, kotxea hartu eta dendara zihoala, Pat Humbertek antzeman zuen Mustrovic-tarren tximiniatik ez zela kerik ateratzen.

— Etxeak utzia dirudi berriro ere —esan zion Alleni—. Gizon gazte hori besterik ez dugu inoiz inguruetan ikusi, hori egia da, baina okerren bat bada. Etxeak berak *seinale* du abandonatu egin dutela.

Hiru egunez auzokoek aprentsioz begiratu zioten tximiniari. Ez zuten miaketan hasi eta denen aurrean barregarri geratu nahi. Laugarren egunean Pat Humbert, T. B. Allen eta John Whiteside etxeraino joan ziren. Isiltasun zurrumurrutsua zen hangoa. Etxeak abandonatua zirudien benetan. John Whitesidek sukaldeko atea jo zuen. Erantzunik edo mugimendurik izan ezenez, tiradorea jira zuen. Atea zabaldu egin zen. Sukaldea garbi-garbi zegoen, eta mahaia jarrita: platerak zeuden mahai gainean, plater-txoak *porridge*, arrautza frijitu eta ogi xerrekin. Jana lizuntzen hasia zegoen. Euli batzuk noraezean zebiltzan ate irekitik sartutako eguzkiaren argitan. Pat Humbertek oihu egin zuen: «Inor bai?» Bazekien galderak ez zuela zentzurik.

Goi eta behe miatu zuten etxea, baina hutsik zegoen. Sukaldea kenduta, beste gela guztietan ez zegoen altzaririk. Granja abandonatua zegoen guztiz, bat-batean abandonatu zuten gainera.

Geroago, sheriffa jakinaren gainean jarri zutenean, ez zuen hark ezer argigarririk aurkitu. Mastrovic familiakoek esku-diruz ordaindua zuten granja, eta joaterakoan ez zuten aztarrenik utzi. Inork ez zituen joaten ikusi, eta inork ez ziten sekula berriz ikusi. Haien partaidetza izan zezakeen krimenik ere ez zen eskualde hartan gertatu. Goiz batez eta bat-batean, gosaltzeko esertzera zihoazen unean, Mastrovic-tarrak ezkutatu egin ziren. Makina bat aldiz eztabaidatu zuten kasua dendan, baina Inor ez zen gauza izan soluzio onesgarri bat proposatzeko.

Berriro ere belar-gaiztoak jaio ziren lurrean, eta basaihenak fruta-arbolen adarretaraino igo ziren. Eta praktikarekin trebatuta bezala, granjak basatasunera jo zuen berriro segituan. Monterreyko konpainia inmobiliario bati saldu zioten zerga-diruaren ordainetan, eta Zeruko Belardie-tako biztanleek, aitortu ala ez, seguru jo zuten Battle granja madarikatuta zegoela. «Lur ona

da,» zioten, «baina ez nuke neuretzat nahi ezta musu-truk emanda ere. Ez dakit zer gertatzen den, baina etxe horrek badu zerbait xelebrea, azala ere pinportzen dizuna. Norbaitek mamue-tan sinestea ere ez litzateke harritzekoa izango.»

Zirrara atsegin batek zeharkatu zuen Zeruko Belardietako jende guztia Battle granja zaharrak berriro ere biztanleak izango zituela jakitean. Pat Humbertek ekarri zuen zurrumurrua Denetariko Dendara, automobilak ikusi baitzituen etxe zahar-raren atarian; eta T. B. Allenek, dendaren jabeak, lau haizetara zabaldu zuen albistea. Allenek jabe berrien inguruko gorabehera guztiak sumatu eta bezeroei kontatu zizkien, konfiden-tzia guztiak «Diotenez» batekin hasiz. «Diotenez Battle etxea erosi duena fantasma bila ibiltzen diren horietakoa da, gero haiei buruz idazteko.» T. B. Alienen «Diotenez» hura bere babesa zen. Egunkariak «ustezko» erabiltzen duten bezala erabiltzen zuen.

Bert Munroe bere ondasun berriaren jabe egin aurretik, Zeruko Belardietan bazebiltzan dozena bat istorio berari buruzkoak. Berak baze-kien bere bizilagun berriak izango ziren haiek

begira zeuzkala, inoiz hartan harrapatu ez bazituen ere. Isilkako begiraketa hori gain-gaineko arteen mailaraino garatu da nekazarien artean. Ikusi dute agerian daramazun ipitzik ttikiena ere, zenbatu eta buruz ikasi dituzte soinean daramatzazun arropak, zure begien koloreari eta sudurraren itxurari ere erreparatu diote, eta azkenik, hiruzpalau adjektibotara murriztu dute zure gorpuzkera eta nortasuna; eta bien bitartean zu zure presentziaz ohartu ere ez zirelakoan egon zara.

Granja zaharra erosi ondoren, Bert Munroek lanari ekin zion belarrez jositako atarian, arotz talde batek etxea konpontzen zuen bitartean. Altzari guztiak kanpora atera eta erre egin zituzten. Lehengo tabikeak bota eta berriak altxa zituzten. Hormak beste paper batez jantzi eta asbestozko teilatu berria eman zioten etxeari. Azkenik, pintura hori zurbilez pintatu zuten kanpoaldea.

Bertek herak moztu zituen atariko aihen eta zuhaitz guztiak argiari sartzen uzteko. Hiru asteren buruan, etxe zaharrak ez zeukan lehengo itxura zabartu eta sorginduaren aztarrenik. Han

eta hemen emandako maisutasunezko ukituei esker, bere itxura Mendebaldeko beste ehun mila nekazari etxerena bezalakoxea zen.

Barruko eta kanpoko pintura lehortu bezain laster, altzari berriak heldu ziren: eserleku guriguriak eta idazmahai txiki bat, estufa esmaltatu bat, altzairuzko oheak egurra imitatuz pintatuak eta erosotasun matematikoa eskaintzeko garantizatuak. Ispiluak ere baziren festoiekiko markoekin, eta Wilton alfonbrak, eta baita koadroen erreprodukzioak ere, kolore urdina modan jar-tzea lortu duen artista moderno batenak.

Altzariekin batera Mrs. Munroe eta hiru Munroe gazteak etorri ziren. Mrs. Munroe andre mar-dula zen, quevedo hezurrik gabeko bat eramaten zuena zinta bati lotuta. Etxekoandre ona zen. Altzari berrien banaketa behin eta berriz aldara-zi zuen gustura geratu arte, baina behin gustura geratu eta gero, behin altzariari arreta osoz begiratu, buruaz baietz adierazi eta irribarre egi-ten zuenean, altzari hura hantxe egongo zen betirako, garbiketarako bakarrik mugituko zen aurrerantzean.

Bere alaba Mae neska polit bat zen, masail leun, borobil eta ezpain helduekin. Bere gorputza sentsuala zen, baina kokots azpian bihurtu netxo apal bat ageri zuen bere amarena bezalako mardultasuna iragartzen zuena etorkizunera-ko. Maeren begiak adiskidetsuak eta xaloak ziren, ez bizkorak, baina ezta ergelak ere. Inor ohartu gabea, bere amaren doblea bilakatuko zen, etxekoandre ona, ume osasuntsuen ama, damurik gabeko emazte ona.

Bere gela berrian, Maek dantzaldi programak itsatsi zituen ispiluaren kristala eta markoaren artean. Hormetan Monterreyko lagunak argazki markodunak eskegi zituen, eta argazki albuma eta egutegi giltzatu mesanotxe txikiaren gainean utzi zituen. Egutegi hartan inolako interesik gabeko zerrenda ezkutatzeko zion begi zelataria-ri: dantzaldiak, festak, gozokiak egiteko erreze-tak eta zenbait mutilengana sentitzen zuen joe-ratxoak. Bera arduratu zen bere gelako gortinak erosi eta josteaz, kolore arrosa zurbileko gasa teatral batekoak argia iragaz zezaten, eta kretoi loretsuko zenefa batez hornituak. Saten izurtuko sobrakamaren gainean, lau *boudoir* burko anto-

latu zituen axolagabekeriaz utzita baleude beza-
la, eta panpina frantses berna-luze bat etzan
zuen haien kontra, ile hori motzekoa eta oihalez-
ko zigarro bat zeukana ezpain makaletatik zintzi-
lik. Maeren ustez, panpina hark bere izpirituaren
zabaltasuna erakusten zuen, bere tolerantzia
erabat onesten ez zituen gauzekiko. Bere lagu-
nek iragan bat eduki zezaten gustatzen zitzaion,
zeren, halako lagunak izanda eta haiei entzunez,
ezabatu egiten baitzuen bere bizitza akats gabe-
koagatik izan zezakeen damua. Hemeretzi urte
zituen; ezkontzan pentsatzen ematen zuen den-
borarik gehiena. Mutilekin ateratzen zenean
emozio apur batez hitz egin ohi zuen idealei
buruz. Zehatz esateko ez zekien idealak zer
ziren, baina sumatzen zuen haien araberakoak
direla kotxean jasotzen dituzun muxuak dantzal-
ditik etxerakoan.

Jimmie Munroek hamazazpi urte zituen.
Batxilerra bukatu berria zuen eta ikaragarri zini-
koa zen. Gurasoen aurrean, Jimmieren jokamol-
dea betizua eta sekretuz betea izan ohi zen.
Bazekien ezin ziela jakitera eman berak mun-
duaz zuen ezagutza, ez baitzuten ulertuko.

Bekatua edo heroitasuna ezagutu gabeko belau-naldi batekoak ziren. Bizitza zientziari eskaintzeko bere asmo sendoa, behin zientzia bera ere emozio posibilitate guztiez garbitu eta gero, ez zuten bere gurasoek gogo onez hartuko. Zientzia esatean, Jimmiek irрати, arkeologia eta aeroplanoetan pentsatzen zuen. Perun imajinatzen zuen bere burua, urrezko txarroak lur azpitik ateratzen. Bere ametsa ziega antzeko tailer batean enzerratzea zen, oinaze eta erridikuluz betetako urteen ondoren diseinu berri eta abiadura suntsigarriko aeroplano batekin ateratzeko.

Jimmieren gela etxe berrian makina txikien nahaste-borraste bat bihurtu zen bera bertan finkatu orduko. Kristalezko irрати-hargailu bat zeukan, aurikularrekin, esku-magneto bat etengailu telegrafiko bat martxan jartzen zuena, brontzezko teleskopio bat eta konta-ezinahala makina erdi puskatu. Jimmiek ere bazuen gordailu sekretu bat, kandadu astun batez itxitako kutxa bat, haritzez egina. Kutxa hartan bazen denetarik, dinamita kartutxoekiko lata erdi bat, errebolber zahar bat, Melachrino zigarro pakete bat, hiru preserbatibo Merry Widows markakoak,

botilatxo bat muxika likore, daga baten itxurako paper-mozle bat, lau eskutitz sorta lau neska desberdinenak, hamasei ezpain-arkatz dantza lagunei ostuak eta baita kutxa bat ere maiteminduen ohiko oroigarriekin: lore lehorrak, painelu eta botoiak eta, denetan preziatuena, farfilla beltzez apaindutako liga borobil bat. Jimmie ez zuen gogoratzen nola lortu zuen liga hura. Gogoratzen zuena askoz betegarriagoa zen nolanahi ere. Giltzatu egiten zuen beti bere logela kutxa ireki baino lehen.

Kolegioan zebilenean, lagun askok berdintzen zuten Jimmieren bekatu kopurua, eta zenbaitek bai erraz gainditu ere. Ordea, Zeruko Belardietara etorri eta laster, bere gaiztakeriak ezohikoak zirela aurkitu zuen. Alproja zentzatu bat bezala ikusi zuen bere burua; baina ez, zentzatu, berriz erortzeko posibilitaterik ez izateraino. Hain osoki bizi izanak abantaila handia ematen zion ibarreko neska gazteenen artean. Nahiko mutil egokia zen Jimmie, argala eta ongi osatua, ile eta begi beltzekin.

Manfred, mutil gazteena, normalean Manny deitzen zutena, zazpi urteko ume serio bat zen,

aurpegia kuzkurtuta eta erkituta zeukana haragi faltsuengatik. Bere gurasoek bazuten haragi faltsuen berri; kentzeko kontua ere aipatu izan zuten. Mannyk berebiziko ikara hartu zion eba-kuntzari, eta bere amak, hori ikusita, beldur hura mehatxu frenatzaile bezala erabili izan zuen semea gaizto portatzen zenean. Orain, haragi faltsuak kentzeko kontua aipatzen ziotenero, Manny histeriko jartzen zen izuaren izuz. Mr. eta Mrs. Munroe ume pentsakorra zelakoan zeuden, agian jenio bat. Gehienetan bakarrik jostatzen zuen, edo eseri eta espazioari begira egoten zen luzaro, «ametsetan», bere amak esaten zuenez. Zenbait urtez ez zuten jakin atzeratua zela, haragi faltsu haiek geldiarazi egin zutelako bere buruaren garapena. Normalean Manny ume zintzoa zen, eskurakoia eta beldur pixka bat sartuz gero segituan obeditzen zuena, baina gehitxo ikaratzen bazuten, histeriak bere mende hartzen zuen, bere buruaren kontrola eta iraupen sena bera ere galaraziz. Noizbait kopetaz lurra joka ere hasi izan zen, odola begietan sartu arte.

Beti indar berberaren kontra lehiatzeaz nekata zegoelako etorri zen Bert Munroe Zeruko

Belardietara; indar hura, gainera, garaile ateratzen baitzaitzaion beti. Proiektu askori ekindako gizona zen, baina behea jotzen zuten guzti-guztiek, ez Bertek berak egindako akatsengatik, bai- zik eta, banaka hartuz gero, ezbehar huts ziruditen okerrenatik. Bertek ezbehar guzti haiek batera ikusi, eta bere arrakastarik nahi ez zuen Patu baten ekintzak iruditzen zitzaizkion. Nekatuta zegoen arrakastarako bide guztiak oztopatzen zizkion izengabeko zerbait haren kontra borrokatzeaz. Berrogeita hamabost urte besterik ez zituen, baina atsedean hartu nahi zuen; bizkar gainean madarikazio bat zeukala sinestekotan zegoen.

Urte batzuk lehenago garaje bat zabaldu zuen herri baten mugan. Negozioa ondo zihoan; dirua barra-barra sartzen zen. Bere ustetan arriskuz kanpo zegoenean, beste kale batetik egin zuten estatuko errepide nagusia eta nora jorik ez zuela utzi zuten bera, negoziorik gabe. Urtebetera-edo garajea saldu eta janari-denda bat zabaldu zuen. Berriro ere arrakasta izan zuen. Zorrak ordaindu eta banketxean dirua sartzen hasi zen. Orduan, janari-denda kate batek

berearen ondoan denda berria zabaldu, prezio gerra bati ekin eta negozioa uztera behartu zuen. Bert gizon minbera zen. Askotan gertatu zitzaizkion horrelakoak, dozena bat aldiz bai. Bere arrakastak iraunkorra zirudien unean, zorigaitzak zartako bat ematen zion. Bere buruan zuen konfiantza urritu egin zen. Gerra lehertu zenean ia ez zitzaion adorerik geratzen. Baze-kien gerrarekin dirua egin zitekeela, baina bel-dur zen, hainbeste aldiz bentzutua izan ondoren.

Asko animatu behar izan zuen bere burua ejertzitoari indabak saltzeko lehen tratua egin aurretik. Negozioa hasi eta lehendabiziko urtean, berrogeita hamar mila dolar atera zituen, bigarreanean berrehun mila. Hirugarren urtean milaka indaba akre erosteko tratua egin zuen, artean landatu gabe zeudenean. Bere tratu hartan, libra hamar zentabo ordaintzeko hitza ematen zuen. Bildutako indabengatik, erraz hartuko zituen hemezortzi zentabo librako. Gerra-azarotan bukatu zen, eta lau zentaboan saldu zuen bildutako libra bakoitza. Hasi zenean baino dire gutxixeagorekin bukatu zuen.

Aldi hartan erabat sinetsi zuen madarikazioarena. Kemena galduta, etxetik ere ez zen ia ateratzen. Lorategian jarduten zuen, barazkiak landatu eta bere patuaren etsaitasunaz pentsatzen zuen. Pixkanaka, gelditasunezko zenbait urteren ondoren, lurrarekiko nostalgia erne zen bere baitan. Pentsatu zuen nekazaritzan zegoela bere patuarekin gurutzatzen ez zen ahalegin bide bakarra. Eta agian granjatxo batean atsedena eta segurtasuna aurkitu ahal izango zituela.

Battle granja salgai jarri zuten Monterreyko konpainia inmobiliario batean. Bertek granjari begiratu bat eman, zer aldaketa egin zitezkeen ikusi, eta erosi egin zuen. Hasieran bere familia ez zen han bizitzearen aldeko, baina, berak ataria garbitu zuenean, argindarra eta telefonoa jarri eta altzari berriekin etxea eroso utzi zuenean, ia entusiasmoz hartu zuten. Mrs. Munroek pentsatzen zuen beso zabalik hartzekoa zela Berten Monterreyko desanimuari azkena jarriko zion edozein aldaketa.

Granja erosi zuen unetik beretik, Bert libre sentitu zen. Akabo zen kondena. Madarikazioaren menpetik salbu zegoela jakin zuen. Hilabe-

tean, bere sorbaldak zuzendu eta bere aurpegiak lehengo itxura kezkatsua galdu zuen. Nekazari sutsua bihurtu zen; xehetasunez xehetasun irakurri zituen lurra lantzeko metodoak, laguntzaile bat hartu eta goizetik gauera arte lan egin zuen. Egun bakoitzak suspergarri berriren bat bazuen berarentzat. Ematen zuen lurretik jaiotako kimu bakoitzak immunitate promesa berri-tzen ziola. Pozik zegoen, eta berriro ere konfian-tza zuelako, ibarrean adiskideak egiten hasi zen, eta bere posizioa sendotzen.

Gauza zaila da, eta abilitade handia eska-tzen duena, nekazal komunitate batean bereha-lakoan onartua izatea. Ibarreko jendeak gaitzes-pen apur batez ikusi zuen Munroe familiaren eto-rrera. Battle granja sorginduta zegoen. Hala uste izan zuten beti denek, baita ideiarri barre egiten ziotenek ere. Orain gizon bat etortzen zitzaien eta oker zeudela erakusten zien. Eta hori gutxi izanda, lurraldearen itxura aldatzen zuen granja madarikatuaren tokian kaltegabeko granja emankor bat jarritz. Jendeak bere hartan nahi zuen Battle granja. Barrutik, minduta zeuden aldaketagatik.

Bertek gaitzespen hura ezabatu ahal izatea gauza handia izan zen. Hiru hilabetetan., ibarreko beste partaide bat bihurtu zen, gizon trinkoa, auzoko bat. Erremintak uzten zizkioten eta berak ere bereak uzten zituen. Sei hilabeteren buruan eskola-batzarreko partaide aukeratu zuten. Neurri handi batean, bere Furia haietatik libratuta sentitzen zuen zorion harexengatik irabazi zuen jendearen maitasuna. Gainera, gizon atsegina zen; gozatu egiten zuen adiskideei mesedeak eginez, eta are garrantzitsuagoa, ez zuen zalan-tzarik izaten mesedeak eskatzeko orduan.

Dendan bere egoera azaldu zion nekazari talde bati, eta miresgarria iruditu zitzaien denei azalpenaren garbitasuna. Ibarrera etorri eta berehala izan zen. T. B. Allenek bere aspaldiko galdera hura egin zuen:

— Beti uste izan dugu etxe hori madarikatuta zegoela. Makina bat gauza xelege gertatu dira hor. Oraindik ez al duzue fantasmarik ikusi?

Bertek barre egin zuen.

— Etxe batetik jan guztia kentzen baduzu, laster alde egingo dute arratoiek —esan zuen—.

Zahartasun eta iluntasun guztiak kendu dizkiot nik etxeari, horietaz bizi baitira fantasmak.

— Ederki utzi duzu etxea, esan beharrik ez dago —onartu zuen Allenek—. Zainduz gero toki hoberik ez da Belardietan.

Bertek kopeta zimurtu zuen serio-serio, pentsamendu berri batek bere buruan tokia hartzen zuen bitartean.

— Suerte txarra ugari izan dut —esan zuen—. Negozio pila batean sartu naiz eta den-denak gaizki atera zaizkit. Hona etorri nintzenean, madarikazio baten pean nengoela uste nuen.

Bat-batean barre egin zuen orduantxe bururaturatuko ideiatatik.

— Eta, zer egingo-eta, aurreneko gauza, denen ustez madarikatuta dagoen etxea erosi. Begira, oraintxe bururatu zait beharbada nire madarikazioa eta granjarena, biak borrokan hasi, eta elkar garbitu dutela. Edozein modutara, seguru dakit ezkutatu direla biak.

Gizonek ere barre egin zuten. T. B. Allenek zartako bat eman zion mostradore gainari.

— Ateraldi ona izan da hori —esan zuen—. Baina nik hobea botako dizut. Beharbada zure

madarikazioa eta granjarena, biak parekatu, eta *gopher*-txulo batera sartu dira kriskitin suge pare bat bezala. Beharbada gutxiena uste dugunean madarikazio-kume pila bat izango ditugu Belardietatik arrastaka.

Bildutako gizonak algaraka hasi ziren hura entzutean, eta T. B. Allenek buruz ikasi zuen eszena osoa, errepikatu ahal izateko. Antzerki bateko elkarrizketa bezalakoa izan zela pentsatu zuen.

3

Edward Wicks errepide nagusiaren ertzeko etxe txiki, goibel batean bizi zen, Zeruko Belardietan. Etxearen atzealdean muxika sail bat eta baratx handi bat zeuden. Edward Wicksek muxikak zaindu bitartean, bere emazte eta alaba ederrak baratza landu eta ilar, indaba eta marrubi goiztiarrak biltzen zituzten Monterreyn saltzeko.

Edward Wicksek aurpegi motz, beltzarana zuen eta ia betilerik gabeko begi txiki eta hotzak. Bera zen, denen ustetan, ibarreko gizonik maltzurrena. Tratu zikoitzak egiten zituen eta bere pozik handiena muxikekin auzokoek baino zentabotxo batzuk gehiago ateratzea izaten zen. Ahal zuenean, tranpa iaioak egiten zituen zaldien salerosketan, legerik hautsi gabe betiere, eta bere zorroztasuna zela-eta komunitatearen begirunea bereganatu zuen; baina, xelebrea bada ere, ez zen aberastu. Hala eta guztiz, dirua tituluetan jartzen ari zela sinestaraztea gustatzen zitzaion. Eskola-batzarraren bileretan ahol-

kua eskatzen zien beste partaideei titulu desberdinei buruz, eta hala, bere aurrezkiak aintzat hartzeko modukoak zirela pentsa zezaten lortzen zuen. Ibarreko jendeak «Tiburoi» Wicks deitzen zion.

— Tiburoi? —esaten zuten—. Oh, apustu egingo nuke hogeit bat mila dolar badituela, beharbada gehiago. Horri ziria sartuko dionik ez da.

Baina, egia esan, Tiburoik sekula ez zituen bostehun dolar baino gehiago batera eduki.

Tiburoiren plazerik handiena gizon aberastzat hartua izatea zen. Zinez, hainbeste disfrutatzten zuen horrekin non aberastasuna benetakoa bihurtzen baitzen berarentzat. Balizko bere dirutza berrogeita hamar mila dolarrekoa zela erabakita, liburu-nagusi bat eramaten zuen, bertan interesak kalkulatu eta bere inbertsio desberdinak idazten zituelarik. Eragiketa horiek bere bizitzako pozik handiena ziren.

Petrolio konpainia bat osatu zen Salinasen, Monterreyko eskualdearen hegoaldean putzuzulo bat egiteko asmoz. Horren berri izan zenean, Tiburoik John Whitesideren granjara jo

zuen konpainiaren akzioen balioa eztabaidatze-ko.

— *South County Oil* delako konpainia horretaz pentsatzen aritu naiz —esan zion.

— Geologoek txostenak itxura ona dauka —esan zuen John Whitesidek—. Beti aditu izan dut inguru horretan petrolioa bazela. Aspaldiko kontua da.

John Whitesideri maiz eskatzen zioten aholkua horrelako auziei buruz.

— Baina, jakina, ez nuke nik diru gehiegi sartuko.

Tiburoik behatzekin beheko ezpaina tolestu eta pentsakor geratu zen une batez.

— Buelta asko eman dizkiot buruan —esan zuen—. Niri aukera polita iruditzen zait. Hamar bat mila dolar dauzkat han eta hemen eman beharko luketena eman gabe. Zera izango dut onena, kontu handiz aztertzea. Zer iritzi ote zenuen jakin nahi nuen.

Baina Tiburoik hartua zuen erabakia. Etxera iritsitakoan, liburu-nagusia hartu eta hamar mila dolar atera zituen bere irudimenezko libretatik. Gero *Southern County Oil* konpainiako mila akzio

gehitu zizkion bere titulu zerrendari. Egun hartatik aurrera larritasunez zaindu zituen Burtsako kotizazioak. Apur bat igotzen zirenean, txistuka ibiltzen zen doinu monotonoez, eta jaisten zirenean berriz, aprentsiozko korapilo bat sentitzen zuen eztarrian. Azkenean, *Southern County*-ko kotizazioak igoera azkar bat izan zuenean, halako poza hartu zuen Tiburoik non Zeruko Belardietako Denetariko Dendara joan eta marmot beltzeko erloju bat erosi baitzuen tximini gaineko koskarako, esferaren alde bakoitzean onixeko habe bat zuena, eta gainean brontzezko zaldi bat. Dendan zeuden gizonak askojakinen aurpegia jarri eta Tiburoi mordoxka ederren bat irabaztear egongo zela xuxurlatu zuten.

Astebete geroago kotizazioek behea jo eta konpainia ezkutatu egin zen. Albistearen berri izan orduko, Tiburoik liburu-nagusia atera eta bere akzioen salmenta idatzi zuen kiebra egunaren bezperako datarekin; bi mila dolarreko irabaziaz saldu zituela idatzi zuen.

Pat Humbertek, Monterreytik zetorrela, gelditu egin zuen kotxea errepidean, Tiburoiren etxe aurrean.

— Sosik gabe utzi omen zaituzte *South County* horretakoek —aipatu zion.

Tiburoik barre egin zuen satisfazioz.

— Zer naizela uste duzu, Pat? Bi egun badira saldu nituela. Inork baino hobeto jakin behar zenuke ez naizela atzo jaioa. Banekien kapitala itxurakoa zela, baina igoera izango zuela ere banekien, eragileek osorik ateratzeko modua izan zezaten. Haiek kargaz arindu zirenean, beste horrenbeste egin nuen nik ere.

— Hori da hori! —esan zuen Patek mirespe-
nez.

Eta Denetariko Dendan sartu zenean informazioa zabaldu zuen. Gizonek buruari eragin eta espekulazio berriak egin zituzten Tiburoiren diru kopuruari buruz. Eta onartu zuten hobe zutela negozio batean harekin aurrez aurre ez egokitzea.

Garaitu hartan Monterreyko banketxe bati laurehun dolar maileguan eskatu eta bi eskuko *Fordson* traktorea erosi zuen Tiburoik.

Pixkanaka, halako ospea hartu zuen bere iritzi eta iragarpen zuzenengatik, non Zeruko Belardietako inori ez baitzitzaion burutik pasa-

tzen bonorik edo lur sailik edo ezta zaldirik ere erostea aurrena Tiburoi Wicksekin hitz egin gabe. Tiburoik arazoa arretaz aztertu bere miresle bakoitzarekin eta aholku harrigarri onak emanaz bukatzen zuen.

Handik urte gutxira bere liburuak zioen ehun eta hogeita bost mila dolar pilatu zituela inbertsio burutsuen bitartez. Auzokoek, gizon txiro baten antzera bizi zela ikusita, orduan eta errespetu handiagoa zioten aberastasunek ez ziotelako burua harrotu. Ziria sartuko zionik ez zen. Bere emazte eta alaba ederrak barazkiak zaintzen eta Monterreyn saltzeko prestatzen segitzen zuten, Tiburoi bera baratzeke milaka eta milaka zereginez arduratzen zen bitartean.

Tiburoiren bizitzan ez zen nobeletako maitasunik izan. Hemeretzi urterekin hiru dantzalditara eraman zuen Katherine Mullock, berau libre zegoelako. Horrek martxan jarri zuen prezedentearen mekanismoa, eta ezkondu egin ziren bai neskaren familiak eta bai auzoko guztiek hala espero zutelako. Katherine ez zen polita, baina belar-gaizto sortu berriaren freskotasun lerdena zuen, eta behor gaztearen sasoi oparoa. Ezkon-

du ostean galdu egin zituen sasoia eta freskota-suna, polena jasotako loreak bezala. Bere aurpegiak behera egin zuen, aldakak zabaldu egin zitzaizkion, eta bere bigarren patean sartu zen, lanarenean.

Harekiko tratuan, Tiburoi ez zen ez samurra ez krudela. Zaldiekin erabiltzen zuen gogortasun ezti berberaz gobernatzen zuen. Krudelkeria induljentzia bezain zentzugabea iruditu izango zitzaion. Inoiz ez zion hitz egiten pertsona bati bezala, inoiz ez zizkion aipatzen bere itxaropen edo gogoeta edo hutsegiteak, ezta bere papezko aberastasunak edo muxika uzta ere. Katherine harritu eta kezkatu egingo zatekeen bestela jokatu izan balu. Haren bizitza nahiko konplikatua bazen beste baten pentsamendu eta arazoan karga gehitu gabe.

Wicks-tarren etxe ilun huraxe zen granjako gauza itsusi bakarra. Naturaren orbek eta zaborreria desegin egiten da lurrean urte bakoitza igarotzearekin batera, baina gizonaren zaborreriak iraupen luzeagoa du. Ataria josita zegoen zaku zahar, paper, kristal puska eta enbalatzeko alambre mordoiloak. Belarrik eta lorarik jaiotzen

ez zen granjako toki bakarra etxe ingurua zen, lurra zepatuta baitzegoen han, antzu eta etsai bihurturik bertan hustutako xaboi-ur pertzaka-dengatik. Tiburoik bere baratza erregaitzen zuen, baina etxe inguruan ur ona alferrikaltzeko arrazoirik ez zuen ikusten.

Alice jaio zenean, Zeruko Belardietako emakumeak tropelean etorri ziren Tiburoiren etxera, haurra polita zela aldarrikatzeko prest. Haurra benetan polita zela ikusi zutenean, zer esan ez zekitela geratu ziren. Bozkariozko oihu femenino horiek, ama gaztea lasaitzea bilatzen dutenak, besoetan daukan narrasti itxurako izaki ikaragarria gizaki dela pentsa dezan, eta hazitakoan ez dela munstro bihurtuko; oihu femenino horiek beren zentzua galdu zuten. Gainera, bere umeari begiratzen zionean, Katherineen begiek ez zuten ageri sasi-entusiasmo hori, emakumezko gehienei dezepzioak itotzeko baliatzen zaiena. Aliceren edertasuna miresgarriegia zen ordainik gabea izateko. Haur politik gehienetan gizon nahiz emakume itsusi bihurtzen ziren, esaten zion Katherinek bere buruari. Hori esanda, erre-zeloaren parte bat uxatzen zuen, Patua tranpan

harrapatu eta berak boterea ostu balio bezala bere aurre-ezagumenaren bitartez.

Lehen bisita egun hartan. Tiburoik bi emakume elkarrekin hizketan sentitu zituen. Hala esaten zion batak besteari, sinetsi ezinik bezala:

— Baina haurra polita da benetan. Nola izan *liteke* hain polita?

Tiburoi logelara itzuli eta alabatxoari begira egon zen luzaro. Kanpoan, baratzean, hausnar egin zuen asunto hartaz. Haurra polita zen benetan. Zentzugabea zen berak edo Katherinek edo ahaideren batek hartan eragina zuenik pentsatzea, zeren denak itsusiak baitziren, bai jende arruntaren aldean ere. Argi zegoen gauza txit zoragarria eman zitzaiela, eta, gauza zoragarriak unibertsalki gutzituak direnez, Aliceri babesa eskaini behar zitzaion. Horretaz pentsatzean, jakina, Tiburoik Jainkoan sinesten zuen, berak ulertu ezin zuen guztiaren egile zehazgabea bezala ikusten zuelarik.

Alice gero eta ederragoa bihurtu zen hazi ahala. Bere azala arnapolak bezain distiratsu eta

kolore bizikoa zen: bere ile beltzak garo zurtoien kizkurtasun suabea zuen, bere begiak promesezko zero gandutsuak ziren. Umearen begi serio haietara begiratzen zuenak, hala pentsatzen zuen: «Bada hor zerbait ezaguna zaidana, zerbait —hala iruditzen zait— zorrotz gogoratzen dudana, edo bizitza guztian bilatu dudana.» Orduan Alicek burua jiratzten zuen. «Hara ordea! Neskato xarmangarri bat besterik ez da eta!»

Tiburoik jende askorengan ikusten zituen errekonozimendu horren pausoak. Gizonak gorritzen ikusten zituen neskari begiratzean, mutikoak tigreen modura borrokatzen hura inguruan zutenean.

Gizonezkoen aurpegi guztietan gutizia irakurtzen zuela iruditzen zitzaion. Sarritan, baratzean ari zela, bere burua oinazetzen zuen ijitoek neskatoa lapurtzen zutela imajinatuz. Egunean dozena bat aldiz, jakinaren gainean jartzen zuen gauza arriskutsuei buruz: zaldien atzeko hankak, hesien garaiera, sakanetan gordetzen zen arriskua eta kotxerik bazetorren begiratu gabe errepidea gurutzatzeak suposatzen zuen galbide segurua. Auzoko eta pitxi-saltzaile guztiengan,

eta, okerrago oraindik, arrotz guztiengan bahitzaile posible bat ikusten zuen. Zeruko Belardietan eskaleak etorri zirela zabaltzen zenero ez zion neskatoari bere begi aurretik aldentzen uzten. Eskursiozaleak ere harrিতта geratzen ziren Tiburoiren amorruez bere terrenotik alde egiteko agintzen zienean.

Katherineri zegokionez, Aliceren edertasun geroz handiagoak bere errezeloa areagotzea besterik ez zuen egiten. Halabeharra kolpea emateko zain zegoen, eta horrek esanahi bakarra izan zezakeen, halabeharra indarrak biltzen ari zela are eta koipe bortitzagoa emateko. Katherine bere alabaren esklabo bihurtu zen, haren gainean zegoen beti eta hiltzear dagoen elbarri bati bezalako zerbitzutxoak eskaintzen zizkion.

Nahiz Wicks-tarrek alaba benetan adoratu, eta tankera hartan kezkatu haren segurtasunaz, eta haren edertasunaz jende gosearen begiekin gozatu, bazekiten alaba zoragarri hura neskato ikaragarri ergel, makal eta atzeratua zela. Tiburoiren kasuan, segurtasun horrek bere beldurrak areagotzen zituen, ondo asko baitzekien neskak ezingo zuela bere burua zaindu eta ehiza erraza

bihurtuko zela berarekin eraman nahi zuen edozeinentzat. Baina Katherinezentzat, Aliceren ergeltasun hura gauza atsegina zen, horri esker amak mila aukera zituelako alabari laguntzeko. Laguntza emanaz, Katherinek gailentasun bat erakusten zuen eta neurri batean bien arteko tarte handia laburtzen zuen. Katherinek pozgarriak zitzaizkion bere alabaren ahultasun guztiak, zeren bakoitzarekin baliotsuago eta alabagandik hurbilago sentitzen baitzen.

Alicek hamalau urte bete zituenean, bere aitak sentitzen zituen ardura ugariei beste bat gehitu zitzaien. Ordura arte Tiburoiren beldur bakarra alaba galdu edo itsustuko ote zen izan zen, baina handik aurrera kastitatea galdu zezakeela pentsatze hutsa aski izaten zuen zeharo izutzeko. Pixkanaka, gaia hausnartzearen poderioz, azken beldur honek beste biak irentsi zituen. Bere alabaren beharbadako desloraketa hura galera eta itsuste bezala hasi zen ikusten. Orduetik aurrera, artega eta susmati jarri ohi zen gizon edo mutilen bat granjara inguratzen zenero.

Kontu hura amets gaizto bihurtu zen berarentzat. Alice bistatik ez galtzeko esaten zion behin eta berriz emazteari. «Ez jakin zer gerta litekeen», errepikatzen zuen, begi zurbilak susmoz diz-diz zituela. «Ez jakin zer gerta litekeen.» Alabak buruan zuen akatsak asko zorroztu zuen Tiburoiren beldurra. Edozeinek honda zezakeela pentsatzen zuen. Edozeinek abusa zezakeela bere alabaz, bakarrik utziz gero. Eta neskak ezingo zuela bere burua babestu, hain ergela izaki. Gizon batek ez du sekula otzal dagoen txapelketako txakur-emea hurbilagotik zaindu Tiburoik bere alaba baino.

Aldi baten ondoren, Tiburoi ez zen lasai gertzen alabaren garbitasunari buruz harik eta ziurtatzen zioten arte. Hilero galderaz josten zuen emaztea. Fetxak ere hark baino hobeto zekizkien.

— Ondo al dago? —galdetzen zuen irrikaz.

— Oraindik ez —erantzuten zion Katherinek mesprezios.

Ordu batzuk geroago:

— Ondo al dago?

Ekin eta ekin segitzen zuen, azkenean Katharinek erantzun arte:

— Horixe ondo dagoela. Zer uste zenuen ba?

Erantzun horrek lasai uzten zuen Tiburoi hila-beterako, baina ez zuen bere ernetasuna laxatzen. Kastitateak osorik zirauen, beraz zaindu egin behar zen aurrerantzean ere.

Tiburoik bazekien Alicek ezkondu egin nahiko zuela egunen batean, baina, pentsamendua sarritan etortzen bazitzaion ere, uxatu eta ahazten saiatzen zen, zeren Aliceren ezkontza sedukzioa bera bezain higuingarria iruditzen baitzitzaion. Pitxi eder bat zen, begiratzekoa eta bere hartan gordetzekoa. Auzia, berarentzat, ez zen morala, estetikoa baizik. Baldin eta desloratzen bazuten, ez zen handik aurrera berak hainbeste estimatzen zuen pitxi ederra izango. Ez zuen maite aitak umea maite duen bezala. Hori baino areago, altxor bat bezala zaintzen zuen, disfrutatuz gauza delikatu eta paregabe baten jabe zelako. Denborarekin, hilero-hilero «Ondo al dago?» galdetzearen poderioz, kastitate hura alabaren osasun, iraupen eta osotasunaren sinbolo bilakatu zen.

Egun batez, Alicek hamasei urte zituela, Tiburoik emazteagana jo zuen aurpegi kezkatuaz:

— Badakizu ezin dugula benetan jakin ondo dagoen ala ez... alegia... ezin garela benetan ziur egon non eta sendagile batengana eramaten ez dugun.

Katherine begira geratu zitzaion une batez, hitz haien esanahia ulertu nahirik. Gero, aurreneko aldiz bere bizitzan, bere onetik atera zen:

— Bilau hutsa zara, zikina eta susmatia — esan zion—. Alde hemendik. Eta berriz holakorik aipatzen baduzu, ni... ni joan egingo naiz.

Tiburoi harritu egin zen pixka bat, baina ez zen purrustadarekin ikaratu. Hala ere, baztertu egin zuen mediku azterketaren ideia, eta hilero-ko galdera harekintxe konformatu zen.

Bitartean, Tiburoiren liburu-nagusiko fortunak gora eta gora jarraitzen zuen. Gauero. Katherine eta Alice oheratutakoan, liburukotea hartu eta sabaitik eskegitako lanpararen argitan irekitzen zuen. Orduan, inbertsioak planeatzen eta interesak kalkulatzeko ari zela, begi zurbilak kiskurtu eta bere aurpegi motzak bizkor itxura hartzen zuen. Bere ezpainak mugitu egiten ziren

pixka bat, une hartan zerbait enkargatzen ari baitzen telefonoz. Bere aurpegiak espresio serio, eta aldi berean atsekabetua hartzen zuen hipotekatutako granja on batez jabetzen zenean. «Amorrazioa ematen dit hau egin beharrak», xuxurlatzen zuen. Baina horrelakoxea da negozioen mundua, konprenitu beharra daukazue.

Tiburoik luma tintontzian busti eta hipotekaren kontu hura liburuan idazten zuen. «Letxugak,» esaten zuen berekiko. «Mundu guztia letxugak aldatzen ari da. Merkatuak lepo egingo du. Nik uste patatak aldatu behar nituzkeela, eta hala diru pixka bat egin. Hau lur ona da.» Hirurehun akreko patata saila erein zuela idazten zuen liburuan. Bere begiek lerroak zeharkatzen zituzten. Hogeita hamar mila dolar zeuzkan banketxean, interesak besterik eman gabe. Penagarrria zen. Dirua alferrik zegoen ia. Kontzentraziozko zimurdura bat pausatzen zen bere begietan. San Joseko Etxegintza eta Mailegu konpainia zer moduzkoa ote zen galdetzen zion bere buruari. Ehuneko seia ematen zuen. Ez zen komeni presaka eta itsu-itsuan sartzea, konpainia ikertu gabe. Gaueko lana bukatutzat eman eta liburua

ixterakoan, Tiburoik kontu hura John Whitesideri aipatzea erabakitzen zuen. Batzuetan konpainia haiek kiebra jotzen zuten, arduradunek ihes egi-ten zuten, pentsatzen zuen urduri.

Munroe familia ibarrera etorri baino lehen, gizon eta mutil guztiengan sumatzen zituen Tiburoik Alicerenganako intentzio txarrak, baina behin Jimmie gaztea begiztatu ondoren, bere beldur eta susmoak murriztu egin ziren, denak Jimmie sofistikatuaren gainean batu arte. Mutila argala eta aurpegi egokikoa zen, ahoa ongi osatua eta sentzuala zuen, eta bere begiek batxile-rrako mutilen harrokeria iraingarri horrekin distir- ratzen zuten. Jimmiek ginebra edaten zuela kon- tatzen zen; hiriko arropak janzten zituen, artilez- koak, sekula ez laneko galtzak. Ilea gominaz dis- tiraka eraman ohi zuen, eta oro har bere portae- ra eta jarrerak libretasun handia zuten, Zeruko Belardietako neskak irri txoroka eta sinuka uzten zituen mirespen eta aztoramenez. Jimmiek begi lasai, zinikoekin begiratzen zien neskei, eta haien aurrean disipatu itxura ematen saiatzen

zen. Bazekien neska gazteek iragan baten jabe ziren mutilengana jotzen zutela. Jimmiek bazuen iraganik. Behin baino gehiagotan mozortu zen *Riverside Dance Palace*-n; gutxienez ehun nekari musu emandakoa zen, eta hiru alditan, bekatuzko abenturak izan zituen sahas artean, Salinas ibaiaren ertzean. Jimmiek ahaleginak egiten zituen bere aurpegiak bere bizitza makurra erakutsi zezan, baina, itxura hutsarekin nahikoa izango ez zelakoan edo, zenbait zurrumurru txo jarri zituen martxan, Zeruko Belardietatik abiadura lausengarriz hedatu zirenak.

Tiburoi Wicksek zurrumurru haiek aditu zituen. Eta bere barrean Jimmie Munroeganako gorrotoa erne zen, Jimmieren emakumeekiko portaerak eragiten zion beldurretik jaioa. Zer aukera zituen Alice eder, ergelak —pentsatzen zuen Tiburoik—, hain eskola handiko norbaiten aurrean?

Alicek mutila ikusterik izan baino lehen, Tiburoik debekatu egin zion hura ikustea. Hain kartuki hitz egin zion, non neskaren burmuin moteletan jakingura apal bat piztu baitzen.

— Ez zaitzadala nik behin ere Jimmie Munroe horrekin hizketan harrapatu —esan zion.

— Nor da Jimmie Munroe, aitatxo?

— Hori berdin zaizu. Baina ez zaitzadala nik berarekin hizketan harrapatu. Aditzen? Hara! Bizi-bizirik larrutuko zaitut begiratu bakar bat ematen badiozu.

Tiburoik ez zion behin ere Aliceri eskurik gainean jarri, Dresdengo txarro bat kolpatzearen kontra zituen arrazoi berberengatik. Laztantzeko ere zalantzak izaten zituen, markaren bat uzteko beldurrez. Zigorra ez zen behin ere beharrezkoa. Alice ume zintzoa eta eskurakoia izan zen beti. Gaiztotasunak ideia edo anbizio batetik sortua izan behar du. Neskak ez zuen behin ere ez bata ez bestea ezagutu.

Eta berriro ere:

— Ez zinen ba Jimmie Munroe horrekin hizketan ibiliko, ezta?

— Ez, aitatxo.

— Ea ba, ez zaitzadala nik horretan harrapatu.

Agindu hori hainbat aldiz errepikatu ondoren, Aliceren burmuinetako zelula loditueta idea

bat sartu zen isilka: gustura ezagutuko zuela Jimmie Munroe hura. Amets ere egin zuen mutilarekin. Eta horrek erakusten du zenbateraino zegoen asaldatuta, zeren Alicek oso gutxitan izaten baitzituen ametsak. Amets hartan, bere gelako egutegiko indioaren antza zuen gizon batek, eta Jimmie izena zuenak, automobil distiratsu batean etorri eta muxika handi, urtsu bat ematen zion. Berak muxikari kosk egindakoa, ura bere kokotsean behera erortzen zen eta horrek lotsa ematen zion. Orduan amak esnatu egin zuen, zurrungaka ari zelako. Katherinerentzat pozgarria zen bere alabak zurrunka egitea. Biak parekatzen zituen akatsetako bat zen. Baina, aldi berean, ez zen dama bati zegokiona.

Tiburoi Wicksek telegrama bat jaso zuen. «Izaba Nellie hart hil. Hileta larunbatean.» Bere Ford-ean sartu eta John Whitesideren granjara jo zuen, eskola-batzarraren bilerara joaterik ez zuela izango esatera. John Whiteside batzarreko idazkaria zen. Handik abiatu baino lehen, Tiburoik une batez aurpegi kezkatua jarri, eta esan zion:

— Zera galdetu nahi nizun, San Joseko Etxegintza eta Mailegu konpainia horretaz zer iritzi duzun.

John Whitesidek irribarre egin zuen.

— Konpainia berezi horretaz gauza handirik ez dakit —esan zuen.

— Begira, hogeita hamar mila dolar dauzkat banketxean ehuneko hinia emanaz. Pentsatu dut interes handixeagoa ere atera nezakeela han eta hemen begiratzuz gero.

John Whitesidek ezpainak zimurtu, ez tiro hai-zematu eta tapatakoak eman zizkion aire bafadari behatz erakusleaz.

— Horrela, bat-batean, Etxegintza eta Mailegua bezalako apusturik ez duzula esango nuke.

— Oh, ez ditut nik negozioak estilo horretan egiten. Ez dut nik apusturik nahi —eten zion Tiburoik—. Toki batean ez badut etekin ziurrik ikusten, ez naiz sartzen. Apustuzale gehiegi dago.

— Hitz egiteko modua besterik ez da, Mr. Wicks. Etxegintza eta Mailegu konpainia gutxik jotzen dute kiebra. Eta interes onak ematen dituzte.

— Informatu egingo naiz hala ere —erabaki zuen Tiburoik—. Oaklandera joatekoa naiz izeba Nellieren hiletara; San Josen ordu batzuk gelditu eta informatu egingo naiz konpainia horretaz.

Zeruko Belardietako Denetariko Dendan, espekulazio berriak izan ziren gau hartan Tiburoiren aberastasunaren zenbatekoari buruz, zeren Tiburoik bati baino gehiagori eskatu baitzion aholkua.

— Dena dela, gauza bat segurua da —bukatu zuen T. B. Allenek—. Tiburoi Wicksi ziria sartuko dionik ez da. Han eta hemen aholkua eskatu bai, baina ez du inoren iritzia aintzat hartzen berak bere aldetik aztertu arte.

— Oh, ziria sartuko dionik ez da —esan zuten aho batez bertan bildutakoek.

Larunbat goizean Oaklandera joan zen Tiburoi, bere bizitzan aurrenekoz emaztea eta alaba bakarrik utzita. Larunbat ilunabarrean Tom Breman azaldu zen etxean, Katherine eta Alice eskolan ospatzekoa zen dantzaldira eramateko asmoz.

— Oh, ez zait iruditzen Mr.Wicksi gustatuko litzaiokeenik —esan zuen Katherinek, ahots ikaratu eta dardaratiaz.

— Ez joatekorik ez dizue esan, ezta?

— Ez, baina... aurreneko aldiz joan da kanpora. Ez zait iruditzen gustatuko litzaiokeenik.

— Segur aski ez du behin ere horretan pentsatu —lasaitu zuen Tom Bremanek—. Zatozte! Presta zaitezte.

— Joan gaitezen, amatxo —esan zuen Alicek.

Katherinek bazekien bere alabak beldurtzeko ere ergelegia zelako hartzen zuela hain aise erabakia. Alice ez zen ondorioak neurtzeko gauza. Ezin zituen imajinatu Tiburoi etxeratu ondorengo asteak, elkarrizketa oinazetsuz beteak. Katherinek imajinatzen zituen senarraren hitzak. «Ez dut ulertzen zuen atera *nahia*, noiz eta ni hemen ez nintzenean. Bion artean etxea zainduko zenu-telakoan joan nintzen, eta egin zenuten aurreneko gauza korrika dantzaldi batera alde egitea izan zen.» Eta gero galderak: «Norekin egin zuen dantza Alicek? Eta? Zer esan zion mutilak? Zergatik ez zenuen aditu? Aditu egin behar zenuen.» Ez zen Tiburoiren aldetik haserririk

izango, baina asteak joan eta asteak etorri hartaz hitz egingo zuen, hartaz hitz egiten segituko zuen harik eta Katherinerentzat dantzarekin zerikusia zuen guztia gorrotagarri bihurtu arte. Eta hilabetearen une jakin hura heldutakoan, bere galderak ziztuka hasiko ziren eltxoak bezala, Alice ez zegoela familia esperoan seguru jakin arte. Katherinek ez zuen uste dantzaldira joatea merezi zuenik, gero berriketa guzti haiek entzun behar bazituen.

— Joan gaitezen, amatxo —erregutu zion Alicek—. Sekula ez gara inora bakarrik joan.

Errukizko olatu bat altxa zen Katherineren baitan. Neska gaixoak ez zuen bere bizitzan bakarkako une bat izan. Behin ere ez zen mutil batekin txorakeriak esaten egon, zergatik eta bere aitak ez ziolako bere entzueratik aldentzen uzten.

— Ondo da —erabaki zuen arnasa estututa—. Mr. Bremanek prestatu arte itxoiten badigu, *joan* egingo gara.

Oso ausarta sentitu zen, Tiburoiren ezinego-nari haizea ematen ziolako.

Herri txikietako neskentzat gehiegizko edertasuna itsusitasuna bezainbateko kaltea da. Herriko mutilek Aliceri begiratzen ziotenean, korapilatu egiten zitzaien eztarria, esku eta oinak urduritu eta handitu, eta lepoa berriz gorritu. Ez zen harekin hitz egitera edo dantzatzera behartuko zituenik. Horren ordeztan, neska itsusia goekin dantzatzen zuten amorratu beharrean, ume lotsatiak bezain zalapartatsu bihurtu eta bere burua nola nabarmenduko ibiltzen ziren eroaldiak emanda bezala. Bestaldera begira zegoenean, kirika egiten zioten, baina Alicek begiratzen zienean, ahaleginak egiten zituzten haren presentziaz ohartu ez balira bezala jarduteko. Alice, beti horrela tratatu zutenek, ez zen inolaz ere bere edertasunaren jakitun. Ia etsita zegoen hormako loreen status berbera izatera dantzaldietan.

Jimmie Munroe horma apoiatuta zegoen, indiferentzia dotore eta primerako asper itxuraz, Katherine eta Alice eskolako atletik sartu zirenean. Jimmieren praka barrenak hogeita zazpi hatzeko zabalera zuten, bere txarolezko oinetakoak adreiluak bezain koadratuak ziren orpoe-

tan. Lazodun gorbata beltz bat hegaldatzen zen bere zetazko alkandora zuriaren lepoan, eta ileak diz-diz egiten zion buruan. Jimmie hiritarra zen. Aztoxe nagi bat bezalaxe oldartu zen. Alicek txaketa kendu baino lehen, mutila aldamenean zuen. Kolegioan bereganatutako ahots nekatuaz, galdetu zion:

- Dantzarik egin nahi, neska?
- Eh? —esan zuen Alicek.
- Dantza egin nahi al duzu nirekin?
- Dantza, diozu?

Alicek bere begi lausotu, promesaz beteak mutilagana zuzendu, eta galdera tentel hura umoretsua eta zoragarria bihurtu zen; aldi berean, beste hainbat gauza ere adierazten zituen zeharka, Jimmie ziniko hura ere hunkitze-ko eta kilikatzeko modukoak.

«Dantza?», pentsatu zuen esan nahi zuela. «Dantza besterik ez?» Eta kolegioko esperientzia guztiarekin ere, korapilatu egin zen Jimmieren eztarria, bere oin eta eskuak mugitu egin ziren urduritasunez eta odola lepora igo zitzaion.

Alice bere amagana jiratu zen. Mrs. Breman eta biak kontu kontari ari ziren, etxekoandreen sukaldaritzari buruzko erretolika berezi horrekin.

— Amatxo —esan zuen Alicek—, dantza egin al dezaket?

Katherinek irribarre egin zuen.

— Segi ezazu —esan zion. Eta gehitu zuen:

— Ondo pasa ezazu behingoz.

Jimmiak ikusi zuen Alicek txarki dantzatzen zuela. Musika isildu zenean:

— Bero dago hemen barrean. Atera gaitezen buelta bat ematera —proposatu zion.

Eta kanpora eraman zuen, eskolako patioko sahatsen azpira.

Bitartean, ordura arte eskolako portxean egondako emakume batek barrura sartu eta zerbait xuxurlatu zuen Katherineren belarrira. Katherine kolpetik zutitu eta kanpora joan zen korrika.

— Alice! —hots egin zuen amorrarazita—. Alice, etorri hona segituan!

Bikote errebelatua ilunpetatik azaldu zenean, Katherinek Jimmieri ekin zion:

— Alde egin ezazu, aditzen didazu? Alde egin ezazu neska honen aldamenetik edo arazoak izango dituzu.

Jimmieren kemena urtu egin zen. Etxera bidaltzen duten umea bezala sentitu zen. Sentimendua gorrotagarria zitzaion, baina ezin zuen menderatu.

Katherinek eskola barrura eraman zuen alaba.

— Aitak ez al zizun esan Jimmie Munroegana ez inguratzeko? Eh? —galdetu zion. Izututa zegoen Katherine.

— Bera al zen ba? —xuxurlatu zuen Alicek.

— Horixe baietz. Zertan ari zineten hor kanpoan?

— Muxuka —esan zuen Alicek ahots larrituaz. Katherine aho zabalik geratu zen.

— Ai, Jaungoikoa! —esan zuen—. Ai, Jaungoikoa, zer egingo dut?

— Txarra al da, amatxo?

Katherinek kopeta zimurtu zuen.

— Ez... ez, horixe ez dela txarra! —hots egin zuen—. Izan... ona da. Baina zure aitak ez dezala behin ere jakin. Ez esan, galdetzen badizu ere!

Zure aita... begira, erotu egingo litzateke. Gaua bukatu bitartean egon nire ondoan eserita, eta ez berriz Jimmie Munroerengana inguratu, aditzen? Beharbada zure aita ez da enteratuko, Ai, Jaungoikoa, baldinbaitere ez ahal da enteratuko!

Astelehenean Tiburoi Wicks ilunabarreko trenetik jaitsi, Salinasen, eta autobusa hartu zuen Zeruko Belardietara eramaten zuen bidegurutzearaino. Heldu maletari eta etxeraino zeuzkan lau miliak egiteari ekin zion.

Gaua argia, ezta eta izarrez betea zen. Mui-noetako soinu ahul, misterioetsuek ongi etorria eman eta ameskeriak pizten zizkioten buruan, beraz bere pausoez ahaztu zen.

Hileta gustukoa izan zuen. Loreak politik ziren, eta ugariak gainera. Emakumezkoen negarrak eta gizonezkoen hanka-punttako ibile-ra solemneak atsekabe gozo bat eragin zioten Tiburoiri, desatsegina izatetik urrun zegoena. Elizako erritual sakona ere, inork ulertzen edo entzuten ez duena, droga antzeko bat izan zen, bere gorputz eta burmuinetara zuku gozo eta misterioitsuak isuri zituena. Eliza zabaldu eta itxi egin zen bere inguruan ordubetez, eta kontaktu

hartatik usain biziko Torean eta intsentsuzko olatuen bake sentsazio loeragilea atera zuen, eta eternitatearekiko harremanak piztutako emozioa. Gauza horiek ehorzketaren soiltasun handiagatik gertatu ziren bere baitan.

Tiburoik inoiz ez zuen bere izeba Nellie oso ondo ezagutu, baina asko disfrutatu zuen haren hiletan. Modu batera edo bestera, senideei heldua zitzairen bere aberastasunaren berria, begirune eta duintasunez tratatu baitzuten. Une hartan, etxerantz oinez zihoala, gauza horiek errepasatu zituen, eta pozak bultzatuta denbora bizkortu, bidea laburtu eta berehala heldu zen Zeruko Belardietako Denetariko Dendaraino. Tiburoi barrura sartu zen, bai baitzekien dendan norbait aurkituko zuela, bera kanpoan egon bitartean ibarrean izandako gorabeherak kontatuko zizkiona.

T. B. Allenek, jabeak, gertatzen zen guztia jakiten zuen, eta gainera bazekien albiste hutsalenari interesa gehitzen, kontatu nahi ez balu bezala eginez. Zurrumurrutxorik txoroena ere kilikagarri bihurtzen zen T.B. zaharra zenean kontalaria.

Jabeaz gain beste inor ez zegoen dendan Tiburoi sartu zenean. T. B.k horman apoiatutako bere silaren bizkarra beheratu, eta bere begiek jakin-minezko txinpartak bota zituzten.

— Kanpoan ibili omen tara —adierazi zuen konfiantzara gonbidatzen zuen doinuaz.

— Oaklanden izan naiz —esan zuen Tiburoik—. Hileta batera joan beharra izan dut. Aldi berean negozioren bat egin nezakeela pentsatu nien.

T. B.k egokia iruditu zitzaion guztia itxoin zuen xehetasun gehiago eskatu baino lehen.

— Zer berri, Tiburoi?

— Berri? Ez dakit horrela deitzea zuzena den, Konpainia bati buruz informatu naiz.

— Eta dirurik sartu? —galdetu zion T. B.k errespetuz.

— Zertxobait.

Bi gizonek lurrera begiratu zuten.

— Eta hemen zer berri, kanpoan egon naizen bitartean?

Berehala nahieza bezalako zerbait azaldu zen gizon zaharraren aurpegian. Antzematen

zitzaion gertatutakoa esatea ez zuela gustuko, berezko gorrotoa ziola eskandaluari.

— Dantzaldia, eskolan —aitortu zuen azkenean.

— Bai, banekien.

T. B.k sinuak egiten zituen. Antza, borroka bat ari zen gertatzen bere buruan. Zekien guztia Tiburoiri kontatu behar ote zion, Tiburoiren beraren onerako, ala bere golkoan gorde behar ote zuen. Tiburoik jakin-minez segitzen zuen borroka hura. Lehenago ere hura bezalako asko ikusitakoa zen.

— Ea ba, zer gertatu da? —esan zuen, T. B. zirikatzearren.

— Agidanean ezkontzaren bat izango ote dugun luze gabe.

— Bai? Nor?

— Ba zera, urrutira joan beharrik ez dagoela esango nuke.

— Nor? —galdetu zuen Tiburoik berriro.

T. B.k alferrikako beste ahalegin bat egin eta galdu egin zuen borroka.

— Zu —aitortu zuen.

Tiburoik irri egin zuen ezpain artean.

— Ni?

— Alice.

Tiburoi tentetu eta zaharrari begira geratu zen. Gero aurreratu eta aldamenean jarri zitzaion, larderiatsu.

— Zer esan nahi duzu? Argitu zer esan nahi duzun, adiskidea!

T.B.k konprenitu zuen urrutiegi joan zela. Alde egin zuen Tiburoiren ondotik.

— Ez gero, Wicks jauna! Ez gero ezer egin!

— Argitu zer esan nahi duzun! Argitu dena!

Tiburoik sorbaldatik heldu T. B.ri eta amorru biziz astindu zuen.

— Zera, dantzaldiko kontu hura... dantzaldikoa besterik ez.

— Alice dantzaldian izan al zen?

— Bai.

— Zer egiten zuen han?

— Ez dakit. Edo... ezer ez.

Tiburoik silatik indarrean altxarazi eta bere hanka zalantzatien gainean jarri zuen T. B, zakarki.

— Esan! —exijitu zion.

Zaharrak antsi egin zuen.

— Jimmie Munroerekin patiora ateratzea besterik ez zuen egin.

Tiburoik bi sorbaldetatik heltzen zion orain. Zaku bat bezalaxe astindu zuen dendari izutua.

— Esan! Zer egin zuten?

— Ez dakit, Mr. Wicks.

— Esan.

— Ba zera, Miss Burkek... Miss Burkek esan zuen... muxuka ari zirela.

Tiburoik zakua erortzen utzi eta eseri egin zen. Izututa zegoen, hondamendiaren aurrean balego bezala. T. B. Alleni begirazoak bota bitartean, bere adimendua alabaren lohitasunaren ideiarekin lehiatzen zen. Ez zitzaion bururatu ere egin beharbada gertakaria muxu batekin hasi eta bukatu zela. Tiburoik burua mugitu eta bere begiradak batera eta bestera jo zuen dendatik, etsipenak hartuta bezala. T. B.k fusilen bitrina gaintetik pasatzen ikusi zuen haren begirada.

— Ez gero ezer egin, Tiburoi! —hots egin zion—. Fusil horiek ez dira zureak.

Tiburoik ez zituen une hartara arte fusilak ikusi ere egin, baina bere arreta haien aldera zuzendu orduko, salto bat eman, kristalezko ate

korredioa zartako batez zabaldu eta errifle astun bat hartu zuen. Prezioaren etiketa kendu, eta kartutxo kaxa bat poltsikoratu zuen. Gero, dendariari begiratu ere egin gabe, ilunpetara atera zen pauso luzeka. Eta T. B. zaharra telefonoan zen Tiburoiren pauso bizkorrak gauean galdu baino lehen.

Munroe-tarren etxerantz zihoala bizkor-bizkor, Tiburoiren pentsamenduek lehia etsian ziharduten. Pixka bat ibili ondoren, ordea, gauza bat argi ikusi zuen: ez zuen Jimmie Munroe hil nahi. Hari tirorik botatzea ez zitzaion burutik pasa ere egin dendariak ideia aipatu arte. Ondoren, pentsatu gabe jokatu zuen. Zer egin zezakeen orain? Munroe-tarren etxera heldutakoan zer egingo zuen imajinatzen saiatu zen. Agian tiroa bota beharko zion Jimmie Munroeri. Beharbada, gauzek hartutako bideagatik, hilketa burutzea beste erremediorik ez zuen izango Zeruko Belardietan nor izaten jarraitu nahi bazuen.

Tiburoik kotxe bat zetorrela sentitu eta sas-traka artean gorde zen, automobila orroka pasatzen zen bitartean haizearen balbula zabal-zabal zuela. Laster ailegatuko zen Munroe-tarren etxe-

ra, eta ez zuen Jimmie gorrotatzen. Ezer ez zuen gorrotatzen, bakarrik bere buruaz jabetu zen huts sentrazio hura, Alicek bertutea galdu zuela jakitean. Aurrerantzean, ezinbestean, hildako norbaitez bezala pentsatu beharko zuen bere alabaz.

Bere aurrean, Munroe-tarren etxeko argiak ikus zitzakeen orain. Eta Tiburoik konprenitu zuen ezingo ziola Jimmieri tirorik bota. Barre egi-ten bazioten ere ezingo zion mutilari tirorik bota. Bere baitan ez zegoen hilketarik. Hesiaren atetik begiratu bat eman eta bere etxera joatea erabaki zuen. Jendeak barre egingo zion beharbada, baina berak ezin zion inori tirorik bota.

Bat-batean gizon batek sastraka baten geriz-
petik atera eta garrasi egin zion:

— Utzi fusil hori, Wicks, eta altxa eskuak!

Tiburoik lurrean utzi zuen erriflea halako obe-
dientzia nekatu batez. Sheriffaren ordezkariaren
ahotsa ezagutu zuen.

— Kaixo, lagun —esan zion.

Jendeak inguratu egin zuen orduan. Tiburoik
Jimmieren aurpegi ikaratua ikusi zuen beste aur-

pegién atzean. Bert Munroe ere ikaratuta zegoen. Esan zuen:

— Zergatik hil nahi zenuen Jimmie? Ez dizu kalterik egin. T.B. zaharrak hots egin dit telefonoz. Kalte egiterik ez daukazun tokian jarri behar zaitut.

— Ezin duzu kartzelara eramán —esan zuen sheriffaren ordezkariak—. Ez du ezer egin. Gauza bakarra egin zenezake: fidantzapean jarri, bakea ziurtatzeko.

— Egiatan? Hori egin beharko dut hortaz. — Berten ahotsak dardara egiten zuen.

— Fidantza handia eskatzea duzu onena — jarraitu zuen ordezkariak—. Tiburoi oso gizon aberatsa da. Ea ba! Salinasera eramango dugu, eta zeu ere etorri, auzia ipini nahi baduzu.

Hurrengo goizean Tiburoi Wicks adorerik gabe bezala etxeratu eta ohe gainean etzan zen. Begiak motelduta eta nekatuta zeuzkan, baina irekita mantendu zituen. Bere besoak hildako batenak bezain laxa luzatzen ziren bere ondoan. Orduak joan eta orduak etorri, hantxe etzanda jarraitu zuen.

Katherinek, baratzetik, etxera sartzen ikusi zuen. Poz mingots bat sentitu zuen haren sorbalda erori eta burua garraiatzeko modu makalagatik, baina etxera sartu zenean bazkaria prestatzeko, hankapunttaka mugitu zen eta isilik ibiltzeko esan zion Aliceri.

Hiruretan Katherinek logelako atletik begiratu zuen.

— Alice ondo zegoen —esan zuen—. Galdetu egin behar zenidan ezer baino lehen.

Tiburoik ez zuen erantzun eta postura berean geratu zen.

— Ez al didazu sinesten?

Senarraren adore faltak ikara ematen zion.

— Ez badidazu sinesten, medikuari hots egingo diogu, Oraintxe bertan etorraraziko dut, sinesten ez badidazu.

Tiburoik ez zuen burua jiratu.

— Sinesten dizut —esan zuen indarrik gabe.

Atean zutik zegoela, behin ere ezagutu gabeko sentimendu bat jabetu zen Katherineren buruaz. Bere bizitzan sekula imajinatu gabeko gauza bat egin zuen. Kemen epel bat harrotu zen bere barruan. Ohearen ertzean eseri eta,

irmoki helduz, magalean hartu zuen Tiburoiren burua. Sena izan zen hori, eta sen indartsu, irmo berberak bultzatzen zuen bere eskua Tiburoiren kopeta laztantzera. Haren gorputzak hezurgabetua zirudien hondamenaren poderioz.

Tiburoiren begiak ez ziren sabaitik mugitzen, baina laztan haien eraginez, hitz egiten hasi zen totalka.

— Batere dirurik ez daukat —zioen bere ahots monotonoak—. Atxilotu eta hamar mila dolarreko fidantza eskatu didate. Esan egin behar izan diot epaileari. Denek aditu dute. Denek dakite zera... batere dirurik ez daukadala. Behin ere ez dudala eduki. Ulertzen al duzu? Nire liburu hori gezur hutsa zen. Dena gezurra, goitik hasi eta beheraino. Dena asmatua zen. Orain denek dakite. Esan egin behar izan diot epaileari.

Katherinek burua laztantzen zion eztiro eta kemen handi hura hazi eta hazi ari zen bere baitan. Mundua baino handiagoa sentitzen zen. Magalean zeukan mundu osoa eta kontsolatu egiten zuen. Bazirudien errukiak ikaragarriko

estatura ematen ziola. Bere bular bake-emaileek negar egiten zuten munduko atsekabeagatik.

— Ez nion inori kalterik egin nahi —jarraitu zuen Tiburoik—. Ez nion Jimmieri tirorik botako. Atzera jotzeko aukerarik izan baino lehen harra-patu ninduten. Hil egin nahi nuela pentsatu zuten. Eta orain denek dakite. Batere dirurik ez daukat.

Laxa-laxa etzanda segitzen zuen, gorantz begira.

Bat-batean Katherineren kemena botere bihurtu zen, eta boterea parrastadan gorputzetik zabaldu zitzaion eta bere menpean hartu zuen. Momentu bat nahikoa izan zuen zer zen eta zer egin zezakeen jakiteko. Pozez gainezka zegoen, eta inoiz baino ederrago.

— Aukerarik ez duzu izan —esan zuen ezti-ro—. Bizitza guztian granja zahar honetan aritu zara eta ez da zuretzat aukerarik izan. Nola daki-zu ezin duzula dirurik egin? Nik uste dut posible zaizula. Badakit baietz.

Bere burua hartarako gai ikusita esan zituen hitz horiek. Hantxe eserita zegoela, bere botereari buruzko ziurtasuna erne zen bere barruan,

eta bere bizitza guztia une hartaraxe zuzenduta zegoela konprenitu nuen. Une hartan jainkosa zen, patuaren xantrea. Ez zen harritu senarraren gorputza pixkanaka gogortzen hasi zenean. Haren kopeta laztantzen segitu zuen.

— Joan egingo gara hemendik —esan zion salmodia doinu—. Arrantxoa saldu eta alde egin egingo dugu hemendik. Hartara behin ere eduki ez duzun aukera izango duzu. Ikusiko duzu. Nik badakit zer zaren. Zugan sinesten dut.

Tiburoiren begiek beren moteltasun ikaragarria galdu zuten. Bere gorputzak jiratzeko indarra aurkitu zuen. Katherinei begiratu eta une hartan zer ederra zegoen ikusi zuen, eta, begiratzaren bitartean, Katherinearen kemena bere barrura pasa zen. Tiburoik estutu egin zuen gogorki bere burua emaztearen belaunen kontra.

Katherinek burua beheratu eta begiratu egin zion. Ikaratuta zegoen, botereak alde egiten zion une hartan. Bat-batean Tiburoi tentetu egin zen ohean. Ahaztua zuen Katherine, baina bere begiek hark emandako sasoiak distiratzaren zuten.

— Joan egingo naiz laster —hots egin zuen—
. Joan egingo naiz arrantxoa saltzeko modua izan bezain azkar. Orduan nire txanda izango da. Nire aukera izango dut orduan. Zer naizen erakutsiko diot jendeari.

4

Tularecitoren sorrera iluntasunean amiltzen da, eta bere aurkikuntza berriz Zeruko Belardietako biztanleek sinetsi nahi ez duten mitoa da, fantasma kontuak sinetsi nahi ez dituzten bezalaxe.

Franklin Gomezek morroi bat zuen, Pancho izeneko indio mexikar bat, eta besterik ezer ez. Hiru hilabetean behin, Panchok aurreratutako diruak hartzen zituen eta Monterreyra joaten zen bere bekatuak konfesatu, penitentzia bete, absoluzioa jaso eta mozkorra harrapatzera, aipatutako ordenan. Kartzelara sartu-atera bat egin gabe pasatzeko modua baldin bazuen, Pancho bere *buggy*-ra igo eta lotara jartzen zen tabernak ixten zituztenean. Zaldiak etxeraino arrastatzen zuen, juxtu egunsentia baino lehen ailegatzeko zelarik, gosalduta eta lanera joateko nahiko denborarekin. Pancho lo egoten zen beti ailegatzeko zenean; horregatik sortu zuen halako jakinmina arrantxoan, goiz batez, esparrura arrapala-

dan sartu zenean, ez bakarrik esna, baizik eta garrasika bere eztarriaren indar guztiaz.

Franklin Gomezek arropak jantzi eta bere arrantxoko morroiari galde egitera atera zen. Istorioa, bere koherentzia gabeko katramilatik askatu zutenean, honako hau izan zen: Pancho etxerako bidean omen zetorren, beti bezain ernai. Blake-tarren etxetik hurbil, ume bat sentitu omen zuen negarrez kamio bazterreko salbia sastraka artean. Zaldia geldiarazi eta begiratze-ra joan zen, ez baita sarritan gertatzen umeekin horrela topatzea. Eta espero bezala umetxo txiki bat aurkitu zuen lurrean, salbia arteko zabaltokei batean. Tamainagatik, hiru bat hilabete izango zituela pentsatu zuen Panchok. Lurretik jaso eta pospolo bat piztu zuen zer nolako gauza aurkitu ote zuen ikusteko, eta orduan —latzaren latza!— umeak maleziaz begiarekin keinu egin eta ahots sakonez zera esan omen zion: «Begira! Hortz txorrotx-txorrotxak dauzkat.» Panchok ez zuen begiratu. Bota zuen gauza hura bere ondotik, igo zen buggyra eta etxerantz jo zuen arrapaladan, zaldi zaharrari joka latigoaren girtenarekin eta uhurika txakur bat bezalaxe.

Franklin Gomez bere patilei tiraka egon zen puska batean. Panchoren izaera, pentsatu zuen, ez zen histerikoa ezta pattarraren eraginpean ere. Erabat esnatu izanak sastrakan zerbait bazela frogatzen zuen. Azkenik, zaldiari zela jartzeko agindua eman, abiatu eta ekarri egin zuen umea. Ia hiru urtetan ez zuen umeak berriz hitz egin; eta, aztertuta, hortzik ere ez zioten aurkitu. Baina bi kontu horiek ez ziren aski izan lehen adierazpen zital hura egin ez zuenik sinestarazteko Panchori.

Haurrak beso motz, potoloak zituen, eta bernak luzeak, artikulazio kolokatsuekin. Bere buru handiak, lepoaren tarterik gabe, sorbalda itxuragabeki zabalen artean hartzen zuen atsedean. Bere aurpegi txapalagatik, eta bere gorputz bitxiagatik, umeari Tularecito izena eman zioten automatikoki, «Igel Txiki», Franklin Gomezek sarritan Koiote deitzen bazion ere, «zeren», esaten zuen, «mutil honen aurpegian koiotearen aurpegian aurkitzen den antzinako zuhurtasun hura baitago.»

— Baina begiratu bernak, besoak, sorbaldak, Señor —gogorarazten zion Panchok.

Eta hala, Tularecito izena geratu zitzaion. Umetxo deformatu hura nork abandonatu zuen ez zen behin ere jakin. Franklin Gomezek bere arrantxoko patriarkatuan onartu zuen, eta Panchok umearen ardura hartu zuen. Panchok, hala ere, ez zuen behin ere galdu mutilari zion beldur xor hura. Ez urteek, ez penitentzia gogorrek ezin izan zuten Tularecitoren lehen hitz haien eragina ezabatu.

Mutila azkar hazi zen, baina bosgarren urteaz geroztik bere adimenduak ez zuen aurreratu. Sei urterekin Tularecito gai zen gizon baten lanak egiteko. Bere eskuetako behatz luzeak gizon gehienen behatzak baino trebeagoak eta indartsuagoak ziren. Arrantxoan, Tularecitoren behatzez baliatzen ziren. Korapilo zailek ez zioten luzaro aurre egiten. Landareak aldatzeko esku aproposak zituen, behatz samurrak, behin ere kimu berri bati minik egin ez ziotenak edo landare txertatu baten azala zanpatu ez zutenak. Bere behatz errukigabeak gai ziren indioilar bati zintzurra bihurritzeko inolako ahaleginik gabe. Gainera, Tularecitok bazuen beste dohain entretenigarri bat ere. Behatz lodiaren atzazalaz oso itxu-

ra zuzeneko animaliak grabatzen zituen hare-harrarian. Franklin Gomezek koiote nahiz puma, txita nahiz katagorrien efigie txiki ugari zeuzkan bere etxean. Orekan jarritako aztore baten irudia, bi oin hartzen zituen, jangelako sabaitik zintzilik zegoen alanbre batzuen bitartez. Panchok, ez baitzuen umea behin ere gizatiar kontsideratu, modelatzeko gaitasun hura ere munduaz besteko sorreratik zetorkion dohaintzat hartu zuen, Tularecitoren ezaugarri deabruzkoen atal gero eta zabalagoan sailkatuz.

Nahiz Zeruko Belardietako biztanleek Tularecitoren sorrera deabruzkoan sinetsi ez, ezinegona sentitzen zuten hala ere haren aurrean. Bere begiak zaharrak eta lehorrak ziren; bere aurpegiak troglodita tankerako zerbait bazuen. Bere gorputzaren indar handiak eta bere dohain bitxi eta ilunek beste umeengandik bereizten zuten eta larritu egiten zituzten gizon eta andreak.

Gauza bakar batek piztu zezakeen Tularecitoren haserrea. Edozeinek, gizon, andre edo umek, bere eskulan bat axolagabeki hartzen edo puskatzen baldin bazuen, sutan jartzen zen. Bere begiek dizdiz egiten zuten eta bortizki erasotzen

zion profanatzaileri. Horrelakorik gertatu zen hiru aldietan, Franklin Gomezek eskuak eta hankak lotu zizkion eta bakarrik utzi zuen bere ohiko aldarte onera etorri bitartean.

Tularecito ez zen eskolara joan sei urte bete zituenean. Ondorengo bost urteetan, eskualdeko ume eskolatu gabeen arduradunak eta eskola ikuskariak aldian behin kasuari arreta pixkaren bat eskaini zioten. Franklin Gomezek onartzen zuen Tularecitok eskolara joan beharra zeukala eta bidali ere egin zuen behin baino gehiagotan, baina mutikoa ez zen sekula bertaraino ailegatu. Ikara hartzen zuen, eskola desatsegina egingo ote zitzaion, eta beraz ezkutatu egiten zen, besterik gabe, egun batez edo. Hamaika urte izan zituen arte, karga-jasotzaile baten sorbaldak eta lepo-bihurritzaile baten esku eta besagainak, ez zuten lortu legearen indar bateratuek mutiko hura eskolara eramatea.

Franklin Gomezek pentsatu bezala, Tularecitok ez zuen ezertxo ere ikasi, baina beste dohain berri baten frogak azaldu zituen berehala. Ederki marrazten zuen, hare-harrian ederki grabatzen zuen bezala. Miss Martin, maistra, haren

gaitasunaz jabetu zenean, igeltsu puska bat eman eta animalia prozesio bat egiteko esan zion arbelaren luzera guztian. Eskola bukatu eta gero ere lanean aritu zen Tularecito, eta hurrengo goizean desfile txundigarria ageri zen hormetan. Han zeuden Tularecitok noizbait ikusitako animalia guztiak; muinoetako txori guztiak haien gainetik hegaldatzen ziren. Kriskitin suge bat behi baten atzetik arrastatzen zen; koiote bat, isats iletsua harro-harro goratuta, usnaka zihoan txerri baten orpo atzetik. Baziren han katar eta ahuntzak, dortoka eta gopherrak, denak ala denak ere harritzeko moduko xehetasun eta egiaz marraztuak.

Miss Martin jota geratu zen Tularecitoren jenialtasunarekin. Klasearen aurrean goraipatu eta hitz batzuk esan zituen hark marraztutako izaki bakoitzari buruz. Berekiko, jenio hura aurkitu eta sustatzeagatik etorriko zitzaion ospean pentsatzen zuen.

— Askoz gehiago ere egin ditzaket —jakinarazi zion Tularecitok.

Miss Martinek tapatakoak eman zizkion bizkar zabalean.

— Ba egingo dituzu —esan zion—. Egunero marraztuko duzu. Jaungoikoak eman dizun dohain handia da.

Orduan esan berria zuenaren garrantziaz jabetu zen. Makurtu eta begiratu aztertzaile bat eman zien Tularecitoren begi gogorre, poliki-poliki errepikatuz:

— Jaungoikoak ernan dizun *dohainn handia* da.

Miss Martinek erlojuari begiratu eta, zorrotz, iragarri zuen:

— Laugarren mailako aritmetika... arbelera.

Laugarren mailakoak lehian abiatu, ezabailuak hartu eta animaliak kentzen hasi ziren beren zenbakiei tokia egiteko. Bi pasada emateko betarik izan baino lehen, Tularecitok ekin egin zien. Egun handia izan zen. Miss Martinek, eskola guztiak lagunduta ere, ezin izan zuen mutikoa menderatu, zeren Tularecito amorratuak gizon baten indarra baitzuen, gizon ero batena gainera. Ondorengo batailak eskola hondatu zuen, pupitreak irauli, tinta ibaiak isuri, maistraren lore erramileteak gelatik barrena sakabanatu. Miss Martinen jantziak tarratekoz beteta zeuden, eta

mutil handiak, batailaren zama haien gainera erori zenez, mailatuta eta krudelki kolpatuta. Tularecitok esku, hanka, hortz eta buruaz borrokatzen zuen. Ez zuen gizalegezko araurik errespetatzen eta azkenean irabazi egin zuen. Eskola guztiak, Miss Martin erretagoardian zutela, alde egin egin zuen batimendutik, Tularecito amorratua hango jaun eta jabe utzita. Joan zirenean, berak atea giltzaz itxi, begietako odola garbitu eta lanean hasi zen hondatutako animaliak osatzeko.

Gau hartan Miss Martin Franklin Gomezengana joan eta mutilari astindu bat emateko eskatu zion.

Gomezek sorbaldak goratu zituen.

— Benetan esaten al didazu astindu bat emateko, Miss Martin?

Maistraren aurpegia harramazkez beteta zegoen; bere ahoak espresio garratza ageri zuen.

— Halaxe nahi dut, bai —esan zuen—. Ikusi bazenu gaur zer egin duen, ez zenidake ezer aurpegiratuko. Lezio bat behar duela esaten dizut.

Gomezek berriro sorbaldak goratu eta Tularecitori hots egin zion barrakoitik etor zedin. Latigo astun bat hartu zuen hormatik. Orduan, Tularecitok Miss Martini irribarre leun-leuna eskaintzen zion bitartean, Franklin Gomezek kolpe latzak eman zizkion bizkarrean. Miss Martinen eskuak ere jotzeko mugimendu nahigabe-koak egiten zituen. Zigorra bukatutakoan, Tularecitok bere gorputza haztatu behatz luze azter-tzaileekin, eta betiere irribarrez, barrakaira itzuli zen.

Miss Martinek izututa ikusi zuen zigorraren azkena.

— Baina, animalia hutsa da eta! —hots egin zuen—. Zakur bat astintzea bezalaxe izan da.

Franklin Gomezek maistrari zion mesprezioa-
ren arrasto bati bere aurpegira agertzen utzi zion.

— Zakur bat kikildu egingo zen —esan zuen—. Zeuk ere ikusi duzu, Miss Martin. Animalia dela diozu, baina animalia zintzoa, dudarik gabe. Marrazkiak egiteko esan eta gero hondatu egin dizkiozu. Tularecitori ez zaio hori gustatzen...

Miss Martin zerbait esaten saiatu zen, baina Gomezek bizkorrago segitu zuen:

— Igel txiki honek ez luke eskolara joan behar. Lana bai, lana egin dezake; gauza zoragarriak egin ditzake eskuekin, baina ez da kapaza eskolan erakusten diren gauzatxo errazak ikasteko. Ez da eroa, baizik eta Jaungoikoak erabat bukatu gabe uzten dituen horietakoa. Esan nizkion gauza horiek Ikuskariari, eta berak esan zidan legeak eskolara joatera behartzen zuela Tularecito hemezortzi urte bete arte. Zazpi urte falta dira horretarako. Zazpi urtez nire Igel Txikik lehen mailakoekin eseri beharko du legeak hala agintzen duelako. Ulertu ezin dudan gauza da.

— Giltzez itxita eduki beharko lukete —sartu zen Miss Martin—. Ume hori arriskutsua da. Ikusi egin behar zenuen gaur.

— Ez, Miss Martin, libre utzi beharko lukete. Ez da arriskutsua. Inork ez daki berak bezala lorategia zaintzen. Inork ez daki behiak jezten berak bezain azkar eta gozo. Mutil ona da. Gainera igo gabe ere badaki zaldi ardailatua mantsoitzen; jo gabe ere badaki txakurra hezten. Baina legeak dio zazpi urtez lehen mailan eseri

behar duela «K-A-T-U, katu» errepikatzen. Arriskutsua balitz erraz asko hilko ninduen astindu dudanean.

Miss Martinek sentitu zuen bazeudela berak ulertu ezin zituen gauzak, eta gorrotatu egin zuen Franklin Gomez horregatik. Bera miserable hutsa izan zela sentitu zuen, eta hura berriz eskuzabala. Hurrengo goizean eskolara heldu zenean, Tularecito bere aurrean aurkitu zuen. Hormaren tarte guzti-guztiak animaliaz estalita zeuden.

— Ikusten? —esan zion mutikoak, sorbalda gainetik pozez zorutzen begiratzen ziola—. Askoz gehiago. Eta oraindik badaukat liburu bat gehiagorekin, baina horman ez dago denentzako tokirik.

Miss Martinek ez zituen animaliak ezabatu. Eskolako lana paperean egin zuten, baina ikastaldiaren bukaeran uko egin zion bere postuari, osasun txarra jarritz aitzakia bezala.

Miss Morgan, maistra berria, oso gaztea eta oso polita zen; gazteegia eta arriskutsuki polita, pentsatu zuten ibarreko gizon adinduek. Goiko mailetako zenbait mutilek hamazazpi urte bazi-

tuzten. Benetan zalantzan jartzekoa zirudien hain maistra gazte eta politik eskolan inolako diziplinarik mantendu ahal izatea.

Lanerako entusiasmo bizia ekarri zuen berekin. Eskolarentzat txundigarria izan zen, ordu-ra arteko maistra guztiak neskazahar urtetsuak izan baitziren, aurpegietan, zirudienez, oin nekatuena aztarrena zeramatenak. Miss Morgani gustatu egiten zitzaion irakastea, eta eskola, bere eskuetan, gauza ezohikoak gertatzen ziren toki kilikagarria bihurtu zen.

Hasiera-hasieratik inpresio handia egin zion Tularecitok Miss Morgani. Bazekien hari zegokion guztia, liburuak irakurri eta ikastaroak egin zituen hari buruz. Borrokaren istorioa jakin zuelarik, arbelaren goialde guztian tarte bat utzi zuen Tularecitok bere animaliekin bete zezan, eta, hark bere desfilea bukatu zuenean, marrazki-taula handi bat eta arkatz bigun bat erosi zituen bere diruarekin. Handik aurrera Tularecitok ez zuen letrekin nekatu beharrik izan. Egunero bere marrazki-taulan aritzen zen, eta arratsalde-ro modu zoragarrian landutako animalia bat erakusten zion maistrari. Honek ikasgelako hor-

mari josita jarri ohi zituen marrazkiak, arbelen gaisetik.

Ikasleek gogo onez hartu zituzten Miss Morganen berrikuntzak. Klaseak kilikagarriak bihurtu ziren, eta maistrak amorrarazten ospe inbidia-garria lortutako mutilentzat ere interesa galdu zuen eskolari su emateko posibilitateak.

Miss Morganek ohitura bat ezarri zuen, ikasle guztien maitasuna eskuratu ziona. Arratsaldero, ordu erdiz, irakurri egiten zien. Zatika, *Ivanhoe* eta *Talimana* irakurri zizkien; Zane Greyren arrantza istorioak, James Oliver Curwooden ehiza istorioak; *Itsas Otsoa*, *Oihanaren Deia...* ez ume ipuinak, oilo gorri txikia eta azeria eta antzarrari buruzkoak, baizik eta helduentzako istorio interesgarriak.

Miss Morganek ongi irakurtzen zuen. Mutilik elkorrenak ere bereganatu egin zituen, eta ez zuten sekula piperrik egiten zati bat galtzeko beldurrez, eta aurrerantz makurtuta egoten ziren jakin-minez arnaska.

Baina Tularecitok marrazten segitzen zuen bere arreta guztiarekin, soilik aldian behin geldituz maistrari begiarekin keinu egiteko, eta jende

ezezagunari buruzko kontaketa urrun haiek inoren jakin-mina nola esna zezaketen ulertzen saiatzeko. Berarentzat benetako gertaeren kronikak ziren, bestela zergatik zeuden idatzita? Istorioak lezioak bezalakoak ziren. Tularecitok ez zituen entzuten.

Bolada baten ondoren, Miss Morgani iruditu zitzaion haize gehiegi eman ziela ume zaharrenei. Berak gogoko zituen amandre ipuinak, gogoko zuen populazio osoak imajinatzea amandreetan sinetsi eta, ondorioz, ikusi ere egiten zituztenak. Bere ezagun trebatu eta jakintsuen zirkulu seguruan, hala esan ohi zuen sarritan: «Ameriketako kultur inanzioaren parte bat amandreen existentziaren ukapenetik dator, ukapen baldar eta superstiziotsua.» Aldi batez amandre ipuinak irakurtzera dedikatu zuen arratsaldeko ordu erdia.

Orduan aldaketa bat gertatu zen Tularecitoren baitan. Pixkanaka, Miss Morganek bere istorio haiek irakurri ahala elfo nahiz iratxo, maitagarri nahiz ieltxuei buruz, Tularecitoren jakin-mina esnatu egin zen eta arkatz saiatua naginagi geratu zen bere eskuan. Gero Miss Morga-

nek gnomoei buruzko istorioak irakurri zituen, haien bizitza eta ohiturei buruzkoak, eta Tulare-citok arkatza erortzen utzi eta maistraren aldera makurtu zen hitzik ez huts egiteko.

Eskolatik atera eta gero Miss Morganek milia erdiko bidea zeukan apopilo zegoen granjaraino. Bakarrik joatea gustatzen zitzaion, makila batekin kardaberei burua kenduz, edo sasi-zuloetara harriak boteaz galeperrak orroka atera zitezzen. Txakur saltolari, zulo-miatzaile bat lortu behar zuela pentsatzen zuen, emozio haiek berarekin batera biziko zituena, eta ulertuko zuena zer xarma zuten lurreko txuloek eta hosto ihartuen gainean sakabanatutako oinatzek, melankolia bitxiko txorien txistuek eta lurretik isilka ateratako usain biziak.

Arratsalde batez Miss Morganek klerazko haitz baten malda igo zuen, gain lau eta zurian bere inzialak grabatu asmoz. Gorakoan urratua egin zuen behatzean arantza batekin, eta inzialen ordeztu, zera harramazkatu zuen: «Hemen izan naiz eta nire parte hau utzi dut», eta klera-

harri zupatzailearen kontra estutu zuen behatz odoldua.

Gau hartan, eskutitz batean, honela idatzi zuen: «Bizi eta ugaltzeko nahitaezkoa zaionaz gain, gizonak batez ere bere buruaren aztarren bat utzi nahi du, froga bat edo, benetan existitu duela adierazten duena. Bere froga hori egurrean, harrian edo beste jendearen bizitzan uzten du. Desira sakon hori denon baitan dago, hasi komun publikoetan hitz lizunak idazten dituen mutilagandik eta bere irudia arrazaren gogoan grabatzen duen Budarekin bukatu arte. Bizitza hain da irreal. Nik uste bagarela ere dudatan jartzen dugula zinez, eta baietz frogatu nahian goazela mundutik barrena.» Eskutitzaren kopia bat gorde zuen.

Gnomoei buruz irakurtzen jardundako arratsalde hartan, etxerantz zihoala, kamio bazterreko belarrak zirti-zartaka hasi ziren une batez, eta Tularecitoren buru itsusia agertu zen.

— Oh! Beldurtu egin nauzu —hots egin zuen Miss Morganek—. Ez zenuke hain ustekabean azaldu behar.

Tularecito altxa zen eta irribarre egin zuen lotsatuta, sonbreirua izterraren kontra astinduz. Bat-batean Miss Morganek beldurra handitzen sentitu zuen bere barruan. Kamioan ez zegoen inor... inuzenteei buruzko istorioak irakurriak zituen. Nekez menderatu zuen bere ahots dardaratia.

— Zer... zer nahi duzu?

Tularecitok zabalki irribarre egin eta astindu gogorragoa eman zion sonbreiruari.

— Patxadan etzanda zeunden, ala zerbait nahi duzu?

Mutila zerbait esaten saiatu zen, eta gero bere irribarrearen atzean babestu zen berriro.

— Beno, ez baduzu ezer nahi, aurrera segituko dut —airean alde egiteko prest zegoen.

Tularecitok beste ahalegin bat egin zuen.

— Beste jende hori dela-eta...

— Zer jende? —galdetu zuen Miss Morganek zorrotz—. Zer du jendeak?

— Liburuko beste jende hori dela-eta...

Miss Morgan, arinduta, barre eta barre hasi zen, buru atzean ilea askatzen ari zitzaiola antzeman arte.

— Zer esan... zer esan nahi duzu... gnomoak? Tularecitok baiezkoa egin zuen buruaz.

— Zer jakin nahi duzu beraiei buruz?

— Sekula ez dut horrelakorik ikusi —esan zuen Tularecitok. Bere ahotsak ez zuen gorabeherarik egin, nota baxu bakar batean mantendu zen.

— Begira, nik uste oso jende gutxik ikusten dituela.

— Baina bazirela banekien.

Miss Morganen begiak kizkurtu egin ziren jakin-minez.

— Ah bai? Nork esanda zenekien?

— Inork esan gabe.

— Ez dituzu sekula ikusi, eta inork ez dizkizu aipatu? Hortaz nola jakin zenezakeen bazirela?

— Banekien, besterik gabe. Sentitu egingo nituen, beharbada. Ondo asko ezagutu ditut liburuan.

Miss Morganek pentsatu zuen: Zertan ukatu behar diot gnomoen kontu hori ume xelege, osatu gabeko honi? Ez al litzateke bere bizitza aberatsagoa eta zoriontsuagoa izango badirela sinetsiko balu? Eta zer kalte egingo lioke horrek?

— Behin ere saiatu a zara bakarren bat bilatzen? —galdetu zion.

— Ez, ez naiz bila ibili. Banekien bazirela, besterik gabe. Baina orain bila hasiko naiz.

Miss Morgan txoratzen zegoen egoera haren aurrean. Non idatzia bazuen paper hartan, non grabatua bazuen haitz hartan. Istorio zoragarri bat grabatu ahal izango zuen, liburuetako istorio guztiak baino askoz benetakoagoa izango zena.

— Non hasiko zara bila? —galdetu zion.

— Zuloak egingo ditut lurrean —esan zuen Tularecitorik lasai asko.

— Baina gnomoak gauean bakarrik ateratzen dira, Tularecito. Gauetz zaindu beharko dituzu. Eta bakarren bat aurkituz gero nigana etorri eta esan egin beharko didazu. Konforme?

— Bai, konforme —onartu zuen.

Maistra abiatu zenean, mutikoa atzetik begira geratu zitzaion. Etxerako bidean, Miss Morganez bila eta bila imajinatu zuen Tularecito gauaren erdian. Gustatu egin zitzaion irudia. Agian aurkitu ere egingo zituen gnomoak, agian haiekin bizi eta hitz egin ere egingo zien. Hitz erakarle gutxi batzuekin Tularecitoren bizitza irreal

eta liluragarria izatea lortu zuen, eta inguruan zituen bizitza ergeletatik bereizia. Mutikoaren bilaketa hark inbidia sakona ematen zion Miss Morgani.

Ilunabarrean Tularecitok bere txamarra jantzi eta pala bat hartu zuen. Erreminten estalpetik ateratzera zihoan unean Pancho zaharra azaldu zitzaion.

— Nora hoa, Igel Txiki? —galdetu zion.

Tularecitok hanka mudatu zuen, ezinegenez atzerapenagatik.

— Ilunpetara noa. Gauza berria ote da ba?

— Baina zergatik hartu duk pala? Urrea ote dagoen edo?

Mutilaren aurpegia gogortu egin zen bere asmoaren seriotasunaz.

— Aitzurrera noa, lurpean bizi den jende txikia bilatzeko.

Hura entzutean, Pancho bere onetik atera zen izu-izu eginda.

— Ez hadi joan, Igel Txiki! Entzun hire adiskide zaharrari, Jainkoaren aurrean hire aita den honi, eta ez hadi joan! Han sastraka artean aurkitu hindudan, eta salbatu deabruengandik, hire

senideengandik. Orain Jesusen anaia txikia haiz. Ez hadi itzuli hire jendeagana! Entzun gizon zahar honi, Igel Txiki!

Tularecitok begiak lurrari josi eta bere pentsamendu zaharrak informazio berri honen argitan aztertu zituen.

— Nire jendea dela esan duzu —hots egin zuen—. Ni ez naiz besteak bezalako ez eskolan eta ez hemen. Hori badakit. Mira sentitzen dut lur hotzaren sakonean bizi den nire jendeagatik. Katagorri txulo baten ondotik pasatzen naizenero, arrastaka barrura sartu eta nire burua bertan ezkutatzeko gogoia izaten dut. Nire jendea ni bezalako da, eta hots egin egin didate. Etxera itzuli beharra daukat, Pancho.

Panchok atzera jo eta behatz gurutzatuak goratu zituen.

— Hoa hortaz deabruagana, hire aitagana. Ni ez nauk behar bezain zintzoa deabrukeria honi aurre egiteko. Santu bat beharko litzateke horretarako. Baina begira! Behinik behin seinalea egingen diat hire eta hire arraza guztiaren kontra.

Eta airean, bere aurrean, gurutze babesemailea egin zuen.

Tularecitok tristeki irribarre egin eta, buelta eman, muinoetarantz jo zuen.

Bere etxerantz zihoala, Tularecitok pozez gainezka zeukan bihotza. Bizitza guztian arrotz izan zena, erbesteratu bakartia, etxera zihoan orain. Betiko moduan, lurraren mintzoak aditu zituen: zintzarrien hots urruna, zirikatu duten galeperraren murmurioa, gau hartan kantatzeko asmorik ez zuen koiote baten ulu ahula, milioi bat intsekturen nokturnoak. Baina Tularecitok beste soinu bat aditu nahi zuen, hanka biko izakien mugimendua, eta ezkutuko jendearen mintzo isilak.

Halako batean gelditu eta hoska hasi zen: «Aita, etxean naiz», eta ez zuen erantzunik aditu. Katagorri txuloen barrura xuxurlatu zuen: «Non zarete, nire senideok? Ez da ezer, bakarrik Tularecito, etxera datorrena.» Baina ez zen erantzunik izan. Are okerragoa, gnomoak hurbil zeudenik ere ez zitzaion iruditzen. Bazekien orkatz eme bat eta oreinkume bat jaten ari zirela handik urrutira gabe; bazekien, ikusi ezin bazituen ere, basakatu bat zelatan ari zitzaiola untxi bati sastraka baten atzetik; baina gnomoen aldetik mezurik ez zitzaion heltzen.

Azukrezko ilargia azaldu zen muino artetik.

— Orain animaliak jatera aterako dira —esan zuen Tularecitok erdi inuzenteen zurrumurru papera bezain finean—. Jendea ere atera egingo da orain.

Sastraka bukatu egiten zen ibar txiki baten ertzean eta baratz batek hartzen zuen haren tokia. Zuhaitzak hostoz lepo zeuden, eta lurra ederki landua. Bert Munroeren baratza zen. Lehen, saila abandonatuta eta fantasmarik gabe zegoenean, Tularecito sarritan etorri ohi zen gauzez hona, lurrean etzatera, zuhaizpean, eta izarrak harrapatzera behatz samurrekin.

Baratzera sartu orduko, etxera hurbiltzen ari zela jakin zuen. Ez zituen aditzen, baina baze-kien gnomoak hurbil zeudela. Behin eta berriro hots egin zien, baina ez ziren etorri.

— Beharbada ez zaie gustatzen ilargiaren argia —esan zuen.

Muxika handi baten oinean egin zuen bere zuloa, oso sakona eta alderik alde hiru oin bazi-tuena. Lan hartantxe jardun zuen gau osoan, aldian behin entzuteko geldituz eta ondoren zuloa geroz gehiago sakonduz lur freskoan.

Nahiz ezer aditu ez, sinetsita zegoen hurbiltzen ari zela haiengana. Ez zuen etsi eguna zabaldu arte, eta, orduan, sastraka artera erretiratu zen lotara.

Goizerdian Bert Munroe koiote tranpa bati begiratzera atera eta zuloa aurkitu zuen zuhaitzaren oinean. «Zer demonio ordea», esan zuen. «Mutikoren batzuk ibiliak izango dira tunela egiten. Arriskutsua da! Lurra gainera amilduko zaie, edo norbait barrura erori eta mina hartuko du.»

Atzera etxera joan, pala hartu eta zuloa bete zuen.

— Manny —esan zion seme gazteari—, ez hintzen ba hi ibiliko baratzean aitzurrean, ezta?

— Ez! —esan zuen Mannyk.

— Eta? Ba al dakik nor ibili den?

— Ez! —esan zuen Mannyk.

— Beno, norbaitek zulo handi bat egin dik hor kanpoan. Arriskutsua duk. Esan mutilei ez horrelako zulorik egiteko, bestela lurrak azpian harapatuko dizkik.

Iluna etorri eta Tularecito sastraka artetik atera zen berriro ere bere zuloari ekiteko. Goraino beteta aurkitu zuenean, animalia basati

baten orroa egin zuen, baina gero besterik pen-
tsatu eta barrez hasi zen. «Hemen zegoen jen-
dea» esan zuen pozik. «Ez zekiten nor zen, eta
beldurtu egin ziren. Zuloa bete dute, gopherrek
egiten duten bezalaxe. Oraingoan gorde egingo
naiz, eta zuloa betetzera etortzen direnean, nor
naizen esango diet. Orduan maitatu egingo
naute.»

Eta Tularecitok zuloa zabaldu eta askoz sako-
nagoa egin zuen lehen baino, zeren lurraren
parte handi bat harrotuta baitzegoen. Eguna
argitu baino lehentxeago, baratz ertzeko sastra-
ka artera erretiratu, eta lurrian etzan zen zelata
egiteko.

Bert Munroe berriro ere bere tranpari begira-
tzera atera zen gosaldu aurretik, eta berriro ere
zulo irekia aurkitu zuen. «Deabrutxo horiek!»
hots egin zuen. «Lehenagoan segitzen dute, eh?
Apustu egingo nuke Manny ere tartean dabile-
la.»

Une batez zuloa aztertu eta segidan lurra
barrura botatzen hasi zen oinaren saihetsaz.
Marru basati batek buelta emanarazi zion. Tula-
recito gainera zetorkion, igel bat bezalaxe salto-

ka bere berna luzeen gainean eta bere palari eraginez garrote bat balitz bezala.

Jimmie Munroe aitari hots egitera etorri zenean, gosaltzera joan zedin, lur muntoaren gainean erorita aurkitu zuen. Odola zerion ahotik eta kopetatik. Lur palakadak ateratzen ziren zuloatik hegaka.

Jimmiek pentsatu zuen norbaitek hil egin zuela bere aita eta gorpua lurperatzera zihoala. Korrika etxera joan, izuak jota, eta bizilagun batzuei telefonatu zien etor zitezzen.

Dozena erdi bat gizon arrastaka heldu ziren zuloaraino. Tularecitok lehoi zauritu batek bezala borrokatu zuen, eta bai bere postuari eutsi ere, bere pala harekintxe buruan eman zioten arte. Gero lotu eta kartzelara eraman zuten.

Satinasen sendagile batzar batek mutila aztertu zuen. Medikuek galderaren bat egiten ziotenean, berak leun-leun irribarre egin eta ez zuen erantzuten. Franklin Gomezek zekien guttia esan zion batzarrari, eta Tularecitoren kustodia eskatu zuen.

— Benetan diotsut ezin dugula hori egin, Mr. Gomez —esan zuen azkenean epaileak—. Mutil

ona dela diozu. Eta atzobertan gizon bat hiltzeko ahalegina egin zuen. Konprenitu behar duzu ezin dugula libre utzi. Orain ez bada geroago, norbait hiltzea lortuko du.

Deliberazio labur baten ondoren, Napara bidali zuten Tularecito, ero kriminalentzako etxera.

5

Helen Van Deventer emakume altua zen, aurpegi egoki, zorrotza zuena, eta begi tragikoak. Tragediaren kontzientzia bizi batek zeharkatzen zuen bere bizitza guztia. Hamabost urterekin alargun itxura eduki zuen norbaitek bere katutxo pertsiarra pozoitu ondoren. Sei hilabetez dolutu zen harengatik, ez nabarmenki, baizik ahots ito eta jokaera isilez. Bere aita hil zenean, katutxoaren sei hilabete haien ondoren, doluak etenik gabe jarraitu zuen. Antza zenez tragedia gosea sentitzen zuen Helenek, eta bizitzak erruz eskaintzen zion halakorik.

Hogeita bost urte zituela Hubert Van Deventerrekin ezkondu zen, ehiztari musugorri bat, urtean sei hilabete mota bateko edo besteko izakiren bat tiroz bota nahian pasatzen zituena. Ezkondu eta hiru hilabetera bere buruari bota zion tiroa, masusta lahar batekin estropezu egin da. Hubert nahiko gizon ausarta zen. Zuhaitz baten azpian hilzorian zegoela, bere kide batek

emaztearentzat mezuren bat utzi nahi ote zuen galdetu zion.

— Bai —esan zuen Hubertek—. Esan ni ere liburutegian disekatuta jartzeko, orein-altze arra eta ahariaren arteko tartean! Esan hau ez dioda-la gidariari erosi!

Helen Van Deventerrek itxi egin zuen saloia bertako trofeo guztiekin. Handik aurrera gela hura Huberten izpirituari eskeinia egon zen. Gortinak bilduta egoten ziren. Saloi hartan hitz egiteko premia sentitzen zuenak isilka hitz egiten zuen. Helenek ez zuen negarrik egin, ez baitzegoen bere izaeran negar egitea, baina bere begiak handiagoak egin ziren, eta sarritan joanda bezala egon ohi zen, beste garaietara bidaiatzen duenaren begirada espresio gabeaz. Hubertek Russian Hill-eko etxea utzi zion, San Francisco, eta fortuna koxkor bat ere bai.

Bere alaba Hilda, Huberten heriotza baino sei hilabete geroago jaioa, haur polita zen, panpina bat bezalakoxea eta bere amaren begi handi berberak zituen. Hilda ez zen behin ere oso ongi egoten; erraztasun harrigarritz harrapatzen zituen umeen gaitz guztiak. Bere jenioa, hasie-

ran garrasi egite hutsarekin agortzen zena, hondatzaile bihurtu zen batetik bestera mugitzeko gai izan zenean. Zirtzilatu egiten zituen bere haserrearen bidean egokitutako gauza hauskor guztiak. Helen Van Deventerrek kontsolatu eta mimatu egiten zuen, eta gehienetan ez zuen lortzen Hildaren jenioa okerragotzea besterik.

Hildak sei urte zituela, Phillips doktoreak, familiako medikuak, Mrs. Van Deventerrek aspalditik susmatzen zuena aipatu zuen.

— Onartu beharra daukazu Hilda ez dagoela erabat ondo burutik —esan zion—. Psikiatra batengana eramateko esango nizuke nik. Amaren begi ilunak zabaldu egin ziren atsekabez.

— Ziur al zaude, jauna?

— Nahiko ziur. Ez naiz espezialista. Nik baino gehiago dakien norbaitengana eraman beharko duzu.

Helenek apartatu egin zituen begiak medikuagandik.

— Nik ere pentsatu izan dut hori, jauna, baina ezin dut beste gizon batengana eraman. Zuk zaindu gaituzu beti. Zu ezagutzen zaitut. Beste gizon batekin ezingo nintzateke ziur egon.

— Zer esan nahi duzu «ziur» horrekin? — lehertu zen Phillips doktorea—. Ez al dakizu garaiz hartuz gero senda genezakeela?

Helenen eskuak goratu egin ziren apur bat, eta gero berriro erori, etsita.

— Behin ere ez da ondo jarriko, jauna. Garai txarrean jaio zen. Bere aitaren heriotza... gehiegi izan zen niretzat. Ez nuen indarrik bildu haur perfektu bat erditzeko.

— Hortaz zer asmo duzu? Zure burutazio horrek zentzurik ez du, atrebentziarekin esanda.

— Zer egin liteke, jauna? Itxoin eta esperantza izan. Badakit ez dudala amore emango azkenerraino, baina ezin dut beste gizon batengana eramanez. Nik zainduko dut eta nik hartuko dut bere ardura. Dirudienek, horrelakoxea izan behar du nire bizitzak.

Irribarre egin, oso modu tristean, eta bere eskuak goratu egin ziren berriro.

— Iruditzen zait nahita jartzen dizkiozula zailtasunak zeure buruari —esan zion sendagileak haserre.

— Ematen zaiguna hartu beharra daukagu. Etsiko dut. Seguru dakit, eta harro nago horre-

taz. Ez dago nire pazientzia hautsi dezakeen tragediarik. Baina bada gauza bat eraman ezin dudana, jauna. Ezin didate Hilda ondotik kendu. Nirekin edukiko dut, eta zu beti bezala etorriko zara, baina beste inork ez du tartean sartu behar.

Phillips doktorea gogaituta joan zen etxetik. Emakumearen egonarri hark, nabaria eta alferrikakoa, sutan jartzen zuen beti. «Neu banintz Patua», pentsatu zuen, «bere erresistentzia patxadatsu hori xahutzeko tentazioa sentituko nuke neuk ere.»

Hori gertatu eta denbora gutxira Hilda bisioak eta ametsak izaten hasi zen. Gaueko izaki ika-ragarriak, atzapar eta hortzekikoak, hil nahian etortzen zitzaizkion lotan zegoela. Gizontxo itsusiek atximur egiten zioten eta hortz-karraska hasten zitzaizkion belarrira, eta Helen Van Deventerrek bera frogan jartzera etorritako pertsonaia berriak bezala hartu zituen bisioak.

— Tigre bat etorri eta sobrakamari tiraka ibili da —hots egiten zuen Hildak goizean.

— Ez ametitu ikara zaitzan, laztana.

— Baina hortzak sartu nahi zituen tapakitik barrena, ama.

— Gaur gauean zure ondoan eserita egongo naiz, bihotza. Hala ez du etortzerik izango.

Egunsentira arte neskatoaren ohe ondoan geratzeko ohitura hartu zuen. Bere begiak distiratsuagoak eta sukartsuagoak egin ziren bere izpirituaren erresistentzia frenetikoarekin.

Bazen gauza bat ametsek baino kezka handiagoa sortzen ziona. Hilda gezurak esaten hasia zegoen.

— Gaur goizean lorategira atera naiz, ama. Gizon zahar bat zegoen kalean eserita. Bere etxera joateko eskatu dit, eta joan egin naiz. Urrezko elefante handi bat zeukan eta haren gainean ibiltzen utzi dit.

Neskatoaren begiek urrutira begiratzen zuten ipuina asmatzerakoan.

— Ez horrelakorik esan, bihotza —erregutzen zion amak—. Badakizu ez duzula horrelakorik egin.

— Egin dut ordea, ama. Eta gizon zaharrak erloju bat eman dit. Erakutsiko dizut. Begira.

Eskumuturreko erloju bat atera zuen, diamanitez apaindua. Erlojua hartzerakoan, Helenen eskuak dardara egiten zuen izututa. Segundo batez bere aurpegiak ohiko erresistentzia itxura galdu zuen, eta haserreak hartu zuen haren tokia.

— Nondik atera duzu, Hilda?

— Gizon zaharrak eman dit, ama.

— Ez, esan non aurkitu duzun! Aurkitu egin duzu, ezta?

— Gizon zaharrak eman dit.

Erlojuaren atzealdean monograma bat zegoen grabatuta, inziale batzuk Helenek ezagutzen ez zituenak. Letra grabatu haiexei begira geratu zen, etsipenez. «Amak gordeko du han», esan zuen zakarki. Gau hartan isilka lorategira atera, palatxo bat hartu eta lur azpian gorde zuen erlojua. Aste hartan burdinazko hesi handi bat altxarazi zuen lorategiaren inguruan, eta aurrerantzean Hildak ez zuen behin ere bakarrik ateratzerik izan.

Hamahiru urte zituela, Hildak etxetik ateratzea lortu eta ihesari eman zion. Helenek detektibe pribatuak kontratatu zituen aurki zezaten,

baina, lau egun geroago, polizia batek aurkitu zuen Hilda Los Angeleseko konpainia inmobiliario baten bulego abandonatuan lotan zegoela. Helenek polizia-etxera joan behar izan zuen bere alaba libratzera.

— Zergatik egin zenuen ihes, bihotza? —galdetu zion.

— Ba zera, pianoa jo nahi nuelako.

— Baina etxean badaukagu bat eta. Zergatik ez zenuen gure pianoa jo?

— Oh, bestelako bat jo nahi nuen, handietako bat.

Helenek Hilda magalean hartu eta besarkatu egin zuen indarrez.

— Eta zer egin zenuen orduan, laztana?

— Kanean nengoen eta gizon batek bere kotxera igotzeko eskatu zidan. Bost dolar eman zizkidan. Gero ijito batzuk aurkitu eta haiekin bizitzera joan nintzen. Erregina egin ninduten. Gero ijito gazte batekin ezkondu nintzen, eta haur txiki bat izatera gindoazen, baina nekatuta sentitu eta eseri egin nintzen. Orduan polizia batek hartu ninduen.

— Laztana, nire laztan gaixo hori —erantzun zion Helenek—. Badakizu hori ez dela egia. Esan duzun guztian egia izpirik ez dago.

— Egia da ordea, ama.

Helenek Phillips sendagileari hots egin zion.

— Ijito batekin ezkondu zela dio. Ez duzu pentsatuko... ez duzu benetan pentsatuko horrelakorik egin zezakeenik, ezta? Ezingo nuke burutu.

Sendagileak arretaz begiratu zion neskatoari. Bere azterketa amaitutakoan ia maltzurki mintzatu zen.

— Esan nizun espezialista baten eskuetan jarri behar zela.

Neskatoagana hurbildu zen.

— Azkenaldi honetan izan al da andre zahar gaiztoa zure logelan, Hilda?

Hildaren eskuak larritu egin ziren.

— Atzo gauean tximino batekin etorri zen, tximino ikaragarri handi batekin. Kosk egin nahi izan zidan.

— Beno, gogoan izan ezin dizula minik egin, ni zutaz arduratzen naizelako. Andre zahar horrek beldurra dit niri. Berriro etortzen bada,

esan nik zaintzen zaitudala eta ikusiko duzu zer azkar alde egingo duen.

Neskatoak irribarre egin zuen, nekatu antze-
ra.

— Tximinoak ere alde egingo al du?

— Horixe. Eta, bide batez esanda, tori kara-
meluzko makilatxo hau zure alabarentzat.

Mentazko barratxo arraiadun bat atera zuen
poltsikotik.

— Han Babetteri eman beharko zenioke. Hala
du izena, ezta?

Hildak gozokiari heldu eta gelatik alde egin
zuen.

— Horra ba! —esan zion sendagileak Heleni—
. Zoritxarrez ezagupen eta esperientzia faltan
nago, baina gauza bat seguru dakit. Hilda askoz
okerrago jarriko da. Bere heldutasunera ailega-
tzen ari da. Aldaketa garai horrek, berarekin
dakartzan gainezkakeria emozionalekin, areago-
tu egiten ditu beti buruko gaitzak. Ezin dut esan
zer gertatuko den. Hiltzaile joera har lezake edo
estreina ikusitako gizonezkoarekin alde egin
lezake. Ez baduzu esku adituetan uzten, ez
baduzu zer edo zer egiten ondo zain dezaten,

damutuko zaizun zerbait gerta liteke. Azken ihes hau abisu bat besterik ez da izan. Ezin duzu horrela jarraitu. Zeuretzat ere ez da bidezkoa.

Aurrean zeukan Helen, tente-tente eserita. Sendagileari halako amorrazioa ematen zion erresistentzia hura ageri zuen aurpegian.

— Zer proposatzen didazu? —galdetu zuen lehor.

— Eroentzako ospitale bat —esan zuen Phillips doktoreak, eta gustatu egin zitzaion bere erantzunaren zakartasuna.

Helenen aurpegia gogortu egin zen. Bere erresistentzia tinkoxeagoa bihurtu zen.

— Ez dut egingo! —oihukatu zuen—. Nirea da, eta neu naiz bere erantzule. Neu geratuko naiz berarekin, jauna. Ez dut bistatik galduko. Baina ez dut etxetik bidaliko.

— Ondorioak ezagutzen dituzu —esan zuen sendagileak latz.

Orduan, abailduta sentitu zen emakume harekin arrazoitzerik ez zegoelako.

— Zure adiskidea naiz aspalditik, Helen. Zer dela-eta hartu behar duzu zeure gain miseria eta arrisku karga hau?

— Edozerekin burutzeko kapaz naiz, baina ezin dut etxetik bidali.

— Zilizioa maite duzu —esan zuen marmarka sendagileak—. Minak plazer ematen dizu. Ez zenuke inolaz ere tragedia izpirik huts egin nahi.

Sutan jarri zen.

— Helen, lehenago edo geroago gizon guztiek sentitzen dute emakume bati jotzeko gogoia. Gizon baketsua naizelakoan nago, baina orain-
txe bertan gustura emango nizuke matraileko bat.

Helenen begi ilunetara begiratu, eta haren bizkarrean tragedia berri bat jartzea besterik ez zuela egin ikusi zuen; ez zuela lortu pairatu beharreko egoera berri bat ematea besterik.

— Eta orain banoa —esan zuen—. Ez gehiago niri hots egin. Egiatan esaten dizut: gorrotoa sentitzen hasi naiz zugana.

Zeruko Belardietako jendeak interes eta arranguraz jakin zuen andre aberats bat zetorrela ibarrean bizitzera. Enbor eta oholez betetako kamioikadak ikusi, Christmas Canyon delakoa

igotzen, eta barre egin zuten mespretxu apur batez txabola batentzako enborren garraioan botatzen ari ziren diruagatik. Bert Munroe Christmas Canyon-en goi parteraino igo eta etxea altxatzen ari ziren arotzei begira egon zen egun erdi batez.

— Polita izango da —eman zuen jakitera Denetariko Dendan—. Enbor guztiak primerakoa dira, eta, zer iruditzen zaizue!, lorazainak lanean ari dira dagoeneko. Landare handiak eta zuhaitzak ekarri, denak loretan, eta lurrean jartzan dituzte. Van Deventer andre horrek oso aberatsa izan behar du.

— Erraz gastatzen dute behintzat dirua —ametitu zuen Pat Humbertek—. Jende aberats horrek bai dirua erraz gastatu.

— Eta, entzun beste kontu bat —jarraitu zuen Bertek—. Emakumeen gauzak, ez didazue ezeztzik esango. Ea asmatzen duzuen zer ari diren jartzen leiho batzuetan... barroteak! Ez burdinazkoak, baizik haritzezko barrote handi, lodi batzuk. Dama zaharra koioteen beldur da, inondik ere.

— Zerbitzari asko ekarriko ote dituen ari nintzen pentsatzen. —T. B. Allenek itxaropenez hitz egiten zuen—. Baina, edozein modutara, apustu egingo nuke hirian erosiko dituela gauza guztiak. Horrelako jendeak hirian egiten du erosketa.

Etxea eta lorategia osatu zituztenean, Helen Van Deventer eta Hilda, Txinako sukaldari bat eta Filipinetako zerbitzari bat Christmas Canyon-dik gora igo ziren automobilean. Etxe ederra zen, enborrez egina. Arotzek enborrak zahartu zituzten azidoekin, eta lorazainek beren obrak aspaldiko lorategi baten itxura izatea lortu zuten. Erramu eta haritzak belazean utzi zituzten, eta haien gerizpean zinerariak hazten ziren, zuriak, urdinak eta purpura kolorekoak. Bidexken ertzetan urdintasun sinestezineko lobeliak zeuden.

Sukaldariak eta morroiak beren postuetara jo zuten berehala, baina Helenek Hildari besotik heldu eta lorategira atera ziren paseo bat ematera.

— Ez al da ederra! —hots egin zuen Helenek. Bere aurpegiak ohiko erresistentziaren parte bat

galdua zuen—. Bihotza, ez al zaizu iruditzen gus-
tura biziko garela hemen?

Hildak zineraria bat zuztarretik atera eta
haritz enbor bati joka hasi zen bere harekintxe.

— Nahiago nuen gure etxea.

— Baina zergatik, bihotza? Ez geneukan hain
lore politik, eta ezta horrelako zuhaitz handirik
ere. Hemen egunero joango gara mendira
paseatzera.

— Nahiago nuen gure etxea.

— Baina zergatik, bihotza?

— Ba nire lagun guztiak han zeudelako. Hesi-
tik begiratu eta jendea ikus nezakeen pasatzen.

— Beste etxea baino gehiago gustatuko zaizu
hau, Hilda, ohitzen zarenean.

— Ez. Sekula ez zait hau gustatuko, sekula.

Hilda negarrez hasi zen, eta gero, tarterik
gabe, amorrazioz garrasika. Bat-batean lorategi-
ko arba bat lurretik atera eta bularrean jo zuen
ama bere harekin. Zerbitzaria neskaren atzean
azaldu zen isil-isilik, eta besoetatik heldu eta
etxe barrura eraman zuen, ostikoka eta garrasi-
ka.

Berarentzat prestatutako gelan, Hildak altzari guztiak hautsi zituen, metodikoki. Burkoei tarratekoak egin eta lumak sakabanatu zituen. Azkenean leihoko kristalak hautsi, haritzeko barroteak kolpatu eta garrasi egin zuen amorrazioz. Helen bere gelan eserita zegoen, ezpainak itxi-itxi eginda. Halako batean tentetu egin zen Hildaren gelara joateko bezala, eta gero berriro bere besaulkian hondoratu zen. Une batez, bere erresistentzia mutu hark ia-ia alde egin zion, baina segituan itzuli zitzaion sekula baino indartsuago, eta Hildaren gelatik zetozen deiadarrek ez zuten eraginik izan.

Morroia gela barrura lerratu zen.

— Pertsianak itxi, etxekoandre?

— Ez, Joe. Urruti gaude jendeagandik. Inork ezin du aditu.

Bert Munroek pasatzen ikusi zuen automobila, jende berria Christmas Canyon-go enborrezko txabolara zeramana.

— Zaila izango zaio emakume bati dena mar-txan jartzea laguntzarik gabe —esan zion bere emazteari—. Uste dut joan egin behar nukeela ezer behar duten ikustera.

— Gertatzen da jakin-minez zaudela —esan zion emazteak isekati.

— Beno, jakina, horrela hartzen baduzu ez naiz joango.

— Txantxetan ari nintzen, Bert —protestatu zuen emazteak—. Auzotasun ederreko seinalea iruditzen zait. Geroago ea ni neu ere joaten naizen bisita egitera Mrs. Whitesiderekin. Hori da egokiena. Baina orain zoaz zu eta ikustazu zer moduz konpontzen ari diren.

Sasoi onez igo zen, Christmas Canyon-go sakonean kantari zihoan errekatxo alaiaren ondotik. «Ez da lur ona lantzeko», esan zion bere buruari, «baina bizitzeko toki ederra da. Honelako toki batean bizi nintekeen gaur egun; bizi, besterik gabe... armistizioa heldu zen garaian heldu ez balitz.»

Beti bezala, lotsatu egin zen gerra beste pixka batez luzatu izana desiratzeagatik.

Hildaren garrasiak etxetik milia laurden batera zegoela iritsi zitzaizkion belarrira. «Zer arraio da hori?», esan zuen. «Norbait hiltzen ari direla ematen du.» Pausoa bizkortu zuen ikustearren.

Hildaren leiho barrotedunak etxearen sarrera nagusiraino zihoan bide-zidorrera ematen zuen. Bertek barroteei helduta ikusi zuen neska, begiak sutan zituela amorrazio eta beldurrez.

— Kaixo —esan zuen—. Zer gertatzen da? Zergatik utzi zaituzte hemen itxita?

Hildaren begiak kizkurtu egin ziren.

— Gosez naukate —esan zuen—. Hil nadin nahi dute.

— Zer txorakeria —esan zuen Bertek—. Zergatik nahiko luke inork zure heriotza?

— Oh! Nire diruagatik! —konfiatu zion neska—. Ezin dute nire dirua eskuratu ni hil arte.

— Nola ba, neskato bat besterik ez zara-eta.

— Bai zera —esan zuen Hildak bekoz kodun—. Emakume osatua naiz. Txikia ematen dut gosez naukatelako eta jo egiten nautelako.

Berten aurpegia ilundu egin zen.

— Beno, ikusiko dut zer egin dezakedan —esan zuen.

— Oh! Ez horiei ezer esan. Lagundu hemen-dik ateratzen, eta orduan nire dirua eskuratuko dut, eta orduan zurekin ezkonduko naiz.

Aurreneko aldiz, Bert arazoari antza hartzen hasi zitzaion.

— Horixe, lagunduko ez dizut ba —esan zion lasaitu nahiz bezala—. Zaude pixka batean eta ateratzen lagunduko dizut.

Etxea inguratu sarrera nagusiraino eta atea jo zuen. Zirrikitu egin zuten berehala; zerbitzariaren begi mozoloek kanpora begiratu zuten.

— Ikusi al dezaket etxekoandrea? —galdetu zion Bertek.

— Ez —esan, eta atea itxi zuen mutilak.

Une batez Bert gorri-gorri jarri zen purrustada harekin lotsatuta, baina gero, amorrarazita, deitu egin zuen ostera. Eta berriro ere atea bi behazbete zirrikitu, eta begi beltzek kanpora begiratu zuten.

— Berriro diotsut etxekoandrea ikusi beharra daukadala. Ikusi beharra daukat giltzaz itxita daukazuen neskato hori dela-eta.

— Etxekoandrea oso gaixorik. Asko sentitzen dut —esan zuen mutilak. Atea itxi zuen berriro. Aldi hartan morroiloari ematen sentitu zuen Bertek. Bide-zidorrean behera abiatu zen pausoluzeka. «Ez bisitan etortzeko esango diot emaz-

teari», pentsatu zuen bere artean. «Neska ero bat eta morroi zorritsu bat. Doazela infernuko zulora!»

Helenek bere logelatik hots egin zuen:

— Zer zen, Joe?

Mutila ate ondoan gelditu zen.

— Gizon bat etorri. Esan du berak zu ikusi behar. Nik esan zu gaixorik egon.

— Ondo da. Eta nor zen? Esan al du zergatik ikusi nahi ninduen?

— Nor ez dakit. Esan du berak zu ikusi behar Hilda andereñoagatik.

Aitaren batean, Helen zerbitzariaren gainean zen. Bere aurpegia haserre zegoen.

— Zer nahi zuen? Nor zen?

— Ez dakit, etxekoandre.

— Eta bidali egin duzu. Libertate gehiegi hartzen dituzu. Zoaz hemendik,

Bere burua besaulkira erortzen utzi eta begiak tapatu zituen.

— Bai, etxekoandre.

Joe buelta ematen hasi zen poliki-poliki.

— Oh, Joe, zatoz hona!

Mutila besaulki ondoan zuen, berak begiak agerian jarri baino lehen.

— Barkaidazu, Joe. Ez nekien zer esaten nuen. Ondo egin duzu. Nirekin geratuko zara, ezta?

— Bai, etxekoandre.

Helen zutitu eta leihorantz joan zen ezinegenez.

— Ez dakit zer gertatzen zaidan gaur. Miss Hilda ondo al dago?

— Bai, andereño lasai orain.

— Beno, egin sua salako tximinian, konforme? Eta gero eraman Hilda hara.

Txabolako salaren antolamenduan, Heleni iruditzen zitzaion monumentu moduko bat altxa zuela senarraren menez. Ehiza pabilioi baten antz ahalik eta osoena eman nahi izan zion. Gela handi bat zen, sekuoia-egurrezko panel eta habez hornitua. Tarteka-marteka, orein mota desberdinen buru diseinatuek beren mutur galdekariak luzatzen zituzten. Gelaren alderdi batean harri-koskorrez egindako tximini handi bat nagusitzen zen, eta haren gainean batailako bandera frantses urratu bat zegoen zintzilik,

Hubertek nonbaitetik ekarria. Giltzaz itxitako bitrina batean, Huberten fusil guztiak erreskadand zeuden zein bere armategian jarrita. Heleni iruditzen zitzaion ez zuela bere senarra erabat galduko halako gela bat zeukan bitartean bertan eserita egoteko.

Russian Hill-eko saloi hartan amets bat praktikatu izan zuen, atsegina zitzaiona. Hemen etxe berrian ere harekin jarraitu ahal izatea espero zuen. Ametsa ia erritual baten bitartez gauzatzen zen. Suaren aurrean eseri eta eskuak gurtzatzen zituen Helenek. Gero banaka-banaka trofeo disekatuei begiratzen zien une luze batez, bakoitzari errepikatuz: «Hubertek menderatu zuen hori.» Eta azkenean etorri egiten zen ametsa. Ia ikusi egiten zuen senarra bere aurrean. Bere gogoan, Huberten eskuen forma errepasatzen zuen, eta aldaken mehertasuna, eta bernen luzera eta zuzentasuna. Tarte baten ostean, gauzak nola esan ohi zituen gogoratzen zuen, azentuak non jartzen zituen eta aurpegia nola pizten eta gorritzen zitzaion ardailatuta zegoenean. Gonbidatuak trofeo batetik bestera nola Braman ohi zituen gogoratzen zuen Helenek.

Bakoitzaren aurrean, Hubert orpoen gainean kulunkatu eta eskuak bizkar atzean gurutzatzen zituen, animalia nola hil zuen kontatzen zuen bitartean xehetasunik ttipieneraino.

— Ilargia ez zen aproposa eta ezeren aztarrenik ez zen inon. Fredek (gidaria zen Fred) esan zuen ezer harrapatzeko aukerarik ez genuela. Gogoan daukat goiz hartan hirugiharrik gabe geldituak ginela. Baina, badakizue, niri zerbaitek esaten zidan abiatu eta begiratu bat bota behar genuela.

Helenek istorio txepel, gatzik gabeko haiek kontatzen sentitzen zuen senarra, beti antzera bukatzen zirenak: «Ba zera, distantzia luzeegia zen eta kristoren haizea zetorren ezker aldetik, baina nik hala ere apuntatu eta pentsatu nuen: “Alferrik ari nauk”, eta bertan hilko ahal naiz ez banuen jo eta bertan bota. Suerte hutsa izan zen, noski.»

Hubertek ez zuen benetan nahi bere entzuleek suerte hutsa izan zenik sinestea. Kirolari onaren jestu dotorea zen hura. Helenek gogoan zeukan berak, halakoetan, zera pentsatu ohi

zuela, zergatik ez ote zitzaion kirolari onari ametitzen bere arrakastak aitortzea.

Baina holaxe garatzen zen ametsa. Senarraren irudia osatzen zuen, harik eta irudi hark gela menpean harto eta ehiztari handiaren sasoi opa-roaz betetzen zuen arte. Ondoren, behin ametsa burutu eta gero, zirtzilatu egiten zuen. Ateko txirrinak, egun hartan, tonu bereziki mingarriaz jo zuen. Helenek gizonezkoen aurpegiak gogoratzen zituen, tristeak eta aztoratuak, istripuaren berri ematen zioten bitartean. Gorpua etxe aurreko harmailetatik igo zuten unean amaitzen zen beti ametsa. Tristurazko olatu itsugarri batek betetzen zuen Helenen bularra, eta berriro ere besaulkian hondoratzen zen.

Baliabide horien bitartez bizirik mantentzen zuen senarra, uko eginez, bere tema guztiaz, irudi hura bere memorian lausotzen uzteari. Hiru hilabetez bakarrik egon zen ezkondata, esaten zion bere buruari. Hiru hilabetez bakarrik! Etsita zegoen itxaropenik gabeko melankolia sentimendu batekin bizitzera. Sentimendu horri arnasa ematen ziola bazekien, baina Huberten esku-bidea zela iruditzen zitzaion, hari zor zion ome-

naldi moduko bat. Gogor egin behar zion tristurari, baina ihes egiten saiatu gabe.

Helenek denbora asko zeraman bere etxe berrian pasako zuen lehen gau honen zain. Tximinian egur puskak garretan zeudela, eta argia dizdizka animalien begi kristalezkoetan, ametsari ongietorria emateko asmoa zuen bere etxe berrira.

Joe logelara itzuli zen.

— Sua piztuta, etxekoandre. Orain nik Hilda andereñoari deitu?

Helenek begiratu bat bota zuen leihotik. Ilunabarra muino gailurretatik beherantz zetorren. Saguzar batzuk ere bazebiltzan jadanik, jiraka eta bueltaka urduritasunez. Galeperrek elkarri hots egiten zioten uretarako bidean, eta urrutian, mendi-lepoaren beheko aldean, beheek marru egiten zuten estalperantz zihoazela. Helen aldaketa bat ari zen nozitzen. Bake sentazio berri batek betetzen zuen. Babestuta eta armatuta sentitzen zen hainbeste denboran setiatu zuten tragedien kontra. Besoak aurrerantz eta atzerantz luzatu, eta hasperen egin

zuen gustura. Joek zain segitzen zuen ate ondolan.

— Zer? —esan zuen Helenek—, Miss Hilda? Ez, ez oraindik ekarri. Afaria laster izango da prest. Hildak ez badu afaltzera azaldu nahi, gero-ago ikusiko dut.

Ez zuen Hilda ikusi nahi. Bake berri, gozo hura eten egingo zen bestela. Ilunabarraren argitasun bitxian eseri nahi zuen, eseri eta galeper-rak elkarri hoska sentitu, malda sasitsueta behera ura edatera zihoazela ilundu aurretik.

Helenek zetazko txal bat bizkarrean hartu eta lorategira atera zen. Ematen zuen bakeak maldan behera arrapaladan jaitsi eta bere baitan hartzen zuela. Lore munto batean untxi gris txiki bat ikusi zuen isats zurikoa, eta haren ikusteak dardara eginarazi zion plazerez. Untxiak burua jiratu eta begira geratu zitzaion pixka batean, eta gero landare berriei koskaka jarraitu zuen. Bat-batean zoroki zorientsu sentitu zen Helen. Gauza xarmangarri eta kilikagarriren bat gertatzeaz zegoen, gauza txit zoragarri bat. Bere bat-bateko poz hartan untxiari mintzatu zitzaion:

— Segi jaten, lore zaharrak ere har ditzakezu. Bihar azak aldatuko ditut zuretzat. Gustura hartuko dituzu, ezta, Peter? Begira, Peter, Peter al duzu izena? Zer tuntuna, untxi guztiek Peter dute izena. Kontua da, Peter, ezeren esperantzarik ez dudala izan aspalditik. Ez al da xelebrea? Ala, tristea ote? Baina orain zerbaiten esperantzatan nago. Antzipazioz lehertzeko zorian nago. Eta ez dakit zer izan daitekeen espero dudana. Ez al da txoro kontua, Peter?

Aurrera jarraitu zuen, eskuaz agur eginez untxiari.

— Zinerariak goxoagoak zirela egingo nukeen nik —esan zion.

Uraren kantuak bide-zidorrean behera bultzatzen zion, erreka aldera. Ertzera hurbiltzen ari zela, galeper banda batek sastraka artera jo zuen ziztu bizian, asaldurazko garrasi totelekin. Helenek lotsa sentitu zuen enbarazu egin zielako. «Itzul zaitezte!» hots egin zien. «Ez dizuet tirorik botako. Untxia ez da nigatik kezkatu. Gainera, nahita ere ezingo nizueke tirorik bota.» Bat-batean, Hubertek eskopeta erabiltzen erakustera eraman zuen aldia gogoratu zitzaion.

Solemnitate erlijiosoz erakutsi zion armari nola heldu eta nola apuntatu bi begiak zabaldua.

— Orain lata bat botako dut gora —esan zion—. Ez dut nahi behin ere tirorik botatzea geldirik dagoen zerbaiti... ezta behin ere. Kirolari eskasa da geldirik dagoen txoriari tiroa botatzen diona.

Helen lata hegalaria tiroka aritu zen eroa bezala, sorbalda gogortu zitzaion arte, eta automobilean etxerantz zihoazela tapatako bat eman zion senarrak.

— Puska batean ez duzu galeperrik botako —esan zion—. Baina untxiei emateko gai izan behar zenuke laster.

Jarraian, etxera ekarri ohi zituen larruzko uhal haiek etorri zitzaizkion burura, lepotik zintzilikatutako galeper mordoarekin.

— Uhaletik libratzen direnean, seinale nahiko denbora egin dutela zintzilik eta jateko moduan daudela —esaten zuen solemnitatez.

Bat-batean Helenek antzeman zuen ez zuela Hubertengan gehiago pentsatu nahi. Atzera begiratze hark ezabatu egin zuen ia bere bake sentsazioa.

Ilun zegoen ia. Salbiaren usainak gaua gozatzzen zuen. Sukaldaria hoska ari zen sukaldetik, Helenek afaria iragartzeko erosi zuen zintzarriari eraginez. Txalean ondo bildu, dardarizo batekin, eta etxe barrura sartu zen.

Jangelan alabarekin aurkitu zen aurrez aurre. Arratsaldeko amorrazioaren aztarren guztiak ezkutatuta zeuden Hildaren aurpegitik; pozik zirudien, eta oso gustura bere buruarekin.

— Bihotza. Hobeto zaude, ezta? —hots egin zuen Helenek.

— Oh, bai.

Helen mahaiaren bestaldera joan eta muxu eman zion alabari kopetan. Gero, dardarizoka, besarkatu egin zuen Hilda une batez.

— Zer toki ederra den ikusten duzunean, oso maitea izango duzu. Badakit baietz.

Hildak ez zuen erantzun, baina bere begiek maltzur itxura hartu zuten.

— Maiteko duzu, ezta, bihotza? —ekin zion Helenek berriro, bere tokira itzultzzen ari zela.

Hilda misteriotso agertu zen.

— Beno, beharbada maiteko dut. Beharbada ez dut maite beharrik izango.

— Zer esan nahi duzu, laztana?

— Beharbada ez naiz hemen luzaro egongo.

— Ez zarela hemen luzaro egongo?

Helenek begiratu azkar bat bota zuen mahaiaren bestaldera. Bistakoa zen Hilda sekreturen bat gorde nahian ari zela, baina alde egin egiten zion.

— Beharbada ihes egin eta ezkondu egingo naiz.

Helenek bere besaulkian hondoratu eta irribarre egin zuen.

— Oh, bai. Horixe baietz. Hala ere hobe zenuke urte batzuk itxoitea. Nor da oraingoan, laztana? Printzea, berriro ere?

— Ez, ez da printzea. Gizon pobrea da, baina nik maitatu egingo dut. Gaur gure plan guztiak egin ditugu. Bila etorriko zaidala uste dut.

Helenen memorian zerbait harrotu zen.

— Gaur arratsaldean etxera etorri den gizona al da?

Hilda zutitu egin zen mahaitik.

— Ez dizut beste ezertxo ere esango —hots egin zuen—. Ez duzu galdetzeko eskubiderik. Baina zera, zaude pixka batean... etxe zahar

honetan geratu beharrik ez dudala erakutsiko dizut.

Gelatik korrika atera eta bere logelako atea danbateko batez itxi zuen bere atzetik.

Helenek zerbitzariari hots egin zion zintzariarekin.

— Joe, gaur etorri den gizonak zer esan du zehazki?

— Esan du berak zu ikusi behar neska txikiagatik.

— Zer nolako gizona zen? Zenbat urte zituen?

— Ez zaharra, etxekoandre, ez gaztea. Berrogeita hamar urte edo horrelakoren bat.

Hasperen egin zuen Helenek. Beste ipuin bat baino ez zen, Hildak sumatzen eta kontatzen zituen dramatxo haietako bat. Eta hain ziren benetakoak berarentzat, ume gaixoarentzat! Helenek astiro jan zuen, eta gero, sala handian, suaren aurrean eseri zen, enbor gorien txingar puskei eraginez axolagabeki. Argi guztiak itzali zituen. Suak dizdiz egiten zuen hormako buru diseekatuen begietan, eta Helenen ohitura zaharrak indar hartu zuen berriro. Huberten eskuek

zer forma zuten imajinatzen aurkitu zuen bere burua, zer estuak ziren haren aldakak eta zer zuzenak bernak. Eta orduan aurkikuntza bat egin zuen: bere irudimenak Huberten eskuak uzten zituenean, esku haiek ezkutatu egiten ziren. Ez zen bere senarraren irudia osatzen ari. Joana zen, betirako joana. Aurreneko aldiz aspaldiko urteetan, eskuak aurpegira eramane eta negar egin zuen Helenek, zeren bakea itzulia baitzen, eta bai expektazio oparoa ere. Lehortu zituen begiak eta gelatik barrena abiatu zen astiro, hango buruei irribarre eginez animalia bakoitza nola hil zen ez lekikeen arrotz baten begirada axolagabeaz. Gelak desberdina zirudien eta beste giro bat antzematen zitzaion. Leihoen kris-keta berriak itsumustuan probatu eta parez pare zabaldu zizkion leiho handiak gauari. Eta gaueko brisara hasperenka sartu zen eta sorbalda biluziak bainatu zizkion bere bake freskoarekin. Leihora atera eta adi jarri zen. Hainbeste soinu txiki zetozen lorategitik eta lorategia baino harantzagoko muinotik! «Bizitzaz josia dago dena», pentsatu zuen. «Bizitzaz gainezka dago dena.» Pixkanaka, entzuten ari zela, etxearen

bestaldetik zetorren karrask soinu batez ohartu zen. «Kastoreak baleude, kastore bat izango litzateke zuhaitz bati koskaka. Arantzurderen bat izango da beharbada, zimenduak jaten ari dena. Entzun izan ditut horrelako kontuak. Baina arantzurderik ere ez dago hemen horietan.» Etxetik bertatik zetozen karrask hotsaren dardarak. «Enborrak marraskatzen ari den zerbait izan behar du», esan zuen. Kraskatako txiki bat aditu zen. Hotsa isildu egin zen. Helen asaldatu egin zen, larrituta. Pasillo batetik bizkor-bizkor joan eta Hildaren gelako ate aurrean gelditu zen. Eskua kanpoko morroilo sendoan jarri eta hots egin zuen:

— Ondo al zaude, bihotza?

Ez zen erantzunik izan. Morroiloa isil-isilik ireki eta gelara sartu zen Helen. Haritzezko barrote bat moztuta aurkitu zuen, eta Hilda ez zegoen han.

Une batez tente-tente gelditu zen Helen leiho irekiaren aurrean, pentsakor begiratzuz gau grisari. Gero bere aurpegia zurbildu eta bere ezpainen aspaldiko tinkotasun itxura hura hartu zuten. Atzera salarako bidea egiten zuen bitar-

tean, bere mugimenduak mekanikoak ziren. Aulki baten gainera igo, armen bitrina ireki eta eskopeta bat atera zuen.

Phillips doktorea Helen Van Deventerren ondoan eserita zegoen *coroner*-aren bulegoan. Etorri beharra zuen umearen sendagile bezala, jakina, baina aldi berean pentsatu zuen bere presentziak lasaitu egin zezakeela Helen. Andreak ez zirudien beldurtua. Bere dolu garratz, ia basatian, itsasoak maiztutako harri bat bezain eraman handikoa ematen zuen.

— Eta espero al zenuen? —ari zen esaten *coroner*-a—. Pentsatzen al zenuen horrelakorik gerta zitekeenik?

Phillips doktoreak urduri antzera Heleni begiratu eta eztarria garbitu zuen.

— Nik zaindu nuen jaio zenez geroztik. Horrelako kasu batean, bere burua hil zezakeen edo beste norbait, zirkunstantzien arabera. Inori kalterik egin gabe bizitzen ere jarrai zezakeen. Indarkeriazko pausorik eman gabe pasa zezakeen bizitza osoa. Ezinezkoa zen esatea, ulertuko duzun bezala.

Coroner-a paperak firmatzen ari zen.

— Modu basatian egin zuen. Bistan da neska erotuta zegoela eta bere motiboak aztertzeke arrazoirik ez dagoela. Huskeria batengatik egingo zuen beharbada. Baina latz jokatu zuen. Halerre berak ez zuen jakin. Bere burua errekan eta arma aldamenean. Suizidio epaia emango dut. Sentitzen dut zure aurrean horrela hitz egin beharra, Mrs. Van Daventer. Bera aurkitzea kolpe ikaragarria izango zen zuretzat.

Sendagileak auzitegiko eskailerak jaisten lagundu zion Heleni.

— Ez ezazu aurpegi hori jarri —esan zion—. Exekuzio batera zoazela ematen du. Hobe da horrela, benetan esaten dizut. Ez ezazu hainbeste sufritu.

Helenek ez zion begiratu.

— Orain badakit. Hemendik aurrera badakit zer espero duen bizitzak niganetik —esan zuen eztiro—. Orain badakit beti susmatu izan dudana. Eta burutzeko indarra badut, jauna. Ez niganetik kezkatu.

6

Junius Maltby gizontxo gazte bat zen, familia on eta eskolatu batekoa eta heziketa itxurazkoa izan zuena. Bere aita kiebra jota hil zenean, Junius idazkari postu batean endredatu zen katramilatsuki, eta horren aurkako lehia makalean pasa zituen ondorengo hamar urteak.

Lanetik ateratakoan Junius bere gela amueblatura erretiratzen zen, Morris besaulkiaren kuxinei tapatako batzuk eman eta irakurtzen pasatzen zuen ilunabarra. Stevensonentzako entseguak ingelesez idatzitako gauzarik ederrena iruditzen zitzaizkion ia-ia; askotan irakurri zuen *Bidez-bide asto batekin*.

Ilunabar batez, bere hogeita hamabosgarren urtebetetze egunetik denbora gutxira, Juniusi ondoeza egin zitzaion bere apopilo etxeko eskaileretan. Kordea etorri zitzaionean, bere arnasa nekeza eta behar ez bezalakoa zela antzeman zuen aurreneko aldiz. Noiztik ote zeukan horrela galdetu zion bere buruari. Kontsultatu zuen sendagilea atsegin eta optimista agertu zen.

— Zure gaitza ez dago aurreratuegia osatzerik ez izateko —esan zion—. Baina birika horiek San Franciscotik urruntzea erremediorik gabea duzu. Hemen laino artean geratzen bazara, ez zara urtebete biziko. Zoaz klima epel eta lehor batera.

Bere osasunaren ezbehar hark pozez bete zuen Junius, zeren bere kabuz eten ezin izan zituen kateak mozteko aukera eskaintzen baitzion. Bostehun dolar zeuzkan, ez dirua aurrera-tzeko ohitura zuelako, baizik, besterik gabe, gas-tatzea ahaztu egiten zitzaiolako. «Kopuru hone-kin», esan zuen, «edo sendatu eta berriro hutse-tik hasiko naiz, edo bestela hil eta akabo dena niretzat.»

Bere bulegoko gizon batek Zeruko Belardie-tako ibar epel, babestuaren berri eman zion, eta Juniusek harantz jo zuen berehala. Gustatu egin zitzaion izena. Pentsatu zuen: «Izen horrek, edo ez naizela luzaro biziko iragartzen du, edo beste-la heriotzaren ordezkoko sinboliko ederra da.» Iru-ditzen zitzaion izenak esanahi pertsonala zuela berarentzat, eta pozez zoratzen zegoen horre-

kin, zeren hamar urtez ez baitzen munduan ezer pertsonalik izan berarentzat.

Zeruko Belardietan bazen familia bat baino gehiago apopiloak hartzeko prest. Juniusek denak banan-banan aztertu eta azkenean Quaker alarguntsaren granjan bizitzera joan zen. Hari beharrezkoa zitzaion diru hura, eta gainera, Juniusek etxetik bereizitako txabola batean lo egiteko modua izango zuen. Mrs. Quakerrek bi seme txiki zituen, eta morroi bat hartua zeukan granjako lanak egiteko.

Klima epelak eragin goxagarria izan zuen Juniusen biriketean. Urtea pasa baino lehen kolorea hobetuta eta kiloak irabazita zegoen. Lasai eta zoriontsu bizi zen granjan, eta, denetan gehiena gustatzen zitzaiona, bulegoko hamar urteak atzean utzi eta ikaragarri nagituta zegoen. Juniusen ile hori eta bakanak orraztu gabe egoten ziren; betaurrekoak berriz, sudur zuzenean oso erorita eramaten zituen, begiak indartzen ari baitzitzaizkion, eta haien ukitua sentitze-ko ohitura hutsagatik janzten zituen. Egunez txotx txikiren bat edukitzen zuen beti ahotik

agerian, pertsona nagi eta pentsakorreni dago-
kien ohitura. Osaketa hau 1910ean gertatu zen.

1911an, Mrs. Quaker kezkatzen hasi zen auzokoen esamesak zirela-eta. Gizon ezkongabe bat etxean edukitzearen inplikazioez ohartu zenean, larritu eta urduritu egin zen. Juniusen osaketa seguru antzekoa izan orduko, alargunak bere kezkak aitortu zizkion. Juniusek emaztetzat hartu zuen, berehala eta pozik. Horrela, etxe baten eta urrezko etorkizun baten jabe egin zen, zeren Mrs. Maltby berriak berrehun akre baitzi-tuen belarretarako maldetan, eta bost akre bara-tzetarako behe-lurretan. Juniusek bere liburuak ekarrarazi zituen, eta Morris besaulkia, bizkar moldagarrikoa, eta Velazquezen *Kardenala*-ren kopia ederra. Etorkizunak arratsalde atsegin eta eguzkitsu baten itxura hartu zuen berarentzat.

Mrs. Maltbyk segituan morroia bidali eta senarrari lan eginarazten saiatu zen; baina zere-
gin horretan erresistentziarik nahasgarriena topatu zuen, fronte sendorik eskaintzen ez zuena eraso harantz zuzentzeko. Sendatzen zen bitartean, Junius nagitasun-zale egin zen. Ibarra eta granja gustukoak zituen, baina bere

hartan gustatzen zitzaizkion; ez zuen ez gauza berririk landatu nahi, ez lehengorik kendu nahi. Mrs. Maltbyk aitzurra eskuan jarri zionean, eta baratzerara bidali zuenean lanera, ordu batzuk geroago, espero bezala, belazeko errekan hantak txintxilik zituela aurkitu zuen, *Bahitua* noblearen sakela-edizioa irakurtzen. Juniusek barkamena eskatu zuen; ez zekien nola gertatu zen. Eta hori zen, hain zuzen ere, egia.

Hasieran Mrs. Maltby errietan aritzen zitzaion etengabe nagitasun harengatik eta bere janzkera axolagabeagatik, baina berak laster garatua zuen emazteari ez entzuteko abilitadea. Baldarkeria izango zen, hala iruditzen zitzaion, emazteari dama bat bezala jokatzeko ari ez zen unean erreparatzea. Elbarri bati begira-begira geratzea bezala izango zen. Eta Mrs. Maltbyk, aldi batez senarraren erresistentzia lainotsuarekin lehiatu ondoren, mainak egiteko eta ilea ez zaintzeko joera hartu zuen.

1911tik 1917ra bitartean, Maltby-tarrak asko pobretu ziren. Hitz batean esanda, Juniusek ez zuen granjaren ardura hartu nahi. Larrerako lur Are batzuk saldu beharra izan zuten janari eta

arropetarako dirua ateratzeko, baina orduan ere eskas izan zuten jana. Pobrezia granjan jesarri zitzaien hankak gurutzatuta, eta Maltby-tarrak zarpa hutsez jantzi ziren. Behin ere ez zuten arropa berririk izaten, baina Juniusek David Grayson-en entseiuak aurkituak zituen. Laneko galtzak jantzi eta belazeko erreka ertzeko sikomoroen azpian esertzen zen. Batzuetan *Adventures in Contentment* irakurtzen zien bere emazte eta bi semeei.

1917aren hasiera aldera, Mrs. Maltbyk haurdun zegoela antzeman zuen, eta urte beraren bukaera aldera gerra garaiko gripe epidemiak krudeltasun ankerrez jo zuen familia. Beharbada gaizki alimentatuta zeudelako, bi mutikoak batera gaixotu ziren. Hiru egunez, etxea gainezka bezala egon zen ume gorri, sukartsuez; gainezka, oheko tapakien harietatik bizitzari atxikitzen saiatzen ziren behatz urduriez. Hiru egunez, lehian aritu ziren ahulki, eta laugarrenean, hil egin ziren bi mutikoak. Amak ez zuen jakin, erditzekotan baitzegoen, eta etxean laguntzera etorritako auzokoek ez zuten berria emateko ez kemenik ez krudeltasunik izan. Sukar beltzak

haur-minez zegoela eraso zion, eta bere umea ikusterik izan baino lehen hil zuen.

Haurgintzan lagundu zuten auzoko emakumeek laster zabaldu zuten ibar guztian Junius Maltby irakurtzen egon zela erreka ondoan bere emazte eta umeak hiltzen ziren bitartean. Baina hori neurri batean bakarrik zen egia. Gaitza harrapatu zuten egunean, gaixorik zeudela ez zekielako egon zen errekan, hankak uretan zituela, baina ondorenean, noraezean bezala, jo batengana eta jo besteagana —ibili zen, hilzorian zeuden bi umei gauza zentzugabeak kontatuz. Diamanteak nola osatzen diren kontatu zion zaharrenari. Bestearen ohe ondoan esbastikaren edertasuna, antzinatasuna eta sinbologia azaldu zituen. Bizitza bat *Altxor Ubartea*-ren bigarren kapitulua ozenki irakurtzen zuen bitartean itzali zen, eta gertatu zenik ere ez zuen jakin kapitulua bukatu eta gora begiratu zuen arte. Egun haietan joanda bezala ibili zen. Zeuzkan gauza apurrak atera eta erregalatu egin zizkien umei, baina botererik ez zuten heriotzaren kontra. Aldez aurretik ere bazekien ez zutela izango, eta horrek latzago bihurtzen zuen dena.

Gorpu guztiak eramán zituztenean, Junius errekará itzuli zen eta *Bidez-bide asto batekin* delakoaren orri batzuk irakurri zituen. Hala-moduzko irritxo batzuk ere egin zituen Modestineren egoskorkeariatik. Stevensoni izan ezean, nori bururatuko zitzaion asto bati *Modestine* deitzea?

Auzoko emakume bat etxera etorri, eta halako madarikazioak bota zizkion non berak, lotsatuta, entzun ere ez baitzion egin. Emakumeak eskuak aldaketan jarri eta mesprezios betetako begirazoa bota zion. Eta gero umea ekarri, seme bat, eta bere aitaren besoetan utzi zuen. Hesiarren atetik atzera begiratu zuenean, Juniusen aldera, hantxe zegoen tente, piztitxo marrularia besoetan zuela. Non utzirik ez zuen ikusten, beraz halaxe eduki zuen puska batean.

Ibarreko jendeak istorio asko kontatzen zituen Juniusi buruz. Batzuetan gorrotatu egiten zuten jende saiatuak nagiarri izan ohi dion amorrazioarekin, eta bestetan inbidia hartzen zioten bere nagitasun harexengatik; baina sarritan errukitu egiten zitzaizkion bere trakeskeria ikusi-

ta. Ibarrean inork ez zuen inoiz konprenitu Junius zoriontsu zela.

Kontatzen zuten behin batez, sendagileak esanda, Juniusek ahuntz bat erosi zuela haurra-
rentzat esnea izateko. Ez omen zuen ez anima-
liaren sexuaz galdetu, ez ahuntza zertarako nahi
zuen esan. Ekarri ziotenean, azpiko aldera begi-
ratu eta hala galdetu omen zuen serio-serio:

— Ahuntz normala al da hau?

— Horixe —esan zuen jabeak.

— Baina atze horretan, atzeko zangoen
artean, ez al luke errapea edo horrelako zerbait
eduki behar? Esnearentzat, alegia.

Ibarreko jendeak berebiziko algarak egin
zituen kontu horrekin. Geroago, ahuntz hobea
ekarri ziotenean, Junius ekin eta ekin aritu
zitzaion bi egunez, eta ezin izan zion esne tanto-
rik atera. Itzuli egin nahi zuen ahuntza, akatsa
zuelakoan, jabeak nola jetzi erakutsi zion arte.
Zenbait jendek zioen haurra ahuntzaren azpian
jarri eta hantxe uzten zuela esnea bere kabuz
xurga zezan, baina hori ez zen egia. Ibarrekoek
aitortzen zuten ez zekitela nola lortu zuen umea
haztea.

Egun batez Juniusek Monterreyra jo eta aleman edadeko bat kontratatu zuen granjan lagun ziezaion. Bost dolar aurreratu zizkion morroi berriari, eta sekula ez zion berriro ordaindu. Bi aste igaro baino lehen, morroia zeharo harrapatuta zegoen nagitasunaren sareetan eta ez zuen bere nagusiak baino lan gehiago egiten. Biak etxe inguruan eseri eta hantxe egoten ziren intergarriak edo harrigarriak zitzaizkien gauzak eztabaidatzen: nola etortzen zaien kolorea loreei, naturan sinbologiarik ba ote dagoen, Atlantida non ote zegoen edo nola ehorzten zituzten Inkek hildakoak.

Udaberrian patatak aldatzen zituzten, beti beranduegi, eta xomorroak uxatzeko errautsez estali gabe. Indabak, artoa eta ilarrak erein,aldi batez zaindu, eta ahaztu egiten zituzten gero. Belar-gaiztoek dena estali eta ez zuten ezer ikusten uzten. Ez zen gauza ezohikoa Junius egundoko malba sastraka baten barruan ezkutatzeko, gero pepino zurbil bat eskuan zuela azaltzeko. Ez zuen oinetakorik janzten, hanketan tur epela sentitzea gustatzen zitzaiolako, eta oinetakorik ez zuelako.

Arratsalde batez, Juniusek solasaldi luzea izan zuen Jakob Stutzekin.

— Begira —esan zion—, umeak hil zirenean pentsatu nuen horrorezko gailur bereziki altu bateraino heldua nintzela. Gero, hori burutik kendu baino lehen, horrorea atsekabe bilakatu zen eta atsekabea tristura bihurtzeraino urritu zen. Nik uste ez nituela ez emaztea ez umeak oso ondo ezagutzen. Hurbilegi neuzkan behar bada. Gauza xelebrea da, *ezagutza* hori. Xehetasunez ohartzea besterik ez da. Ikusbide luzeko eta ikusbide motzeko izpirituak daude. Nik behin ere ez dut balio izan hurbil dauzkadan gauzak ikusteko. Esate baterako, Partenona askoz ezagunagoa zait nire horko etxe horiek baino.

Bat-batean Juniusek aurpegia dardarka bezala hasi zen emozioz, eta bere begiek dizdiz egin zuten entusiasmoz.

— Jakob —esan zuen—, Partenonaren frisoaren irudirik ikusi al duzu behin ere?

— Bai, eta irudia bera ere ederra da —esan zuen Jakobek.

Juniusek bere morroiaren belaun gainean jarri zuen eskua.

— Zaldi horiek —esan zuen—, zaldi zoragarri horiek, belardi zerutiar baterantz doazenak. Gizon gazte, lehiatsu, eta aldi berean duin horiek, kornisaren bestaldean ospatzen ari den festa barregarrira abiatzen. Nola jakin ote deza-ke gizonak zaldi batek sentitzen duena oso pozik dagoenean. Eskultore horrek bazekien noski, beste gainontzean ezin izango zituen horrela zizelkatu.

Horrela mintzatzen ziren. Juniusek ez zekien gai bati lotzen. Sarritan gosea pasatzen zuten bi gizonak, belarretan oilo habiarik aurkitzen ez zutelako afal garaia heldutakoan.

Juniusen semeak Robert Louis izena zuen. Bururatu eta izen hori jarri zion Juniusek, baina Jakob Stutzek gogor egin zuen bere ustez nola-baiteko ederkeria literarioa zenaren aurrean.

— Mutilek zakurrek bezalako izenak eduki behar dituzte —zioen berak—. Silaba bakarra nahikoa da izen batentzat. Robert ere luzeegia da. Bob deitu beharko genioke.

Jakob ia berearekin atera zen.

— Amore emango dut —esan zuen Juniusek—. Robbie deituko diogu. Robbie azken batean Robert baino laburragoa da, ezta?

Amore ematen zuen sarritan Jakobean aurrean, zeren Jakobek etengabe borrokatxoak egiten baitzituen bere inguruan osatzen ari ziren armiarma-sareen kontra. Aldian behin, halako ardaila birtuoso batez, etxea garbitzen zuen.

Robbie seriotasunean hazi zen. Bi gizonen atzetik ibiltzen zen beti, haien elkarrizketak entzunez. Juniusek behin ere ez zuen mutil-koskor bat bezala tratatu, mutil-koskorak nola tratatu behar ziren ez zekielako. Robbiek zerbait esaten bazuen, bi gizonek kortesiaz entzun eta beren elkarrizketan sartzen zuten adierazpena, edo ikerketa baten abiapuntu bezala ere erabil zezaketen. Gauza askoren aztarrenak jarraitzen zituzten arratsalde batean. Behin baino gehiagotan jotzen zuten egunero Juniusek Entziklopedia-ra.

Sikomoro erraldoi batek adar horizontal bat luzatzen zuen belazeko erreka gainetik, eta harexek gainean esertzen ziren hirurak, gizonak hankak uretaraino txintxilik zituztela eta punte-

kin harri txintxarrak mugituz, eta Robbie berriz haiek imitatzeko ahalegin nabarmenak eginez. Uretaraino ailegatzea gizontasunaren seinaleetako bat zen berarentzat. Garai hartarako, Jakobek ere baztertuak zituen oinetakoak; Robbiek berriz, sekula ez zuen bere bizitzan pare bat jantzi.

Eztabaidak goi mailakoak izan ohi ziren. Robbiek ez zekien umeen hizkera erabiltzen, behin ere ez zuen aditu eta. Ez zuten benetako elkarriketarik izaten; hori baino areago, gogoeta kimu bati bere kasa ernetzen utzi, eta gero mirespenez zaintzen zuten bere adarrak zabalitzen zituen bitartean. Harritu egiten ziren beren elkarrizketak emandako fruitu bitxiaren aurrean, zeren ez baitzuten pentsaketa bideratzen, ez zuzentzen edo inausten ere hainbat jendek egin ohi duen bezala.

Hantxe adar gainean eserita egoten ziren hirurak. Arropak zarpailduta zeuzkaten, eta ilea trakets moztuta, juxtu begietan sartzea galarazteko adina. Gizonek bizarra luzatuta eta txukundu gabe zeukaten. Zapatariak ikusten zituzten beren hanka punta jostalariek sakondutako

putzuaren azal ganean. Haizeak eztiro eragiten zion beren gaineko zuhaitz diganteari, eta honek aldiari behin painelu marroi baten itxurako hosto bat uzten zuen erortzen. Robbiek bost urte zituen.

— Nik uste sikomoroak zuhaitz onak direla — adierazi zuen, hosto bat bere magalera erortzen ikusita.

Jakobek hartu hostoa eta nerbioen arteko tela guztia kendu zion.

— Bai —onartu zuen—, urarekin hazten dira. Gauza onek ura maite dute. Gauza txarrak lehorrak izaten dira beti.

— Sikomoroak handiak eta onak dira —esan zuen Juniusek—. Niri iruditzen zait gauza onek edo gauza atseginek oso handiak izan behar dutela irauteko. Gauza txar txikiak hondatu egingen dituzte beti gauza on txikiak. Gauza handiak gutxitan izaten dira pozoitsuak edo traidoreak. Horregatik, giza pentsamenduan, handitasuna onaren atributua da eta txikitasuna berriz gaitzarena. Ulertzen al duzu hori, Robbie?

— Bai —esan zuen Robbiek—. Ulertzen dut. Esate baterako elefanteak.

— Elefanteak gaiztoak izaten dira askotan, baina imajinatzen ditugunean, baketsuak eta zintzoak iruditzen zaizkigu.

— Eta ura? —sartu zen Jakob—. Urarena ere ulertzen al duzu?

— Ez, urarena ez.

— Ba nik bai —esan zuen Juniusek—. Ura bizi-tzaren jatorri dela esan nahi duzu. Hiru elemen-tuetatik, ura esperma da, lurra matriza eta eguz-kiaren argia hazieraren moldea.

Horrelaxe erakusten zizkioten umeari batere zentzurik gabeko gauzak.

Emaztea eta bi mutilak hil zitzaizkionean, Zeruko Belardietako jendea apartatu egin zen Junius Maltbyren ondotik. Epidemia garaian izan-dako bihozgabekeriari buruzko istorioek halako proportzioak hartu zituzten, non azkenean beren pisuagatik beragatik erori eta ahaztu egin baitzi-ren kasik. Baina nahiz auzokoek ahaztu Junius irakurtzen egon zela umeak hiltzen ziren bitar-tean, ezinezkoa zitzaien ahaztea zenbateko ara-zoa ari zen bihurtzen Junius bera. Hemen, ibar oparoan, pobretasun ikaragarrian bizi zen. Beste familiek fortunatxoak pilatzen zituzten bitartean,

Ford-ak eta irratia erosi, argi-indarra jarri eta astean bitan zinera joaten ziren bitartean, Monterrey edo Salinasera, Junius txarretik okerrago-ra zihoan eta basati zarpailtsu bat bihurtzen ari zen. Ibarreko gizonezkoak mindu egiten ziren belar-gaiztoz jositako bere sail ederrekin, inausi gabeko fruta-arbola eta hesi eroriekin. Emakumezkoek amorrazioz gogoratzen zuten bere etxe garbitu gabea, eta hango leiho zikin eta atari zakarrez bete. Eta nola gizonezko hala emakumezkoek gorrotagarria zitzairen bere nagitasuna eta urguilu falta erabatekoa. Aldi batez bisitak egin zitzioten, hurbileko etsenpluekin bere alferkeriatik aterako zutelakoan. Baina berak naturalki eta nork bere parekoengana sentitzen duen adiskidetasunaz hartzen zituen. Ez zuen lotsaren arrastorik bere pobretasun edo zarpengatik. Pixkanaka, paria bati bezala begiratzen hasi zitzaizkion auzokoak. Inork ez zuen haren etxerainoko errepide pribatua igotzen. Baztertu egin zuten gizarte itxurosotik eta bisitan etorri gero ere ez errezibitzea erabaki zuten.

Juniosek ezer ez zekien auzokoen ezinikusi hartaz. Glorioski zoriontsu izaten jarraitzen zuen.

Bere bizitza bere pentsaera bezain irreal, erromantikoa eta garrantzirik gabea zen. Pozik egoteko nahikoa zuen eguzkitan esertzea oinak errekan sartuta. Arroparik ez bazuen, ezta, behinik behin, ondo janzteak eskatzen zuen inora joan beharrik ere.

Nahiz jendeak Juniusi ia gorrotoz begiratu, Robbie txikiaz errukitu besterik ez ziren egiten. Emakumeek elkarri esaten zioten latza zela umeari kuxidade hartan hazten uztea. Baina, gehientsuenak jende zintzoa izaki, benetan higuigarria zitzairen Juniusen gauzetan sartzea.

— Zaudete, umeak eskolan hasteko adina izan arte —esan zion Mrs. Banksek bere salan bildutako dama talde bati—. Nahita ere ezingo genuke orain ezer egin. Bere aita edo dena delako horren eskuetan dago. Baina, ikusiko duzue, umeak sei urte bete bezain laster agintariek izango dute zer esanik.

Mrs. Allenek buruaz baiezkoa egin eta begiak itxi zituen seriooki.

— Beti ahazten dugu umea Maltbyrena ez ezik Maorie Quakerrena ere badela —esan zuen—. Nire ustetan aspaldi eman behar genuen

pausoa. Baina eskolara hasten denean behin ere izan ez dituen gauzak emango dizkiogu ume gaxoari.

— Ez dezala behintzat arropa faltarik izan —
etorri zen ados beste emakur bat.

Ematen zuen ibarra zelatan zegoela Robbiek eskolara hasi beharko zuen momentuaren esperoan. Umeak sei urte bete, eta ikastaldiaren hasieran ageririk eman ez zuenean, eskola-batzarreko idazkari zen John Whitesidek eskutitz bat idatzi zion Junius Maltbyri.

— Aintzat hartu gabe neukan kontu hau —
esan zuen Juniusek irakurri zuenean—. Eskolara joan beharko duzula uste dut.

— Nik ez dut joan nahi —esan zuen Robbiek.

— Badakit. Ni neu ere ez naiz oso aldeko. Baina legeak dauzkagu. Legeak zigor izeneko eranskin bat dauka bere burua babesteko. Legea haustearen plazera eta zigorra balantza berean jarri behar ditugu. Cartagotarrek fortuna gaiztoa ere zigortu egiten zuten. Jeneral batek suerte txarragatik bataila galtzen bazuen, hil egiten zuten. Gaur egun ere oso modu berdintsuan

zigortzen dugu jendea jaiotzak eta zirkunstantziek eragindako ezbeharrengatik.

Ondorengo eztabaidan, zeharo ahaztu zuten eskutitza. John Whitesidek oso ohar zakarra idatzi zuen.

— Beno, Robbie, nik uste joan egin beharko duzula —esan zuen Juniusek hura jaso zue-nean—. Probetxuzko gauza asko erakutsiko dizkizute, jakina.

— Zergatik ez dizkidazu zuk erakusten? —erregutu zion Robbiek.

— Oh, ezin dut. Gainera, ahaztuta dauzkat eskolan erakusten dituzten gauzak.

— Nik ez dut joan nahi. Ez ditut gauzak ikasi nahi.

— Badakit, baina ez dut beste irtenbiderik ikusten.

Eta, hala, Robbiek eskolako bidea hartu zuen goiz batez. Laneko galtza zahar batzuk zeramatzan soinean, belaun eta ipurtaldean zulatuak, lepoa galdutako alkandora urdin bat, eta besterik ezer ez, ile luzea larreko zalditxo baten kalparrara bezala erortzen zitzaion begi grisen gainera.

Umeek Robbieren inguruan zirkulu bat egin, eskolako patioan, eta begira geratu zitzaizkion isil-isilik. Bazuten denek Maltby-tarren pobretasunaren eta Juniusen nagikeriaren aditzera. Mutilek irrikaz itxoina zuten Robbie torturatzeko momentu hau. Heldua zen garaia; beren zirkuluaren erdian zegoen, eta begiratu besterik ez zioten egiten. Inork ez zuen esan: «Nondik atera dituk arropa horiek» edo: «Begiraiozue bere ileari», asmoa zuten bezala. Umeak txundituta zeuden Robbie oinazetzeko asmoa kale egiten ikusteaz.

Robbieri zegokionez, begi serioekin erreparatzen zion zirkulari. Beldur arrastorik ez zuen sentitzen.

— Ez al zarete jostaketan ibiltzen? —galdetu zuen—. Nire aitak esan dit jostaketan ibiliko zinetela.

Eta orduan zirkulua uhuri artean lehertu zen. «Batere jostaketarik ez daki.» «Erakutsi diezaiogun *pewee*.» «Ez, haur beltzarena.» «Entzun! Entzun! Aldamarroka ibiliko gara aurrena.» «Batere jostaketarik ez daki!»

Eta, nahiz ez jakin zergatik, benetan gauza ederra iruditu zitzaien jostaketarik ez ezagutze hura. Robhieren aurpegi argala erne zegoen. «*Pewee* delako horrekin egingo dugu proba aurrena», erabaki zuen. Baldar aritu zen jostaketa berrietan, baina bere irakasleek ez zioten builarik egin. Horren ordeez, errieta egin zuten Robbieri makila nota hartu erakusteko pribilegioa lortzeagatik. Eskola asko baitaude *pewee* jostaketarako teknika desberdinekin. Robbie baztertu zen, pixka batean entzuten egon, eta azkenean bere gogoko maisua aukeratu zuen.

Robbiek berehalako eragina izan zuen eskolan. Mutil zaharrenek bere kasa utzi zuten erabat, baina gazteek gauza guztietan imitatzen zuten, galtzei belaunak zulatzera ere ailegatuz. Eguzkitan esertzen zirenean, bizkarra eskolako horman jarrita eta nor bere bazkariarekin, Robbiek bere aitaz eta sikomoroari buruz hitz egin ohi zien. Arretaz entzuten zioten mutilek, eta beren aitak ere nagiak eta gozoak izan zitezten desiratzen zuten.

Batzuetan zenbait mutilek, gurasoen aginduak hautsiz, Maltbytarren etxera alde egiten

zuten larunbatetan. Juniusek sikomoroaren adar-
rera jotzen zuen ohi bezala, eta mutilak ezker-
eskuin eserita zituela, *Altxor Uhartea* irakurtzen
zien, edo Galiako gerrak edo Trafalgarreko batai-
la deskribatzen zizkien. Laster asko, Robbie,
bere aitaren laguntzaz, eskolako patioko errege
bihurtu zen. Zenbait gauza horren froga dira,
esate baterako ez zuela kiderik, ez ziotela ezize-
nik jarri, eta bera zela arbitroa sesio guztietan.
Bere agintea hain handia izanik, inor ez zen bere
kontra borrokatzera saiatzen ere.

Denbora puska batean ez zuen Robbiek kon-
prenitu eskolako mutil gazteenen buru zela.
Bere baitan zegoen zerbaitek, halako baretasun
eta heldutasun batek, bere lidergoa bilatzera
bultzatzen zituen adiskideak. Luze baino lehen,
bera izan zen zertan jokatu erabakitzen zuena.
Baseball-ean ere bera izaten zen arbitroa, beste
mutilik ez zegoelako erabaki bat har zezakeenik
iskanbila sortu gabe. Eta jokalari bezala txarra
izan arren, arau eta zuzentasun kontuak bere
gain uzten zituzten beti.

Junius eta Jakobekin izandako eztabaida luze
baten ondoren, Robbiek arrakasta zabaleko bi

joko asmatu zituen, bata *Slinkey Coyote*, altxor bila jokoaren bertzio lokala, eta bestea *Hanka Hautsia*, ble jokoaren antzekoa, baina askoz korapilatsuagoa. Bi joko horietarako behartu ahala asmatu zituen arauak.

Mutil-koskorrak Miss Morganen arreta esnatu zuen, zeren ikasgelan ere patioan bezainbateko sorpresa izan baitzen. Primeran irakurtzen zuen eta gizon baten hiztegia erabiltzen zuen, baina ez zekien idazten. Zenbakiak ezagunak zituen, edozein luzeratakoak, baina aritmetikarik errazena ere ez zuen ikasi nahi. Robbiek neke handiz ikasi zuen idazten. Bere esku dudatiak letra itxuragabeak egiten zituen eskolako koadernoan. Azkenean, Miss Morganek lagundu egin nahi izan zion.

— Aukeratu zerbait eta idatzi behin eta berriz primeran atera arte —proposatu zion—. Izan kontu handia letra bakoitzarekin.

Robbiek bere memoria arakatu zuen gustuko zerbaiten bila. Azkenean idatzi zuen: «Denik eta gauzarik munstrotsuena ere gure baitan aurki dezakegu.» Zoragarria iruditzen zitzaion «munstrotsu» hura. Tinbrea eta sakontasuna ematen

zizkion esaldiari. Hitzik baldin bazen, bere soinuaren indar hutsaz jeinu egoskorrak lurretik aterarazi zitzakeenik, «munstrotsu» haietako bat zen zalantzarik gabe. Behin eta berriz idatzi zuen esaldia, arretarik handiena jarriz eta bere «munstrotsu» hartan luzatuz. Ordubete geroago, Miss Morgan zer moduz ari ote zen ikustera etorri zitzaion.

— Baina, Robert, non ikasi duzu hori?

— Stevensonena da, andereño. Nire aitak ia buruz ezagutzen ditu Stevensonen obrak.

Miss Morganek entzunak zituen, jakina, Juniusi buruz kontatzen ziren istorio gaizto guztiak, eta hala ere berak onetsi egin zuen beti. Baina orain harekin ezaupidean sartzeko gogo bizia hasi zen sentitzen.

Eskolako patioko jostaketak interesa galtzen ari ziren. Robbiek kexa hori azaldu zion Juniusi goiz batez, eskolara abiatu baino lehen. Juniusek bizarra arraskatu eta pentsakor geratu zen.

— Espioitza jostaketa ona da —esan zuen azkenean—. Gogoratzen naiz niri asko gustatzen zitzaidala Espioitzan ibiltzea.

— Baina nor espiatuko dugu, ordea?

— Oh, edozein. Horrek berdin dio. Guk italiar-
rrak espiatzen genituen.

Robbie korrika joan zen eskolara, erabat
ardailatuta, eta arratsalde hartan bertan, eskola-
ko hiztegiak baliamentu luzca egin ondoren,
M.Z.S.A.J.E. delakoa antolatu zuen. Itzulita —
zurrumurruaz aurrera ez zihoan ahotsaz betie-
re— zera esan nahi zuen, Mutilen Zerbitzu Sekre-
tu Auxiliarra Japoniarren Espioitzarako. Besterik
ezean ere, taldea aintzat hartzeko erakundea
izango zen izenaren handitasunagatik. Robbiek
mutilak banan-banan eskolako patiora eraman,
sahatsaren azpiko berdetasun goibeleraino, eta
sekretua gordeko zutela zin eginarazi zien logia
batentzat ere aproposa izango zen formula
anker batekin. Gero, taldea elkartu zuen. Rob-
biek azaldu zien mutilei egunen batean, dudarik
gabe, gerran sartuko ginela japoniarrekin.

— Prest egotea dagokigu —esan zien—. Zen-
bat eta gehiago jakin arraza zital horren ohitura
zitalei buruz, orduan eta informazio gehiago
emango diogu gure herriari gerra lehertzen
denean.

Espiagai guztiak bereganatu zituen hizkera glorioso harekin. Halako hitzak eskatzen zituen egoera baten seriotasunak jota utzi zituen mutilak. Espioitza eskolako zeregin nagusia bihurtu zenez, Takashi Kato txikiak, hirugarren mailako ikaslea, ez zuen handik aurrera bakarkako momentu bat izan. Takashik bi behatz altxatzen bazituen eskolan, Robbiek Mutil Auxiliar haietako bati begiratu esanguratsua bota, eta segituan bigarren esku bat goratzen zen airera. Takashi eskolatik atera eta etxera abiatzen zenean, gutxienez bost mutil bide bazterreko sastraka artetik arrastaka joaten ziren. Azkenean ordea, Takashiren aitak, Mr. Katok, tiro bat bota zuen ilunpetara gau batez, aurpegi zuri bat ikusi ondoren bere leihotik etxe barrurantz begira. Robbiek Auxiliarrak elkartu, gogoz bestera, eta espioitzak eguzkia sartutakoan bukatu behar zuela agindu zuen. «Gauetz ezin dute egin ezer benetan inportanterik», azaldu zien.

Luzarora, Takashik ez zuen sufritu berari zuzendutako espioitza harekin, zeren. Auxiliarrak zaindu egin behar zutenez, ezin zuten eskursio garrantzitsurik egin Takashi ere beraie-

kin eraman gabe. Toki guztietara gonbidatzen zuten, inork ez baitzuen onartzen atzean utzia izatea japoniarrari zelata egiteko.

Mutil Auxiliarrak laster jaso zuten heriotza-kolpea, Takashik nola edo hala taldearen berri izan eta bertan parte hartzen uzteko eskatu zue-nean.

— Nola ametituko zaitugu ba —azaldu zion Robbiek onez onean—. Begira, zu japoniarra zara, eta guk gorrotoa diogu Japongo jendeari.

Takashi malkoka zegoen ia.

— Hemen jaio nintzen, zuek bezalaxe —esan zuen—. Zuek bezain Amerikar ona naiz, ez al da hala?

Robbiek bere eginahala guztian pentsatu zuen. Ez zuen Takashirekin krudela izan nahi. Gero kopeta argitu zitzaion.

— Aizu, japonieraz hitz egiten al duzu? —gal-detu zuen.

— Horixe, nahiko ondo.

— Beno, orduan gure interpretaria izan zai-
tezke eta mezu sekretuak argi ditzakezu.

Takashi pozez zoratzen zegoen.

— Horixe baietz —hots egin zuen kartsuki—.

Eta nahi baduzue, nire zaharra espiatuko dugu.

Baina kontu hura akabo zen. Mr. Katoren kontra bakarrik zuzen zezaketen beren borroka, eta Mr. Kato urduriegia zen bere eskopetarekin.

Halloween eguna pasa zen, eta bai Esker On eguna ere. Bolada hartan. Robbiek mutilengan zuen eragina haien hiztegiaren ugaritzean antzeman zen, eta oinetako edo arropa onekiko gorroto erabatekoan. Ohartu gabean, Robbiek estilo bat ezarri zuen, ez berria, beharbada, baina ordura artekoa baino estuagoa. Ez zen gizalegezkoa arropa onak janztea, eta are gehiago, Robbierentzat irain bat zela pentsatzen zen.

Ostiral arratsalde batez Robbiek hamalau ohar idatzi eta hamalau mutilen artean banatu zituen isilka eskolako patioan. Ohar guztiak berdinak ziren. Hala zioten: «Indio talde batek bihar hamarretan nire etxean Estatu Batuetako presidentea erreko du zutoin bati lotuta. Isilka etorri eta egin zaunka azeriak bezala gure beheko sailaren ondotik. Neu ere han izango naiz eta arima zoritxarreko hori salbatzera eramango zaituztet.»

Miss Morganek zenbait hilabete bazerama-tzan Junius Maltby bisitatzera joateko asmoarekin. Bere jakin-mina are handiagoa egin zen hari buruz entzundako istorioekin eta haren semearekin zeukan harremana zela medio. Aldian behin, ikasgelan, mutilen batek informazio harri-garriren bat zabaltzen zuen. Esate baterako, bere ergelkeriagatik benetako ospea zuen ume batek Hengestek eta Horsak Britain Handia inbaditu zutela esan zion. Umeak, beste erremediorik izan ez zuenean, informazioa Junius Maltbyrengandik zetorrela aitortu zuen, eta neurri batean sekretu antzeko zerbait zela. Ahuntzaren istorio zahar hura ikaragarri dibertigarria iruditu zitzaion maistrari eta idatzi egin zuen aldizkari baterako, baina ez zion inork erosi. Hamaika aldiz jarria zuen Maltby-tarren granjara joateko eguna.

Abenduko larunbat goiz batez, esnatu zenean, airean jela aurkitu zuen eta eguzki argitsuak distiraka. Gosaldu ondoren panazko gona eta mendiko botak jantzi eta etxetik atera zen. Atarian arrantxoko txakurrak samurtu nahian ibili zen berarekin joan zitezenean, baina haiek isa-

tsei eragitea besterik ez zuten egin, eta eguzkitan lo egitera itzuli ziren.

Maltby-tarren etxea bi miliara zegoen gutxi gorabehera, Gato Amarillo izeneko mendi-lepo txikian. Erreka bat zegoen errepidearen ondotik zihoana, eta haltzen azpian oparo hazten ziren ezpata itxurako garoak. Ia hotza egiten zuen mendi-lepoan, eguzkia artean mendiaren gailurreraino igo gabe baitzegoen. Halako batean, paseatzen zihoala, bere aurrean pausoak eta ahotsak aditu ote zituen iruditu zitzaion, baina bizkor-bizkor bihurgunearen bestaldera heldu zenean, inor ez zuen ikusi. Nolanahi ere, errepide ondoko sastrakek kraskatako misterioitsuak ateratzen zituzten.

Sekula hara joan gabea izan arren, Miss Morganek ezagutu egin zuen Maltby-tarren terrenoa bertara ailegatu zenean. Hesiak lurrean erdi etzanda zeuden, nekatuta bezala sasien gehiegizko kargaren pean. Fruta-arbolek adar biluziak luzatzen zituzten belar-gaiztoen mordoilotik. Basa-masusten laharrak sagarrondoetan gora igotzen ziren; katagorri eta untxiek ihes egiten zuten bere oinazpitik, eta ahots eztxiko usoak

hegal zitzukariekin aireratzan ziren. Basa-udare altu batean eskinoso batzar bat garrasi eta garrasi ari zen, eztabaida kakofonikoan. Orduan, goiz izoztuaren gloriak kapa iletsu batez janzten zuen zumar baten ondoan, Miss Morganek Maltby-tarren teilatuko oholxa kiribildu eta goroldiotsuak ikusi zituen. Bere gelditasun hartan, ehun urte lehenago abandonatua zirudien etxeak. «Zer hondatua eta utzia», pentsatu zuen Miss Morganek. «Zer xarma eta zarpailkeria erabatekoak!» Esparrura sartu zen bere hesolatik zintzilik zegoen langa batetik. Granjako etxeordek kolore grisa zeukaten eguraldiaren eraginez, eta murruek saihetsetan gora, aihen araugabeek beren behatzak luzatzen zituzten. Miss Morganek etxearen ertza inguratu eta bertan gelditu zen; zabaldu egin zitzaion ahoa eta hotzikara batek bere bizkar-hezurra zeharkatu zuen. Esparruaren erdian zutoin sendo bat zeukaten tente jarrita, eta gizon zahar eta zarpailtsu bat hari lotuta zegoen soka buelta askorekin. Beste gizon batek, aurrenekoa baino gazteagoa eta txikiagoa, baina are zarpailtsuagoa, sastrakak pilatzen zituen gatibuaren oinen ondoan. Miss

Morganek dardara egin eta etxearen bestaldera jo zuen atzera. «Horrelako gauzak ez dira gertatzen», esaten zion bere buruari. «Ametsetan ari zara. Horrelako gauzak ezin dira gertatu.» Eta orduan bi gizonak solasik adiskidetsuenean ari zirela aditu zuen.

— Ia hamarrak dira —zioen borreroak.

Gatibuak erantzun zuen:

— Bai, eta kontuz ibili sastraka horiei su ematerakoan. Ailegatu direla seguru jakin arte ez piztu.

Miss Morganek ia-ia garrasi egin zuen, lasaituta. Zutoin aldera abiatu zen pauso apur bat dudatiez. Libre zegoen gizonak jiratu eta ikusi egin zuen. Segundo batez harrিতuta bezala gelditu zen, baina berehala bere onera etorritz, erreberentzia egin zion Miss Morgani. Galtza urratu eta bizar narraseko gizon batengandik etorria izanik, erreberentzia barregarria eta xarmangarria izan zen.

— Maistra naiz —azaldu zuen Miss Morganek arnaska—. Paseoan abiatu eta etxe hau ikusi dut. Auto-de-fé hau benetakoa zeia pentsatu dut une batez.

Juniusek irribarre egin zuen.

— Bai benetakoa izan ere. Zuk uste baino serioagoa da. Erreskate taldea zinela pentsatu dut une batez. Laguntza hamarretan heltzekoa da, badakizu.

Azeri marru basatiak lehertu ziren etxearen beheko aldean, sahats artean.

— Laguntza izango da hori —jarraitu zuen Juniusek—. Barkaidazu, Miss Morgan... izen hori duzu, ezta? Ni Junius Maltby naiz, eta beste gizon hau berriz egun arruntetan Jakob Stutz da. Gaur, ordea, Estatu Batuetako presidentea da, Indioek une batetik bestera erreko dutena. Hasiera batean Ginebra izango zela pentsatu genuen, baina erabateko antzik izan gabe ere, planta hobea dauka Presidentetarako Ginebra izateko baino, ez al zaizu iruditzen? Gainera ez zuen gonarik jantzi nahi.

— Horrelako txorakeriarik! —esan zuen Presidenteak gogo onez.

Miss Morganek barre egin zuen.

— Ikusi al dezaket erreskatea, Mr. Maltby?

— Ni ez naiz Mr. Maltby, ni hirurehun indio naiz.

Azerien marru hotsa berriro lehertu zen.

— Zoaz haranzko hartara —esan zuten hiru-rehun indioek—. Hala ez zaituzte larru-gorritzat hartu eta bertan mastrakatuko.

Erreka aldera begiratu zuen. Sahats baten adarra indarrez mugitzen zen. Juniusek pospoloa piztu bere galtzetan eta su eman zion sastrakari, zutoinaren oinean. Garra gorantz zihoala, sahasak lehertu bezala egin ziren puska askotan eta puska bakoitza mutil bat bihurtu zen, garrasika zetorrena. Multzoa aurrerantz oldartu zen, modu badaezpadako eta latzean armatuta, frantziarrak bezalaxe Bastillari eraso ziotenean. Garrak Presidentea miazkatzera zihoazen unean, jo ostikoz eta baztertu egin zuten sua bortizki. Salbatzaileek askatu sokak esku sutsuekin, eta Jakob Stutz libre eta pozik gelditu zen. Ondorengo zeremoniak ez zuen hunkigarritik erreskateak baino gutxiago izan. Mutilek militar agurra egiten zuten bitartean, Presidenteak haien ilara guztia zeharkatu eta berun pusketa bat ipini zuen mutil bakoitzaren paparrean. HEROI hitza zeramana sakonki grabatuta. Horrenbestez amaitu zen jostaketa.

— Datorren larunbatean azpijoko miserable hau antolatu duten zital errudunak urkatuko ditugu —iragarri zuen Robbiek.

— Zergatik ez orain? Urka ditzagun orain! — oihukatu zuen taldeak.

— Ez, gizonak. Gauza pila dago egiteko. Urkabea prestatu behar dugu.

Bere aitagana jiratu zen.

— Urkatuak zuek biok izan beharko duzue, noski —esan zuen. Une batez irrikaz begiratu zion Miss Morgani, eta gero, gogoz kontra bezala, burutik kendu zuen.

Miss Morganek inoiz pasatako arratsalderik atseginenetakoa izan zen hura. Sikomoroaren adarrean ohorezko tokia eman arren, mutilek ez zioten jadanik maistrari bezala begiratzen.

— Gusturago egongo zinateke oinetakoak kenduz gero —proposatu zion Robbiek, eta bera gusturago sentitu zen botak kendu eta hankak uretan sartu zituenean.

Arratsalde hartan Aleutiar irletako indioen artean aurkitzen diren kanibal taldeei buruz mintzatu zen Junius. Mertzenarioak Cartagoren kontra nola bihurtu ziren kontatu zuen. Lazedemo-

niarrak deskribatu zituen, Termopiletan hil baino lehen beren ilea orrazten. Makarroien jatorria azaldu zuen, eta bera bertan izan balitz bezalaxe hitz egin zuen kobrearen aurkikuntzaz. Azkenik, Jakob egoskorra Juniusek kontra hasi zenean gizona Lurreko Paradisutik bota zuteneko hura zela-eta, eztabaida koxkor bat piztu zen, eta mutilak etxerantz abiatu ziren. Miss Morganek aurea hartzen utzi zien, berak lasai pentsatu nahi baitzuen gizon xelege hari buruz.

Bai maistrak bai bere ikasleek izu-ikaraz itxaroten zuten eskola-batzarraren bisita eguna. Zeremonia handiko eguna izaten zen. Lezioak urduri errezitatzen ziren eta hitz bat oker idazteak krimen kapitala zirudien. Ez zen umeez hanka-sartze gehiago egindako egunik, edo maistraren nerbioak hain airean egondakorik.

Zeruko Belardietako eskola-batzarrak Abenduaren 15eko arratsaldean egin zuen bere bisita. Bazkaldu eta segituan erreskadan sartu ziren denak, itxura goibel, hiletatsu, eta apur bat herabeaz. John Whiteside idazkaria zetorren aurrena, zaharra eta kaskazuria, eta hezkuntzari buruz jarrera aski librea zuena, ibarrean behin

baino gehiagotan kritikatu. Bere atzetik Pat Humbert zetorren. Berak hala nahi zuelako aukeratu zuten Pat batzarkide. Gizon bakartia zen, inoren ezaupidean sartzeko lehen pausoa ematen ez zekiena, eta edozein modu bilatzen zuena bere burua harremanatzera behartzeko. Bere arropak zurrinak eta tristeak ziren, Washingtongo Lincoln estatua eseriak daraman brontzezko trajea bezalakoxeak. T. B. Allen zetorren hurrena, pasillotik aldaroka modu zabar samarrean. Ibarreko merkatari bakarra zenez, batzarkide izatea legez zegokion. Bere atzetik Raymond Banks zetorren pauso-luzeka, handi eta alaitsu eta gorri-gorri esku eta aurpegiz. Ilarako azkena Bert Munroe zen, partaide aukeratu berria. Eskolara egiten zuen lehen bisita zenez, Bertek kikildu samarra zirudien gela aurreko eserleketara zihoala beste partaideen atzetik.

Batzarkide guztiak magistratuen antzera eseri eta gero, emazteak sartu eta gelaren atzealdean aurkitu zuten eserlekua, umeen atzean. Ikasleak bihurritu egiten ziren urduritasunez. Inguratuta zeudela sentitzen zuten, moz-tuta zeukatela ihesbidea, ihes egitera behartuz

gero. Eserlekuetan kiribiltzen zirenean, emakumeen irribarre borondatetsuak ikusten zituzten. Mrs. Munroek magalean zeukan paperezko fardel handi batez ohartu ziren.

Klasea hasi zen. Miss Morganek, irribarre bortxatua aurpegian, ongietorria eman zion batzarriari.

— Ohikoa ez denik ez dugu egingo, jaunak — esan zuen—. Uste dut interesgarriagoa izango dela zuentzat, zuen funtzioa bete ahal izateko, eskola bere eguneroko martxan ikustea.

Handik oso gutxira, damututa zegoen hura esanaz. Ez zuen gogoratzen sekula hain ume ergelik ikusi izana. Aho-sabai paralizatuetatik hitzen bat ateratzea lortzen zutenek ere, akatsik ikaragarrienak egiten zituzten. Beren ortografia latza zen. Beren irakurketak ero baten totalkeria ekartzen zuen gogora. Batzarkideak duintasuna gordetzen saiatu ziren, baina ezin izan ziren egon irribarretxo batzuk egin gabe umeengatik sentitzen zuten lotsagatik. Miss Morganen kope-tan izerdi mehe bat agertu zen. Batzar irainduak lanpostutik botatzen zuela ere imajinatu zuen. Atzean eseritako emazteek irribarrez jarraitzen

zuten, urduri, eta denbora tantoz tanto bezala zihoan. Umeek aritmetika lardaskatu eta itxuragabetu zutenean, John Whiteside bere eserlektik altxa zen.

— Eskerrik asko, Miss Morgan —esan zuen—. Baimena ematen badidazu, hitz batzuk zuzenduko dizkiet umeei, eta gero nahi baduzu bidal itzazu kanpora. Sari bat behar lukete gu hemen edukitzeagatik.

Maistrak hasperen egin zuen lasaituta.

— Hortaz ulertzen duzu ez direla normalean bezain ondo aritu? Eskerrak jabetu zaren.

John Whitesidek irribarre egin zuen. Makina bat maistra gazte urduri ikusiak zituen eskola-batzarraren bisita egunean.

— Dezaketen guztia erakutsi dutela uste banu, eskola itxiko nuke —esan zuen.

Ondoren umeei hitz egin zien bost minutuz, gogor estudiatu behar zutela eta maistra maite behar zutela esan zien. Urtez urte errepikatutako hitzalditxo labur eta erraza izan zen. Ikaslerik zaharrenek askotan entzuna zuten. Bukatu zutenean, umeak bidaltzeko eskatu zion maistrari. Ikasleak ilaretan atera ziren, bake-bakean, baina

beren buruak kanpoan kusi zituztenean, hartu zuten arindua gehiegizkoa izan zen. Uhuri eta garrasiekin, ahal zuten guztia egin zuten elkar hiltzeko, zela tripak atereaz, zela lepoa moztuz.

John Whitesidek bostekoa eman zion Miss Morgani.

— Ordena mantentzeko zu baino maistra hoberik sekula ez dugu izan —esan zion jator—. Umeez zenbat maite zaituzten jakingo bazenu, uste dut lotsatu egingo zinatekeela.

— Ume onak dira-eta —adierazi zuen berak leialki—. Ikaragarri onak dira.

— Horixe —onartu zuen John Whitesidek—. Eta bide batez esanda, zer moduz konpontzen da Maltby gaztetxea?

— Ba begira, mutiko bizkorra da, ume berezia. Nik uste dut oso buru argikoa dela.

— Beratzaz hitz egiten aritu gara batzarraren bileran, Miss Morgan. Jakingo duzu, noski, bere etxeko bizimodua ez dela inolaz ere behar bezalakoa. Arreta berezia eskaini diot gaur arratsaldean. Ume gizarajoa juxtu-juxtu doa jantzita.

— Beno, etxe bitxia da.

Miss Morgani iruditu zitzaion defendatu egin behar zuela Junius.

— Ez da ohiko etxea, baina txarra ere ez da.

— Ez gaizki ulertu, Miss Morgan. Ez dugu tartean sartzeko asmorik. Bakarrik pentsatu dugu ondo egongo zela mutikoari gauza batzuk ekartzeari. Bere aita oso pobrea da, badakizu.

— Badakit —esan zuen Miss Morganek adeitsu.

— Mrs. Munroek arropa batzuk erosi ditu berarentzat. Hots egiten badiozu, eman egingo dizkiogu.

— Oh! Ez, ez nuke nahi... —hasi zen Miss Morgan.

— Zergatik ez? Alkandoratxo batzuk, galtza pare bat eta zapata batzuk, hori da dena.

— Baina bera lotsatu egin liteke horrekin. Mr. Whiteside. Uргуилу handiko mutikoa da.

— Lotsatu arropa egokiak edukitzeaz? Zer txorakeria! Denez ere ez edukitzeak eman beharko lioke lotsa. Baina horretaz aparte, hotz handiegia egiten du urte garai honetan oinutsik ibiltzeko. Azken aste honetan izotza egon da lurrean goizero.

— Nahiago nuke emango ez bazenizkiote —
esan zuen etsita—. Benetan nahiago nuke eman-
go ez bazenizkiote.

— Miss Morgan, ez al zaizu iruditzen exajera-
tzen ari zarela? Mrs. Munroek bere borondate on
guztiarekin erosi dizkio gauzak. Mesedez hots
egiozu, eman diezazkion.

Une bat geroago hantxe zuten Robbie
aurrean. Ile banatua aurpegira erortzen zitzaion,
eta bere begiek dizdikoa segitzen zuten patioko
jolasean jarritako grinagatik. Gelaren aurreal-
dean bildutako taldeak atsegin begiratzen zion,
ahalegina eginez bere arropa zarpailduei modu
nabarmenegan ez begiratzeko. Robbiek bere
ingurura begiratu zuen ezinegonez.

— Mrs. Munroek zerbait dauka zuretzat,
Robert —esan zuen Miss Morganek.

Orduan Mrs. Munroe aurreratu eta Robbieren
besoetan jarri zuen fardela.

— Zer mutil-koskor polita!

Robbiek paketea kontu handiz lurrean utzi
eta eskuak bizkarrera eramane zituen.

— Ireki ezazu, Robert —esan zuen T. B. Alle-
nek zorrozki—. Zer edukazio da hori?

Robbiek minduta begiratu zion

— Bai, jauna —esan, eta soka askatu zuen.

Alkandorak eta galtza berriak bere aurrean azaldu, eta haiei begira geratu zen ulertu ezinik. Bat-batean, haren esanahia konprenitu balu bezala izan zen. Aurpegia erabat gorritu zitzaion. Une batez ingurura begiratu, sarean harrapatutako animalia bezain urduri, eta segidan tximistaren habailan alde egin zuen atetik, arropa munto txikia bere atzean utzita. Batzarkideek bi pauso aditu zituzten portxean, eta halaxe ezkutatatu zen Robbie.

Mrs. Munroek maistragana jo zuen etsipenez.

— Zer gertatzen zaio ordea?

— Nik uste lotsatu egin dela —esan zuen Miss Morganek.

— Baina zergatik lotsatu behar zuen? Jator portatu gara berarekin.

Maistra esplikatzen saiatu zen, eta hartan ari zela amorrazio pixka bat sentitu zuen jende harengana.

— Nik uste, begira, gauza bat esango dizuet, nik uste oraintxe arte ez duela jakin pobrea zela.

— Nire errua izan da —desenkusatu zen John Whiteside—. Sentitzen dut, Miss Morgan.

— Zer egin dezakegu bere alde? —galdetu zuen Bert Munroek.

— Ez dakit. Egia esan ez dakit.

Mrs. Munroe bere senarragana bihurtu zen.

— Bert, uste dut lagungarri izan litekeela zu Mr. Maltbyrekin hitz egitera joatea. Jator portatzea besterik ez dizut eskatzen. Esaiozu, besterik gabe, mutil-koskorrek ez luketela izotzetan oinutsik ibili behar. Beharbada horrelako hitz bat lagungarri izango da. Mr. Maltbyk arropak onartzeko esan liezaioke Robert txikiari. Zer iruditzen zaizu, Mr. Whiteside?

— Ez zait gustatzen. Bozketa egin beharko duzue nire iritzia baztertzeke. Nahiko kalte egin dut.

— Nik uste bere osasuna garrantzitsuagoa dela bere sentimenduak baino —ekin zion berriro Mrs. Munroek.

Abenduaren hogeian eskola itxi zuten Eguberri asterako. Oporrak Los Angelesen pasatzeko

asmaoa zuen Miss Morganek. Bidegurutzean zegoela Salinaseko autobusari itxoiten, gizon bat eta mutil-koskor bat ikusi zituen Zeruko Belardietako errepidetik hurbiltzen. Arropa berri merkeez jantzita zihoazen, eta nola batak hala besteak hanketako minez bezala ematen zuen pausoa. Aldera izan zituenean, Miss Morganek mutil-koskorrari arretaz begiratu, eta Robbie zela ikusi zuen. Aurpegi zapuztua eta atsekabetua zeukan.

— Hara, Robert! —hots egin zuen Miss Morganek—. Zer gertatzen da? Nora zoazte?

Gizonak hitz egin zuen.

— San Franciscora goaz, Miss Morgan.

Miss Morganek begiak altxa zituen bizkorki. Junius zen, bizarra moztuta. Hain zaharra zenik ez zitzaion behin ere iruditu Miss Morgani. Bere begiek ere, gazte izandakoak, zaharrak ziruditen. Baina, jakina, bizarrak azala eguzkitatik gorde ziolako zegoen hain zurbil. Bere aurpegiak nahasmen handiko espresioa ageri zuen.

— Oporretara al zoazte? —galdetu zuen Miss Morganek—. Ikaragarri gustatzen zaizkit hiriko dendak Eguberri partean. Egun osoak pasako nituzke haiexei begira.

— Ez —erantzun zuen Juniusek astiro—. Uste dut betirako geldituko garela han. Kontablea naiz, Miss Morgan. Edo kontablea nintzen behintzat orain hogeitun urte. Lanen bat aurkitzen saiatuko naiz.

Pena adierazten zuen bere ahotsak.

— Baina zergatik egiten duzu hori? —galdetu zion Miss Morganek.

— Ba zera —azaldu zuen Juniusek soil-soil— ez nekien hemen geldituta mutilari kalte egiten ari nintzela. Ez nuen horretaz pentsatu behin ere. Pentsatu beharko nuen, noski. Konprenituko duzun bezala, ez luke pobretasunean hazi behar. Konprenitzen duzu, ezta? Ez nekien zer zioen jendeak gutaz.

— Zergatik ez zara arrantxoan geratzen? Arrantxo ona da, ezta?

— Baina ezingo nuke hortik bizimodua atera, Miss Morgan. Ezer ez dakit nekazaritzaz. Jakob arrantxoko gorabehera eramaten saiatuko da, baina badakizu, oso nagia da Jakob. Geroago, ahal dudanean, arrantxoa salduko dut Robbiek inoiz izan ez dituen zenbait gauza izan ditzan.

Miss Morgan haserre zegoen, baina aldi berean negarrez hasteko zorian sentitzen zen.

— Jende ergelak esaten dizun guztia ez duzu ba sinetsiko, ezta?

Juniusek harritura begiratu zion.

— Ez horixe. Baina zeuk ere ulertuko duzu koskortzen ari den mutikoa ez dela animalia txiki bat bezala hezi behar, ez al da egia?

Autobusa errepidean azaldu zen, beraiek zeuden tokirantz hurbilduz. Juniusek Robbie seinatu zuen:

— Ez zuen etorri nahi. Ihes egin zuen mendira. Bart harrapatu dugu Jakob eta biok. Denbora gehiegi darama animaliatxo bat bezala bizitzen, badakizu. Gainera, Miss Morgan, ez daki zer ederki biziko garen San Franciscon.

Autobusa kirrinkada hotsez gelditu zen. Junius eta Robbie igo eta atzealdean eseri ziren. Miss Morgan haien ondoan jartzera zihoan. Baina bat-batean buelta eman eta txoferraren ondoan eseri zen. «Jakina», esan zuen berekiko. «Bakarrik egon nahiko dute, jakina.»

Guillermo Lopez zaharra alabak nahiko hazi-ta zituela hil zen, herentzia bezala berrogei Areutzita malda arrokatsutan, eta dirutan ezer ez. Txabola bat zuten bizitoki, karez zuritua eta txapazko teilatuarekin, aldamenean letrina bat zuena, putzu-zulo bat eta estalpe bat. Lur idorrean ez zen ia ezer ere sortzen, bakarrik laharrak eta salbia loreduna, eta ahizpak gogotik saiatu arren beren baratzetxoak apenas ematen zuen barazkirik. Bolada batez, martirio latzean, gosea pasa zuten, baina azkenean haragia garaille atera zen. Lodiegiak eta alaiegiak ziren erlijioarekin zerikusirik ez zuen zerbaitengatik, alegia janaren asunto harengatik, beren buruak martirizatzeko.

Egun batez Rosak burutapen bat izan zuen:

— Ez al ditugu guk egiten ibarreko tortillarik onenak? —galdetu zion bere ahizpari.

— Gure amagandik ikasi geninan arte hori —erantzun zuen Mariak debozioz.

— Hortaz salbatuta gauden. Entxiladak, tortillak eta tamalak egin eta *Las Pasturas del Cielo*-ko jendeari salduko zizkionagu.

— Jende horrek erosiko dituela iruditzen al zain? —galdetu zuen Mariak ezkor.

— Entzun, gauza bat esango dinat-eta, Maria. Monterreyn toki asko zeuden gureak baino askoz tortilla kaskarragoak saltzen dituztenak. Eta saltzaileak oso aberatsak ditun. Urtean hiru aldiz soineko berria estreinatzen dinate. Eta haien tortillak konpara al daitezke gureekin? Gure ama gogoan hartuta egiten dinat galdera hori.

Mariaren begiak emoziozko malkoz gainezka zeuden.

— Ez, ezin ditun konparatu —deklaratu zuen kartsuki—. Mundu osoan ez zegoen geure amaren esku sailduek egindako tortilla haiek bezalakorik.

— Beno, hortaz, *adelante!* —esan zuen Rosak erabakita—. Hain onak badira, erosiko dizkin jendeak.

Prestakuntza ardailatsuko astea izan zen ondorengoa, bi ahizpek izerditan pasa zutena, garbiketa eta apainketa lanetan. Dena bukatu

zutenean, beren etxetxoak kare kapa berria zeukan barrutik eta kanpotik. Geranio zuztarrak zeuden aldatuta sarrerako eskailera-mailen ondoan, eta urtetan pilatutako traste zahar guztiak erreak zituzten. Etxearen aurrealdeko gelari jatetxe baten itxura eman zioten, eta bi mahai zeuden bertan, hule horiz jantziak. Errepide ondoko hesian, pinuzko ohol batek iragartzen zuen: «Tortillak, entxiladak, tamalak eta beste berezitasun espainiarrak, R. & M. Lopez.»

Bezeroak ez ziren arrapaladan etorri. Egia esan, oso gutxi etorri ziren. Bi ahizpak beren mahai hori haiexetan eseri eta itxoin egiten zuten. Umeak bezalakoak eta alaitsuak ziren, eta ez oso txukunak. Siletan eseri eta fortunari itxoiten zioten. Baina bezero bat sartu orduko, azkar asko zutitzen ziren hari kasu egiteko. Barre egiten zuten gogotik bezeroak esandako guztiarekin; harro mintzaten ziren beren arbasoek, eta biek prestatutako tortillen fintasun zoragarriaz. Ukalondoraino goratzen zituzten mahukak beren azalaren zuritasuna erakusteko, Indio odola ukatzeko lehia bizian. Baina oso bezero gutxi etortzen ziren. Ahizpak zailtasunak

aurkitzen hasi ziren negozioarekin jarraitzeko. Ezin zituzten beren produktuak kantitate handian prestatu, hondatu egingo baitziren luzaro gordez gero. Tamalek haragi freskoa behar dute. Beraz, tranpak jartzen hasi ziren txori eta untxientzat; txolarre, zozo eta larretxoriak kaioletan edukitzen zituzten haietaz behartu arte tamalak egiteko. Eta hala eta guztiz negozioa makalduz zihoan.

Goiz batez Rosa aurrean jarri zitzaion ahizpári.

— Lindo zahar hori tresnatu behar dun, Maria. Artabururik gabe geratu gaitun.

Zilarrezko txanpon bat jarri zuen Mariaren eskuan.

— Hoa Monterreyra, baina gutxi erosi —esanzion—. Negozioa hobetzen denean mordoa erosi-ko dinagu.

Mariak, obedituz, ahizpári musu eman eta estalpe aldera abiatu zen.

— Eta, Maria... batere dirurik sobratzen bazain, erosi gozoki bana biontzat... gozoki handi bana.

Arratsalde hartan etxeratu zenean, Mariak nabarmenki isila aurkitu zuen bere ahizpa. Bai oihu zorrotzak eta garrasitxoak, bai joan-etorriaren xehetasun guztiei buruzko eskaerak, berriro ikustean elkarri egin ohi zizkiotenak, faltan zeuden. Rosa silan eserita zegoen mahaietako batean, eta aurpegian kontzentraziozko zimur bat ageri zuen.

Maria herabeki hurbildu zen.

— Oso merke erosi dizkinat artaburuak — esan zuen—. Eta begira, Rosa, begira gozokia. Handietakoa, eta lau zentabo bakarrik!

Rosak hartu eskaintzen zioten karameluzko barratxoa eta puska handi bat ahora eraman zuen. Kopeta zimurtuta segitzen zuen, pentsakor. Maria aldamenean eseri zitzaion, irribarre eginez eztiro, xelebrequi, eta, isil-isilik, bere parte eskatuz ahizparen karga hartatik. Rosa harkaitz bat bezala zegoen eserita eta bere karameluzko barratxoa miazkatzen zuen. Bat-batean, begirazo bat bota zuen Mariaren begietara.

— Gaur —esan zuen solemnitateraz— gaur bezero bati eman zionat neure burua.

Maria negar-zotinka hasi zen emozio eta jakin-minez.

— Ez gaizki ulertu —jarraitu zuen Rosak—. Ez dinat dirurik hartu. Gizona hiru entxilada janda zegonan... hiru!

Maria urduritasunezko ume-antsia txorrotxez lehertu zen.

— Hago lasai —esan zion Rosak—. Zer iruditzen zain egin behar dudala orain? Aurrera aterako bagara animatu egin behar dizkinagu gure bezeroak. Eta hiru hartu dizkin, Maria, hiru entxilada! Eta ordaindu egin dizkin. Eta? Zer iruditzen zain?

Mariak sudurrari ziztatu eta, ahizparen arrazoinamenduaren aurrean, bere kemen morala adierazi nahi izan zuen.

— Nik uste, Rosa, nik uste gure ama pozik egongo litzatekeela, eta nik uste hire arima ere alaitu egingo litzatekeela Ama Birjinari eta Santa Rosari barkamena eskatuko bahie.

Rosak zabalki irribarre egin eta besoetan hartu zuen Maria.

— Horixe da egin dudana. Gizona joan orduko. Gizonari etxetik ateratzeko betarik eman baino lehen horretantxe ari nindunan.

Maria ahizparen besoetatik libratu eta bere gelara joan zen malkoak isuriz. Hormako Ama Birjin txikiaren aurrean belaunikatuta egon zen hamar minutuz. Gero altxa eta Rosaren besoetara bota zen.

— Rosa, ahizpa nirea —hots egin zuen alai-ki—. Uste dinat, uste dinat nik ere animatu egingo ditudala bezeroak.

Lopez ahizpek elkar estutu zuten besarkada handi batean, beren alaitasunezko malkoak nahastuz.

Egun hark bihurgune bat ezarri zuen Lopez ahizpen asuntoetan. Egia da negozioa ez zela loratu, baina handik aurrera, behar hainbat «berezitasun espainiar» saldu zituzten su-aldean jana edukitzeko eta beren bizkar zabal, borobiletan kolore biziko soineko estanpatuak eramateko. Tinko zirauten erlijioari zegokionez. Bietako batek bekatu egiten zuenean, xuxen-xuxenean ezkaratzera jo —orain han baitzeukaten portzelanazko Ama Birjin txikia, bi logeletatik eskurago

edukitzearren— eta erreztatu egiten zuen barkamen eske. Ez zuten itxoiten bekatuak pilatu arte. Egin ahala aitortzen zituzten. Ama Birjinaren azpian leunduta zegoen zorua, kamisoiez belau-nikatzen ziren tokian.

Bizitza oso atsegina bihurtu zen Lopez ahizpentzat. Bien artean ez zegoen norgehiagokaren zantzurik, zeren, Rosa zaharragoa eta ausartagoa bazen ere, ia berdinak ematen baitzuten. Maria lodixeagoa zen, baina Rosa altuxeagoa, eta hori zen dena.

Orain etxea algarez eta entusiasmoko oihuez beteta zegoen. Kantatu egiten zuten, harri txapalei buruz makurtuta, tortillen oreari tapatakoak eman bitartean beren esku gizen, indartsuekin. Bezero batek gauza barregarriren bat esan zuela, edo Tom Bremainek, bere hirugarren tamala janez, zera esan zuela: «Rosa, bizi-modu oparoegia daraman. Esne mamitan bizitze honek hesteak lehertuko dizkin, horrela jarraitzera...» eta bi ahizpak barrez bihurri-bihurri eginda egongo ziren ordu erdi batez. Hurrengo egunean ere, harriaren gainean tortillari tapatakoak eman bitartean, ateraldi hura gogoratu eta

barre egingo zuten ostera. Zeren ahizpa hauek bai baitzekiten barrea luzatzen, goxatzen eta entretentzen, haren posibilitateak azken kondarreraino xurgatu arte. Don Tom gizon egokia zen, zioten biek. Gizon dibertigarria, eta gizon aberatsa. Behin batez bost platerkada *chile con carne* jan zituen. Baina gainera, gizon aberats gehienak ez bezala, *hombre fuerte* bat zen, oh, oso indartsua! Tortillentzako harrien gaintetik buruari eragiten zioten adierazpen horren aurrean, askojakinen erara eta oroiminez, ardo on batez gogoratzen diren bi aditu bezala.

Ez dezala inork pentsa ahizpek esku zabala zutenik animoak emateko orduan. Dirurik ez zuten onartzen ezpazen janariengatik. Baina gizonen batek beren plater haietatik hiru edo gehiago jaten bazituen, ahizpen bihotz samurrak esker onez betetzen ziren, eta gizon hura animatua izateko gai bihurtzen zen.

Gau zoritxarreko batean, gizon batek, hiru entxilada jateko apetiturik ez zeukala-eta, lotsaren dirua eskaini zion Rosari. Beste bezero batzuk ere baziren ordu hartan etxean. Elkarrizketa pilpilean zegoela bota zen eskaintza. Bere-

hala itzali zen hotsa, isiltasun izutuari tokia eginenez. Mariak eskuetan gorde zuen aurpegia. Rosa aurrena zurbildu, eta segidan gorri-gorri jarri zen bere odolaren oldarraz. Arnasestuka zegoen emozioz, eta begiak txinpartaka zeuzkan. Bere esku gizen, indartsuak arranoak bezala goratu eta bere aldaketan pausatu ziren. Baina mintzatu zenean, emozioari modu bitxian eutsiz mintzatu zen.

— Iraina da hori niretzat —esan zuen lehor—. Beharbada ez dakizu Vallejo Jenerala ia gure arbasoa dela, hurbil-hurbileko senidea dugu-eta. Geure zainetan odol garbia dago. Zer esango luke Vallejo Jeneralak adituko balizu? Ezpata atera gabe egoterik izango lukeela uste al duzu, bi dama, bere senide hurbil-hurbilak, nota iraintzen dituzun adituta? Hori uste al duzu? «Emakume lotsagarriak zarete!», esaten diguzu. Nor eta gu, California guztiko tortillarik txapalenak eta onenak egiten ditugunok. —Arnaska zegoen bere burua kontrolatzeko egin beharra zeukan ahaleginagatik.

— Asmo txarrik gabe esan dut —egin zuen antsi irain-egileak—. Jainkoarren, Rosa, asmo txarrik gabe esan dut.

Orduan Rosari joan egin zitzaion haserrea. Bere eskuetako batek, hegan altxa aldakatik, larretxori bat bezala oraingoan, eta keinu bat egin zuen ia tristeki ate aldera.

— Zoaz —esan zuen eztiro—. Ez dut uste asmo txarrik zenuenik, baina halere iraina hor-txe dago. Eta orain —gaineratu zuen, akusatua isil-isilik atetik ezkutatzen zen bitartean—, eta orain, beste inork nahi al du *chiles con frijoles* platerkada bat? Nork nahi du? *Chiles con frijoles* munduan parerik gabeak!

Gehienetan zoriontsu ziren, bi ahizpa horiek. Mariak, izaera oso delikatu eta goxokoa, geranio gehiago aldatu zituen etxe inguruan, eta malba gorriak jarri zituen hesiaren jira guztian. Salina-sera egindako bidaia batean, Rosa eta Mariak etxerako txanoak erosi eta elkarri erregalatu zizkioten, zinta arrosa eta urdinekikoak eta azpikoz gora jarritako habien itxurakoak. Moda gorrian zeuden! Elkarren ondoan ipinita ispilura begiratu, burua jiratu eta irribarre egin zioten elkarri

apur bat tristeki, pentsatuz: «Hau da egun handia. Hau da beti zorion garaia bezala gogoratuko dugun aldia. Zer lastima irauterik ez izatea.»

Bizimodu hark ez irauteak beldur ematen ziolako, Mariak lore txarro handiak edukitzen zituen bere Ama Birjinaren aurrean.

Baina gutxitan nozitzen zituzten halako aurrentipenak. Mariak fonografo txiki bat erosi zuen disko eta guzti: tangoak, baltsak... Ahizpek lanari ekiten ziotenean, harriei buruz makurtuta, makina martxan jarri eta musikaren konpasean prestatzen zuten tortillen oreka.

Ezinbestekoa zen bezala, Zeruko Belardietako ibarrean berehala zabaldu zen Lopez ahizpak emakume txarrak zirelako zurrumurrua. Ibarreko damek hotz hitz egiten zieten pasaeran. Ezinezkoa da jakitea nola heldu zitzaion dama haiei berria. Senarrek esanda ez behintzat, noski, baina nolana ere bazekiten; beti jakiten dute.

Larunbat batean, egunsentia baino lehen-
txeago, Mariak mandatresna zahar, sokez kon-
pondua atera eta Lindoren hezurren gainean
jarri zuen girnaldia bat bailitzan. «Izan ezak
kemena, adiskide», esan zion zaldiari, aztal-uha-

lak lotzen zizkiola, eta, «Ahoa, mesedez, Lindo nirea», ahokoa sartzen ziola. Gero atzera egitera behartu zuen buggy zahar baten hagen artetik. Lindok estropezu egin zuen propio hagekin, beti bezala azken hogeita hamar urteetan. Mariak hedeak kakotu zituenean, filosofo tristura astun batez begiratu zion animaliak. Lindo zaharra ez zen jadanik kezkatzen bere irtenaldien jomugaz. Zaharregia zen etxera itzultzeko ideiarekin suspertzeko ere, behin atera eta gero. Oraingo honetan, bere ezpain lodiak goratu, hortz hori, luzeak agerian utziz, eta imintzio etsia egin zuen.

— Bidea ez duk luzea —kontsolatu zuen Mariak—. Poliki joango gaituk. Ez duk bidaiagatik beldurtu behar, Lindo.

Baina Lindok beldurra zion bidaiari. Gorrotatu egiten zuen Monterreyko joan-etorria.

Buggya modu kezagarrian hondoratu zen Maria gora igo zenean. Kontu handiz hartu zituen hedeak eskuetan. «Aurrera, adiskide», esan zuen hedeak astinduz. Lindok dardara egin eta, burua jiratuta, begiratu egin zion. «Aditzen al duk? Abiatu egin behar diagu! Erosketak egin

behar dizkiat Monterreyn.» Lindok burua astindu eta belaun bat makurtu zuen erreberentzia moduko batean. «Aizak, Lindo!», hots egin zion Mariak agintetsu. «Abiatu egin behar dugula esan diat. Erabakita nagok. Eta haserre nagok gainera.» Bere amorrazio guztiarekin, Lindoren bizkar gainean astindu zituen hedeak. Lindok burua ia lurreraino makurtu, usnaka dabilen ehiza-txakurrak bezala, eta esparrutik atera zen poliki-poliki. Bederatzi milia egin beharko zituen Monterreyraino, eta beste bederatzi milia etxerakoan. Ondo asko zekien Lindok hori, eta jakiteak etsipenez betetzen zuen. Baina orain, tinkotasuna eta haserrea pasata, Maria bere eserlekuan ondo jarri eta *Waltz Moon* tangoaren estribilloa kantatzen hasi zen ezpain artean.

Muinoek dizdiz egiten zuten ihintzarekin. Mariak, aire fresko eta hezea arnastuz, ozenago kantatzen zuen, eta Lindok berak ere bere sudur-zulo zaharretan nahiko gaztetasun aurkitu zuen hats bafadak botatzeko. Larretxori batek aurrea hartu zien, postez poste hegaldatuz eta ito beharrean kantatuz. Urrutian, bere aurrealdean, Mariak gizon bat ikusi zuen errepidetik

oinez zihoana. Harrapatu baino lehen ere, ondo asko igarri zuen, haren pauso arrastakari eta tximu antzekoagatik, Allen Hueneker zela, ibarreko gizonik itsusiena eta lotsatiena.

Allen Huenekerrek, tximu baten ibilera izateaz gain, tximu baten itxura zuen. Mutil-koskorrek, adiskideak iraindu nahi zituztenean, Allen behatzaz seinalatu eta esaten zuten: «Hortxe zihoak hire anaia.» Beti asmatzen zuten broma harekin. Allen berriz, hain lotsatia zenez, eta bere itxurarekin hain izututa zegoenez, patilak uzten saiatu zen aurpegia gorde ziezaioten; baina bixar zakar, bakanak okerreko tokian hazten zitzaizkion eta bere simio itxura areagotzea besterik ez zuten egiten. Andreak, bere burua hogeita hamazazpi urteko ikusita hartu zuen senartzat, eta Allen zelako ezagutzen zituen gizon guztien artetik bere burua babesten ez zekien bakarra. Geroago argi eta garbi geratu zen emakume hark sistema berezi bat zuela, jeloskor egotea eskatzen zuena behar bezala funtzionatzeko. Allenen bizitzan bere jelosia piztuko zuen ezer aurkitu ez zuenez, gauzak asmatzen hasi zen. Istorioak kontatzen zizkien auzo-

koei senarrak emakumeekin zuen arrakastaz, edo hartaz fidatu ezinaz, edo ezkutuan burutzen zituen lege-hausteez. Berak ere sinetsi arte erre-pikatu zituen istorio horiek, baina auzokoek barre egiten zioten atzetik Allenen bekatuez hitz egiten zuenean, zeren Zeruko Belardietan mundu guztiak baitzekien zer lotsati eta izutia zen gizontxo itsusi hura.

Lindo urtetsua estropezuka heldu zen Allen Huenekerren parera. Mariak arrapalada zalapar-tatsuan doan zaldia geldiarazteko bezala tiratu zien hedeei.

— Astiro, Lindo! Hago lasai! —hots egin zuen.

Hedeen presiorik arinenarekin batera, Lindo bertan kieto gelditu eta atsedan osoko postura hartu zuen, artikulazioak kolokatsu, burua zintzi-lik.

— Egunon —esan zuen Mariak gizalegez.

Allen errepide bazterrera apartatu zen, lotsa-ti.

— E'unon —esan zuen, burua jiratzuz muino bati begiratzeko arreta bortxatuaz.

— Monterreyra noa —jarraitu zuen Mariak—. Igo nahi al zenuke?

Allen bihurritu egin zen, eta zerua aztertu zuen hodei edo zapelatzen bat ikusten ote zuen.

— Autobus geltokiraino bakarrik noa —esan zuen bekozko ilunez.

— Eta? Bide puska bat badago haraino, ez?

Gizonak patilak arraskatu zituen, erabakia hartu ezinik. Eta gero, kotxean joateagatik baino gehiago egoerari bukaera emateagatik, buggyra igo eta Maria gizenaren aldamenean eseri zen. Maria alde batera baztertu zen gizona eser zedin, eta gero pixkanaka lehengo tokira itzuli zen.

— Lindo, aurrera! —hots egin zuen—. Lindo, aditzen al didak? Segi aurrera, berriro haserretzea nahi ez baduk.

Hedeek klaskatako hotsa atera zuten Lindoren lepo inguruan. Animaliaaren muturra lurre-rantz makurtu zen, eta azkenik bere paseo geldoari ekin zion.

Puxka batean isilik joan ziren, baina luze gabe hizpidea ematea zer edukazio onekoa zen gogoratu zitzaion Mariani.

— Bidaiatzeko asmotan, ezta? —galdetu zuen.

Allenek haritz bati begirazo bat bota eta hitzik ez zuen esan.

— Nik behin ere ez dut trenik hartu —aitortu zuen Mariak une baten ondoren—, baina nire ahizpa trenez ibilia da. Behin batez San Francis-cora joan zen, eta beste batean etxerako bidea hartu zuen. Jende aberatsak zera esaten omen du, ona dela bidaiatzea. Nire ahizpa Rosak ere hala dio.

— Ni Salinaseraino bakarrik noa —esan zuen Allenek.

— Ah! Ni askotan izan naiz han, noski. Rosa eta biok lagun pila bat daukagu Salinasen. Gure ama hangoa zen. Eta gure aita sarritan joaten zen hara egurrarekin.

Allenek bere lotsaren kontra borroka egin eta esan zuen:

— Ezin izan dut Ford zaharra martxan jarri, bestela hantxe joango nintzen.

— Ford bat daukazu, hortaz? —Inpresionatu-ta zegoen Maria.

— Ford zahar bat besterik ez da.

— Rosa eta biok ere askotan esan dugu egu-nen batean Ford bat erosiko dugula akaso.

Orduan toki askotara joateko modua izango dugu. Jende aberatsak zera esaten omen du, ona dela bidaiatzea.

Elkarrizketa ilustratzeko bezala, Ford zahar bat muinoaren goialdean azaldu eta orroka jaitsi zen beraien aldera. Mariak gogor heldu zien hedeei.

— Hago lasai, Lindo! —hots egin zion. Lindok batere kasurik ez zion egiten ez Mariari ez Fordari.

Mr. eta Mrs. Munroe zihoazen kotxean. Bertek lepoa luzatu zuen gurutzatu zirenean.

— Jainko santua! Ikusi al duzu hori? —galdetu zuen barrez—. Ikusi al duzu andre-jale zahar hori Maria Lopezekin?

Mrs. Munroek irribarre egin zuen.

— Hara, hara! —hots egin zuen Bertek—. Broma polit askoa litzateke Hueneker atsoari zera esatea, bere agurea Maria Lopezekin ihes egiten ikusi dugula.

— Ez ezazu horrelakorik egin —esan zuen tinko emazteak.

— Baina broma ona izango litzateke. Badakizu nola hitz egiten duen senarrari buruz.

— Ez, ez ezazu hori egin, Bert!

Bitartean Mariak aurrera segitzen zuen, inuzenteki solas eginez bere gonbidatu ezkorrekin.

— Ez zara gure etxera etortzen entxiladak jatera. Ez dago gureak bezalako entxiladarik. Zeren, kontuz!, gure amari ikasi genion. Gure ama bizi zenean, bai San Juango puntan, eta bai Gilroiyo puntan ere, zera esaten zen, beste inork ez zekiela hain tortilla txapal eta meheak egiten. Zeren jakin behar duzu txapaltzea dela, txapaltzea dela tortillari kalitatea eta mehetasuna ematen diona. Inork ez du behin ere oreka nire amak bezain luzaro txapaldu, ezta Rosak ere. Orain Monterreyra noa irina erostera, han merkeagoa da-eta.

Allen Hueneker eserlekuaren bere aldean hondoratuta zihoan, autobus geltokira ailegatzeko irrikatzen.

Arratsaldearen azken ordua zen Maria etxera inguratu zenerako.

— Segituan etxean gaituk —hots egin zion poz-pezik Lindori—. Izan kemena, adiskide, bide handirik ez zaiguk geratzen-eta.

Maria ezinegonez borborka zegoen. Nabarmenkeriazko joerak emanda, lau karameluzko barratxo erosiak zituen, baina hori ez zen dena. Opari bat zeukan Rosarentzat, zetazko liga zabal pare bat, saihetsetan amapola gorri handi-handiez hornituak. Bere irudimenean, haiek janzen ikusten zuen Rosa, eta gero gonak goratzen, baina oso apalki, jakina. Liga haiexei begira egongo ziren biak, lurrean zutik jarritako ispilu batean. Rosak hanka punta pittin bat goratu, eta orduan ahizpek bozkariozko oihuak egingo zituzten.

Etxe-aurrean, poliki-poliki, tresnak kendu zizkion Mariak Lindori. Bazekien ona zela poza atzeratzea, handitu egiten baitzen hartara. Etxea bake-bakean zegoen. Atarian ez zegoen bezereen presentzia adieraziko zuen ibilgailurik. Mariak mandatresna zaharra eskegi eta belardira bidali zuen Lindo. Gero karameluzko barratxoak eta ligak atera eta etxe barrura jo zuen poliki-poliki. Rosa mahaitxo haietako batean eserita zegoen, Rosa isil eta uzkur bat, Rosa bekoz kodun eta penatu bat. Bere begiek bidriotsuak eta mortuak ziruditen. Esku gizen, tinkoak bere aurreko

mahaiaren gainean itxita zeuzkan. Ez zuen ez burua jiratu ez inolako arreta seinalerik eman Maria sartu zenean. Gelditu egin zen Maria, begiak ahizpagan josita.

— Rosa —esan zuen lotsati—. Etxean naun, Rosa.

Bere ahizpa jiratu egin zen astiro.

— Bai —esan zuen.

— Gaixo al hago, Rosa?

Begi bidriotsuak mahaira bihurtuta zeuden berriro.

— Ez.

— Opari bat zeukanat, Rosa. Begira, Rosa.

Liga bikain haiek erakusten zizkion.

Astiro, oso astiro, amapola gorri eta distira-tsuetara igo ziren Rosaren begiak, eta gero Mariaren aurpegira. Maria entusiasmozko oihuz lehertzeko zorian zegoen. Rosaren begiak behe-ratu, eta bi malko lodi jaitsi ziren bere sudur ondoko zimurretatik.

— Rosa, ikusten al dun oparia? Ez al zaizkin gustatzen, Rosa? Ez al ditun probatu nahi, Rosa?

— Nire ahizpatxo txintxoa haiz.

— Rosa, esadan, zer gertatzen da? Gaixoa hago. Kontatu egin behar dion hire ahizpari. Norbait etorri al da?

— Bai —esan zuen Rosak indarge—, sheriffa etorri dun.

Orduan Maria hitz egin eta hitz egin hasi zen zeharo asaldatuta.

— Sheriffa etorri dela? Bide onetik goazan orduan. Aberastu egingo gaitun orain. Zenbat entxilada, Rosa? Esan zenbat izan diren sheriffarentzat.

Rosak bere apatia uxatu zuen. Mariagana joan eta ama batek bezala besarkatu zuen.

— Nire ahizpatxo gaixoa —esan zion—. Ezin-go dinagu hemendik aurrera entxiladarik saldu. Lehen bezala bizi beharko dinagu hemendik aurrera, soineko berririk gabe.

— Rosa, hi erotuta hago. Zergatik hitz egiten didan horrela?

— Egiatan ari naun. Sheriffaren kontua dun. «Kexatu egin zaizkit», esan din sheriffak. «Kexatu egin zaizkit, etxe gaizto bat zuzentzen duzuela esanez.» «Baina hori gezurra da», esan zionatik. «Gezurra eta gainera iraina gure amarentzat

eta Vallejo Jeneralarentzat.» «Kexatu egin zaizkit», esan din berak. «Ateak itxi beharko dituzue edo bestela atxilotu egin beharko zaituztet etxe gaizto bat zuzentzeagatik.» «Baina hori gezurra da», saiatu naun ni ulertarazten. «Kexatu egin zaizkit gaur arratsaldean», esan zidan berak. «Kexa bat izaten dudanean, nik ezin dut ezer egin, zeren, begira, Rosa», esan zidan adiskide batek bezala, «Kexatzen zaidan jendearen zerbitzaria besterik ez naiz ni.» Eta orain, horra!, Maria, ahizpa nirea, lehengo bizimodura itzuli beharra zeukanagu.

Maria zeharo jota utzi, eta bere mahaira bihurtu zen. Une batez egoera ulertzeko ahalegina egin zuen Mariak, eta gero negar-zotinka hasi zen eroa bezala.

— Hago lasai, Maria! Pentsatzen aritu naun. Ondo asko dakin gosea pasako dugula entxiladak saltzerik ez badugu. Ez nazan oso gogor gaitzetsi esatera noanagatik. Erabakia hartua zeukanat. Begira, Maria! San Franciscora joan eta andre gaiztoa izango naun.

Makur-makur egin zuen burua bere esku lodien gainean. Mariak utziak zituen bere negar-zotinak. Ahizpagana hurbildu zen pixkanaka.

— Diru truke? —xuxurlatu zuen izututa.

— Bai —hots egin zuen Rosak saminki—. Diru truke. Diru pila baten truke. Eta Ama Birjina onak barka nazala!

Orduan Mariak, ahizpa bertan utzi, ezkaratze-ra alde egin eta portzelanazko Ama Mariaren aurrean jarri zen.

— Kandelak jarri ditut —esan zuen—. Loreak jarri ditut egunero. Ama Maria, zer oker egin dugu? Zergatik ametitzen duzu hau gerta dadin?

Gero belaunikatu eta errezatu egin zuen, berrogeita hamar Agur Maria! Gurutze santuaren egin eta hanka gainean jarri zen. Bere aurpegia nekatuta zegoen, baina erabakita.

Beste gelan, bere mahaiaren gainean makurtuta segitzen zuen Rosak.

— Rosa —esan zion Mariak ahots txorrotxez—. Hire ahizpa naun. Hi haizena naun ni ere. —Sakon hartu zuen arnasa—. Rosa, hirekin joango naun San Franciscora. Ni ere andre gaiztoa izango naun.

Hartantxe bukatu zen Rosaren errezeloa.
Zutik jarri eta zabal-zabal egin zituen besoak.
Eta, puska batean, Lopez ahizpak negarrez egon
ziren eroak bezala bata bestearen besoetan.

8

Molly Morgan Salinasen trenetik jaitsi eta hiru ordu laurden egin zituen autobusaren zain. Automobil handian inor ez zihoan Molly eta txoferraz gain.

— Behin ere ez naiz Zeruko Belardietan izan —esan zuen Mollyk—. Urruti al dago errepide nagusitik?

— Hiru bat milia —esan zuen txoferrak.

— Kotxeren bat izango al da ni ibarrera eramateko?

— Ez, non eta bila etortzen ez zaizkizun.

— Baina nola konpontzen da jendea haraino joateko? Txoferrak erbi baten gorpu zanpatuaren gaintetik pasarazi zuen autobusa satisfazio nabarmenez.

— Hilda daudenean bakarrik pasatzen naiz gaintetik —desenkusatu zen—. Ilunpetan, argiekin itsutzen direnean, saihesten saiatzen naiz.

— Bai, baina nola ailegatu behar dut Zeruko Belardietara?

— Ez dakit. Oinez-edo. Jende gehiena oinez joaten da inor bila etorri ezean.

Txoferrak bidegurutzean utzi zuenean, Molly Morganek bere maleta hartu, muturtuta bezala, eta muinoetara zeraman bidetik abiatu zen. Ford kamioi zahar bat kurrinka gelditu zen bere aldamenean.

— Ibarrera al zoaz, andereño?

— Oh... bai, bai, haraxe noa.

— Beno, sartu hortaz. Ikaratu beharrik ez duzu. Pat Humbert naiz. Belardietan bizi naiz.

Mollyk gizon narras hura aztertu eta aurkezpenari erantzun zion.

— Maistra berria naiz ni. Edo hala uste dut behintzat. Ba al dakizu non bizi den Mr. Whiteside?

— Horixe, handik pasa beharra daukat. Eskola-batzarreko idazkaria da. Ni neu ere eskola-batzarrean nago. Zer itxura izango ote zenuen pentsatzen egon gara.

Orduan, esandakoaz lotsatu, eta gorri-gorri jarri zen bere grakaren azpitik.

— *Nolakoa* izango ote zinen esan nahi nuen, jakina. Izan genuen azken maistrak arazo asko

eman zizkigun. Ona zen, baina gaixo zegoen... gaixo eta urduri, alegia. Azkenean alde egin zuen gaixo zegoelako.

Mollyk bere eskularruen behatz puntei tiratu zien.

— Nire eskutitzak dio Mr. Whitesidegana jo behar dudala. Gizon jatorra al da? Edo... ez nuen hori esan nahi. Esan nahi dut... zera al da... zer moduzko gizona da?

— Oh, ederki konponduko zara berarekin. Agure ona duzu. Bizi den etxe horretantxe jaioa. Kolegioan ere ibilia. Gizon ona da. Hogei urtetik gora daramatza eskola-batzarreko idazkari bezala.

John Whitesideren etxe zahar handiaren parean utzi zuenean, Molly benetan ikaratuta zegoen. «Garaia heldu da», esan zuen bere artean. «Baina zertaz beldurturik ez dago. Ezin dit ezer egin.» Mollyk hemeretzi urte bakarrik zituen. Iruditzen zitzaion bere lehen lanposturako elkarrizketatuko zuten une hura ikaragarriko urratsa zela bere bizitzan.

Ateraino egin zuen bideak ez zuen lasaitu, zeren bidexka ezipel inausiz inguratutako lore-

mordotxo trinkoen artetik pasatzen baitzen, eta hala zirudien, admonizio honekin landatu zituztela denak: «Hazi eta ugari zaitezte orain, baina ez zaitezte ez gehiegi hazi, ez oparoegi ugaritu, eta batez ere, ez bidexka honetara inguratu!» Esku bat nabari zen lore haietan, esku gidari eta zuzentzailea. Etxe zuri handia duintasun handikoa zen. Egur horiko pertsianak okerka jarrita zeuden eguerdiko eguzkiari sartzen ez uzteko. Bidearen erdia egina zuenean, etxearen sarrera azaldu zitzaion, Galeria bat zuen, besarkada bat bezain zabal eta epel eta ongietorri emailea. Bere burutik pentsamendu hau hegaldatu zen: «Segur aski igarri liteke etxe baten hospitalitatea bere sarrera ikusita. Egin kontu ate txikia duela eta portxerik ez.» Baina, harmaila zabal eta ate handiaren barrera adeitsua gorabehera, lotsatitasun guztiak berarekin zituen txirrina jo zuen unean. Ate handia zabaldu, eta andre mardul, atsegin bat azaldu zen, Mollyri irribarre egiten ziona.

— Ez ahal zara zerbait saltzera etorriko! — esan zuen Mrs. Whitesidek—. Behin ere ez dut

ezer erosi nahi izaten, baina azkenean erosi eta sutan jartzen naiz gero.

Mollyk barre egin zuen. Oso zoriontsu sentitu zen bat-batean. Ordura arte ez zuen antzeman zein beldurtuta zegoen.

— Oh, ez! —hots egin zuen—. Maistra berria naiz. Nire eskutitzak dio Mr. Whitesiderekin elkarriketatu behar dudala. Ikusi al dezaket?

— Beno, eguerdia da, eta bazkaria bukatzen ari da oraintxe. Zuk bazkaldu al duzu?

— Oh, horixe. Edo, ez.

Mrs. Whitesidek irri egin, ezpain artean, eta baztertu egin zen Mollyri sartzen uzteko.

— Beno, eskerrak ziur zauden.

Jangela handi bateraino eramane zuen Molly. Gela kaobazko baxerategiz hornituta zegoen, denak kristalezko atekin. Mahai koadratuan otordu bateko platerak zeuden sakabanatuta.

— Hara! Johnek bazkaria bukatu eta joana izan behar du. Eser zaitez, neska. Okel errea ekarriko dizut.

— Oh, ez. Benetan, eskerrik asko, ez ekarri. Mr. Whitesiderekin hitz egin eta joan egingo naiz.

— Eser zaitez. Jan beharra daukazu Johnen aurrera joateko.

— Oso... oso gogorra al da... maistra berriekin, alegia?

— Beno —esan zuen Mrs. Whitesidek—. Ikusi egin behar. Bazkaldu gabe badaude, hartz bezalakoxea da. Garrasika hartzen ditu. Baina mahaitik altxa berriak direnean, anker hutsa da, besterik gabe.

Mollyk barre egin zuen alaiki.

— Umeak dituzu, noski —esan zuen—. Oh, ume pila bat hazitakoa zara... eta gustatu egiten zaizkizu.

Mrs. Whitesidek kopeta zimurtu zuen.

— Ume batek hezi ninduen. Ia hazitarako ere utzi ninduen, egia esan. Oso gogorra zen niretzat. Kanpoan dago orain, behiak hazten, behi gaixoak. Ez zait iruditzen oso ondo hezi nuenik.

Mollyk otordua bukatu zuenean, Mrs. Whitesidek alboko ate bat parez pare ireki eta hots egin zuen:

— John, norbait etorri da zu ikustera.

Bultza egin zion Mollyri atean barrena biblioteka itxura zuen gela bateraino: apal handiak

karga-karga eginda zeuden liburukote zahar, atseginez, urrez filigranatuak denak. Eta gela hura sala modukoa ere bazen aldi berean. Adreiluzko tximini bat zuen, teilatxo gorriko koska batekin, eta koskaren gainean txarrik harrigarrienak zeuden. Koska baino gorago, iltze batetik zintzilik eta fusil bat uhaletik bezalaxe eskegita, pipa erraldoi bat zegoen, itsas bitsez egina eta Jaegar etxekoa. Tximiniaren inguruan larruzko besaulki handiak zeuden, larruzko borladunak, kulunkaulki patentedunak denak, balantza eginaraztean kantari hasten diren erresorte horiekin. Eta azkenik, gela bulego modukoa ere bazen, zeren antigoaleko idazmahai bat baitzuen, estalki korredizoduna, eta harexen atzean zegoen, hain zuzen, John Whiteside eserita. Gizonak begiak goratzean, Mollyk ikusi zuen berak sekula ezagututako begirik atsegin eta aldi berean gogorrenak zituela, eta baita ilerik zuriena ere. Benetako ile zuri-urdina, zetatsua, gandor oparoan.

— Mary Morgan naiz —hasi zen formalki.

— Ah, bai, Miss Morgan, zure zain nengoen.

Ez al duzu eseri nahi?

Kulunkaulki handi haietako batean eseri zen, eta erresorteek intziri egin zuten minsorroz bezala.

— Asko gustatzen zaizkit besaulki horiek — esan zuen—. Etxean horrelako bat genuen txikia nintzenean.

Orduan tuntuna sentitu zen.

— Lanpostu horretaz hitz egitera etorri naiz. Nire eskutitzak zioen hori egin behar nuela.

— Ez zaitez horrenbeste larritu, Miss Morgan. Aspaldiko urteotan izan ditugun maistra guztiak nik elkarrizketatu ditut. Eta —esan zuen irribarrez—, oraindik ez dakit asuntoa nola bideratu.

— Oh... eskerrak, Mr. Whiteside. Eskatzen dudan lehen lanpostua da. Benetan beldurtuta nengoen.

— Beno, Miss Mary Morgan, itxura guztien arabera, elkarrizketa honek helburu garbia du: zure iraganaren eta zure izaeraren ideia bat eman behar didazu. Bukatzen duzunerako, zutaz zerbait jakitea dagokit. Eta orain nire helburua ezagutzen duzunez, kikilduta egongo zarela imajinatzen dut, eta inpresio ona eman nahirik. Beharbada zuri buruzko zertxobait esango baze-

nit, edozein gauzak balio du. Hitz batzuk baka-
rrik, zer nolako neska zaren, eta nondik zatozen.

Mollyk baiezkoa egin zuen bizkorki.

— Bai, saiatuko naiz, Mr. Whiteside.

Eta bere gogoia iraganean murgil zedin utzi
zuen.

*Hantxe zegoen pintatu gabeko etxe zahar,
zikina, atzeko portxe zabalarekin eta barandan
apoiatutako lixibaren barrenoi borobilekin. Bere
bi anaiak, Joe eta Tom, zalapartan zebiltzan
sahats handian gora igota, oihu eginez:*

*— Orain arranoa naiz! Ni lorittoa naiz! Orain
oilasko zaharra naizt Ikusten al nauk!*

*Atzeko portxeko eltxo-sarea ireki eta ama
azaldu zen, nekatu itxuraz. Ez zitzaion ilea lisa-
tzen behin eta berriz orraztuta ere. Soka lodien
antzera erortzen zitzaion aurpegiaren bi alde-
tan. Bere begiak pixka bat gorrituta egoten ziren
beti, eskuak eta eskumuturrak berriz, minbera-
tsuki zartatuta.*

*— Tom, Joe —hots egin zuen—. Mina hartuko
duzue bor goian. Ez niri horrelako buruhausterik
eman, mutilak! Ez al duzue zuen ama batere
maite?*

Isildu egin ziren zuhaitzeko ahotsak. Arranoaren eta oilasko zaharraren kemen garrasilaria beratu egin zen damuarekin. Molly lurrean eserita zegoen, zarpa bat biltzen makila baten inguruan eta ahaleginak egiten soineko batez jantzi-tako dama luzea zela imajinatzeko.

— Molly, sartu etxera eta egon zure amarekin. Gaur neka-neka eginda nago!

Mollyk lurrean tente utzi zuen makila, hauts trinkoan sartuta. «Aizu, andereño, xuxurlatu zion krudelki. Astindu bat emango dizut ipurdian itzultzen naizenean.» Gero, obedituz, etxera sartu zen.

Bere ama sila zuzen batean eserita zegoen, su-aldean.

— Hurbil mitez, Molly. Eseri nire ondoan pixka batean. Maita nazazu, Molly! Maita ezazu zure ama pixkatxo bat. Zure amaren neskatila txintxoia zara zu, ez al da hala?

Molly bihurritu egin zen bere eserlekuan.

— Ez al duzu nire ama maite, Molly?

Neskatoa oso zoritzarrekoa sentitzen zen. Bazekien une batetik bestera ama negarrez hasiko zela, eta orduan berak de zakar hura laztan-

du beharra izango zuela. Bai berak eta bai bere anaiek bazekiten maitatu egin behar zutela ama. Dena egiten zuen beraiengatik, dena. Lotsatu egiten ziren amaren ondoan egotea gorrotagarria zitzaielako, hain ezin zuten horren kontra ezer egin. Hots egiten zienean eta agerian ez zeudenean, ez entzuna egin eta alde egin egiten zuten isilka, ahopeka hitz eginez.

— Beno, hasteko, oso pobreak ginen —esan zion Mollyk Mr. Whitesideri—. Nik uste benetan pobreziaren atzaparretan geundela. Bi anaia nituen ni baino zaharxeagoak. Nire aita biajan-tea zen, baina hala ere nire amak lan egin beharra zeukan. Ikaragarrizko lanak egiten zituen guretzat.

Sei hilabetean behin-edo gertaera handi bat izaten genuen. Goizean ama isil-isilik ateratzen zen gelatik. Ilea ahal zen guztia lisatua zeukan; dizdiz egiten zuten bere begiek, eta zoriontsu eta ia polit zirudien. Esaten zuen ahopeka:

— Bake-batean, umeak! Zuen aita etxean da. Molly eta bere anaiak ezkutuka ateratzen ziren etxetik, baina atarian ere xuxurla ardaila-tsuekin hitz egiten zuten. Berria laster zabaltzen

zen auzoan. Ataria ume xuxurlariez betetzen zen luze gabe. «Aita etxean omen dute.» «Egia al da aita etxean duzuela?» «Non izan da oraingoan?» Eguerdirako bazen atarian dozena bat ume, tal-detxo itxaropentsuetan bilduta, elkarri bakean egoteko gomendatuz.

Eguerdi aldera portxeko eltxo-sarea kolpetik zabaltzen zen, horma joaz. Aita jauzi batez kanporatzen zen.

— Kaixo! —oihukatzen zuen—. Kaixo, umeak.

Molly eta bere anaiak aitagana oldartu eta bernak besarkatzen zizkioten: aita, orduan, bajen eskuetatik libratu eta airean gora botatzen zituen katutxoak balira bezala.

Mrs. Morgan hara eta hona hegatzen zen, ardailaz karaka.

— Umeak, umeak. Ez zimurtu zuen aitaren arropak.

Auzoko umeak zilipurdika eta borrokan eta garrasika ibiltzen ziren pozaren pozez. Edozein jai baino hobea zen hura.

— Itxoin ikusi arte —hots egiten zuen aita—. Itxoin zer ekarri dizuedan ikusi arte. Sekretua da oraindik.

Eta histeria apur bat baretu zenean bere maleta portxera atera eta ireki egiten zuen, inork behin ere ikusi gabeko opariak zeuden bertan, ordura arte ezagutu gabeko jostailu mekani-koak: hojalatazko zomorroak arrastaka ibiltzen zirenak, egurrezko beltzak dantza egiten zutenak eta hondarretan lan egiten zuten pala meka-niko harrigarriak. Baziren kristalezko kanika bikainak ere, erdi-erdian hartzak edo txakurrak ageri zituztenak. Bakoitzarentzat bazuen zer-bait, gauza bat baino gehiago. Jai handi guztiak egun bakar batean bildu balituzte bezalaxe izaten zen.

Normalean, arratsaldearen erdia joana izaten zen umeak garrasiak uzteko adina lasaitzen zirenerako. Baina azkenean George Morgan eskaile-ra kosketan eseri, eta ume guztiak inguruan bil-tzen ziren berak bere abenturak kontatu bitar-tean. Oraingo honetan Mexikon izana zen iraul-tza bat zegoen unean. Beste batean Honolulu-ra joan, sumendia ikusi, eta surf taula batean ibil-tzeko aukera izan zuen gainera. Beti izaten ziren hiriak eta jendea, jende arrotza; beti abenturak eta hamaika pasadizo xelege, beraiek aditutako

beste ezer baino xelebrea goak. Ezin zen dena kontatu aldi bakar batean. Eskolatik ateratakoan berriro bildu behar zuten gehiago eta gehiago aditzeko. Sororik soro zebilen George Morgan mundutik barrena, abentura gloriosoak pilatzen.

— Nire etxeko bizimoduari dagokionez — esan zuen Miss Morganek—, iruditzen zait ia ez nuela aitarik izan. Bere negozio bidaiak oso gutxitan uzten zioten etxeratzen.

John Whitesidek baietz egin zuen buruaz, seriooki.

Mollyren eskuak mugitu egiten ziren bere magalean, eta begiak lausotuta zeuzkan.

Behin batez txakurtxo pottolo, iletsu bat ekarri zuen kaxa batean, segituan lurrean pixa egin zuena.

— Zer motatakoa da txakur hau? —galdetu zuen Tomek bere hizkerarik landuenaz.

Aitak barre egin zuen ozenki. Hain zen gaztea! Amak baino hogeit hamar urte gazteagoa ematen zuen.

— Dolar t'erdiko txakurra da —azaldu zuen—. Makina bat txakur mota eros daiteke dolar t'erdian. Horrela egiten da... Egin kontu gozotegi

batean sartu zarela, eta esaten duzu: «Bost xentimoko mentazko karameluak eta gomazko bolak eta errekaliza eta franbuesazko txikleak nahi ditut, denak nahastuan.» Beno ba. Barrura sartu eta esan nuen: «Emadazu dolar t'erdiko txakur nahastua.» Horra, zer motatakoa den. Mollyren txakurra da, eta izena jarri behar dio.

— George deituko diot —esan zuen Mollyk.

Aita modu xelebreaan makurtu zen Mollyren aurrean, eta esan zion:

— Eskerrik asko, Molly.

Denek antzeman zuten ez zitzaiola burlakaria.

Molly oso goiz jaiki zen hurrengo goizean, eta George atarira eraman zuen hango sekretuak erakusteko. Bi zentabotxo eta polizia baten botoi doratua lurperatuta zeuden gordelekua zabaldu zuen. Aurreko hankatxoetatik zintzilik jarri zuen atzeko hesiaren gainean, eskola ikus zezan kalearen beste muturrean. Azkenik sahatsean gora igo zen, George besazpian zuela. Tom etxetik atera eta zuhaitz azpira etorri zen patxadan. «Ez gero erortzen utzi», hots egin zuen Tomek, eta juxtu une hartantxe txakurtxo Mollyren

besoetatik libratu eta erori egin zen. Danbateko txiki desatsegin batez jo zuen lur gogorra. Hanka bat angelu nabarmenean okertuta zeukan txakurtxoak, eta garrasi luze eta latzak egiten zituen, eta gero negar-zotinak, arnasa hartzeko isiltzen zenean. Molly zuhaitzetik jaitsi zen esku eta hankez baliatuz, zunuzduta eta harri eginda ezbeharragatik. Tom txakurtxoari begira zegoen. Aurpegia zuri-zuri eta sufrimenduz bihurritua zeukan, eta Georgek berriz, txakurtxoak, garrasika eta garrasika segitzen zuen.

— Ezin dugu horrela utzi —esan zuen Tomek—. Ezin dugu horrela utzi.

Egur metaraino joan eta aizkora batekin itzuli zen. Molly txundituegia zegoen bestaldera begiratzeko, baina Tomek begiak itxita eman zuen kolpea. Garrasiak bat-batean isildu ziren. Tomek aizkora bere ondotik bota eta jauzi egin zuen atzeko hesiaren gainetik. Norbait atzetik segika balu bezala ihes egiten ikusi zuen Mollyk.

Une hartan Joe eta aita atzeko atetik atera ziren. Mollyk ondo gogoratzen zuen zer aurpegi zimel, ahul eta grisa Jarri zitzaion bere aitari txa-

kurtxoa ikusi zuenean. Bere aitaren aurpegiko zerbait izan zen Molly negarrez jarri zuena.

— Erori egin zait zuhaitzetik, eta mina hartu du, eta Tomek jo egin du, eta gero Tomek alde egin egin du korrika.

Zaputz doinua zeukan bere ahotsak. Aitak bere aldakaren kontra estutu zuen Mollyren burua.

— Tom gizarajoa! —esan zuen—. Molly, gogotan izan inoiz ez diozula ezer aitatu behar Tomi honi buruz, eta behin ere ez diozula begiratu behar gogoratuko bazenu bezala.

Arpillerazko zaku bat bota zuen txakurtxoaren gainera.

— Hileta egin behar diogu —esan zuen—. Inoiz hitz egin al dizuet behin ikusi nuen hileta txinatar hartaz, eta airera botatzen zituzten koloretako paperez, eta hilobi gaineko txerritxo erre pottoloetaz?

Joe hurbildu egin zen pixkanaka, eta Mollyren begiek ere jakin-minezko distira hartu zuten.

— Ba begira, honelaxe izan zen...

Mollyk begiak altxa John Whitesideren aldera eta idazmahaiko paper bat aztertzen ari tela irudititu zitzaion.

— *Hamabi urte nituela, aita istrypu batean hil zen —esan zuen.*

Bisitaldi handiek bi aste inguru irauten zuten normalean, Beti izaten zen arratsalde bat George Morgan herrira joan eta gauean berandu arte etxeratzen ez zena. Amak goiz bidaltzen zituen umeak opera, baina beraiek sentitu egiten zuten etxeratzen zenean, altzariekin estropezu eginez pixka bat, eta haren ahotsa ere aditzen zuten Normaren bestaldetik. Aitaren ahotsa halakoe-tan bakarrik izaten zen tristea eta kemenik gabea. Beren ohetan, arnasari eutsiz, umeak paren esanahiaz jabetzen ziren. Joan egingo zen goizean, eta beren bihotzak ere harekin batera joango ziren.

Eztabaida amaiezinak izaten zituzten aitik egiten zuenari buruz. Argonauta alaia zen, zilarrrezko zalduna. Bertute eta Ausardia eta Edertasuna ziren bere jantziak.

— Egunen batean —zioten mutilek—, egunen batean, handiak izandakoan, berarekin joan eta gauza guzti horiek ikusiko ditugu.

— Ni ere joango naiz —esaten zuen Mollyk irmoki,

— Oh, zu neska zara. Ezingo zinateke joan, ondo asko dakizu.

— Baina berak utziko lidake joaten, badakizue baietz. Egunen batean berarekin eramango nau. Ikusiko duzue.

Joaten zenean, ama kexati jartzen zen berriro, eta bere begiak gorritu egiten ziren. Maitatzeko eskatzen zien aieneka, maitasuna pakete bat balitz bezala amaren eskuetan jarri zezaketen.

Behin batez aita joan zen, eta ez zen gehiago itzuli. Inoiz dirurik bidali gabekoa eta familiari idatzi gabekoa zen, baina aldi hartan, besterik gabe, betirako ezkutatu zen. Bi urtez itxoin zuten, eta gero hila izan behar zuela esan zuen amak. Zirrara eragin zien umeei ideia hark, baina ez zuten sinetsi nahi izan, zeren beren aita bezain ederra eta ona zen norbait ezin baitzen hilda ego n. Munduko bazterren batean zegoen

abenturak bizitzen. Arrazoi onen bat bazuen beraiengana itzultzerik ez izateko. Noizbait, arrazoi hura ezabatutakoan, etorri egingo zen: goiz batean, hantxe izango zuten inoiz baino opari politago eta istorio hobeeekin. Baina amak esaten zuen segur aski istripu bat izan zuela. Hila izan behar zuela. Burutik eginda zegoen ama. Iragarkiak irakurtzen zituen, etxetik atera gabe dirua irabaztea eskaintzen duten horietakoak. Umeezko paperezko loreak egiten zituzten, eta bai saltzen saiatu ere lotsa-lotsa eginda. Mutilak aldizkariak saltzen ere saiatu ziren, eta gutxi faltatu zitzaion familia guztiari gosez hiltzeko. Azkenik, bata segitzea ezinezkoa irudituta, bi mutilek alde egin eta itsas armadan sartu ziren. Horren ondoren, lehen aita bezain gutxitan ikusi zituen Mollyk, eta hain zeuden aldatuta, hain zakar eta zalapartatsu, non ez zion ardura, zeren bere anaiak arrotzak egiten baitzitzaizkion.

— Batxilerra bukatu eta San Josera joan nintzen Magisteritza ikastera. Mrs. Allen Moriten etxean lan egin nuen pentsioa ordaintzeko. Ikasketak bukatu baino lehen hil egin zitzaidan ama. Beraz umezurtza naizela-edo esan behar.

— Sentitzen dut —xuxurlatu zuen John Whitesidek eztiro. Molly gorritu egin zen.

— Ez nintzen ari erruki eske, Mr. Whiteside, Nire berri izan nahi zenuela esan duzu. Umezurtz izatea denoi ailegatzen zaigun gauza da.

— Bai —onartu zuen Mr. Whitesidek—. Ni ere umezurtza naiz, noski.

Mollyk lan egin zuen bere pentsioa ordaintzeko. Ordutegi osoko neskame baten lana egiten zuen, baina soldatarik jaso gabe. Arropa erosteko dirua udako oporretan denda batean lan egin ez atera behar zuen. Mrs. Moritek neskak trebatzen zituen. «Hartu xentimorik balio ez duen neska gordin bat», esaten zuen sarritan, «eta neska horrek, niretzat sei hilabetez lan egin ondoren, berrogeita hamar dolar irabaz ditzake. Andre askok dakite hori, eta atzaparretatik kentzen dizkidate neskak. Estudiante batekin saiatzen naizen aurreneko aldia da, hain aurrerapen handiak egin ditu berak ere. Gehiegi irakurtzen du, ordea. Nik beti esaten dut neskame batek hamarretarako lo egon behar lukeela, bestela ezin baitu bere lana behar bezala bete.»

Mrs. Monten irakasbidea etengabe kritika eta errieta egitea zen, doinu zuzen eta tinkoz betiere:

— Begira, Molly, ez da akatsa bilatzeagatik, baina ez baduzu zilarra hobeto lehortzen, arrastoak geratuko zaizkio... Gurinarentzako labanak hemen joan behar du, Molly. Eta gero jarri hemen edalontzia.

«Gauza guztientzat arrazoi bat ematen dut beti», esaten zien bere lagunei Mrs. Moritek.

Ilunabarrez, platerak garbitu ondoren, bere ohean eseri eta estudiatu egiten zuen Mollyk, eta argia itzalitakoan, ohean etzan eta bere aitaz pentsatzen zuen. Zentzugabea zen hori egitea, bazekien. Denbora alferrik galtzea zen. Bere aita atean azaltzen zen, bi isatsekiko jaka, praka arraiadun eta txisteraz jantzita. Arroza gorriko erramilete erraldoi bat zekarren eskuan. «Ez dut lehenago etortzerik izan, Molly, jantzi azkar zure berokia. Aurrena Prussiako eskaparatean dagoen gau soineko hori eroatera joango gara, baina bizkor ibili beharko dugu. Txartelak erosita dauzkatz gauean ateratzen den New Yorkeko trenerako. Mugi zaitetz, Molly! Ez geratu hor aho zaba-

lik.» Txoro kontua zen. Bere aita hilda zegoen. Ez, hilda zegoenik ez zuen benetan sinesten. Ederki bizi zen munduko bazterren batean, eta noizbait itzuli egingo zen.

Mollyk hala esan zion eskolan zuen adiskide bati: Ez dut benetan sinesten, badakizu, baina kontrakoa ere ez dut sinetsi nahi. Inoiz jakingo banu hilda dagoela, latza izango litzateke. Ez dakit zer egingo nukeen orduan. Ez dut pentsatu ere egin nahi hilda dagoela jakite horretaz.»

Bere ama hil zenean, lotsaz gain ezer gutxi sentitu zuen. Maita zezaten izan zen bere amaren nahia, eta ez zuen jakin maitasuna bereganatzen. Bere zipozkeriekin gogaitu egin ziren umeak, eta bere ondotik aldendu.

— Horra ba, hori da dena gutxi gorabehera — bukatu zuen Mollyk—. Nire diploma eskuratu, eta ondoren hona bidali ninduten.

— Sekula izan dudan elkarrizketarik errazena izan da —esan zion John Whitesidek.

— Postua lortuko dudala uste al duzu, hortaz? Gizon zaharrak begirada bizkor, bizia bota zion tximiniako koskaren gainean zintzilik zegoen itsas bitsezko pipa handiari.

— Laguna du —pentsatu zuen Mollyk—. Sekretuak ditu pipa horrekin.

— Bai, uste dut zurea izango dela lan hori. Uste dut zurea dela dagoeneko. Eta orain, Miss Morgan, non biziko zara? Pentsioa aurkitu beharra daukazu non edo han.

Esatera zihoala jakin baino lehen, bota zuen:

— Hemen bizi nahi dut.

John Whitesidek begiak zabaldu zituen harrituta.

— Baina guk ez dugu apopilorik hartzen, Miss Morgan.

— Oh, ez nuen hori esan behar. Baina, egia, hainbeste gustatu zait toki hau!

— Willa! —hots egin zuen Mr. Whitesidek. Eta bere emaztea ate erdi irekian azaldu zenean—: Dama gazte honek apopilo egon nahi du gure etxean. Maistra berria da.

Mrs. Whitesidek kopeta zimurtu zuen.

— Ezta pentsatu ere. Ez ditugu apopiloak hartzen. Politegia da Bill txoroxka horren inguruan egoteko. Zer gertatuko litzaieke bere behi horiei? Buruhaustea besterik ez genuke izango. Goiko hirugarren gelan lo egin zenezake —esan

zion Mollyri—. Ez dio eguzkiak asko ematen, baina beno.

Bizitzak beste itxura bat hartu zuen. Bat-batean erregina bezala sentitu zen Molly. Estreina-eko egunetik eskolako umeeek oso maitea izan zuten, zeren berak ulertu egiten baitzituen, eta hori baino gehiago, bidea zabaltzen zuen umeeek ere bera uler zezaten. Denbora puska bat behar izan zuen pertsona garrantzitsua bihurtu zela konprenitzeko. Dendan bi gizon eztabaidan hasten baziren historia edo literatura edo matematikako edozein gai zela-eta, eta ez aurrera ez atzera geratzen baziren, hau esanda bukatzen zuten: «Jo dezagun maistragana! Ez baldin bada-ki, aurkituko du jakiteko modua.» Molly oso harro zegoen halako auziak erabakitzeko gai izateaz. Festarik zenean, apainketa lanetan lagundu eta errefreskoetaz arduratu beharra izaten zuen.

— Nik uste pinu adarrak jarriko ditugula denean. Politik dira eta usain ederra dute. Festa usaina dute.

Jendearen ustetan dena jakitea eta denean laguntzea zegokion, eta hori gustatu egiten zitzaion berari.

Whiteside-tarren etxean, esklabo bat bezala saiatzen zen su-aldean, Willaren marmarizoen pean. Sei hilabeteren buruan, hala esan zion Mrs. Whitesidek senarrari purrustadan:

— Orain, Billek batere zentzurik balu... Ez hori bakarrik —jarraitu zuen—, Mollyk batere zentzurik baldin badu...

Eta hartan utzi zuen esaldia.

Gauetz Mollyk eskutitzak idazten zizkien Magisteritza Eskolan egindako lagun bakanei, bere auzokoei buruzko istorio txikiz betetako eskutitz alaiak. Festa guztietara joan beharra zeukan bere postuak gizarte hartan zuen prestigioagatik. Larunbatetan mendira joan eta garoak eta larre-loreak ekartzen zituen etxe inguruan aldatzeko.

Bill Whitesidek, Mollyri begiratu bat eman, eta bere behietara itzuli zen aldean. Denbora asko kosta zitzaion maistrari hitz batzuk esateko kemena biltzea. Mutil gazte handi eta inozoa zen, ezaitaren orekarik ez amaren umorerik ez

zuena. Denborarekin, ordea, atzetik segitzen hasi zitzaion Mollyri, eta urrutitik zaintzen.

Ilunabar batean, halako esker on sentimendu batez bere zorionagatik, Mollyk bere aitaz hitz egin zion Billi. Lonazko siletan eserita zeuden galeria zabalean, ilargiaren zain. Bisita haietaz hitz egin zion, eta, gero, aitaren desagertzeari buruz.

— Ulertzen al duzu nire sentimendua, Bill? — esan zion—. Nire aita maitagarria bazterren batean dago. Nirea da. Bizirik dago zure ustez, ezta, Bill?

— Litekeena da —esan zuen Billek—. Baina diozunagatik, tipo axolagabe samarra zen. Barkaidazu, Molly. Dena dela, bizirik badago, xelebrea da inoiz ez idatzi izana.

Molly jelatuta geratu zen. Halako arrazoinamenduak baitziren, hain zuzen, ordura arte bere buruari ukatu zizkionak.

— Jakina —esan zuen lehor—. Hori badakit. Orain lan pixka bat egin beharra daukat, Bill.

Zeruko Belardietako ibarra inguratzen zuten muino haietako baten goialdean, bazen txabola zahar bat herrialde osoaren eta auzoko errepide

guztien ikusmira eskaintzen zuena. Kontatzen zen Vasquez bandiduak altxa zuela txabola eta bertan bizi izan zela urtebetez, sheriffaren gizonek herrialde guztia txikitzen zuten bitartean haren bila. Mugarri bat zen. Ibarreko guztiak ikustera joanak ziren noiz edo behin. Eta ia denek artean ez al zuen bisitatu galdetzen zioten Mollyri.

— Ez —esaten zuen berak—, baina egunen batean igoko naiz. Edozein larunbatetan joango naiz. Badakit nondik abiatzen den bide-zidorra.

Goiz batez mendiko bota berriak eta panazko gona jantzi zituen. Bill nonbaitetik atera, eta Mollyrekin joateko eskaini zen.

— Ez —esan zuen Mollyk—. Lana daukazu egiteko. Ezin duzu nigatik lana utzi.

— Pikutara lana! —esan zuen Billek.

— Beno, nahiago dut bakarrik joan. Ez zaitut mindu nahi, Bill, baina bakarrik joan nahi dut.

Pena zuen berarekin etortzen utzi ez ziolako, baina beste aldi hartan bere aitaz egin zuen adierazpenak ikara eman zion Mollyri. «Abentura bat izan nahi dut», esan zion bere buruari. «Bill

nirekin etorri z gero, ez da inolaz ere abentura izango. Paseo bat izango da besterik gabe.»

Ordu t'erdi behar izan zuen harizpeko bidezidor malkartsua igotzeko. Lurreko hostoak kristala bezain irristak zeuden, eta eguzkiak gogor berotzen zuen. Garo eta goroldio heze eta *yerba buena*-ren usain ederrak airea betetzen zuen. Azkenean muinoaren gailurrera heldu zenean, Molly izerditan eta arnaska zegoen. Sastraka arteko zabalgunee batean aurkitzen zen txabola, gelatxo koadratu, egurrezko bat batere leihorik ez zuena. Bere aterik gabeko sarrera itzal beltz bat zen. Isilik zegoen tokia, euli eta erle eta kilkerrek egiten duten isiltasun burrunbatsu horrekin. Muinoaren malda osoak ez tiro kantatzen zuen eguzkitan. Molly hanka-punttaka hurbildu zen. Bere bihotzak taupada bortitzak ematen zituen.

«Abentura bat bizitzen ari naiz orain», xuxurlatu zuen. «Abentura baten erdi-erdian nago orain, Vasquezen txabolan.» Sarreratik kirika egin eta musker bat ikusi zuen ziztu bizian ezku-tatzen. Armiarma-sare bat erori zitzaion kopetara, aurrera segitzen utzi nahi ez balio bezala.

Txabola barruan ez zegoen ezertxo ere, bakarrik hautsezko zorua eta egurrezko horma ustelduak, eta luzaroan eguzkiak eman gabeko lurraren usain heze, antzua. Molly asaldatuta zegoen erabat. «Hementxe esertzen zen gauez. Batzuetan, hotsak aditzen zituenean, arrastaka zetozen gizonenak-edo, errainu baten fantasma bezala atetik atera eta iluntasunean nahasten zen.» Beherantz begiratu zuen, Zeruko Belardietako ibarrera. Baratzek lauki berde ilunak osatzen zituzten; garoa horituta zegoen, eta atzealdeko muinoek lavanda kolorez kutsatutako marroi argi bat ageri zuten. Granjen artean kamioak okertu eta bihurritu egiten ziren, soro bat saihestuz, zuhaitz erraldoi baten ondoan kurbatuz, zirkulu erdia eginez muino baten inguruan. Beroaren lamarak ibar osoan zabaltzen zuen bere beloa. «Irrealak», xuxurlatu zuen Mollyk, «fantastikoa. Istorio bat da, benetako istorioa, eta abentura bat bizitzen ari naiz.» Ibarretik halako brisara bat igo zen lo dagoen baten hasperena bezala, eta segituan baretu zen.

«Egunez Vasquez gazte hark nik oraintxe bezala begiratzen zuen ibarrera. Hementxe jarri,

eta han beheko kamioetara begiratzen zuen. Purpura koloreko txaleko bat zeraman soinean, galoi doratuekin, eta bere prakak tronpeten ahoak bezala zabaltzen ziren bere berna argaletan behera. Bere ezproien akerrak zetazko zintez bilduta zeuden kinkatakorik atera ez zezaten. Batzuetan sheriffaren gizonak zaldi gainean pasatzen ikusten zituen beheko kamio batean. Zorionez berarentzat, gizon haiek beren zaldien lepo gainera makurtuta zihoazen eta ez zuten muino tontorretara begiratzen. Barre egiten zuen Vasquezek, baina beldurra ere bazuen. Batzuetan kantatu egiten zuen. Bere kantak eztiak eta tristeak ziren, bai baitzekien ez zela oso luzaro biziko.»

Molly maldan eseri eta esku ahurretan apoia-tu zuen kokotsa. Vasquez gaztea bere ondoan zegoen zutik, eta Vasquezek bere aitaren aurpegi alaia zuen, haren begi distiratsu berberak por-txean azaltzen zenean, oi-hu eginez: «Kaixo, umeak!» Halakoxeak ziren bere aitak bizi izan-dako abenturak. Mollyk bere buruari eragin eta zutitu egin zen. «Orain osterara hasierara jo eta pentsatu egingo dut dena berriro.»

Arratsaldeko azken orduan Mrs. Whitesidek Mollyren bila bidali zuen Bill.

— Hanka okertuko zuen akaso, badakizu. —
Baina Molly bidezidorrean azaldu zen Bill handik abiatzera zihoan une berean.

— Galdu ote zinen pentsatzen hasita geunden —esan zion Billek—. Txabolaraino joan al zara?

— Bai.

— Zer kaxa zahar xelebrea, ezta? Egurrezko estalpe zahar bat besterik ez da. Inguru horietan dozena bat badira hori bezalakoxeak. Harrituko zinateke, hala ere, txabola ikustera igotzen den jende pilarekin. Eta xelebreena da inork ez dakiela seguru Vasquez han egon zen ala ez.

— Oh, nik uste txabolan egona izan behar zuela.

— Zerk pentsarazten dizu hori?

— Ez dakit.

Bill serio jarri zen.

— Mundu guztiak pentsatzen du Vasquez hori heroi moduko bat izan zela, baina errealitatean lapur bat besterik ez zen izan. Ardiak eta zaldiak osten hasi eta diligentziei erasoka bukatu zuen.

Horretarako pertsona bat edo beste hil beharra ere izan zuen. Nire ustez, Molly, lapurrei, ez mirespena, baizik eta gorrotoa izaten erakutsi beharko genioke jendeari.

— Horixe, Bill —esan zuen Mollyk gogaitu antzera—. Arrazoi guztia duzu. Axolako al litzazuke pixka batean isilik egotea, Bill? Uste dut nekatu samarra nagoela, eta urduri, gainera.

Denboraren gurpilak bueltaka segitu zuen. Sahatsek kimu berriak izan zituzten eta larreloreek muinoak jantzi zituzten. Mollyk aurkitu zuen ibarrean bere falta eta beharra zutela. Eskola-batzarraren bileretara ere joaten zen. Beste garai batean batzar sekretu eta beneragarrri haiek ateak itxita ospatu izan ziren, mundu guztiarentzat misterio eta terrore huts. Orain ordea, John Whitesideren salako bidea zabaldu ziotelarik, Mollyk jakin zuen batzar haietan uzta-ri buruzko eztabaidak izaten zituztela, istorioak kontatzen zirela eta zurrumurru gaitzik gabeak barreiatzen zirela.

Bert Munroe udazken hasieran aukeratu zuten eskola-batzarrerako, eta udaberrirako bera zen partaiderik kementsuena. Berak antola-

tzen zituen dantzaldiak eskolan, bera aritzen zen ekinean antzezlanak eta *picnic*-ak egin zitezten. Sariak ere eskaini zituen eskolako nota buletinik onenentzat. Batzarrak gero eta ardura gehiago uzten zituen Berten bizkar.

Ilunabar batean Molly berandu jaitsi zen bere gelatik. Batzarrak bilera zuen guztietan bezala, Mrs. Whiteside jangelan eserita zegoen.

— Uste dut ez naizela bilerara sartuko —esan zion Mollyk—. Daudela behingoz beren kasa. Batzuetan pentsatzen dut beste mota bateko istorioak kontatuko lituzketela ni aurrean ez banengo.

— Sar zaitez, Molly! Ezin dute zu gabe bilera-rik egin. Ohituta daude zuk ere parte hartzera eta galduta sentituko lirateke. Gainera, ez dut uste nahi dudarik beste istorio horrek konta ditzaten.

Obedituz, atea jo eta salara sartu zen Molly. Bert Munroek eten egin zuen kortesiaz une hartan kontaktzen ari zen istorioa.

— Nire morroi berriaz ari nintzen, Miss Morgan. Berriro hasiko naiz, nahiko kontu xelebrea da-eta. Begira, laguntzaile bat behar nuen bela-

rra etxeratzeko, eta tipo hori jaso nuen Salinas ibaiaren zubi azpitik. Mozkortu samarra zegoen, baina lan bat nahi zuen. Halaxe ba, hartzen dut nirekin, eta lanerako bost xentimorik ez duela balio ikusten dut, baina ezin naiz beratzaz libratu. Lotsagabe horrek ezagutu ez duen tokirik ez da. Aditu egin beharko zenukete egon den tokiei buruz hizketan hasten denean. Nahi banu ere nire umeek ez lidakete utziko etxetik bidaltzen. Izan ere, kapaza da ikusi duen gauzarik txikienetik istorio eder bat ateratzeko. Nire umeak ondolan eseri eta entzuten egoten zaizkio, belarriak zabal-zabal eginda. Gero, hilean bi aldiz-edo, oinez Salinasera joan eta parranda egiten du. Aldian behin mozkortzen diren horietakoa da. Salinaseko poliziek hots egin egiten didate kamio bazterren batean aurkitzen dutenean, eta bere bila joan beharra izaten dut kotxea hartuta. Eta begira, bere onera etortzen denean, beti badu opariren bat poltsikoan Mannvrentzat, nire mutil-koskorrarentzat. Horrelako gizon batekin ezin duzu ezer egin. Desarmatu egiten zaitu. Hilean ez diot dolar baten balioko lanik ateratzen.

Molly ondoezik sentitu zen beldurrez. Gizonak barrez ari ziren istorio harengatik.

— Bigunegia zara, Bert. Ez zaude etxean kontalari bat mantentzeko moduan. Azkar asko libratuko nintzateke ni gizon horretaz.

Molly zutitu egin zen. Ikaragarritzko beldurra zeukan norbaitek gizonaren izena galdetuko ote zuen.

— Ez naiz gaur gauean oso ondo sentitzen — esan zuen—. Barkatzen badidazue, jaunok, uste dut oheratu egingo naizela.

Gizonak zutitu egin ziren berak gela uzten zuen bitartean. Bere ohean, burua burkoan ezkutatu zuen. «Erokeria da», esan zuen berekiko. «Aukera bakar bat ere ez dago mundu osoan. Oraintxe bertan ahaztuko dut kontu guzti hori.» Baina, bere etsipenerako, negarrez ari zela antzeman zuen.

Ondorengo asteak oinazetsuak izan ziren Mollyrentzat. Ez zuen etxetik ateratzeko gogorik. Eskolarakoan eta etxerakoan aurrean zuen bidari begiratzen zion. «Kanpotarren bat ikusiz gero korrika alde egingo dut. Baina erokeria da hori. Eroarena egiten ari naiz.» Bere gelan baka-

rrik aurkitzen zuen segurtasuna. Izuak kolorea galarazten zion, begietako distira kentzen zion.

— Molly, ohera joan beharko zenuke —esaten zion behin eta berriz Mrs. Whitesidek—. Ez zaitez tuntuna izan. Billiri bezala zartako bat eman behar ote dizut ohera joan zaitezzen?

Baina Mollyk ez zuen ohera joan nahi. Gauza gehiegi pentsatzen zituen ohean zegoenean.

Batzarra hurrena bildu zenean, Bert Munroek ez zuen ageririk eman. Molly lasaituta eta ia zoriontsu sentitu zen hura etorri ez zenean.

— Hobeto zaude, ezta, Miss Morgan?

— Oh, bai. Huskeria izan zen, katarro moduko bat. Oheratu izan banintz beharbada benetan gaizkituko nintzen.

Batzarrak bazeraman ordubete bilduta Bert Munroe sartu zenean.

— Barkatu atzerapena —desenkusatu zen—. Betiko kontua gertatu da. Nire morroi delako hori Salinaseko kaleetan zegoen lotan. Zer saltsa! Kotxean dago, hortxe kanpoan, lotara jarrita aitzurra pasatzeko. Bihar mangerarekin garbitu beharko dut kotxea.

Izuak eztarria korapilatu zion Mollyri. Une batez, kordea galduko zuela iruditu zitzaion.

— Barkatu, joan beharra daukat —hots egin, eta korrika atera zen gelatik. Sarrera ilunera jo eta horman apoiatu zen. Gero poliki eta automatikoki ate nagusitik atera eta harmailak jaitsi zituen. Gaua zurrumurrus beteta zegoen. Kanpoan, errepidean, Bert Munroeren kotxearen masa beltza ikusi zuen. Harrigarria egiten zitzaion bere hankak bidetik tankera hartan joatea, erabat beren kabuz. «Orain nire burua hiltzen ari naiz», esan zuen. «Orain dena harrika botatzen ari naiz. Zergatik ote.» Eskupean zeukan langa, eta bere eskua okertu egin zen hura irekitzeko. Orduan brisaratxo bat altxa zen, bere sudurrera gonbitoan kirats bizia ekarri zuena. Mozkor zurrunka lanturoso bat aditu zuen. Berehala, bere buruan zerbait jirabiraka hasi zen. Buelta eman eta etxera itzuli zen Molly, eroa bezala korrika. Bere gelan atea giltzaz itxi eta tente-tente eseri zen, arnaska lasterketaren ahalegi-nagatik. Orduak pasa zirela iruditu zitzaion gizonak etxetik ateratzen sentitu baino lehen, elkarri gabona emanaz. Gero Berten kotxea martxan

jarri zen, eta motorraren hotsa kotxea urrun-
tzeaz batera itzali zen. Eta orduan, abiatzeko
prest zegoen une hartan, paralizatuta sentitu
zen Molly.

John Whiteside bere idazmahaian idazten ari
zen Molly salara sartu zenean. Galde-minez begi-
ratu zion.

— Ez zaude ondo, Miss Morgan. Sendagile bat
behar duzu.

Molly mahaiaren aurrean geratu zen, tente-
tente.

— Ordezko bat bilatuko al zenidake? —galde-
tu zuen.

— Horixe baietz. Sar zaitez segituan ohean
eta sendagile bati deituko diot.

— Ez da hori, Mr. Whiteside. Joan egin nahi
dut hemendik gaur gauean bertan.

— Zertaz ari zara? Ez zaude ondo.

— Nire aita hila zela esan nizun. Ez dakit hila
den ala ez. Beldur naiz... joan egin nahi dut gaur
gauean.

Mr. Whitesidek arreta biziz begiratu zion.

— Esplikatu zer esan nahi duzun —esan zuen
eztiro.

— Mr. Munroeren gizon mozkor hori ikusiko banu —gelditu egin zen bat-batean, esatera zihoanagatik izututa.

John Whitesidek buruari eragin zion astiro.

— Ez! —hots egin zuen Mollyk—. Ez dut hori pentsatzen. Horixe ezetz.

— Zerbaitetan laguntzea gustatuko litzaidake, Molly.

— Ez dut joan nahi, gustura nago hemen... Baina beldur naiz. Hain da garrantzitsua niretzat!

Zutitu egin zen John Whiteside, eta Mollyren ondora etorri eta bizkarra inguratu zion besoaz.

— Ez dut uste ondo ulertzen dudarik —esan zuen—. Ez dut uste ulertu nahi dudarik. Ez da beharrezkoa. —Bere buruarekin ari zela ematen zuen—. Ez litzateke fintasun handikoa izango zera... ulertzea.

— Behin hemendik joanez gero, ez sinestea posible izango zait —esan zuen Mollyk antsika.

John Whitesidek estutu azkar bat eman zion sorbaldan bere beso besarkatzaileaz.

— Zoaz agudo gora eta bildu zure gauzak,
Molly —esan zion—. Kotxea hartu eta Salinasera
eramango zaitut oraintxe bertan.

Zeruko Belardietako granja guztien artean Raymond Banksena zen miretsiena. Raymondek bost mila oilo zuri eta mila ahate zuri zeuzkan. Granja iparraldeko lautadan zegoen kokatua, eskualde osoko tokirik politenean. Raymondek alpapa eta aza sail koadratuetan banatuta zeukan bere terrenoa. Bere oilategi luze eta baxuak hainbeste aldiz zuritzen zituzten non garbi-garbiak eta berriak ematen baitzuten beti. Raymonden etxe inguruan ez zen behin ere antzematen hegaztitegien inguruan hain normala izan ohi den zikinkeriaren aztarnarik.

Ahateentzako urmael handi, borobil bat zegoen, eta bi hazbeteko hodi batek etengabe isurtzen zuen ur freskoa bertara. Urmaeletik gaineraz egindako ura aza trinko eta mardulen ilare-tara joaten zen edo alpapa sailetatik zabaltzen zen. Gauza ederra zen, goiz eguzkitsuetan, oilo zuri eta garbien banda handia alpapa berde ilunean jaten eta aztarrika ikustea, eta are ederragoa mila ahate zuriak urmaeletik dotore lerra-

tzen ikustea. Ahateek astun egiten zuten igeri, Leviatan delakoa bezain handiak balira bezala. Arrantxoak durunda egiten zuen egun osoan oiloen hots zalapartatsuarekin.

Inguruko muino baten tontorretik beherantz begiratuta, alpapa laukiak ikus zitezkeen, non milaka mantxa zuri zurrunbiloan eta kiribilka mugitzen ziren hauts izpiak putzu berde batean bezala. Orduan aztore isats-gorri bat azaltzen zen beharbada, planeatuz eta Raymond en etxeari arreta biziz erreparatuz. Mantxa zuriek berehala beren mugimendu zentzugabeak gelditu eta oilarren babesera jotzen zuten bizkor asko, eta aztoreak ikaratutako milaka oiloen garrasi etsiak heltzen ziren alorretatik. Granjako etxearen atzeko ateak danbateko bat eman, eta Raymond kanpora ateratzen zen, patxadan eta eskopeta eskuan zuela. Aztorea urrundu egiten zen, airean gora ehun oin igota. Koxkor txiki zuriak berriro ere sakabanatu eta zurrunbiloak lehengo martxa hartzen zuen.

Berdeguneak hesiz bereizita zeuden elkarrengandik, sail batek atsedean hartzeko eta osatzeko modua izan zezan oiloak beste batean

zebiltzan bitartean. Muinotik, Raymond en etxe karez zurutua ikus zitekeen, harizti baten ertzean kokatua. Lore asko zeuden etxe inguruan: kalendulak eta Afrikako ilen handiak eta zuhaitzak adinako daliak; eta, etxearen atzealdean, Zeruko Belardietako ibarrean izen hori merezi zuen arrosadi bakarra zegoen. Bertakoei toki hura ibarreko granja modelo iruditzen zitzaien.

Raymond Banks gizon indartsua zen. Bere beso lodi eta motzek, bere sorbalda eta aldaka zabal eta berna astunak, eta baita laneko galtzetatik nabarmentzen zitzaion estomagoak ere, itxura arras indartsua ematen zioten, indartsua bultzatzeko, tiratzeko eta kargak altxatzeko. Agerian zeramatzen gorputzaren parte guztiek txekor odolaren gorritasuna zeukaten eguzki-gatik; bai beso astunak ukalondoraino, bai lepoa alkandoraren lepo barreneraino, eta baita aurpegia ere, batik bat belarriak eta sudurra, minberatsuki erreta eta zartatuta zeuzkan. Bere ile hori bakanak ez ziren aski buruko azala eguzkipean gorri zedin galarazteko. Raymond en begiak ere aipagarriak ziren, zeren, ilea eta bekainak hori zurbilak izan arren, gehienetan begi urdin argie-

kin joaten den horitasunekoak, Raymonden begiak kedarra bezain beltzak baitziren. Bere ahoa ezpain mamitsukoa eta alaitsua zen, bate-re egokitasunik gabea makurki kakotutako sudur luzearekin. Raymonden sudur eta belarriek eguzkiaren zigor gogorra jaso zuten. Urte osoan, apenas izaten zen haragi gorrian eta azala altxatuta ez zeuden aldirik.

Raymond Banksek berrogeita bost urte zituen eta oso alaitsua zen. Ez zuen behin ere apalki hitz egiten, baizik eta itxurako amorrazioz betetako erdi-garrasi ozenekin. Gauza guztiak, arruntenak ere, barregarriak balira bezala esaten zituen. Hitz egiten zuenero jendeak barre egiten zuen. Eskolako Eguberri festetan, Santa Claus izateko aukeratzon zuten beti bere ahots adoretzu, aurpegi gorri eta umeei zien maitasunagatik. Halako purrustekin hitz egiten zien umeei non barrez edukitzen baitzituen denbora guztian. Santa Clausen jantzi gorriarekin edo hura gabe, ibarreko umeei nolabaiteko Santa Clausatzat zeukaten Raymond. Haiek astintzeko, haiekin borrokatu eta harroaldi bat emateko modu berezia zuen, laztan antzekoa eta zoraga-

ria. Noizbehinka, serio jarri eta lezio handien garrantzia zuten gauzak kontatzen zizkien.

Batzuetan, larunbat goizetan, mutiko talde bat Banksen granjara inguratzen zen Raymond lanean ikustera. Berak kirika egiten uzten zien inkubategien kristalezko leihatiletatik. Batzuetan, orduantxe ari ziren txitak azaletik ateratzen, hego hezeak astinduz eta hanka baldarren gainean balantza eginez. Mutilek baimena bazuten inkubategien tapakiak altxa eta eskuak bete-bete egiteko ehun makinatxo koipetu gabeen hotsa ateratzen zuten txita hori, iletsuekin. Gero urmaelera joan eta ogi puskek botatzen zizkieten hain ederki nabigatzen zuten ahateei. Gehiena, ordea, hilketa garaia gustatzen zitzaien umeei. Eta, gauza xelebrea, Raymond ere orduantxe jartzen zen serio, bere ohiko bromak utzita.

Raymondek oilar txiki bat kaiolatik aukeratu eta hanketatik zintzilik jartzen zuen egurrezko armazoi batean. Alanbrezko euskarri batekin lotzen zituen hegaztiak modu basatian astintzen zituen hegoak. Oilarrak garrasi handiak egiten zituen. Raymondek bere ondoko kaxaren gai-

nean zeukan lantza itxurako labana. Nola mires-
ten zuten mutilek labana hura, haren forma
makurra eta haren distira! Orratz batena bezain
zorrotza zuen punta.

— Oraingo honetan, oilar zaharra, hireak egin
dik —esaten zuen Raymondek. Mutilak tropoi-
luan hurbiltzen ziren. Esku ziur, bizkorrez, Ray-
mondek heltzen zion hegaztiaren buruari eta
mokoa irekitzera behartzen zuen. Labana argi
bristada bat bezala irristatu, mokoaren sabaitik
burmuinetaraino, eta atera egiten zen atzera.
Hegoek dardara egin eta astinduak ematen
zituzten euskarriaren kontra. Une batez, lepoa
alde batera eta bestera luzatzen zen irrikatsu,
eta odol erreten txiki bat jaisten zen mokoaren
puntatik.

— Orain, begiratu ondo! —hots egiten zuen
Raymondek.

Bere sarde itxurako eskuak hegaztiaren bula-
rra orraztu eta luma guztiak berarekin eramaten
zituen. Beste orrazi kolpe bat eta bizkarra ere
biluzik zuen. Hegoak ez ziren handik aurrera
hain gogor lehiatzen. Raymondek luma guztiak
kentzen zituen, hego-puntetakoak izan ezik.

Ondoren hankak larrutzen zituen, bakoitza mugimendu bakar batekin.

— Ikusten al duzue? Azkar egin behar da — esplikatzen zuen lanean ari zela—. Gutxi gorabehera, lumak bi minutu bakarrik egoten dira laxatuta. Bertan uzten badituzue, itsatsita geratzen dira.

Hegaztia armazoitik jaitsi, beste labana batez bi kolpe arin eman, tiratu, eta horra erraiak ontzi batean. Zapi batekin lehortzen zituen esku gorriak.

— Begira! —egiten zuten oihu mutilek—. Begira! Zer da hori?

— Bihotza da.

— Baina, begira! Mugitu egiten da oraindik. Bizirik dago oraindik.

— Oh, ez, ez dago bizirik —lasaitzen zituen Raymondek—. Labanak bere burmuinak ukitzearekin batera hil da oilarra. Bihotzak taupaka segitzen du pixka batean, baina oilarra zeharo hilda dago.

— Zergatik ez diezu zintzurra mozten nire aitak egiten duen bezala, Mr. Banks?

— Ba begira, horrela garbiagoa eta azkarra-
goa delako, eta gainera harakinek buru eta guzti
nahi dituztelako. Saltzerakoan burua ere pisuan
sartzen dute, ulertzen? Eta orain, hator nirekin,
oilar zahar hori!

Eskua luzatzen zuen kaiola barrura beste
marrulari lehiatsuren bat hartzeko. Hilketan lana
bukatutakoan, Raymondek ontzitik hegaztien
paparo guztiak hartu eta mutilen artean bana-
tzen zituen. Paparoak nola garbitu eta puztu
behar ziren erakusten zien, hegazti-globoak egi-
teko. Raymond beti oso serio egoten zen bere
arrantxoko gauzak esplikatzeko zituen bitartean.
Ez zuen nahi izaten umeei hilketan laguntzerik,
askotan eskatzen bazioten ere.

— Beharbada urduri jarri eta ez zinatekete
burmuinetara helduko —esaten zuen—. Sufritu
egingo luke hegaztiak, labankada behar den
tokian ez emanaz gero.

Mrs. Banksek barre asko egiten zuen, barre
garbi eta gozoa, plazer lasaia adierazten zuena
edo agian arretarik eza. Edozeinek esandako
guztiari onespenez barre egiteko ohitura zuen,
eta, haren estimazioa merezi izateko, jendea

gauza barregarriak esaten saiatzen zen Mrs. Banks inguruan zenean. Bere etxeko lanak bukatutakoan, aitzurrean aritzen zen lorategian. Hiritarra zen jatorriz; horregatik maite zituen loreak, zioten auzokoek. Gonbidatuei, kotxez hurbiltzean, ongietorria ematen zien Cleo Banksen barre garbi eta ozenak, eta beraiek ere irritxoak egiten zituzten hura aditzean. Hain zen alaia! Jendea ondo sentitzea lortzen zuen. Inork ez zuen sekula hark esandako ezer gogoratzen, baina aditu eta hilabete askotara ere, bere barrearen doinu zehatzak gogora zitzaketen.

Raymond Banksek apenas egiten zuen barrerik. Horren ordeztan, petral itxura egiten zuen, baina hain modu nabarmenean non jendeari umorea iruditzen baitzitzaien. Bi pertsona horiek ibarreko anfitrioiak ospetsuenak ziren. Aldian behin, etxe ondoko hariztian egindako barbakoara gonbidatzen zuten Zeruko Belardietako jende guztia. Oilasko txikiak erretzen zituzten haritz azalen txingarren gainean, eta ehunka botila ateratzen zituzten etxean egindako zerbezarekin. Ibarreko jendeak plazer handiz itxaroten eta gogoratzen zituen festa horiek.

Raymond Banks kolegioan egon zenean, kide bat izan zuen, denborarekin San Quentino kartzelako zaindari bihurtu zena. Eta adiskidetasun hark iraun egin zuen. Eguberrietan elkarri oparixoak bidaltzen jarraitzen zuten. Ezer garrantzikorik gertatuz gero idatzi egiten zioten elkarri. Raymond harro zegoen zaindariarekin zuen harremanaz. Urtean bitan edo hirutan inbitazio bat jasotzen zuen exekuzio baten lekuko izateko, eta beti onartzen zuen. Kartzelara egindako bidaia haiek ziren hartzen zituen oporraldi bakarrak.

Raymondi exekuzio aurreko gauean ailegatzeari gustatzen zitzaion kartzelazainaren etxera. Laguna eta biak elkarrekin eseri eta estudiante garaiaz hitz egiten zuten. Biek primeran gogoratzten zituzten gauzak gogorarazten zizkioten elkarri. Pasadizo berberak oroitzen eta errepasatzen zituzten beti. Gero, hurrengo goizean, zaindariaren bulegoko beste lekukoan urduritasuna eta histeria disimulatua gustatzen zitzaizkion Raymondi. Kondenatuaren ibilera geldoak Raymonden aldarte dramatikoan esnatzen zuen eta emozio bizia eragiten zion. Urkaketa bera ez zen

atalik garrantzitsuena; prozedura osoaren giro zorrotz, sarkorrak egiten zion inpresiorik handiena. Goi-elizkizun bat bezalakoa zen, solemnea eta zeremoniatsua eta goibela. Guzti hark esperientziaren betetasuna sentiarazten zion, emozio sakratu bat bere bizitzako beste ezertxoren antzik ez zuena. Raymondek ez zuen kondentatuaz gehiago pentsatzen oilarraz pentsatzen zuena baino labana haren burmuinetan barrurartzten zuenean. Ez zuen urkabera bultzatzen ez krudelkeriak ez besteren sufrimendua ikusteko grinak. Bere barruan emozio sakonen apetitua garatu zelarik, bere irudimen ahula ez zen hura asetzeko gai. Kartzelan, bere nerbioek beste gizonen nerbioekin batera egin zezaketen dardarra. Heriotza-kameran beste inor egon ez balitz, bera bakarrik kondenatu eta borrareroarekin, ezer ez zukeen sentituko.

Heriotza egiztatu eta gero, Raymondi zaindariaren bulegoan egiten zen bigarren bilera gustatzen zitzaion. Nerbioetatik gaizkitutako gizonak beren irudimen astinduak baretzen saiatzen ziren barre eta irrien bitartez. Normalean baino alaitsuago egoten ziren, zalapartatsuagoa izaten

zen beren poza. Mespretxuz hitz egiten zuten aldi bateko lekukoaz, erreportari gazte bat gehienetan, zorabiatu egin zena edo kameratik negarrez atera zena. Raymondek gozatu egiten zuen denarekin. Bizirik zegoela sentiarazten zion; ematen zuen beste momentuetan baino zorrotzago bizi zela.

Dena bukatutakoan, bazkari ederra egiten zuen zaindariaekin etxe aldera abiatu baino lehen. Neurri txiki batean, Raymondek emozio berbera bizitzen zuen mutikoak hegaztiak nola hiltzen zituen ikustera etortzen zirenean. Haien asalduraren txinpartatxo bat harrapatzeko aukera izaten zuen.

Zeruko Belardietan denbora asko ez zeramala, Munroe familiak Raymond Banksen arrantxo ederraren eta kartzelako bisita haien berri izan zuen. Ibarreko jendea jakin-minez eta liluratuta zegoen, eta izututa ere bai, gizon urkatuak ikusteko bidaia haiekin. Raymond ikusi aurretik, Bert Munroek ohiko borreroaren antzeko imajinatzen zuen, gizon ilun, ihar bat bezala, begi itzali, mortuekin; gizon hotz, kemenik gabeko bat. Ray-

mondengan pentsatze hutsak jakinguraz kutsatutako aurrentipen bat eragiten zion Berti.

Azkenean Raymond Banks ezagutu zuenean, eta ikusi begi beltz alaitsu haiek eta eguzkiak belztutako aurpegi osasuntsu hura, Bert desilusionatuta eta aldi berean pixka bat gogaituta sentitu zen. Raymond-en osasun eta adeitasunak desegokiak eta bitxiki obszenoak ziruditen. Bere jatortasunak eta umeei zien maitasunak taxurik gabeko paradoxa osatzen zuten.

Maiatzaren lehen egunean, Banks-tarrek beren festa haietako bat eman zuten zelaiko haritzen azpian. Urteko sasoirik ederrena zen; eskuzuri eta primulek, gallito eta bioletek beren kolore apalak jartzen zituzten maldetako belar motz, berrian. Haritzak hosto berriz jantzita zeuden, hosto txukun eta distiratsuak, gorosti garbituarenak bezalakoak. Eguzkiak nahiko bero ematen zuen airea salbiaren usainez kutsatzeko, eta txori guztiek festa-giro zalapartatsu eta ardailatsuan ziharduten. Hegaztitegietatik, oilo aztarrikarien kalaka alaia eta ahateen kua-kua harro eta zinikoa ailegatzen ziren.

Gutxienez berrogeita hamar lagun bazeuden zuhaitz azpiko mahai luzeen inguruan. Ehunka zerbeza botila zeuden pilatuta gatz eta izotzez betetako pertzetan, eta nahasketa hain zen hotza non zerbeza jelatu egiten baitzen botilen lepoetan. Mrs. Banks harantz eta honantz zebilen gonbidatuen artean, barre eginez agurtzera-koan eta agurrei erantzuterakoan. Oso gutxitan esaten zuen hitzik. Raymond berriz, oilasko txikiak erretzen ari zen parriletan, miresle talde bat, gizonak denak, inguruan zuela aholku irrigarriak eskainiz.

— Zuetako norbaitek hobeto egin badezake, datorrela hona! —esaten zien oihuka Raymondek—. Orain haragia jarriko dut, oilaskorik nahi ez duen txororen bat azaltzen bazaigu ere.

Bert Munroe hantxe ondoan zegoen Raymonden esku gorriei begira. Zerbeza gogor hartako botila bat edaten ari zen. Bert liluratuta zegoen parrillako oilaskoei bueltak eman eta eman ari ziren esku gorri indartsuekin.

Oilasko erre bandexakadak mahaietara eraman zituztenean, Raymond parrilletara itzuli zen gehiagoerretzera bigarren edo hirugarren oilas-

kotxoa eska zezaketen gizon jatorrentzat. Une hartan Raymond bakarrik zegoen, bere publiko guztia mahaien inguruan bildua baitzen. Bert Munroek, begiak altxa platereko bistek puskatik, eta Raymond parrillen ondoan bakarrik zegoela ikusi zuen. Sardexka utzi eta harantz jo zuen.

— Zer dugu, Mr. Munroe? Ez al zegoen ona zure oilaskoa? —galdetu zion Raymonddek antsietate adeitsu batez.

— Haragia hartu dut, eta ona zegoen. Uste dut azkar samar jaten dudala. Baina oilaskorik behin ere ez dut jaten.

— Egiantan? Norbaiti oilaskoa ez gustatzea behin ere ulertu ez dudan gauza da, baina badaikit asko direla gustatzen ez zaienak. Uzten badi-dazu beste haragi puskatxo bat prestatuko dizut.

— Oh, uste dut nahikoa jan dudala. Beti pentsatzen dut jendeak gehiegi jaten duela. Gose pixka batekin altxa beharko genuke mahaitik. Hartara ondo kontserbatuko ginateke, animaliak bezala.

— Arrazoia duzula uste dut —esan zuen Raymonddek.

Buelta eman zien hegaztitxoei su gainean.

— Hainbeste jaten ez dudanean hobeto sentitzen naizela antzematen dut.

— Sentituko ez zara ba. Bai ni ere. Mundu guztia. Mundu guztiak gehiegi jaten du.

Bi gizonak irribarre beroa eskaini zioten elkari-puntu hari zegokionez ados zetozelako, nahiz esandako hitzetan oso tinko sinetsi ez.

— Terreno ederra daukazu benetan —adierazi zion Raymondek, beren adiskidetasun sortu berria bigarren adostasun batez sendotzearren.

— Beno, ez dakit. Ero-belarra jaiotzen omen da, baina orain arte ez dut nik batere ikusi.

Raymondek irribarre egin zuen.

— Etxea sorginduta zegoela ematen zuten, zu etorri eta dena hain txukun jarri zenuen arte. Fantasmarik ez zenuen ikusiko, ezta?

— Ezta bat ere. Ikara handiagoa ematen dit ero-belarrak fantasmek baino. Benetako gorrotoa diot ero-belarrari.

— Ezin esan arrazoirik ez duzunik. Jakina, oilaskoekin ez dit buruhauste handirik ematen, baina infernuko etsaia da ganadua hazten duzuenontzat.

Bertek lurretik makila bat jaso eta eragin egin zien emeki txingar dardaratiei.

— Agidanean San Quentingo kartzelazaina ezaguna duzu.

— Oso ezaguna. Mutil koskorra nintzela Ed eta biok eskola berean ibili ginen. Zuk ere ezagutzen al duzu, Mr. Munroe?

— Oh, ez... ez. Askotan ateratzen da egunkarietan. Bera bezalako jendea askotan azaltzen da egunkarietan.

Raymond serio eta harro mintzatu zen.

— Bai. Dezenteko publizitatea egiten diote. Baina tipo jatorra da, Mr. Munroe, ezagutu zenezakeen tiporik jatorrena. Eta, nahiz bere mende horrenbeste kondenatu eduki, beti bezain alai eta adiskidetsu jarraitzen du. Ez zenuke imajinatuko, berarekin hitz eginez gero, hain erantzukizun handia duenik.

— Egiatan? Ez nuen horrelakorik uste. Esan nahi dut, normalena litzateke kezkatuta-edo egotea kondenatu guzti horiek bere mende edukita. Maiz ikusten al duzu?

— Ba... bai. Askotan. Esan dizut berarekin ibili nintzela eskolan. Adiskideak ginen. Eta ez

nau ahaztu. Aldian behin presondegira gonbidatzen nau norbait urkatzekoa dutenean.

Bertek dardarizo bat sentitu zuen, nahiz puntu huraxe izan berak ukitu nahi zuena.

— Egiatan?

— Bai. Ohore handia iruditzen zait niri. Ez dute jende asko ametitzen, bakarrik egunkarietako gizonak eta lekuko ofizialak, sheriffak eta polizia. Gainera, joaten naizenero hitz-aspertu ederra egiten dut Edekin, jakina.

Gauza bitxia gertatu zitzaion Berti. Bere gorputzetik bereizita bezala sentitu zen. Bere ahotsak bere borondaterik gabe jokatu zuen. Hitz hauek aditu zizkion bere buruari:

— Zaindariari ez litzaioke, noski, gustatuko lagun batekin azalduko bazina.

Harriduraz entzun zituen bere hitzak. Ez zuen inolaz ere hura esan nahi izan.

Raymond txingarrei eragiten ari zen indarrez. Aztoratuta zegoen.

— Ez dakit ba, Mr. Munroe. Ez dut inoiz horretan pentsatu. Nirekin etorri nahi al zenuke?

Berriro ere Berten ahotsak bere kabuz jokatu zuen.

— Bai —esan zuen.

— Beno, hortaz, gauza bat egingo dut. Edi idatziko diot. Sarritan idazten diot, badakizu, eta ez zaio beraz arraroa irudituko. Hitz-erdiren bat sartuko dut zu ere gestora joango zinatekeela esanez. Hala beharbada bi inbitazio bidaliko ditu hurrengoan. Baina, jakina, ezin dizut ezer agindu. Ez al duzu beste haragi puskatxo bat nahi?

Bertek goragalea zeukan.

— Ez, nahikoa jan dut —esan zuen—. Ez naiz oso ondo sentitzen. Uste dut pixka batean zuhaitz azpian etzatera joango naizela.

— Beharbada harrotu egingo zenuen zerbeza horren legamia, Mr. Munroe. Oso kontuz ibili behar da zerbitzatzerakoan.

Bert haritz baten azpiko hosto ihar, kirriskatsuen gainean eseri zen. Mahaiak, gonbidatu zalapartatsuez inguratuak, bere eskuinean zeuden. Bai gizonezkoen algara zakarrak bai hizketan ari ziren emakumezkoen oihu txorrotxak ahul heltzen zitzaizkion pentsamenduzko murrubatetik barrena. Zuhaitz enborren artetik Raymond Banks ikusten zuen, parrillen ondoan orduan ere, oilaskoak erretzen artean baretu

gabeko zenbait apetitu sinestezinentzat. Urrun-
tzera behartu zuen goragalea aldatzen ari zen
pixkanaka. Gaixotasunezko sentrazio itoa desio
irrikatsuen kongestio bitxi ari zen bihurtzen.
Desioak harritu eta nahigabetu egiten zuen Bert.
Ez zuen San Quentineran joan nahi. Atsekabea
ekarriko zion gizon baten urkaketa ikusteak.
Baina pozik zegoen joateko aukera eskatu izan-
naz. Bere pozak berak nahigabetu egiten zuen.
Bert begira zegoela, Raymondek gorago igo
zituen mahukak bere beso lodi, gorrietan, parri-
llak garbitzeari ekin baino lehen. Bert jauzi batez
zutitu eta harantz abiatu zen. Goragalea etorri
zitzaion osterara kolpetik. Buelta eman eta emaz-
tea eserita zegoen mahaira jo zuen lasterka.
Emaztea txantxetan ari zen garrasi txorrotxekin
oilasko baten hezurreria marraskatzen zuen
bitartean.

— Nire senarrak behin ere ez du oilaskorik
jaten —zioen oihuka.

— Etxe aldera abiatuko naiz oinez —esan
zuen Bertek—. Patal nago.

Bere emazteak oilaskoaren hezurak utzi eta behatzak eta ezpainak paperezko serbiletan batekin garbitu zituen.

— Zer gertatzen zaizu, Bert?

— Ez dakit. Pattal samar nagoela, besterik ez.

— Nahi baduzu zurekin joango naiz kotxean.

— Ez, gelditu hemen. Jimmiek eramango zaitu etxera.

— Ondo da —esan zuen Mrs. Munroek—. Agur esan beharko zenieke Mr. eta Mrs. Banksi. Bert jira egin zen setatsu.

— Agurtu zuk nire izenean —esan zuen—. Pattalegi nago ni.

Eta urrundu egin zen agudo, pauso-luzeka.

Astebete beranduago, Bert Munroe Bankstarren granjaraino hurbildu eta hesiaren ate aurrean gelditu zuen bere Ford-a. Raymond arbolatxo baten atzetik azaldu zen, han baitzegoen gordeta aztore bat tiroz bota nahian. Patxada ederrean aurrera jo eta bostekoa eman zion bere bisitariari.

— Zure etxeaz aditu ditudanak adituta, begiratu bat ematera etorri behar nuela pentsatu dut —esan zuen Bertek.

Raymond zoratzen zegoen.

— Emaidazu momentu bat eskopeta gordezko eta bazterrak erakutsiko dizkizut.

Ordubetez granjatik barrena ibili ziren, Raymond azalpenak eskainiz eta Bert hegazti arrantxoaren txukuntasuna eta oparotasuna miretsiz.

— Zatoz barrura baso bat zerbeza edatera — esan zuen Raymondek dena bisitatu ondoren—. Zerbeza hotza bezalakorik ez da gaurkoa bezalako egunetan.

Eseri zirenean, Bert honela hasi zen, urduritasunez:

— Idatzi al zenion eskutitza kartzelazainari, Mr. Banks?

— Bai... idatzi nion. Erantzunak laster hemen behar luke.

— Zergatik eskatu nizun jakin nahiko duzu segur aski. Begira, nik uste gizonak ahal duen guztia ikusi behar duela. Esperientzia da. Zenbat eta esperientzia handiagoa, orduan eta hobea gizona. Gizonak dena ikusi behar du.

— Nik uste arrazoi duzula, arrazoi guztia — onartu zuen Raymondek.

Bertek bere basoa hustu eta ahoa lehortu zuen.

— Jakina, egunkarietan irakurri izan ditut urkaketei buruzko berriak, baina ikustea beste gauza bat da. Hamahiru koska omen daude urkaberaino, suerte txarraren seinale bezala. Egia al da hori?

Raymonden aurpegiak kontzentrazioa adierazten zuen.

— Ba zera, ez dakit, Mr. Munroe. Behin ere ez ditut kontatu.

— Eta beraiek nola... borroka eta indar handiak egiten al dituzte, eskegitzen dituzten unean?

— Uste dut baietz. Baina, badakizu, uhalez lotuta egoten dira eta oihal beltz bat edukitzen dute buruan. Gauza handirik ezin duzu ikusi. Nik esango nuke gehiago dela dardarizo moduko bat borroka baino.

Berten aurpegia gorrituta eta adi zegoen. Bere begiek dizdiz egiten zuten jakin-minez.

— Egunkariak diote hamabost minututik ordu erdi batera behar izaten dutela hiltzeko. Egia al da hori?

— Ba... egia izango da, jakina, eskegitzen dituzten momentuan hiltzen direla ere esan liteke. Hegazti bati burua mozten diozunean bezala; hegaztiak dardarizoak izaten ditu, baina benetan hilda dago.

— Bai... hala izango da. Erreflexu hutsa, izen hori ematen zaio. Aurreneko aldiz ikusten duenarentzat oso gogorra izango da, noski.

Raymondek irribarre egin zuen dibertituta.

— Bai. Ia beti bada kordea galtzen duenen bat. Egunkarietako erreportari hasi berriek negar egiten Bute batzuetan, negarrez hasten dira haurrak bezalaxe, eta zenbait jenderi ondoeza egiten zaio, benetako ondoeza, eta kapazak dira bazkaria hantxe bertan botatzeko. Gehienbat aurreneko aldiz etorritakoak izan ohi dira horrelakoak. Har dezagun beste zerbeza botila bat, Mr. Munroe. Ona eta freskoa dago, ez da hala?

— Bai, primerako zerbeza da —onartu zuen Bertek abstradituta—. Ea errezeta ematen didazun. Gizonak beti eduki behar luke zerbeza pixka bat prest beroa datorrenerako. Orain joan beharra daukat, Mr. Banks. Eskerrik asko etxe ingu-

ruak erakusteagatik. Nire ustez, hegaztiei dago-kienez, Petalumako jende horri kontseiluak emateko moduan zara.

Raymond gorri-gorri jarri zen plazerez.

— Gauza berrietara moldatzen saiatzen naiz. Jakinaraziko dizut Ed lagunaren berririk izaten dudanean, Mr. Munroe.

Ondorengo bi asteetan Bert Munroe urduri eta guztiz erretxinduta ibili zen. Hain zen gauza ezohikoa non bere emaztea ere kexatu egin bai-zen.

— Ez zaude ondo, Bert. Kotxea hartu eta zer-gatik ez zara mediku batengana joaten, begira zaitzan?

— Oh! Ondo nago —esan zuen berak temati.

Granjako lanetan pasa zuen denborarik gehiena, baina bere begiek eskualdeko errepide-rantz jotzen zuten automobilen bat pasatzen zenero. Larunbat batean, Raymond Banks bere kamionetan etorri eta Munroe-tarren etxe aurrean gelditu zen. Bertek utzi bere pala eta haren bila jo zuen. Nekazari bat beste batekin elkartzen denean gutxitan sartzen dira etxe barrura. Horren orde, lur sailen ondotik pasea-

tzen dute astiro, belar izpiak erauziz soroetatik, edo hostoak zuhaitzetatik, eta esku artean erabiliz hitz egiten duten bitartean. Udaren hasiera zen. Fruta-arbolen hostoek artean galdu gabe zeuzkaten beren berde samur, argiak, baina lore guztiak ezkutatuta zeuden eta fruituak itxura hartuta. Gereziek ere kolore pixka bat ageri zuten. Bert eta Raymond poliki-poliki zihoazen baratzeko zuhaitzen azpiko sail landuetatik.

— Txoria ugari dabil aurten —esan zuen Bertek—. Uste dut beraiantzat izango direla gerezi gehientsuenak. —Ondo asko zekien zertara etorri zen Raymond.

— Beno, Ed lagunaren berriak jaso ditut, Mr. Munroe. Nirekin etorri ezinik ez duzula dio. Ez omen diote jende askori etortzen uzten, ikusmin morbosoa duen jendea urruntzen saiatzen direlako. Baina nire edozein adiskide ametitzeko konforme dago. Datorren ostegunean joango gara. Ostiralean exekuzioa dago.

Bert isilik zihoan, begiak lurrari josita.

— Ed tipo jatorra da. Gustatuko zaizu —jarraitu zuen Raymondek—. Bere etxean pasako dugu ostegun gaua.

Bertek lurretik adar bat jaso, motzaldiaren ondoren bertan gelditua, eta bi eskuekin okertu zuen arku estua osatzeraino.

— Zera aritu naiz pentsatzen —esan zuen—. Axolako al litzaizuke azkeneko momentuan atzera egingo banu?

Raymondek zuzen begiratu zion.

— Hara! Joateko gogoia zenuela uste nuen. Zer gertatzen da?

— Esaten badizut, zeharo belaxka naizela pentsatuko duzu, noski. Kontua da... pentsatzen aritu naiz eta... ikara ematen dit joateak. Ikara ematen dit gero burutik ezin kendu izateak.

— Ez da dirudiena bezain latza —protestatu zuen Raymondek.

— Beharbada ez. Hori ez dakit. Baina ikara ematen dit niretzat latza izateak. Denek ez dute gauza bat modu berean ikusten.

— Ez, hori egia da.

— Sentitzen dudanaren ideia bat ematen saiatuko naiz, Mr. Banks. Badakizu ez dudala oilaskorik jaten. Inori ez diot esaten zergatik ez dudan jaten. Ez zaidala gustatzen esatea besterik ez dut egiten. Baina zuri lan handiak eman

dizkizut. Eta esan egingo dizut... esplikazio modura, besterik ez bada ere.

Makila bi puskatan hautsi zen bere eskuetan; bi muturrak urrutira bota eta eskuak poltsikoan sartu zituen.

— Mutil-koskorretan, hamabi bat urte nituela, janariak partitzen ibiltzen nintzen eskolara joan baino lehen. Begira, garagardotegiaren ondoan gizon zahar elbarri bat bizi zen. Berna bat moz-tua zeukan izterretik, eta egurrezko berna baten ordeaz antigoaleko makulu bat erabiltzen zuen: ilargi-erdi moduko bat makila borobilaren goialdean. Badakizu nolakoa, ezta? Nahiko ondo mugitzen zen batera eta bestera, baina aukeran poliki samar. Goiz batez, nire janari saskiarekin handik pasatzerakoan, gizon zahar hori kanpoan zegoen, bere etxeko atarian, eta oilar bat hiltzen ari zen. Nik sekula ikusitako Rhode Island Red handiena zen. Edo beharbada ni hain txikia izateagatik ematen zuen hegaztiak haro handia. Zaharrak makulua galtzarbean hartu eta hanke-tatik eusten zion oilarrari.

Bert gelditu eta beste adar bat jaso zuen lurretik. Hau ere okertu egin zen bere eskupean. Aurpegia zurbiltzen ari zitzaion hitz egin ahala.

— Beno —jarraitu zuen—, gizon zahar horrek aizkoratxo bat zeukan beste eskuan. Oilarrari lepoa ebakitzera zihoan unean, makulua zertxobait irristatu eta bihurritu egin zitzaion hegazia, eta berak hego bat moztu zion. Eta orduan zaharra eroa bezala jarri zen. Aizkorarekin eman eta eman hasi zitzaion, beti okerreko tokian, bularran eta estomagoan. Gero makulua gehixeago irristatu eta oreka galarazi zion erabat, noiz eta aizkoratxoa kolpea ematera zihoanean. Hegaztiari hanka bat moztu zion eta aizkorakada berak alderik alde ebaki zuen agurearen behatza.

Bertek kopeta lehortu zuen mahukarekin. Raymond lur menditxo bat pilatzen ari zen oinetakoaren saihetsaz.

— Beno, hori gertatu zenean, zaharrak oilarra lurrera erortzen utzi eta etxera sartu zen herrenka, bere behatzari helduta. Eta oilarra berriz, arrastaka abiatu zen tripa guztiak zintzilik zituela; arrastaka abiatu zen eta karranka bezala.

Makila hautsi egin zen berriro, eta oraingoan indarrez bota zituen puskak bere ondotik.

— Horra ba, Mr. Banks. Geroztik ez dut sekula hegazti bat hil, eta ezta jan ere. Saiatu izan naiz jaten, baina aldiro Rhode Island Red huraxe ikusten dut arrastaka alde egiten.

Aurreneko aldiz, zuzenean begiratu zion Raymond Banksi.

— Ulertzen al duzu zer izan zen hura?

Raymondek begirada saihestu eta urrutira begiratu zuen.

— Bai. Bai, adiskide, latza izango zen hura.

Bertek presaka bezala jarraitu zuen.

— Ba begira, urkaketa horretaz pentsatzen aritu naiz. Hegaztiarena hezalako zerbait izan liteke. Hegazti harekintxe egiten nuen amets beti, mutil-koskorra nintzela. Urdaila nahastua neukalako-edo amets gaiztoren bat izaten nuen, hegazti harekin egiten nuen amets. Orain, egin kontu zurekin joaten naizela urkaketa horretara. Ametsak izan nitzake horrekin ere. Aspaldi ez dela emakume bat urkatu zuten Arizonan, eta sokak errotik atera zion burua. Egin kontu beste horrenbeste gertatzen dela. Hegaz-

tiarena baino ehun aldiz okerragoa izango litzateke. Eta ez nuke sekula horrelako gauza bat gaindituko.

— Baina hori ia behin ere ez da gertatzen — protestatu zuen Raymondek—. Esaten dizut ba, ez dela inolaz ere dirudiena bezain latza.

Bertek ez ziola aditzen ematen zuen. Bere gogoeten aurrean, bere aurpegiak horroaren seinaleak ageri zituen.

— Hortaz batzuei ondoeza egiten zaiela diozu, eta beste batzuek kordea galtzen dutela. Badakit zergatik den hori. Jende horrek bere burua urkabeen ikusten duelako, soka lepoan duela. Hori gertatzen ari zaion gizona bezala sentitzen dira. Neuk ere egin izan dut antzekorik. Hogeita lau orduko epean urkatuko nindutela imajinatzen nuen. Munduko amets gaiztorik ikaragarriena bezalakoa da. Eta, pentsatzen jarrita, zer zentzu du hara joan eta neure burua izutzeak? Gaizkitu egingo nintzateke. Badakit baietz. Urkabeko gizarajoak pasatako guztia pasako nuke nik ere. Bart gauean, horretaz pentsatze hutsarekin, soka lepoan sentitu dut. Gero lo hartu dut, eta maindirea aurpegira igo zait eta

kaputxa beltz madarikatu hori zela amets egin dut.

— Esaten dizut ba, ez direla horrelako gauzak pentsatu behar —esan zion Raymondek haserre—. Horrelako gauzak pentsatzen badituzu, nirekin etortzeko batere eskubiderik ez duzu. Esaten dizut ba, ez dela zuk diozun bezain ikaragarria, aurrean ikusten duzunean. Huskeria da. Joan egin nahi zenuela esan zenidan, eta baime-na lortu dizut. Zer duzu hortaz, tankera horretan hitz egiteko? Hitz egin duzun bezala hitz egin beharrik ez dago. Ez baduzu joan nahi, zer arraiogatik ez duzu halaxe aitortzen eta ahoko zuloa ixten?

Horrore espresioa ezkutatu egin zen Berten begietatik. Ia gogotsu, haserrea bere buruaz jabe zedin utzi zuen.

— Amorrarazi beharrik ez duzu, Mr. Banks. Zergatik ez dudan joan nahi esaten ari nintzain, besterik gabe. Batere irudimenik bazenu, azalpenak ematen ibili beharrik ez nuke. Batere irudimenik bazenu, zeuk ere konprenitu eta ez zinateke gizarajo bat nola hiltzen duten ikustera joango.

Raymond jiratu egin zen mesprezioz.

— Ustel hutsa zara —esan zuen, bere kamioi aldera abiatuz pauso-luzeka. Eroa bezala gidatu zuen errepidetik bere arrantxoraino, baina ailegatu eta kamioia estali zuenean, poliki-poliki jo zuen etxerantz. Bere emaztea arrosak mozten ari zen.

— Zer gertatzen zaizu, Ray? Gaixo itxura daukazu —hots egin zion.

Raymondek kopeta zimurtu zuen.

— Buruko min pixka bat, besterik ez. Pasako zait. Badakizu nola etorri nahi zuen nirekin Bert Munroek datorren astean?

— Bai.

— Beno, orain ez du etorri nahi.

— Zer ba?

— Kemena galdu duelako, horrexegatik. Ikara ematen dio hura ikusteak.

Bere emazteak barre egin zuen urduri antze-
ra.

— Ba begira, ez dakit niri ere horrelakorik ikustea gustatuko litzaidakeen.

— Zu emakumezkoa zara, baina bera gizona omen.

Hurrengo goizean Raymond gogorik gabe eseri zen gosaltzera eta oso gutxi jan zuen. Bere emazteak kezkatua zirudien.

— Buruko minez al zaude oraindik, Ray? Zergatik ez zara pixka bat zaintzen?

Raymondek ez zion galderari jaramonik egin.

— Edi idatzi beharra daukat, eta ez dakit zer esan.

— Ez dakizula? Zer esan nahi du horrek?

— Beno, ez dakit ez ote dudan katarroa harrapatu. Ez dakit sasoian egongo naizen oste-gunean hara joateko. Bidaia luzea da, eta hotza egiten du badiako hartan.

Mrs. Banks eseri egin zen, pentsakor.

— Zergatik ez duzu egunen batean hona etortzera gonbidatzen? Inoiz ez da hemen izan; makina bat aldiz joan zara zu bere etxera.

Raymond suspertu egin zen.

— Alajainkoa! Zer ideia ona. Urteak daramatzat bera ikustera joaten. Bi hitz idatziko dizkiot gu ikustera etor dadin.

— Barbakoa bat presta genezake berarentzat —proposatu zuen Mrs. Banksek.

Raymond den aurpegia lainotu egin zen.

— Oh, ez zait iruditzen. Ed bezalako adiskide min bati ez litzaioke jende mordo bat biltzea gustatuko. Baina zerbeza... hori bai, ikusi egin behar da zenbat gustatzen zaion Edi zerbeza. Bi hitz idatziko dizkiot oraintxe bertan.

Luma, eskutitz-papereko koadernotxoa eta tintontzia atera zituen. Luma paper gainean zalantzan zeukala, bere aurpegia goibeldu egin zen berriro.

— Dena dela madarikatua izan dadila Munroe hori! Lan ederra eman dit. Nola jakin behar nuen kobardea aterako zitzaidala?

Pat Humberten gurasoak adin erdikoak ziren bera jaio zenean; hogeit hamar urte bete zituenerako, zahar, elkor eta arranguratsu bihurtuta zeuden. Patek zahar giroan igarota zuen bizitza guztia, zahartzaroko min eta aje, kexa eta auto-sufizientziaz inguratua. Koskortzen ari zen bitartean, bere gurasoek mesprezios hartzen zituzten bere iritziak gaztea zelako. «Gu hainbat bizi izandakotan, beste modu batera ikusiko dituk gauzak», esaten zioten. Geroago, semearen gaztetasuna gorrotagarria egin zitzaion, minik gabea zelako. Adinak —pentsatzen zuten nahiz aitortu ez—, goragoko maila batean kokatzen zituen, jainkotasunera hurbiltzen zen maila batean duintasun eta infalibilitateari zegokienez. Erreuma bera ere desiragarria zen, zahartzaroko jakinduria handiaren ordain zen neurrian. Gauza gazteak bertuterik gabeak zirela sinestera bultzatzen zuten Pat. Gaztaroa zahartzaro bikainerako prestakuntza baldar eta dudatia zen. Gaztediak gauza bakarrean pentsatu behar zuen, zaharrekiko zituen

betebeharretan, zaharrari zor zitzaizkion errespetu eta benerazioan. Zaharrak, ordea, inolako errespeturik ez zion zor gazteari.

Patek hamasei urte bete zituenean, granjako lan guztia bere bizkarrera erori zen. Bere aita egongelako estufa ondoko kulunkaulkira erretiratu zen, eta handixek bidaltzen zituen bere agindu, ediktu eta kritikak.

Humbert-tarrak bost gelaz osatzen zen etxe zahar, irregular batean bizi ziren: giltzaz itxitako saloia, kondena bat bezain hotz eta latza; egongela bero, itogarria, kirats biziko ukendu eta markako botiken usainaz kutsatua; bi logela eta sukalde handi bat. Bi zaharrak kuxinez hornitutako kulunkaulkietan egoten ziren eserita, eta saminki kexatzen ziren Pat egunean hainbat aldiz granjako lanak utzi eta etxera etortzen ez bazen sua berritzera. Beren bizitzaren azken aldera, benetako gorrotoa zioten Pati gaztea zelako.

Luze bizi izan ziren. Patek hogeita hamar urte zituen biak hilabeteko tartearekin hil zirenean. Beren bizitzekin atsekabetuta, saminduta eta zapuztuta zeuden, eta hala ere nola batak hala

besteak temaz atxiki zion azken bizitza-txinparta ahulari, eta luzaro lehiatu ondoren hil ziren.

Bi hilabeteko horrorea bizi izan zuen Patek. Hiru astez zaindu zuen bere ama, ohean zurrun-zurrun zegoena arnasa hots handiz hartu eta botaz. Begi gogor, akusatzaileekin begiratzen zion Pati, honek ama eroso jartzeko ahaleginak egiten zituen bitartean. Hil zenean ere, bere begiek semea akusatzen jarraitu zuten.

Patek saloi beldurgarria ireki zuen; auzokoak, hiletak iraun bitartean, ilaretan eseri ziren hilketxaren aurrean, auditorio moduko bat osatuz. Logelatik Mr. Humbert zaharraren lantura erretxinen hotsa heltzen zen.

Bigarren zainketa aldia lehen hiletaren segidan hasi eta beste hiru astez luzatu zen. Gero auzokoak beste hilketxa baten aurrean eseri ziren ilaretan. Hileta haiek baino lehen, saloia giltzez itxita eduki zuten beti, hileroko garbiketarako izan ezik. Pertsianak beheratuta egoten ziren tapizeria berdeak eguzkitatik babesteko. Gelaren erdian mahai bat zegoen hanka doratu eta marmolezko gainarekin. Bertan, Milletten Angelus-aren tapete baten gainean, Biblia erral-

doi bat ikusten zen, larrulanduko azalak zituen. Bibliaren bi aldeetan txarro sendo bana zegoen betibizi erramilete trinkoekin. Bizkar zuzeneko lau sila zeuden saloian, bakoitza horma baten aurka: bi hilkutxarentzat, eta beste biak hildakoa beilatzen zutenentzat. Hormetan eskegita, marko doratuekiko hiru koadro handi ageri ziren: Humbert zaharren argazki bana koloretan eta handituta, biak itxura gogor eta hilarekin, baina halako moldez hartuak non haien begiek segitu egiten zioten bisitariari gelaren edozein puntutarraino. Hirugarren koadroak Elaineren gorpua erakusten zuen bere txalupan, ibai estu eta tristean. Hil-atorra kareletik zintzilik zeukan uretan sartzeraino. Gela bazterreko mahai batean kristalezko kanpai handi bat zegoen, gereziando baten adarrean pausatutako hiru urretxori disekaturekin. Saloia hain zen hotz eta hilobi kutsukoa, non gorpuk eta beilatzaileak izan ezik inor ez baitzen behin ere hara sartu. Hil-gela txiki pribatu bat zen, azken batean. Patek hiru izeba eta osaba baten gorpuk ikusiak zituen saloi hartatik kanposanturantz abiatzen.

Pat isil-isilik zegoen hilobiaren ondoan bere auzokoek denda baten formako lur meta altxatzen zuten bitartean. Bere amaren hilobia apur bat hondoratuta zegoen jadanik, muntoaren jira guztian zirrikitu koskadun bat egin zitzaioarik. Gizonezkoak munto berriari tapatakoka ari zitzaizkion orain, gailurra zuzentzen eta alboetako aldapa leuntzen. Gizon haiek bazekiten lurra lantzen; zela ildo bat ireki beharra zela hilobi munto bat altxa beharra, beren lana ondo egitea gustatzen zitzaien. Muntoa primeran geratu eta gero ere, harexen inguruan bueltaka segitu zuten, tapatako arinak emanaz han eta hemen. Emakumeak buggyetara itzuli eta senarrak noiz etorriko zain zeuden. Gizon bakoitzak Patengana hurbildu eta bostekoa eman zion, hitz solemne eta adiskidetsuak xuxurlatuz. Karrikotxe, buggy eta surrey guztiak bazihoazen orain, banakabanaka urrutian ezkutatuz. Eta Patek kanposantuan jarraitzen zuen hala ere, begiak bi hilobietan jarrita. Ez zekien zer egin, inor ez baitzeukan orain ezer exijituko zionik.

Udazkena giroan antzematen zen, bere usain biziarekin eta harrotu orduko ahitzen ziren hai-

zetxo boladatsuekin. Basusoak erreskadan jarri-
ta zeuden kanposantuko hesian, denak alde
batera begira eta denak geldi-geldirik. Egunkari
zahar baten puska ilundua haizeak arrastaka
ekarri eta Paten orkatilari erantsita gelditu zen.
Makurtu eta jaso egin zuen, eta une batez begi-
ratu ondoren bota egin zuen. Buggy baten gurpil
kirkinkatsuen hotsa etorri zen errepidetik. T. B.
Allenek bere zaldia hesiari lotu eta Paten aldera
abiatu zen.

— Gaur gauean nonbaitera joan behar zenu-
keela pentsatu dugu —esan zion aztoratuta—.
Nahi bazenu, guk gustura hartuko zaitugu gure
etxean bai afaltzeko eta bai gaua pasatzeko.

Pat bere koma moduko egoeratik ateratzen
hasi zen.

— Joan egin behar nuke hemendik —esan
zuen.

Beste pentsamendu bat bilatu zuen itsumus-
tuan.

— Ez naiz hemen ezer onik egiten ari.

— Hobe duzu hemendik aldentzea —esan
zion Allenek.

— Nekeza da hau uztea, Mr. Allen. Batzuetan gogoratu nahiko duzun gauza da, eta bestetan ahaztu nahiko duzuna, hala iruditzen zait. Baina nekeza da hau uztea, horrek dena akabo dela esan nahi baitu, akabo betirako.

— Beno, eta zergatik ez zara etortzen gure etxean afaltzera?

Patek erabat beheratuta zeukan guardia; aitortu zuen:

— Sekula nire bizitzan ez dut etxetik kanpo afaldu. Beraiei —hilobiak seinalatu zituen buruaz— beraiei ez zitzaien gustatzen ilundu ondoren ateratzea. Gau giroa ez zitzaien kome-ni.

— Hortaz beharbada gure etxean afaltzea komeniko zaizu zuri. Ez zenuke etxe hutsera itzuli behar, gaur gauean ez behinik behin. Gizonak bere burua zaindu beharra dauka pixka bat.

Pati besotik heldu eta buelta emanarazi zion ate aldera.

— Etorri nire atzetik zure kotxean.

Eta kanposantutik ateratzen ari zirela, elegia txiki batek alde egin zion:

— Gauza egokia da udazkenean hiltzea — esan zuen—. Ez litzateke ona izango udaberrian hiltzea, euririk izan den edo uztak zer itxura hartu duen jakin gabe. Baina udazkenean dena akabo da.

— Haiek ez lirateke horregatik kezkatuko, Mr. Allen. Behin ere ez zuten uztaren galderarik egin, eta gorrotoa zioten euriari beren erreumatik. Bizi egin nahi zuten, besterik gabe. Ez dakit zergatik.

Afaltzeko, haragi puska hotzak, patata friji-tuak tipula pixka batekin eta ogi eta pasez egingako pastela izan zuten. Mrs. Allen Paten nahigabea arintzen saiatu zen hildakoei buruz sarritan hitz eginez: zer onak eta gisakoak izan ziren, zer zintzotasuna aitarena eta zer sukalderako dohaina amarena. Patek bazekien gezurretan ari zela berari laguntzarren, eta ez zuen horren beharrik. Ez zuen atsekabeak oinazetzen. Lehengo lozorro trinkoaren mende zegoen, eta ahalegin handia egin behar zuen mugitu edo hitz egiteko.

Hiletan gertatutako zerbait zeukan gogoan. Garraiolariak hilkutxa bi silen gainetik altxatzen ari zirela, gizon haietako batek estropezu egin

zuen marmolezko mahaiarekin. Kolpeak irauli egin zuen betibizi txarro bat, eta okertu tapete gainean zegoen Biblia. Patek bazekien berriro ere lehengo ordena ezartzea zegokiola gizalegez. Silak zein bere hormaren kontra jarri behar ziren, eta Biblia berriz zuzendu. Azkenik, giltzaz itxi behar zuen saloia. Bere amaren memoria zen gauza horiek eskatzen zizkiona.

Allen-darrek gaua bertan pasatzeko erregutu zioten, baina une baten ondoren gabon esan, nekatu antzera, eta kanpora arrastatu zen bere zaldia tresnatzera. Zerua beltz eta hotz zegoen izar argien arteko tarteetan, eta muinoek zurrumurru apala ateratzen zuten beheraka zihoan temperaturarekin. Lozorroturik, Patek zaldiaren kaskoen hotsa aditzen zuen errepidean, gau-txorien oihuak eta haizearen mugimendu bizkorrak hosto ihartuen artetik. Baina benetakoagoa zen berarentzat gurasoen mintzoa, bere buruan ziharduena. «Izotza izango diagu», esaten zion aitak. «Arratoiei baino gorroto handiagoa zioat izotzari.» Eta ama ere tartean sartzen zen: «Arratoiak aipatu dituzuela... Irudipena daukat arratoiak daudela sotoan. Saguterak jarri ote

zituen Patek lehengo urtean. Nik bai esan, baina ahaztu egiten zaio nik esandako guztia.»

Patek erantzuna ematen zien mintzoei:

— Benenoa jarri nuen sotoan. Saguterak ez dira benenoa bezain onak.

— Katua bezalakorik ez da horretarako —esaten zuen amaren ahots lanturosoak—. Ez dakit zergatik ez dugun katu bat edo beste ekartzen. Patek ez du behin ere katurik eduki.

— Eduki izan ditut, ama, baina gopherrak jan eta ihes egiten dute gero, amorratuta. Ezin dut katurik eduki.

Etxea beltz eta ikaragarri goibel zegoen bera ailegatu zenean. Patek lanpara erreflektorea piztu eta sua egin zuen estufan sukaldea berotzeko. Garra egur artetik orroka ari zela, bere burua sila batera erortzen utzi eta oso eroso sentitu zen. Atsegina izango zela pentsatu zuen ohea sukaldera ekartzea eta estufa ondoan lo egitea. Etxearen txukunketa biharamunean ere egin zezakeen, edo baita beste edozein egunetan ere.

Egongelara ematen zuen atea parez pare zabaldu zuenean, aire olatu hotz, mortu batek

errezibitu zuen. Bere sudur-zuloek hileta lore, zahartasun eta hotika usainaren erasoak nozitu zuten. Arin-arin bere logelara joan eta sukalde epel eta argitura ekarri zuen bere ohetxoak.

Une baten ondoren, Patek argiari haizeman eta oheratu egin zen. Suak zirti-zarta txikiak ateratzen zituen estufan. Gaua isilik egon zen une batez, eta gero, pixkanaka, etxea asmo gaiztoko bizitzaz borborka hasi zen. Gorputza tenk eta hotz zeukala antzeman zuen Patek. Egongelatik zetozen soinuak, kulunkaulkien kirrinka edo zaharren arnasotsa, adituko ote zituen zegoen. Etxeak karraskots bat atera zuen, eta erre egon arren, zeharo asaldu zen Pat. Izerdiak burua eta bernak hezetu zizkion. Isilka eta miserableki ohetik arrastaka atera eta giltzaz itxi zuen egongelako atea. Gero bere ohetxora itzuli eta tapakien azpian luzatu zen dardarizoka. Gaua isilik zegoen orain, eta bera oso bakarrik sentitzen zen.

Hurrengo goizean egitekoren bat bete behar duenaren sentsazio garbiarekin esnatu zen Pat. Zer ote zen gogoratzeko ahaleginak egin zituen. Mahaiaren erditik mugitutako Biblia zen, jakina.

Bere tokian jarri beharra zegoen. Betibizien txarroa ere zutik jarri behar zen, eta ondoren etxe guztia garbitu. Patek bazekien gauza guzti horiek egin behar zituela nahiz egongelako atea irekitzeak halako higuina eman. Bere gogoak atzera egiten zuen atea irekitakoan ikusiko zituen gauzak imajinatzean: bi kulunkaulki, bat estufaren alde bakoitzean: siletako kuxinetan, nabaria izango zen artean bere gurasoen gorputzen aztarna. Ezagutzen zituen atearen bestaldean bere zain zeuden zahartasun eta ukendu eta lore zimeldu usainak. Baina egin beharreko zerbait zen. Eta bete egin behar zuen.

Sua egin eta gosaria prestatu zuen. Eta kafe beroa hartzen ari zela, bere ordura arteko bizi-moduarekin zerikusirik ez zuen arrazoibide bat zabaldu zitzaion. Bere baitan pilatu ziren pentsamendu ezohikoek harritu egin zuten beren ausardia eta sinpletasunagatik.

— Zergatik sartu behar dut horra? —galdetu zuen—. Inori ez zaio axola, eta jakin ere inork ez du jakingo. Sartu beharrik ez daukat nahi ez badut.

Mutiko bat bezala sentitu zen, eskolara joan gabe gelditzen denean bere gogoan beteko duen baso sakon batetik paseatzeko. Baina, bere askatasuna ukatzeko edo, amaren ahots kexatia heldu zitzaion belarrira:

— Patek etxea garbitu behar luke. Pat behin ere ez da ezertaz arduratzen.

Erreboltaren poza erne zen bere baitan.

— Hilda zaude! —esan zion ahotsari—. Nire buruan gertatzen ari den zerbait besterik ez zara. Aurrerantzean inork ezin lezake espero nik hau edo bestea egitea. Egin beharko nituzkeen gauzak egiten ez baditut inork ez du jakingo. Ez noa hor barrara, eta sekula ez naiz joango.

Eta bere kemenak sendo zirauen bitartean, jo ateraino, kendu giltza eta etxe atzeko belar-gaizto luzeetara bota zuen. Leiho guztietako pertsianak itxi, sukaldekoak izan ezik, eta punta luzeko iltzez josi zituen.

Bere askatasun berriaren pozak ez zuen luze iraun. Egunez granjako gorabeherak nahiko lan ematen zion, baina eguna bukatu baino lehen, mira sentitzen zuen garai batean orduak jan eta denbora laburtzen zioten zereginengatik. Etxera

sartzeak beldurra ematen ziola bazekien; beldurra zien kuxinen aztarna haiei, eta bere tokitik mugitutako Bibliari. Bi fantasma zahar eta ahul giltzaz itxita zeuzkan, baina ez zuen ezabatu bera larritzeko zuten boterea.

Gau hartan, bere afaria prestatu ondoren, estufa ondoan eseri zen. Behe-laino mortu baten antzeko bakardade izugarria jabetu zen bere buruaz. Etxe zaharraren hots ezkutukoak, zurrumurru eta kolpetxoak entzungo ote zituen jarri zen. Halako tentsioaz entzuten zuen non, tarte baten ondoren, besaulkiak kulunkatzen sentitu baitzituen beste gelan, eta ukendu poto baten tapoiak irekitzerakoan ateratako hots intziritia ere aditu zuen. Pati eramanezina egin zitzaion hura. Ukuilura joan, bere zaldia tresnatu eta Zeruko Belardietako Denetariko Dendara abiatu zen.

Hiru gizon zeuden estufa tripotxadunaren ondoan eserita, haren ondulazioei begiratzuz zein bere baitan murgilduta. Tokia egin zuten Patek aulki bat ingura zezan. Inork ez zion begiratu, zeren doluminez dagoen gizonari elbarriari beزالakoxe immunitatea zor baitzaio jendartean. Pat

bere eserlekuan kokatu eta estufari josita jarri zituen begiak.

— Gogorarazi joan baino lehen irina erosi behar dudala.

Gizon guztiek ulertu zuten esan nahi zuena. Bazekiten ez zuela irinik behar, baina denek, egoera berdinean egotera, antzeko aitzakiaren bat sumatuko zuten. T. B. Allenek estufaren atea ireki, barrura begiratu eta txistua bota zuen ikatz pusken gainera.

— Horrelako etxe bat bakarti samarra da hasieran —adierazi zuen.

Pati eskertzekoa iruditu zitzaion hura, nahiz gizalegez hitz haiek desegokiak izan.

— Tabakoa eta kartutxoak ere beharko ditut. Mr. Allen —esan zuen ordain gisara.

Handik aurrera, Patek aldatu egin zituen bere bizi ohiturak. Intentzio guztiaz, gizon taldeen konpainia bilatu zuen. Egunez granjan aritzen zen, baina gauean, beti, bi edo hiru lagun bilduta zeuden tokian aurkituko zuten. Eskolan dantzaldi edo festaren bat zenean, Pat garaiz heldu eta bertan geratzen zen azkeneko gizona joan arte. John Whitesideren etxean esertzera joaten

zen; suterik zenean beraailegatzen zen aurrena. Hauteskunde egunetan bozketa tokian egoten zen itxi arte. Non edo han jende talderen bat biltzen zenero, hantxe azalduko zen Pat. Etengabe konpainia bila ibiltzearen poderioz, sen moduko bat garatu zuen jendetza handia erakarriko zuten emozioak topatzeko.

Pat gizon itsusia zen, flakoxta, sudur-luzea eta matrailezur astunekoa. Antz handia zuen gaztetako Lincolnekin. Bere gorputza Lincolnena bezain desegokia zen ezer soinean eramateko. Bere sudurzulo eta belarriak handiak eta ilez beteak ziren. Ematen zuen animaliatxo iletsuak zeuzkala haietan gordeta. Patek ez zuen solase-rako gaitasunik; bazekien gutxi jartzen zuela joaten zen bileretan, eta hutsune hura betetzen saiatzen zen lanaren bitartez, mesedeak eginez eta gauzak antolatuz. Eskolako dantzaldiak antolatzekeo batzarretarako izendatua izatea gustatzen zitzaion, hala beste batzarkideak bisitatzerako joan baitzitekeen planak eztabaidatzeko; ilunabar osoak pasa zitzakeen eskola apaintzen edo ibarretik barrena lasterka familia bati silak eskatzen eta beste bati platerak. Ilunabar batean

norekin bildurik aurkitzen ez bazuen, bere Ford kamioian Salinasera joan eta bi zine emanaldi ikusten zituen bata bestearen segidan. Bakardade beldurgarriko lehen bi gau haien ondoren, beste ilunabarrik ez zuen pasa bere etxe itxian. Bai Bibliaren oroitzapenak, bai zain zeuden sila edo aspaldiko usain haien oroitzapenak ere, izutu egiten zuten.

Hamar urtez Pat Humbertek ibar guztia zeharkatu zuen konpainia bila. Eskola-batzarretarako aukera zezaten lortu zuen; Masoien elkartean sartu zen eta Salinaseko «Xelege Jendea» taldean, eta behin ere ez zen jakin bilera bakar bat huts egin zuenik.

Halako konpainia gosea eduki arren, Patek ez zuen lortzen sartzeko taldeetako parte bihurtzea. Hori baino gehiago, bazterrean geratzen zen, sekula hitzik egin gabe non eta hizpidea ematen ez zioten. Ibarreko jendeak ezinbestekotzat zeukan bere presentzia. Errukirik gabe erabiltzen zuten, berak hoberik ez zuela desiratzen konprenitu gabe.

Bilerak bukatzen zirenean, eta Patek etxeratzeari beste erremediorik ez zuenean, bere Ford-a

bihitegira sartu eta ohera jotzen zuen lasterka. Ahaleginak egiten zituen, emaitza handirik gabe, atearen bestaldeko gela latzak ahazteko. Gela haien irudiak bere bururainoko bidea egiten zuen batzuetan. Hautsa ugaria izango zen orain, eta armiarma-sareak txoko eta altzari guztietara zabaldua egongo ziren. Bisioak lo hartu baino lehen erasotzen bazion, bere defentsak hautsiz, Patek, ohean dardarizoka, ezagutzen zituen lo hartzeko formulatxo guztiak probatzen zituen.

Bere etxeari halako gorrotoa zionez, Patek ez zuen batere zaintzen. Eraikuntza zaharra apurka hondatuz zihoan utzikeriagatik. «Banksia» arrosa zuri bat, urtetan eta urtetan sastrakatxo moz-taka bat besterik izan ez zena, bat-batean bizitara etorri eta etxearen fatxadan gora igo zen. Portxea estali, lore-sortak eskegi leiho itxien gainetik eta zinta luzeak utzi zituen erortzen teilatu-hegaletatik. Hamar urteren buruan, etxeak arrosa munto erraldoi baten itxura hartu zuen. Eskualdeko errepidetik pasatzen zen jendea gelditu egiten zen haren tamaina eta edertasuna miresteke. Pat apenas ohartu zen arrosaz. Uko

egiten zion etxeaz pentsatzeari posible zitzaion neurrian.

Ona zen Humbert-tarren granja hura. Patek ederki mantentzen zuen eta dirua ere ateratzen zion, eta bere gastuak txikiak zirenez mila dolarreko batzuk bazituen banketxean. Berez maite zuen granja, baina baita egunez beldurrari ihes egiteko aukera eskaintzen ziolako ere. Lanean ari zen bitartean, bakarrik sentitzearen izuak, bakardade jelatzaileak, ezin zioten erasorik egin. Frita ederra izaten zuen, baina mahatsa zen bere ardura nagusia. Mahats-ondoan ilarak paraleloak ziren eskualdeko errepidearekin. Ibarreko beste inork baino lehen plazaratzen zuen urtero bere mahatsa.

Patek berrogei urte zituen Munroe-tarrak ibarrera etorri zirenean. Auzokoari zor zaion ongietorria eskaini zien. Bazuen ilunabarra pasatzera joateko beste etxe bat. Eta Bert Munroe gizon adiskidetsua zenez, gustatu egiten zitzaion Pat bisitan etortzea. Pat nekazari ona zen. Bertek sarritan eskatzen zizkion kontseiluak. Patek ez zion arreta handirik eskaini Mae Munroeri, soilik juxtua neska polita zela ikusteko eta ahazteko.

Ez zuen jendea hartzen gizabanako bezala, baik eta bere bakardadearen benenoarentzako antidoto bezala, preso hartutako fantasmei ihes egiteko bitarteko bezala.

Uda hasierako arratsalde batez, Pat bere mahastian ari zen lanean. Mahats ilaren artean belaunikatu eta aitzurrean egiten zuen erroen ondoan. Mahatsa bizkor ari zen koskortzen, eta hostoak berde argiak eta zoragarriak zeuden. Patek poliki egiten zuen lana ilaran aurrera. Gustura zegoen lanarekin, eta ez zion beldurrik bidean zetorren gauari Munroe-tarren etxean afaltzekoa zelako. Lanean ari zela, errepidetik zetozen mintzoak aditu zituen. Mahatsondoen artean ezkutatuta egon arren, antzeman zuen, ahotsen doinuagatik, Mrs. Munroe eta honen alaba Mae zirela bere etxe ondotik pasatzen ari zirenak. Bat-batean. Maeren oihu alaia aditu zuen:

— Ama, begira hori!

Patek lana utzi zuen entzuteko.

— Zeure bizitzan ikusi al duzu horrelako arrosa ederrik, ama?

— Polita da, oso polita ere —esan zuen Mrs. Munroek.

— Badakit zer gogorarazten didan —jarraitu zuen Maek—. Gogoratzen al zara Vermonteko etxe zoragarri haren postalaz? Osaba Kellerrek bidali zigun. Etxe honek, gainean daukan arrosa horrekin, postaleko etxe haren antz handia du. Barrutik ikustea gustatuko litzaidake.

— Beno, hori egiteko aukera handirik ez dago. Mrs. Allenek dio ibarreko inor ez dela etxe horretan sartu Paten aita-amak hil zirenetik, eta hamar urte igaro dira harrezkero. Ez zuen esan barrutik nolakoa zen.

— Kanpoan horrelako arrosa edukita, Barrutik ere polita izan behar du. Mr. Humbertek utziko ote dit noizbait ikusten?

Bi emakumeek aurrera jarraitu zuten Pati haien hitzak entzunezinak egin arte.

Joan zirenean, zutik jarri eta arrosa handiari begiratu zion Patek. Ordura arte inoiz ez zuen ikusi zer edema zen: hosto berdeko meta bat arrosa zuriz estalia ia goitik beheraino. «Polita da», esan zuen. «Eta Vermonteko etxe eder bat hezalakoa da. Vermonteko etxe bat bezalakoa

da, eta, alajaina, *horixe* polita dela, arrosa polit askoa.» Gero, arrosa eta paretatik barrena ikusi ahal izan balu bezala, saloiaren bisioa etorri zitzaion. Lanean hasi zen berriro mahats-ondoan artean, etxea burutik kentzeko ahaleginak eginenez. Baina Maeren hitzak behin eta berriz itzultzen zitzaizkion: «polita izan behar du Barrutik.» Vermonteko etxe bat barrutik nolakoa ote zen galdetu zion Patek bere buruari. John Whitesiderek etxe sendo eta bikaina ezagutzen zuen, eta, ibarreko beste guztiek bezala, berak ere miretsia zuen Bert Munroeren etxearen erosotasun gozoa; baina etxe politik, hau da, berak benetan polit deitzeko moduko etxerik, ez zuen sekula ikusi. Bere gogoan, ezagutzen zituen etxe guztiak errepasatu zituen, eta bat bakarra ez zegokion Maek adierazi nahi izan zuenari. Aldizkari bateko grabatu bat gogoratu zitzaion, zoru argizagituko gela bat, zuraje zurikoa eta eskailera batekin; Mount Vernongoa izan zitekeen. Inpresio handia egin zion grabatu hark. Beharbada hura zen Maek adierazi nahi zuena.

Gustura ikusiko zukeen Vermonteko etxearen postal hura, baina ikusten uzteko eskatuz

gero entzuten egon zela jakingo zuten. Horretan pentsatu ahala, berearen antzeko etxe polit bat ikusi nahia obsesio bihurtu zen Patentzat. Aitzurra baztertu eta etxearen aurrealderaino joan zen. Arrosa zoragarria zen zinez. Bobeda osatzen zuen portxearen gainean, izar zuriko gortinak zintzilikatzen zituen leiho itxien gainetik. Lehenago zergatik ez ote zen jabetu pentsatu zuen Patek.

Gau hartan, ordura arte bururatu ere egingo ez zitzaion zerbait egin zuen. Munroe-tarren etxera joanda, ilunabarra lagunartean pasatzeko konpromisoa hautsi zuen.

— Asunto batez arduratu beharra daukat Salinasen —esplikatu zuen—. Segituan ez banoa dirua galtzeko arriskuan jartzen naiz.

Salinasen, udal liburutegira jo zuen zuzenean.

— Irudiak ba al daukazue Vermonteko etxeenak... etxe politenak? —galdetu zion bibliotekariari.

— Aldizkari horietan segur aski bat edo beste aurkituko duzu. Zatoz! Non bilatu erakutsiko dizut.

Abisatu egin behar izan zioten liburutegia ixteko orduan. Etxebarruen argazkiak aurkituak zituen, baina berak inoiz imajinatu gabeko etxebarruenak. Gelak plan baten arabera eraikita zeuden; hornidura bakoitza, altzari bakoitza, eta bai zoru eta hormak ere elkarrekin harremanatuta zeuden, planaren atal ziren. Argazki haien ikusteak bere barruko sentimendu sakon eta berezko bat esnatu zuen, antolamendu, kolore eta lerrora jotzen zuena. Ordura arte ez zuen jakin gelak halakoak izan zitezkeenik, osotasun batera zuzenduak. Berak ikusitako gela guztiak pilaketa doi eta halabeharrezko baten ondorio ziren. Izeba Sophiek txarro bat bidaltzen zuen, aitak aulki bat erosten zuen. Suaren tokian estufa bat jartzen zuten bero handiagoa ematen zuelako; Sperry Flour Company delakoak kalendario handi bat ateratzen zuen eta amak markoa jartzen zion haren irudiari; merkatal etxe batek lanpara mota berri baten publizitatea egiten zuen. Horrela osatzen ziren gelak. Baina argazki haietan norbaitek ideia bat izan, eta gelako guzti-guztia ideia haren atal zen. Liburutegia itxi baino lehentxeago, bi argazki topatu zituen bata bes-

tearen ondoan. Batek, berak ezagutzen zituenak bezalako gela bat erakusten zuen, eta aldamean gela beraren beste argazki bat zegoen, aurrenekoaren nahaste-borrastea gabe eta ideia baten arabera antolatua. Ez zuen inolaz ere gela bera ematen. Aurreneko aldiz bere bizitzan, Pat etxeratzeko desiratzen zegoen. Bere ohean etzan eta pentsatu egin nahi zuen, zeren ideia berri eta arrotz bat argitara atera nahirik ari baitzen bere gogoaren sakonetik.

Patek ez zuen gau hartan lo egiterik izan. Asmo gehiegi zeuden bere buruan. Jaiki ere egin zen halako batean lanpara piztu eta bere libreta begiratzeko. Egunsentia baino lehentxeago jantzi eta gosaria prestatu zuen, eta jaten ari zela, bere begiek ate itxira jotzen zuten behin eta berriz. Bere begietan poz maleziatsuko distira bat ageri zen.

— Ilun egongo da hor barrean —esan zuen—. Hobe sartu baino lehen pertsiana guztiak irekitzen badituz.

Azkenik eguna zabaldu zenean, hartu palanka bat eta buelta guztia eman zion etxeari, ibili ahala pertsiana iltzatuak libratuz. Saloiko leihoak

ez zituen ukitu, ez baitzuen arrosa kaltetu nahi. Gero sukaldera itzuli eta giltzaz itxitako atearen aurrean jarri zen. Une batez, aspaldiko bisio hark bertan gelditzera behartu zuen.

— Baina minutu bat besterik ez da izango — argudiatu zuen—. Oraintxe bertan hasiko naiz dena puskatzen.

Palankak sarrailari bultza eta kraskatu egin zuen. Atea parez pare zabaldu, miserableki intziri eginez erro lehorretan jiratzerakoan, eta gela ikaragarria bere aurrean azaldu zen. Armiarma-sareek giroa lainotzen zuten; atetik barrena zoko-usain aspaldiko bat ateratzen zen. Hantxe zeuden bi kulunkaulkiak estufa herdoilduaren bi aldeetan. Hauts artetik ere kuxinen gaineko hutsunetxoak ikusi zituen. Baina ez zen hori latzena. Patek bazekien non zegoen bere beldurren muina. Agudo zeharkatu zuen gela, aurrera egin ahala armiarma-sareak kenduz bere begietatik. Ilun segitzen zuen saloiak, itxita baitzeuden pertsianak. Patek ez zuen haztamuka ibili beharrik izan mahaia aurkitzeko; zehatz zekien non zegoen. Izan ere, azken hamar urteetan ez al zen mahai hura bere atzetik ibili? Altxa

mahaia eta Biblia, biak batera, zeharkatu korrika sukaldea eta atarira bota zituen.

Orain polikiago jarrai zezakeen. Beldurra ezkutatua zen. Leihoak hain zeuden gogor josita non palanka erabili beharra izan zuen libratzeko. Aurrena kulunkaulkiak atera ziren leihotik, piririka eta botea emanaz lurra jotzerakoan: gero koadroak, tximini gaineko apaingarriak, urretxori diseatuak. Eta altzariak, jantziak, alfonbrak eta txarroak leihoen azpian barreiatuta egon zirenean, Patek urratu tapizeriak eta kanpora bota zituen haiek ere. Azkenik ur pertzakadak ekarri eta sabai eta hormak blaitu zituen. Lan hura berebiziko plazera zen berarentzat. Silei hankak puskatzen saiatzen zen leihotik botatzen zituenean. Urak hormetako paper zahar eta iluna basitzen zuen bitartean, leihoen azpiko altzariak pila batean hildu zituen denei su emateko. Oihal zahar hezeak eta egur bernizatuak gogoz kontra bezala erretzen ziren, hauts eta hezetasun kirats higuigarria zabalduz. Harik eta pila hartara keroseno pertzakada bat bota arte ez zen sugarra harrotu. Mahai eta silek kriski-kraska egiten

zuten beren fantasmak suaren mende uzterakoan. Patek alaitasunez zaintzen zuen su-meta.

— Ederki asko egon zarete hor barrean urte guzti hauetan, ezta? —hots egin zuen—. Zera usteko zenuten, ez nuela behin ere zuek erretzeko barrenik izango. Horra ba, nahiago nuke hemen bazinete zertara noan ikusteko, zuek, zabor ustel, kirats gaiztoko horiek!

Tapizeria berdeak erabat erre ziren eta txingar gorri, ezkatatsuak utzi zituzten. Lorontzi eta txarro zaharrak puska-puska egin ziren berotasun hartan. Patek zirti-zartaka sentitzen zituen mentolezko botikak eta mina kentzekoak, ontzietatik txirriari atera eta sutan borborka zuedela. Bere arerioaren heriotza presiditzen zuela iruditu zitzaion. Ez zen su-metatik aldendu harik eta dena txingar huts bihurtu arte. Hormak zeharo basituta zeuden ordurako, eta papera zerrenda luze, zabaletan libratzen zen.

Arratsalde hartan Patek kotxez Salinasera jo eta etxe apainketaz aurkitu ahal izan zituen aldizkari guztiak erosi zituen. Ilunabarrez, afalostean, orriz orri aztertu zituen. Azkenean, aldizkarietako batean, gela perfektua aurkitu zuen.

Beste zenbait irudiren aurrean zalantzan egona zen: ez, ordea, oraingo honekin. Eta nahiko erraz egin zezakeen. Egongela eta saloiaren arteko tabikea botata, gela berriak hogeita hamar oineko luzera eta hamabosteko zabalera izango zuen. Zabaldu egin beharko ziren leihoak, tximinia handitu eta lurra lixatu, tindatu eta argizagitu. Patek bazekien gauza guzti horiek laguntzarik gabe egin zitzakeela. Bere eskuak lanari ekiteko irrikatzen zeuden.

— Bihar hasiko naiz —esan zuen. Baina beste pentsamendu batek geldiarazi egin zuen—: Maek uste du polita dela dagoen bezala. Ez du jakin behar orain ari naizela polit jartzen. Gainera, Vermonteko etxearen kontu hura aditu niola jakingo luke bestela. Jendeak ez du jakin behar zertan ari naizen. Zergatik egiten dudan galdetuko lidakete —zergatik egiten ote zuen pentsatu zuen bere artean—. Ez da inori axola zaion kontua —azaldu zion bere buruari—. Ez daukat zergatia aldarrikatu beharrik. Neure arrazoiak badi-tut. Alajainkoa! Gauez egingo dut.

Patek barre egin zuen eztiro bere golkorako. Bere etxea isilka aldatzeko ideia hura zoragarria

zitzaion. Berak bakarrik egitea bazeukan lana, eta inork ez zuen jakingo. Gero, dena bukatuta-koan, zenbait jende etxera gonbidatu eta beti halaxe egon balitz bezala egingo zuen. Inork ez zuen gogoratuko nolakoa zen etxea hamar urte lehenago.

Horrela antolatu zuen bere bizitza: egunez granjako lanetan aritzen zen, eta gauez, presaka, etxera jotzen zuen alaitasunezko sentimendu batekin. Gela osatuaren argazkia txintxetaz josia zegoen su-aldean. Egunean hogeitaz begiratzeko zion Patek. Leihoen azpialderako banketak egiten ari zela, horman paper gris zurbila itsasten edo egurrari krema koloreko berniza ematen, bere aurrean ikusten zuen gela osatua. Ezeren beharrik zuenean, joan Salinasera ilunabarraren azken orduan eta ilundu ondoren ekartzeko zituen materialak. Gauerdira arte aritzen zen lanean eta pozez ito beharrean joaten zen ohera.

Ibarreko jendeak Paten falta nabaritu zuen bileretan. Dendan, galderak egiten zizkioten, baina berak prest zeukan aitzakia.

— Ikastaro bat egiten ari naiz korrespondentziaz —azaltzen zuen—. Estudiatu egiten dut gauez.

Irribarre egiten zuten gizonek. Bakardadea gehiegizko zama zen gizon batentzat, bazekiten. Nekazari mutilzaharrak, lehenago edo berandua-go, xeble samarrak bihurtzen ziren beti.

— Zer ari zara estudiantzen, Pat?

— Oh, zer? Oh! Lezio batzuk hartzen ari naiz zera... arkitekturaz.

— Ezkondu egin behar zenuke, Pat. Urtetan aurrera zoaz.

Pat gorritu egiten zen bere haserrean.

— Ez zaitezte txoroak izan —esaten zuen.

Gelan lan egin bitartean, Patek antzerkitxo bat imajinatzen zuen, honela osatzen zena: gela bukatuta zegoen eta altzari bakoitza bere tokian. Sua berriz piztuta, gorri-gorri; lanparek isla lausotuak botatzen zituzten lur argizagituaren eta altzari distiratsuen gainera.

— Bere etxera joan eta esango diot inpen-tsan: «Agidanean Vermonteko etxeak gustatzen zaizkizu.» Ez! Ezin dut hori esan. Esango diot: «Gustatzen al zaizkizu Vermonteko etxeak? Ba

begira, nik badut gela bat Vermonteko gelen igualtsua dena.»

Preliminarrak ez ziren behin ere erabat bere gustukoak izaten. Ezin zuen topatu Mae bere etxera erakartzeko bide egokia. Istorioaren atal hura saltatu beharra izaten zuen. Pentsatuko zuen aurrerago.

Une hartan, sukaldera sartzen ari zen neska. Sukaldea ez zen aldatuta egongo, hartara handiagoa izango baitzen sorpresa beste gela ikustean. Mae gelditu egingo zen ate aurrean, eta berak eskua luzatuko zuen atea parez pare zabaltzeko. Hantxe zegoen gela, ilun samarra, baina, zinez, argi ilunez betea. Sua erreka zabal bat bezala harrotzen zen, eta zoruan lanparen islak ikusten ziren. Kalikut lustretsuko gortinak bereiz zitezkeen, eta tximini gaineko tigre larru handia. Peltreak distira aberats eta apalak zituen. Hain zen dena epel eta eroso! Paten bularra kuzkurtu egiten zen plazerez.

Edozein modutara, ate aurrean zegoen Mae eta... zer esango zuen? Beno, bera bezala sentitzen bazen, beharbada ez zuen ezer esango. Agian ia negar egiteko gogoia sentituko zuen.

Xelebrea zen betetasun sentimendu atsegin hori, negarrez hasteko zorian bazeunde bezala. Beharbada hantxe geratuko zen minutu bat edo beste, gelari begira, besterik gabe. Orduan Patek esango zuen: «Ez al duzu barrura sartu eta pixka batean eseri nahi?» Eta, jakina, horrek sorgindura hautsiko zuen. Mae gelaz hitz egiten hasiko zen esaldi eten eta dibertigarriekin. Baina Patek arduragabeki bezala erantzungo zion denari: «Bai, beti izan dut gustukoa nolabait.» Ozenki esaten zituen gauza horiek, lanean ari zela. «Bai, beti pentsatu izan dut polita zela nolabait. Lehengoan bururatu zitzaidan beharbada gustatuko zitzazula ikustea.»

Antzerkia horrela bukatzen zen: Mae suaren aurreko besaulki hegaldunean esertzen zen. Esku polit, pottoloak magalean jarrita zeuzkan. Han eserita zegoela, espresio urruna hartzen zuten bere begiek... Eta Pat ez zen behin ere harantzago joaten, zeren, puntu hartara helduta, bere buruaren jabe egiten baitzen berriro. Harantzago joatea zera izango zen, bakarrik egon nahi duten bi lagunei leihotik kirika egitea bezalaxe. Unerik distiratsuena, istorio guztiko

unerik zirrargarriena, berak atea parez pare zabaltzen zuenean ailegatzen zen; Mae ate aurrean gelditzen zenean, harri eginda gelaren edertasunagatik.

Hiru hilabete geroago gela bukatuta zegoen. Patek aldizkariko fotografia karteran sartu eta San Franciscora joan zen. Altzari konpainia baten bulegora helduta, idazmahaiaren gainean zabaldu zuen fotografia.

— Hauek bezalako altzariak nahi ditut —esan zuen.

— Ez, noski, jatorrizkoak?

— Jatorrizkoak, diozu?

— Altzari zaharrak, alegia. Hogeita hamar mila dolar baino gutxiagoan ez zenituzke erosi-ko.

Paten aurpegia abaildu egin zen. Bere gelak behea jotzen zuela iruditu zitzaion.

— Oh! Ez nekien.

— Guk hemen nahi duzun guztiaren kopia onak lortu ahal dizkizugu —lasaitu zuen zuzendariak.

— Horixe ba. Ondo. Ederki. Zenbat kostako lirateke kopiak?

Salmenta arduradun bat etorrarazi zuten. Hiruren artean argazkiko artikuluak aztertu eta zuzendariak zerrenda bat egin zuen: mahai bat ertz koskadunekoa, beste mahai bat taula eta hanka tolesgarriekin, silak: Windsor bat, beste bat ipurdia ihizkoa eta bizkarra eskailera modukoa zuena, besaulki hegaldun bat, tximini aurrerako banketa bat; alfonbra litsadunak, kalikut lustretsuko gortinak, lanparak globo lausotu eta kristalezko zintzilikarioekin; aterik gabeko arasa bat, portzelana pintatuak, peltrezko kandelairuak eta paretako kandelabroak.

— Beno, hiru bat mila dolar izango dira, Mr. Humbert.

Patek kopeta zimurtu zuen pentsatzeko ahalginean. Azken batean, zertarako aurreratu behar zuen dirua?

— Zenbat denbora beharko duzue dena bidaltzeko? —galdetu zuen.

Altzariak Salinasen zirela zioen abisuari itxoin bitartean, Pat zorua igurzten aritu zen laku goibel baten distira eman zion arte. Atzeraka ateratzen zen gelatik, zepiluarekin bere oinen arrasto arinak ezabatuz. Eta gero, azkenean, kaxak mer-

kantzien biltokira heldu ziren. Lau bidaiak egin behar izan zituen kamioiarekin Salinasera denak garraiatzeko, gauez eta isilka betiere. Langintza guzti hark bazuen halako intriga kutsu bat.

Patek bihitegian ireki zituen kaxak. Sila eta mahaiak etxera eraman eta, argazkiari begiratu ugari emanda, zegokion tokian jarri zuen bakoitza. Gau hartan sua bizi-bizi egon zen, eta globo lausotuko lanparak zoruan islatu ziren. Tximini gainean eskegitako tigre larri handiak bazurudien dardara egiten zuela gar dantzariekin.

Sukaldera joan eta atea itxi zuen Patek. Gero, oso poliki berriro zabaldu eta gelari begira geratu zen. Dizdiz egiten zuen epeltasunez, epeltasun ongietorri emalez. Peltrea berak uste baino aberatsagoa zen. Aterik gabeko arasako platerrek txinpartak harrapatzen zituzten beren ertzetan. Une batez ate aurrean geratu zen Pat, bere ahotsari doinu egokia eman nahirik.

— Beti izan dut gustukoa nolabait —esan zuen ahal bezain axolagabeki—. Lehengoan bururatu zitzaidan beharbada gustatuko zitzazula ikustea.

Gelditu egin zen, pentsamendu latz bat etorri baitzitzaion gogor a.

— Hara, ordea! Ezin da bakarrik etorri eta! Neska bat ezin da gaez bakarrik etorri gizon ezkongabe baten etxera. Jendeak hitz egin egingo luke herari buruz, eta gainera berak ez luke etorri nahiko.

Dezepzio garratza zen hura berarentzat.

— Amarekin etorri beharko du. Baina behar bada bere amak ez du estorburik egingo. Hemen atzean-edo gera liteke, aparte batean.

Nahiz orain prest egon, zalantza boteretsu batek aurrera jotzea galarazten zion. Gauero gauero atzeratu egiten zuen Maeri etxera etortzeko gonbitea luzatzea. Behin eta berriz erreparatu zuen bere antzerki hura, zehazki jakin arte non geldituko zen Mae, nola begiratuko zuen, zer esango zuen. Esan zitzakeen gauzan aukera desberdinak ere bazituen. Astebete pasa, eta atzeratu egin zuen berriro Mae bere gela ikustera ekarriko zuen bisita.

Arratsalde batez, bere borondateak eta bere kemenak bat hartu zuten. «Ezin dut betirako atzeratu. Hobe dut gaur gauean joatea.» Afaldu

ondoren, trajerik onena jantzi eta Munroe-tarren etxera abiatu zen. Milia laurden bat besterik ez zuen haraino. Ez zion eskatuko gau hartan bertan etortzeko. Sua piztuta eta lanparak argituta eduki nahi zituen bera ailegatzen zenean. Gauda hotza eta oso iluna zen. Errepideko hauts artetik estropezuka zihoala, Patek bere oinetako lustretsuek zer itxura edukiko ote zuten pentsatzen zuen etsipenez.

Berebiziko argi pila zegoen Munroe-tarren etxean. Ate aurrean, kotxe batzuk zeuden apar-katuta. «Festaren bat izango dute», esan zuen Patek bere artean. «Beste batean gonbidatuko dut. Ezingo nuke jende mordo baten aurrean egin.» Une batez, etxera itzultzea ere pasa zitzaion burutik. «Baina arraroa emango luke aurreneko aldian gonbidatuko banu, hainbeste hilabete pasa ondoren ikusi gabe. Zerbaiten susmoa hartuko luke.»

Etxera sartu zenean, Bert Munroek eskutik heldu zion.

— Pat Humbert da! —egin zuen oihu—. Non egon zara gordeta, Pat?

— Estudiatzen aritu naiz gauetan.

— Ba begira, suerte onean gara etorri zarelako. Bihar zu ikustera joatekoa nintzen. Jakingo zenuen, noski, berria!

— Zer berri?

— Ez al dakizu? Mae eta Bill Whiteside datorren larunbatean ezkonduko dira. Zuri laguntza eskatzeko asmoa nuen. Modu soilean ospatuko dugu, bakarrik errefresko batzuk zeremoniaren ondoren. Eskolako festetan laguntzeko ohitura zenuen estudiatzeko joera hori hartu aurretik.

Pati besotik heldu eta pasillotik barrena eraman nahi izan zuen. Ahots ugariren soinua zeterren pasilloaren haranzko muturreko gelatik.

Patek gogor egin zuen irmoki. Eta praktikan jarri zuen axolagabe itxura ematearren egindako entrenamendu guztia.

— Ondo da, Mr. Munroe. Datorren larunbatean, diozu? Pozik lagunduko dizuet. Ez, orain ez daukat gelditzerik. Dendara joan beharra daukat oraintxe bertan.

Bert Munroeri berriro bostekoa eman eta atera egin zen astiro.

Bere zorigaitzean, ezkutatu egin nahi zuen une batez, bere burua gorde inork ikusiko ez

zuen toki ilun batean. Etxerako bidea hartu zuen automata batek bezala. Etxe irregularra ilun eta ikaragarri triste zegoen bera ailegatu zenean. Pat bihitegira joan zen, eta pauso erabakiez eskailera laburra igo eta belar onduaren gainean etzan zen. Gogoa uzkihurtuta eta lehortuta zeukan hartutako desilusioarekin. Batez ere ez zuen etxera sartu nahi. Beldurrez zegoen, berriro ere atea itxiko ote zuen. Zeren hartara, ondorengo urte guztietan, bi izpiritu txunditu biziko baitziren gela ederrean, eta Patek, bere sukaldetik, ederki konprenituko zuen bi haiek hain pentsakor begiratzea suaren fantasmari.

Richard Whiteside Far West-era etorri zenean, 50ean, urre meatzeak aztertu, eta baztertu egin zituen bertan zereginik ez zuelakoan.

— Lurrak urre uzta bakarra ematen du —esan zuen—. Uzta hori mila maizterren artean banatutakoan, ez dio inori luzaro jaten ematen. Buruzpide kaxkarra da hori.

Richardek Californiako soro eta muinoak zeharkatu zituen; etxe bat altxatzeko asmo sendoa zekarren gogoan, artean jaio gabeko umeentzat eta ume horien umeentzat. Garai hartan inor gutxik sentitzen zuen Californian bere ondorengoekiko ardurarik.

Egun argitsu eta eder bateko ilunabarrean, bere bi zaldi uharrak Zeruko Belardiak inguratzen dituzten muinotxoan gailurreraino eramán zituen. Han, zaldi-parea geldiarazi, eta beheko ibar berdean jarri zituen begiak. Eta Richardek jakin zuen aurkitu zuela bere herria. Makina bat toki eder topatu izan zituen herrialdetik barrena egindako joan-etorrietan, baina bat ere ez bete-

tasun sentsazio hau emango zionik. Atenaseko eta Lazedemoniako kolonoak etorri zitzaizkion gogora, hala-moduzko orakuluek deskribatutako lur berrien bila; Aztekak aurrera jo ezinik imajinatu zituen, arrano gidariaren atzetik. Richardek esan zion bere buruari: «Orain seinaleren bat ager baledi, perfektua izango litzateke. Badakit hau dela tokia, baina aztarnaren bat ager baledi gogoan hartu eta umeei kontatzeko...» Zerura begiratu zuen, baina garbi zegoen, txori edo hodeirik gabe. Orduan, muino gainean ilunabarrez ibiltzen den brisara altxa zen. Haritzek kei-nutxo sekretuak egin zituzten ibar aldera, eta muinoaren maldan zirimola ñimiño batek hosto batzuk goratu eta aurreraka bota zituen. Richardek irri egin zuen ezpain artean. «Erantzuna! Makina bat hiri eder altxa izan dira, seinale hau baino argiagorik jaso gabe jainkoen aldetik,»

Tartetxo baten ondoren bere gurdi txikitik jaitsi eta zaldiak libratu zituen. Behin biak peiatu eta gero, animaliak bide bazterreko belarretara abiatu ziren pausotxo mizkinekin. Richardek urdaiazpiko hotza eta ogia jan zituen afaltzeko, eta gero bere tapakiak zabaldu eta belar gai-

nean jarri zituen. Ibarrean ilunabar grisa trinkotzen zen bitartean, berak bere ohean deskantsatu eta beherantz begiratzen zuen, bere etxe izango ziren Zeruko Belardi haietara. Haranzko alderdian zegoen tokia, haritz ederreko arboladi baten ondoan; aukeratutako leku honen atzean muino bat zegoen eta sastrakez betetako tolestura bat, erreka bat segur aski.

Argia badaezpadakoa eta magikoa bihurtu zen. Richardek etxe zuri eder bat ikusi zuen, aurrean lorategi txukun bat zuena eta, aldamean, zisterna baten dorre zuria. Argitxo horiak ageri ziren leihoetan, argi txeratsuko mantxak. Sarrerako ate handia zabaldu, eta Lime multzo bat atera zen galeriara, sei ume bai, gutxienez. Zerbait ikusten saiatzen ziren ilunpe geroz handiagoan, eta muinoaren goialdera begiratzen zuten bereziki, Richard bere tapakien gainean zegoen tokira. Une baten ondoren etxera sartu ziren ostera eta atea itxi egin zen beren atzetik. Atea ixtearekin batera, bai etxea, bai lorategia eta zisterna zuria ere, ezkutatu egin ziren. Richardek hasperen egin, satisfazioz, eta bizkar

ganean etzan zen. Zerua izarrez dirdirka zegoen.

Astebetetz Richardek ibar guztia zeharkatu zuen amorratu beharrean. Berrehun eta berrogeita hamar Are erosi zituen Zeruko Belardietan; Monterreyra joan zen bere tituluen bila eta erosketa erregistratzera, eta saila segurtasun osoz bereganatutakoan, arkitekto batengana jo zuen.

Sei hilabete behar izan ziren etxea altxatzeko, tapizatu eta janzteko, putzu-zulo bat egin eta haren ganean dorre itxurako zisterna eraikitzeke. Richardek jabe bezala pasatako lehen urte guztian langileak egon ziren Whiteside etxaldean. Lurrak ez zuen hazirik jaso.

Auzoko bat etorri zen, jardunbide harekin kezkatuta zegoena, eta aurpegia eman zion jabe berriari.

— Familia etortzekoa al duzu, Mr. Whiteside?

— Familiarik ez dut —esan zuen Richardek—

. Gurasoak hilak ditut. Emazterik ez dut.

— Hortaz zer arraio dela-eta ari zara horrenbesteko etxea altxatzen?

Richarden aurpegia serio tu egin zen.

— Hemen bizitzeko asmoa dut. Bertan gelditzeko asmoz etorri naiz. Nire umeak eta beren umeak eta beren umeen umeak etxe honetan biziko dira. Whiteside asko jaioko dira hemen, eta asko hilko dira bertan. Behar bezala zainduz gero, etxeak bostehun urtez iraungo du.

— Oso ondo ulertzen dut zer esan nahi duzun —esan zuen auzokoak—. Gauza ona dirudi, baina ez dugu guk hemen horrela lan egiten. Guk txabolatxo bat altxatzen dugu, eta lurrak zerbait emanaz gero, handitu egiten dugu txabola. Ez da ona etxe batean diru gehiegi jartzea. Beharbada etxez aldatu nahiko duzu.

— Ez dut etxez aldatu nahi! —hots egin zuen Richardek—. Ideia horrexen kontra ari naiz etxea altxatzen. Altxatuko dudan eraikuntza ikaragarri sendoa izango da, eta hala, ez nik ez nire ondorengoek ez dugu etxez aldatzerik izango. Prekauzio bezala, hemen ehortziko naute hiltzen naizenean. Gizonari zaila egiten zaio aitaren hilobia bertan behera uztea. —Bere aurpegia samurtu egin zen—. Tira, adiskide, ez al duzu konprenitzen egiten ari naizena? Dinastia bat sortzen ari naiz. Familia bat eta familia baten

egoitza osatzen ari naiz, betirako iraungo ez duena, baina bai zenbait mendez. Plazer ematen dit, etxe hau altxatzen dudan bitartean, nire ondorengoak bere zoru gainean ibiliko direla jakiteak, eta umeak jaioko direla bertan, aitona-amonak oraindik sortu gabe dituzten umeak. Tradizio baten ernamuina ezarriko dut nire etxean.

Richarden begiek txinpartak botatzen zituzten hitz egiten zuen bitartean. Arotzen mailuen danbatekoek bere hizketa puntuatzen zuten.

Auzokoak pentsatu zuen ero baten aurrean zegoela, baina halako begirune bat sentitzen zuen erotasun harekiko. Adierazi egin nahi zuen begirune hura nola edo hala. Amerikarra izan ez balitz, bere sonbreirua ukituko zuen bi behatzez. Gizon honen bi seme helduak egurra moztera joanak ziren handik hirurehun miliara, eta alaba ere ezkondu eta Nevadara joana zen. Bere familia benetan osatzen hasi baino lehen sakabanatu zen.

Richardek sekuoia egurrez egin zuen etxea, usteltzen ez den egurra baita. New Englandeko landetxe ederren arabera modelatu zuen, baina,

Zeruko Belardietako klimaren goratarrez, etxe guztia galeria zabal batez inguratu zuen. Teilatua oholez estali zuten probisionalki, baina, Bostonen bere mandatuak jaso zituztenean, eta itsasontziak itzultzeko beta izan bezain laster, oholxak kendu eta arbela jarri zuen haien tokian. Teilatu hura gauza garrantzitsu eta sinbolikoa zen Richardentzat. Ibarreko jendearentzat arbelezko teilatua herrialdeko ikuskizunik handiena zen. Beste ezerk baino gehiago, harekek bihurtu zuen Richard Whiteside ibarreko biztanle nagusi. Gizon serioa zen, eta hantxe zeukan etxea. Ez zuen korrika alde egiteko asmorik beste urre meatze batera. Nola ba, bere teilatua arbelezkoa zen eta! Gainera, gizon eskolatua zen. Harvarden estudiantua. Dirua zuen, eta bai aski fede ere ibarrean etxe handi, luxuzko bat altxatzeko. Herria gobernatuko zuen. Familia baten sortzaile eta patriarka zen, eta bere teilatua arbelezkoa zen. Arbelezko teilatu hura zela-eta, jendeak gehiago estimatzen eta baloratzen zituen Zeruko Belardiak. Richard politikoa bat izan balitz, herrian gora egitea bilatzen zuena, ezin izango zuen egin bizkorkeria hoberik bere etxeari arbe-

lezko teilatua ematea baino. Distira ilunak botatzen zituen euritan; eguzkiak altzairuzko ispilu bihurtzen zuen.

Azkenik etxea bukatu zutenean, bi gizon hartu zituzten baratza landatzeko eta lurra hazitarako prestatzeko. Artaldetxo batek koskaka jaten zuen etxearen atzealdean zegoen maldako belarra. Richardek bukatutzat eman zituen bere prestakuntzak. Gertu zegoen emazte bat hartzeko. Urrutiko senide baten eskutitza jaso zutenean, esanez San Franciscora heldu berria zela emazte eta alabarekin eta pozik etorriko zitzaiozla bisitan, gehiago bilatu beharrik ez zeukala konprenitu zuen Richardek. San Franciscora joan baino lehen ere, bazekien alaba harekintxe ezkonduko zela. Gauzarik egokiena zen. Ez zen odol ezbeharrik izango neska harekin ezkontzen baldin bazen.

Nahiz eta ohiturazko ezkongai-aldia pasa beharra izan, biek elkar ezagutu orduko erabaki zen auzia. Alicia pozik zegoen bere amaren eskupetik atera eta bere agintaritza domestikoa-ri hasiera eman ahal izateaz. Etxea berarentzat egina izan zen. Bertan hogeita lau ordu pasatze-

rako, festoiak zabaldua eta paperak iltzatuta zeuzkan despentsako apaletan, Richardek bere amaren despentsan ikusi izandako festoi eta paperen antzera. Alicek aspaldiko modu eroso hartan zuzendu zuen etxea, modu aldaezin eta zikliko hartan: lixiba astelehenean, plantxa asteartean eta holaxe dena, alfonbrak urtean bitan altxa eta astindu: mermelada, tomate eta pepinoak kontserban jarri eta sotoko apaletan gorde udazkeneko. Granja goraka zihoan, ardi eta behiak ugaritu egin ziren, eta lorategian, nabar-lore, krabelin ttanttodun, bestelako krabelin eta malba gorriek urteroko loraketan ziharduten. Eta Alicia haur baten esperoan zegoen.

Hura dena gertatuko zela lehendik ere bazekien Richardek. Dinastiaren erroak ezarrita zuden. Tximiniek mantxa beltzak ageri zituzten beren koroen jira guztian. Egongelako suak ke juxtua botatzen zuen etxea egur errearen intsentsu goxoaz betetzeko. Bere aitagarrebak emandako itsas bitsezko pipa handia, berritan igeltsuaren zurtasuna zuena, horitasun aberats eta krematsua ari zen hartzen.

Umea jaiotzekotan zegoela, Richardek elbarrria balitz bezala tratatzen zuen Alicia. Ilunabarrez, suaren aurrean esertzen zirenean, tapaki batean biltzen zizkion oinak. Bere beldurrik handiena, haurraren sabelaldian zerbait oker joatea zen. Lehen-jaioaren itxuran eragiteko Aliciak begiratu beharko zukeen koadroaz hitz egin zuten, eta, emazteari sorpresa bat ematearren, Migel Angelen Daviden brontzezko kopia txiki bat enkargatu zuen San Franciscotik. Alicia gorritu egin zen haren biluztasunaren aurrean, baina luze gabe figuratxoaren zale itsu bihurtu zen. Oheratzen zenean bere mesanotxearen gainean jartzen zuen. Egunez, lanean ari zela, berarekin eramaten zuen gelaz gela, eta ilunabarrez tximini gaineko koskan jartzen zuen. Sarritan, haren soin-adar garai eta sendoei begiratzerakoan, ziurtasun eta galderazko irribarretxo bat joan eta etorri ibiltzen zuen aurpegian. Erabat sinetsita zeukan bere umeak *David* haren antza izango zuela.

Richard emaztearen ondoan eseri eta eskua laztantzen zion eztiro. Aliciari gustatu egiten zitzaion senarrak esku-ahurra laztantzea, baina

tinko, kilimakirik ez egiteko. Richardek emeki hitz egiten zion:

— Urrundu da madarikazioa —esan zion—. Badakizu, Alicia, nire familia eta zurea, denboran atzera joaz apur bat, etxe berean bizi izan zirela ehun eta hogeita hamar urtez. Jatorrizko etxe hartatik gure odola New Englandeko odol on eta garbiarekin nahastu zen. Behin batez aitak esan zidan hirurogeita hamahiru ume jaio zirela etxe hartan. Gure familia ugarituz joan zen nire aitoren garaira arte. Nire aita seme bakarra izan zen, eta ni neu ere seme bakarra izan nintzen. Huraxe izan zen nire aitaren bizitzako tristurarik handiena. Hirurogei urte besterik ez zituen hil zenean, Alicia, eta ni bere seme bakarra nintzen. Hogeita bost urte nituela, eta artean benetan bizitzen hasteke nengoela, gure etxe zaharra erre egin zen. Ez dakit zerk hasi zuen sua.

Sofaren beso gainean utzi zuen Aliciaren eskua aberetxo ahul bat balitz bezain goxo. Txingar bat sutatik alde eginda zegoen, adreiluzko supazterretik kanpora. Atzera beste txingarren artera bota eta berriro ere Aliciaren eskua hartu

zuen. Honek irribarre egiten zion, ahul antzera, tximiniako koskan zegoen David-ari.

— Ohitura bat hazen antzinako garaietan — jarraitu zuen Richardek. Bere ahotsa leuna eta urruna bihurtu zen, antzinako garai haietatik ari balitz bezala hizketan. Bizitzan aurrera, Alicia gai izan zen igartzeko, senarrak burua nola jartzen zuen ikusita, haren ahotsaren doinu eta espresioagatik, noiz zihoan antzinako garaiez hitz egitera. Zeren Herodoto, Xenofonte edo Tuzididesen Antzinako Garaiak gauza pertsonalak baitziren Richardentzat. Mendebalde eskolatu gabeen Herodotoren istorioak herak asmatuak balira bezain berriak ziren. Urtero-urtero irakurtzen zuen Persiarren Gerraren historia.. Peloponesoko gerrena eta Hamar Milena. Eta orain irmoxeago laztantzen zuen Aliciaren eskua.

— Antzinako garaietan, hiri bateko biztanleek, etengabeko zorigaitzak ikusirik, madarika-zio baten pean zeudela pentsatzen zutenean, edo jainko baten gaitzespenaren pean, pilatu ondasun guztiak itsasontzietan eta urrutirako bidea hartzen zuten hiri berri bat sortzeko

asmoz. Beren hiri zaharra hutsik eta nahi zuenarentzat zabalik uzten zuten.

— Ekarriko al didazu estatua, Richard? —galdetu zion Aliciak—. Batzuetan eskuan edukitzea gustatzen zait.

Richard bizkor zutitu eta magalean jarri zion *David*-a.

— Entzun, Alicia! Etxea erre aurreko bi belaunaldietan bi ume bakarrik jaio ziren. Nire ondatsunak itsasontzi batean pilatu eta mendebal aldera jo nuen etxe berri bat sortzeko asmoz. Badakizu galdu nuen etxea altxatzeko ehun eta hogeita hamar urte behar izan zirela. Ezin nuen haren tokian bestea egin. Etxe berri bat lur zaharrean penagarria izango zen niretzat. Ibar hau ikusi nuenean, berehala jakin nuen hauxe izango zela tokia nire familiaren egoitza berrirako. Eta orain belaunaldiak osatzen ari dira. Oso zoriontsua naiz, Alicia.

Aliciak besoa luzatu zuen Richardi eskua estutzeko, esker onez senarraren zorionean zegokion parteagatik.

— Begira —esan zuen Richardek bat-batean—, seinale bat ere izan zen aurreneko

aldiz ibarrera etorri nintzenean. Hau ote zen tokia galdetu nien jainkoei, eta erantzun egin zuten. Zer iruditzen zaizu, Alicia? Hitz egingo al dizut seinaleaz eta muinoan pasa nuen lehen gauaz?

— Bihar gauean kontatuko didazu —esan nuen berak—. Orain hobe dut erretiratzea.

Richard altxa eta belaun inguruko tapakia askatzen lagundu zion. Alicia astun apoiatu zen eskaileretan gora laguntzen zion senarraren besoan.

— Etxe honetan zerbait mistikoa dago, Alicia, zerbait zoragarria. Arima berria da, arraza berriaren lehen-jaioa.

— Estatua txikiaren antza izango du —esan zuen Aliciak.

Tapakietan bil-bil egin ondoren hotzik harra-pa ez zezan, Richard egongelara itzuli zen. Umeak sentitzen zituen etxean. Korrika txikian zebiltzan eskaileretan gora eta behera, lardaskan zebiltzan tximiniako errautsarekin. Haien ahotsak aditu zituen galerian isil-isilik elkarri hoska. Ohera joan baino lehen, liburutegiko goiko apalean jarri zituen hiru liburukoteak.

Haurgintza oso nekeza izan zen. Dena bukatu zenean, eta Alicia bere ohean zurbil-zurbil eta akituta zegoela, Richardek semetxoa ekarri eta emaztearen ondoan jarri zuen.

— Bai —esan zuen Aliciak satisfazioz—, estatuaren antza du. Banekien haren antza izango zuela. Eta bere izena David izango da, noski.

Monterreyko sendagilea behera etorri eta Richardekin batera sutondoan eseri zen. Kopeta zimurtu zuen goibelki, bere eraztun masonikoari erdiko behatzean bueltak ematen zizkion bitartean. Richardek cognac botila bat ireki eta bi baso txiki bete zituen.

— Nire semearen izenean edango dut basokada hau, sendagile jauna.

Sendagileak bere basoa sudurrera eraman eta zaldi batek bezala hartu zuen hatsa.

— Aparta pattarra. Hobe zenuke emaztearen izenean edango bazenu.

— Horixe —edan egin zuten—. Eta beste hau nire semeagatik.

— Hori ere edan ezazu emaztearen izenean.

— Zergatik? —galdetu zuen Richardek harrituta.

Sendagileak pattarrean sartuta zeuzkan sudur-zuloak ia-ia.

— Eskerrak emateko edo. Alarguntzeko zorian egon zara.

Richardek zurrut batez eztarriratu zuen cog-naca.

— Ez nekien. Uste nuen... Ez nekien. Uste nuen aurrenekoaren jaiotza zaila izaten zela beti.

— Emadazu beste basokada bat —eskatu zuen sendagileak—. Ez duzu beste haurrik izango.

Richard botila eskuan zuela gelditu zen.

— Zer esan nahi duzu? Horixe baietz, horixe izango dudala haur gehiago.

— Ez, emazte honekin behintzat ez. Honek berea eman du. Beste haur bat izanez gero emazterik gabe geratuko zara.

Richard geldi-geldirik eserita zegoen. Azken hilabetean etxean aditutako ume zalaparta goxoa isildu egin zen kolpetik. Iruditu zitzaion haien oin sekretuak ate nagusitik lerratzen eta atariko koskak jaisten sentitzen zituela.

Sendagileak barre egin zuen garratz.

— Zergatik ez zara mozkortzen, gogoia baldin badaukazu?

— Oh! ez, ez. Ez dut uste mozkortzerik izango nukeenik.

— Hortaz eman niri beste basokada bat abiatu baino lehen. Hotza izango dut kotxean etxerakoan.

Sei hilabete pasa arte Richardek ez zion emazteari aipatu ezingo zuela beste umerik izan. Indarrak berreskura zitzan nahi zuen errebelazioaren kolpea sufritu aurretik. Azkenean hitz egin zionean, errudun sentitu zen sekretua gorde izanaz. Aliciak magalean hartuta zeukan haurra eta aldi berean behin makurtu egiten zen haren behatz luzatu bat ahoan sartzeko. Umeak begi lausotuez gora begiratu eta irribarre egiten zuen lerdea zeriola, behatz xuxenei eraginez amak miazka zitzan. Eguzkia ibaika sartzen zen leihotik. Urruti batean morroietako bat sentitzen zuten, areari lotutako zaldi pareari maldizioka lelo baten monotoniaz. Aliciak burua goratu zuen, bekozko ilun samarrez.

— Umea bataiatzeko garaia badugu, ez al zaizu iruditzen, Richard?

— Bai —onartu zuen senarrak—. Monterreyra joango naiz antolamenduak egitera.

Asko kosta zitzaion Aliciari beste alderdi garrantzitsu hura aipatzea.

— Beranduegi iruditzen al zaizu bere izena aldatzeko?

— Ez, ez da beranduegi. Zergatik aldatu nahi duzu? Zer izen jarri nahi diozu?

— John jarri nahi diot. Testamentu Berriko izena da —begiak goratu zituen onespen bila— eta gainera, nire aitaren izena da. Poza hartuko du nire aitak. Gainera, ez zitzaidan oso zuzena iruditzen estatua horren izena jartzea, nahiz David umearen estatua izan. Estatua jantzita balego, beste kontu bat litzateke.

Richardek ez zuen logika hari jarraitzeko ahalginik egin. Horren ordez, bere aitormenean murgildu zen. Segundo batean bukatu zuen, uste baino denbora gutxiago behar izan zuen. Aliciak irribarre egiten zuen Richardi ulertezina zitzaion irribarre berezi eta enigmatiko batekin. Nahiz bere ustetan emaztea ezagutu, irribarre hark, pixka bat ironikoa, apurtxo bat tristea, eta isilpeko zuhurtasunez betea, haren pentsamen-

duen atearak izaten zizkion. Alicia irribarre haren atzera erretiratu zen. Irribarreak zioen: «Zer ergela zaren. Nik badakizkit hainbat gauza zure ezagupena lotsagarri utziko luketenak kontatzea erabakiko banu.» Umeak bere behatz irrikatsuak amaren aurpegira luzatzen zituen, eta honek tolestu egiten zizkion aurreraka eta atzeraka.

— Zaude pixka batean —esan zuen—. Medikuek ez dakite dena. Zaude pixka batean, Richard. Ume gehiago izango ditugu.

Mutikoa mugitu zuen eta eskua haren pixoihalaren azpira eraman zuen.

Richard kanpora atera eta sarrerako harmailetan eseri zen. Bere atzean etxea, minutu batzuk lehenago isilik eta hilda egon zena, bizitzaz gainezka zegoen berriro ere. Milaka gauza zeuden egiteko. Ezpel-hesia, lorategia inguratzen zuena, azken sei hilabeteetan batere moztu gabe zegoen. Sail bat belazetarako gordea zeukan aspalditik, alboko patioan, eta hantxe segitzen zuen haziaren zain. Arropa lehortzeko tokirik ere zegoen artean. Sarrerako eskaileraren baranda aldamenean zeukan. Richardek eskua

luzatu eta laztandu egin zuen zaldi baten lepo arkeatua balitz bezala.

Whiteside-tarrak Zeruko Belardietako familia nagusia bihurtu ziren ia bertan finkatu orduko. Eskolatuak ziren, granja ederra zeukaten, eta aberats ez izan arren diru estutasunik ez zuten. Denetan garrantzitsuena zen eroso bizi zirela, etxe eder batean. Etxea familiaren sinboloa zen, zabal handikoa, luxuzkoa garai hartarako, epela, abegi onekoa eta zuria. Bere tamainak sendotasun irudipena ematen zuen, baina pintura zuria zen, maiz berritu eta garbitua, ibarreko beste etxeen gainetik jartzen zuena, Rhineko gaztelu batek bere herriaren gainetik erakusten duen segurtasun berarekin. Familiek miretsi egiten zuten etxe zuria, eta aldi berean seguruago sentitzen ziren hura han zegoelako. Nagusitasuna eta kultura adierazten zituen, ezaguera eta jokamolde zuzena. Etxe hari begiratuta, auzokoek garbi ikusten zuten Richard Whiteside sekula ezer gaiztorik, ezer krudel edo zentzugaberik egingo ez zuen gizona zela. Harro zeuden etxeaz, dukerri bateko sailen maizterrak jauretxeaz harro dauden bezala. Nahiz auzoko batzuk

Whiteside baino aberatsagoak izan, bazekiten, antza, ezin izango zutela halako etxe bat altxa goitik behera imitatuta ere. Batik bat bere etxe harengatik bihurtu zen Richard jokamoldearen arbitroa ibarrean, eta, geroago, kargu gabeko epaile moduko bat sesio txikiren bat zenean. Ordain gisara, bere auzokoen konfiantzak ibarra-rekiko sentimendu aitakoia esnatu zuen Richarden baitan. Zahartu ahala, ibarreko arazo guztiak bere-bereak balira bezala hartzera heldu zen, eta jendea harro zegoen hori horrela izateaz.

Bost urte igaro ziren Aliciari bere senak beste haur bat izateko prest zegoela esan arte.

— Sendagilearen bila joango naiz —esan zuen Richardek, emazteak jakinaren gainean jarri zuenean—. Sendagileak jakingo du arriskurik baden ala ez.

— Ez, Richard. Sendagileek ez dakite. Beti esaten dizut emakumeek hobeto ezagutzen dutela beren burua sendagileek baino.

Richardek obeditu egin zion, beldurra baitzuen sendagileek esan ziezaiokeenaz. «Emakumeengan dagoen jainkotasunezko ukitu hori

da», esan zion bere buruari azalpen gisara. «Naturak emakumeengan akatsik gaheko jakintza hori landatu du arrazak ugaritzeko aukera izan dezan.»

Dena ondo joan zen sei hilabetez, eta ondoren gaitz hondatzaile bat presentatu zen. Azkenean hots egin ziotenean, haserreegi zegoen sendagilea Richardi hitzik egiteko. Haurgintza-aren momentua latza izan zen benetan. Richard egongelan eserita zegoen, sofaren besoei heldu eta goiko logelatik zetozen garrasi ahulak entzuten. Bere aurpegiak tonu grisa zeukan. Ordu asko pasa ondoren, garrasiak isildu egin ziren. Richard hain zegoen beldurak jota non begirik ez baitzuen altxa sendagilea gelara sartu zenean.

— Atera ezazu botila —esan zuen sendagileak nekatu itxurarekin—. Edan dezagun zure izenean, txoro madarikatu hutsa zarelako.

Richardek ez begirik altxa zuen, ez erantzunik eman zuen. Beste pixka batean sendagilea errietan aritu zitzaion, eta gero gozoago hitz egin zion.

— Ez da hil zure emaztea, Jainkoak bakarrik daki zergatik. Soldadu talde bat hiltzeko beharko zena baino okerragoak pasa ditu. Emakume ahul horiek! Munstroek adinako sasoia dute. Umea hil egin da.

Bat-batean, Richard zigortzeko gogoia sentitu zuen bere lehen aginduak aintzat hartu ez zituelako.

— Lurperatzeko adina ez da geratu haur horretaz.

Jira eta joan egin zen etxetik purrustadan, ezin baitzuen eraman norbaitez errukitzea une hartan Richard Whitesidez errukitzen zen bezala.

Alicia elbarri geratu zen. John txikiak ez zuen bere ama elbarritu aurreko oroitzapenik. Bere bizitzaz zeuzkan oroitzapen guztietan aita Alicia besoetan hartuta ikusten zuen, eskaileretan gora eta behera zeramala. Aliciak ez zuen oso sarritan hitz egiten, baina irribarre ironiko eta zuhur hura gero eta maizago azaltzen zen bere begietan. Eta bere ahultasuna gorabehera, nabarmenki ondo zuzentzen zuen etxea. Etxean zerbitzatzen zuten neska nekazari ezjakinak — prestakuntza gutzizatua baitzen hura, ezkondu

nahi zuenarentzat—, agindu bila etortzen zitzaizkion otordu bakoitzaren aurretik. Aliciak, bere ohetik edo bere kulunkaulkitik, dena antolatzen zuen.

Gauero Richardek oheratzen zuen. Alicia bere burko zurien gainean etzandakoan, Richardek inguratu sila bat eta ohe ondoan esertzen zitzaion pixka batean, esku-barrena laztanduz lokartzen hasi arte. Gauero, Aliciak galdetzen zion:

— Pozik al zaude, Richard?

— Pozik nago —esaten zuen berak. Eta gero granjaz eta ibarreko jendeaz hitz egiten zion. Gertatutakoaren eguneroko informea zen, nolabait esateko. Berak hitz egin ahala, irribarrea Aliciaren aurpegira etorri eta bertan geratzen zen bere betazalak beheratu arte, eta orduan Richardek argia itzaltzen zuen. Zeremonia bat zen.

Johnen hamargarren urtebetetzean festa bat egin zuten bere izenean. Ibarreko txoko guztietatik etorri ziren umeak eta etxe handitik hankapunttaka ibiltzen hasi ziren, begi zabalekin begiratuz aditzez ezagutzen zuten galantasunari. Alicia galerian eserita zegoen.

— Ez duzue hain isilik ibili beharrik, umeak —
esan zien—. Korri egizue eta pasa ondo.

Baina ezinezkoa zitzaien Whiteside-tarren etxean korrika eta garrasika hastea. Elizan garrasi egitea bezala izango zen. Gela guztiak zeharkatu zituztenean, tentsio hura eramanezina egin zitzaien. Bihitegira erretiratu zen talde osoa, eta aireak hango garrasi basatiak ekarri zituen galeriara, Alicia irribarrez eserita zegoen tokiraino.

Gau hartan, ohean zegoela, galdetu zuen:

— Pozik al zaude, Richard?

Richarden aurpegia artean ere dizdizka zegoen festan hartutako gozatuagatik.

— Pozik nago —esan zuen.

— Ez duzu umeengatik kezkatu behar, Richard —jarraitu zuen Aliciak—. Itxoin ezazu pixka bat. Dena ondo joango da. —Aliciaren jakinduria handia zen hura, dena biltzen zuena—. Itxoin ezazu pixka bat. Ez da une bateko larritasunaz aurrera luzatzen den atsekaberik.

Eta Richardek konprenitu zuen berea baino jakinduria handiagoa zela hura.

— Ez da luze itxoin beharko —jarraitu zuen Aliciak.

— Itxoin zeri?

— Begira, pentsa ezazu pixka bat. Hortxe daukazu John. Hamar urte ditu orain. Hemendik hamar urtera ezkondu egingo da, eta orduan, ez al duzu ikusten? Erakutsiozu dakizuna. Familia salbatuta dago, Richard.

— Horixe, badakit. Etxea salbatuta dago. Herodoto irakurtzen hasiko natzaio. Alicia. Eda-dea badu.

— Bihar Myrtlekin gonbidatuen gela guztiak garbitu beharko lituzke. Ez dituzte egurastu azken hiru hilabeteotan.

John Whitesidek beti gogoratu zuen nola irakurtzen zizkion bere aitak hiru autore handiak, Herodoto, Tuzidides eta Xenofonte. Itsas bitsez egindako pipa hura marroi gorritzat zen ordurako, delikatuki eta uniformeki tindatua.

— Historia guztia hemen dago —esaten zuen Richardek—. Gizadia egiteko kapaz den guztia hiru liburuotan bildua dago. Arrazaren maitasuna eta azerikeria, desoneskeria ergela, moztasuna eta ausardia, prestutasuna eta tristura. Libu-

ru horiei jarraituz etorkizuna juzka zenezake, John, zeren ezin baita ezer gertatu lehen ere gertatu ez dena eta liburu hauetan bildua ez dagoena. Hauen aldean, Biblia bera ere gizatalde ilun baten kronika osatu gabea da.

Eta Johnek gogoan zeukan zer sentimendu zituen aitak etxearekiko, eta etxe hura familia-ren sinbolo zela, supazterraren inguruan altxatutako tenplua.

Johnek bere azken urtea zuen Hareardeko Unibertsitatean bere aita bat-batean pneumoniaz hil zenean. Amak eskutitza idatzi zion esanez ikasturtea bukatu behar zuela itzuli baino lehen. «Guk egin ez dugunik ezingo zenuke zuk egin», idatzi zion. «Zuk ikasketak bukatzea zen zure aitaren nahia.»

Azkenean etxeratu zenean, oso zahartua aurkitu zuen ama. Ohetik jaiki ezin zela zegoen ordurako. John aldamenean eseri eta aitaren azken egunen kontaketa aditu zuen.

— Zuri gauza bat esateko eskatu zidan — esan zuen Aliciak—. «Ulertarazi Johni aurrera egin behar duela. Iraun egin nahi dut belaunaldiz

belaunaldi» eta hori esan eta laster delirioak hartu zuen.

Johnek leihotik begiratzen zuen etxe atzeko muino borobilera.

— Deliratzen egon zen zure aita bi egunez. Bitarte guzti horretan umeei buruz hitz egiten aritu zen, beste konturik aipatu gabe, bakarrik umeak. Eskaileretan gora eta behera korrika eta bere oheko sobrakamari tiraka sentitzen zituen. Altxa eta besoan eduki nahi zituen, John. Gero, justu hil aurretik, ametsak desagertu egin ziren. Zoriontsu zegoen. Esan zuen: «Etorkizuna ikusi dut. Hainbeste ume sortuko dira! Pozik nago, Alicia.»

Johnek esku-ahurretan jarria zeukan burua. Eta orduan bere ama, sekula ezeri aurre egin ez ziona, arazo guztiak denboraren esku utzi zituen, ohean tentetu eta zakarki mintzatu zen:

— Ezkon zaitez! —esan zion—. Ikusi egin nahi dut. Ezkon zaitez! Emakume sendo bat nahi dut, haurrak izan ditzakeena. Zure ondoren ezin izan nuen nik besterik eduki. Hil egingo nintzen beste bat izan banu. Aurki ezazu azkar emazte bat. Ikusi egin nahi dut.

Etzan egin zen atzera bere burkoen gainean, baina bere begiek nahigabea adierazten zuten, eta jakinduriatzko irribarrea ez zen bere aurpegian ageri.

John ez zen beste sei urtetan ezkondu. Bitarte hartan bere ama zimelduz joan zen eskeleto txikitxo bat bilakatu arte, azal urdinxka, ia transparente batez bildua; eta, hala eta guztiz, atxiki egiten zion bizitzari. Bere begiek gaitzespenez segitzen zioten semeari; Johnek lotsa sentitzen zuen amak begiratzen zionean. Azkenean Johnen ikaslagun bat Mendebaldera etorri zen bazterrak ezagutzera eta arreba lagun zuela. Hilabete pasa zuten Whiteside granjan, eta hilabete haren bukaeran Johnek Willari ezkontzeko eskatu eta onartu egin zuen neskak. Amari kontatu zionean, honek Willarekin bakarka egon nahia adierazi zuen. Ordu erdi bat geroago, neska gorri-gorri eginda atera zen eriaeren gelatik.

— Zer gertatzen da, maitea? —galdetu zion Johnek.

— Zera, ezer ez. Ondo doa dena. Berebiziko galdera pila egin dit zure amak, eta gero begira eduki dut denbora luzean.

— Zaharra da —azaldu zuen Johnek—. Bere burua ere hain da zaharra!

Bere amaren gelara sartu zen. Begirada beltzuri eta sukartsua aurpegitik ezkutatua zeukan, eta haren orde z hantxe zegoen aspaldiko irribarre hura, jakinduriazkoa eta ironikoa.

— Ondo doa dena, John —esan zuen—. Gustura itxoingo nuke umeak ikusi arte, baina ezin dut. Ahal bezain luzaro heldu diot bizitzari. Nekatuta nago lan horretaz.

la posible zen ikustea nola laxatzen zen bere gorputzean borondate tematsuaren atzaparra. Gau hartan konortea galdu zuen, eta hiru egun geroago loak hartu balu bezain bakean eta ezti-
ro hil zen.

John Whitesidek ez zuen zehazki aitak bezala pentsatzen etxeari buruz. Gehiago maite zuen. Bere gorputzaren kanpoko eskola zen. Bere izpirituak bere gorputza utzi zezakeen bezala urrutira bidaiatzeko, hala utzi zezakeen berak bere etxea, baina izpiritua bera bezain derrigortua zegoen itzultzera. Bi urtean behin zuritu berria ematen zion etxeari, eta berak landatzen zuen lorategia eta inausten ezpel-hesia. Ez zuen iba-

rrean betetzen aitek eduki zuen postu garrantzitsua. John ez zen hain zorrotza, ez zuen ezertan hain sendo sinesten. Erabaki beharreko eztabaida baten aurrean, joera handiegia zuen bi alderdietan adarkadura bukaezinak aurkitzeko. Itsas bitsezko pipa handia oso ilundua zegoen ordurako, ia beltza, distira gorri batzuekin.

Willa Whitesideri hasieratik gustatu zitzaion ibarra. Lehengo etxeoandrea, Alicia, pertsona apartatu eta lasaia izan zen, beldur pixka bat ere ematen zuena. Ibarreko biztanleek gutxitan ikusten zuten, eta ikusten zutenean, berak kortesiaz eta adeitsuki tratatzen zituen, eskuzabala zen eta aintzat hartzen zituen haien sentimenduak. Gaztelura zerbaitetara joandako nekazariak bezala sentitzen ziren haren aurrean.

Willak berriz, gogoko zuen ibarreko emakumei bisitak egitea. Gogoko zuen haien sukaldeetan esertzea te zakarra edanez eta etxeak dituen gauza garrantzitsu eta kontaezinei buruz hitz eginez. Errezeta-trafikatzaile eskuzabala bihurtu zen azkenerako. Bisitaren bat egitera joaten zenero, koadernotxo bat eramaten zuen ikasitako formulak idazteko. Auzokoek Willa dei-

tzen zioten eta sarritan goizez bere sukaldera etortzen ziren tea hartzera. Agian, neurri batean Willaren eraginez bihurtu zen John konpainiazale. Galdu egin zuen bere aitak aparte mantenduta eduki zuen boterea. Johnek gogoko zituen bere auzokoak. Udako arratsalde epeletan galerian eseri, bere lonazko silan, eta lanari ihes egitea lortutako gizon guztiak errezibitzen zituen. Hauteskunde batzarrak osatzen ziren galeria hartan, bileratxoak egiten ziren limoi-ur basoen inguruan. Ibar osoko egitura sozial eta politikoa portxe hartan eraikitzen zen, eta beti giro onean. Johnek halako ironia umoretsu batez begiratzen zion bere inguruko bizitzari, eta, bere ikuspegi hari esker, ibarrean bukatu egin ziren herri txiki-txiki giroa pozoitu ohi duten politika eztabaida sutuak eta erlijio iritzi biolentoak. Herriko edo nazioko krisi edo kalamidaderen bat aipatzen zenean, gizonen arteko eztabaida haietan, Johni hiru liburu handi haiek ateratzea gustatzen zitzaion, antzinako egoera paraleloren bat ozenki irakurtzeko. Bere aitak adinako maitasuna sentitzen zuen antzinakoengana.

Bazkariak ere egiten zituzten igandetan, auzoko bikoteren bat eta beharbada herriz-herriko predikariren bat gonbidatuta. Emakumeek sualdean laguntzen zuten eguerdiko bazkaria prestatu arte. Mahaian, tolerantzia gozoko giro hartan, predikariak bere misioaren su gupidagabea itzaltzen zihoakiola sentitzen zuen, eta gertatu ohi zen ere, behin postrea ekarri eta sagardoa bukatu eta gero, Baptista ausart batek bihotz-bihotzez barre egitea erabateko murgilaldiari buruzko bromatxo batekin.

Johnek asko gozatzen zuen gauza horiekin, baina bere bizitzaren gunea egongelan zegoen. Larruzko besaulkiak, molde anatomiko erosoan antzeko hutsune eta kozkorrekin, bere pertsonaren atal ziren. Hormetan, hantxe segitzen zuten txikitatik lagun izandako koadroak, altzairuzko grabatuak orein eta Suitzako alpinista eta basahuntzen irudiekin. Koadro haiek hain zeuden lotuta bere bizitzarekin non ikusi ere ez baitzituen egiten, baina haietako baten galera anputazio bat bezain mingarria izango zen berarentzat. Plazerik handiena ilunabarretan izaten zuen. Adreilu gorriko supazterrean su txiki bat

piztuta zegoen. Johnek, bere besaulkian eserita, itsas bitsezko pipa handia laztantzen zuen. Aldian behin, oliotzeko, sudur-bizkarretik pasatzen zuen haren kazola lustretsua. Georgiarrak irakurtzen zituen, edo agian Varron, nekazaritzari buruz. Willak berriz, bere lanpararen argitan, ezpainak zimur-zimur egin, eta manteltxoak lore irudiekin bordatzen zituen ekialdeko senideei bidaltzeko Gabonetako opari bezala, haiek bidalitako manteltxoen ordainetan.

Johnek liburua itxi eta idazmahaira hurbildu zen. Tapaki korredizoa trabatu egiten zen beti eta mimoak behar zituen. Kolpetik amore eman eta karraka hotsaz goratu zen. Willak ezpainak laxatu zituen. Zerbait arretaz egiterakoan jartzzen zitzaion sufrimendu biziko espresioa joan egin zen bere aurpegitik.

— Zertan zabiltzan jakin al daiteke?

— Oh! Ezer ez, gauza batzuen bila.

Ordubetez idazmahaiaren atzean jardun zuen, eta gero:

— Entzun hau, Willa.

Willa lasaitu egin zen berriro.

— Pentsatzen nuen, poema bat izango zenuela.

Johnek bere bertsoak irakurri eta zain geratu zen desenkusatu nahiz bezala. Willa berriz, errespetuz, isilik geratu zen. Isiltasuna errespetuak eskatzen zuenaz aurrera luzatu zen.

— Uste dut ez dela oso ona.

Johnek barre egin zuen tristeki.

— Ez, ez da.

Papera zimurtu eta sutara bota zuen.

— Momentu batez ona izango zela pentsatu dut.

— Zer ari zinen irakurtzen, John?

— Ba begira, nire Virgilio horrekin ari nintzen eta pentsatu dut saiatu egin behar nuela bertso bat egiten, zeren ez bainuen nahi... oh, beno, ia ezinezkoa da gauza eder bat irakurtzea norberak ere beste horrenbeste egiteko gogoia sentitu gabe. Berdin dio.

Idazmahaiaren tapakia beheratu eta beste liburu bat aukeratu zuen liburutegitik.

Egongela bere etxea zen. Osorik sentitzen zen han, perfektua eta zoriontsua. Rochester lanparen argitan, bere pertsonaren puska saka-

banatu guztiak bildu egiten ziren entitate zehatz eta mugatu bat osatuz.

Bizitza gehienek bihurtune baten forma hartzen dute. Aurrena anbizioaren gorakada dator, ondoren heldutasunaren gailur borobildua, jarraian desilusioaren aldapa beheara suabea eta azkenik heriotzaren itxaroteari dagokion aldi laua. John Whiteside lerro zuzenean bizi zen. Anbiziorik gabeko gizona zen; bere granjak, ederki bizitzeko aukera eskaintzeaz gain, nahiko diru ematen zion gizonak kontratatzeko bere ordeztan lan egin zezaten. Ez zuen nahi zeukana edo erraz eskura zezakeena besterik. Gizon bakana zen, beste askok ez bezala momentua dastatzen zekiena, eskuartean zeukan bitartean. Eta bazekien bizimodu ona zeramala, bizimodu bereziki ona.

Premia bakarra zuen bere bizitzan. Umerik ez zuen. Umeak izateko grina ia bere aitagan bezain bizia zen beragan. Willak ez zuen umerik izan, nahiz senarrak adina desiratu. Gaiak aztoratu egiten zituen eta sekula ez zuten aipatzen.

Beren ezkontzako zortzigarren urtean, istripu kimiko edo zerutiar bat medio, semea sortu zen

Willaren sabelean, eta haurdunaldi normal eta minik gabea pasa ondoren ume osasuntsu bat ekarri zuen mundura.

Istripua ez zen inoiz berritu, baina bai Willak bai Johnek esker ona besterik ez zuten, esker on ia debota. Irauteko desira indartsua, ordura arte gutxi edo gehiago lotan egondakoa Johnen barrean, azalera igo zen. Zenbait urtez, goldeaz lurra jiratu, eskuareaz harramazkatu eta alferraz zigortu zuen. Granjaren adiskide huts izan zena, nagusi bihurtu zen etorkizuneko belaunaldiekin zorretan sentituta. Haziak lurpean sartu eta uzta berdeak noiz azalduko zain egon zen irrikatsu.

Willa ez zen bere senarra bezala aldatu. William mutikoa gauza natural bezala hartu zuen, Bill deitu zion eta umea adoratzearen kontra azaldu zen. Johnek, beste inork ez bezala, bere aita ikusten zuen mutil harengan.

— Bizkorra al da, zure ustez? —galdetzen zion Johnek emazteari—. Nik baino denbora gehiago pasatzen duzu berarekin. Batere bururik ba al du, zure ustez?

— Hala-holakoa. Normala edo.

— Hain poliki desarrollatzen dela ematen du!
— esaten zuen Johnek luzeiritzita—. Ea lehenbai-
lehen heltzen zaion gauzak ulertzen hasteko
garaia.

Billen hamargarren urtebetetzean, Johnek bere Herodoto mardula ireki eta irakurtzen hasi zitzaion. Bill lurrean eserita zegoen, aitari begira inolako espresiorik gabe. Gauero Johnek orri batzuk irakurtzen zituen liburutik. Astebeteren bat zeramatela horretan, begiak bere liburutik altxa, ilunabar batez, eta Willa barrez ari zitzaio-
la ikusi zuen.

— Zer gertatzen da? —galdetu zion.

— Begiratu zure sila azpira.

Makurtu eta zera ikusi zuen, Billek etxe bat eraikita zeukala pospoloekin. Umea zeharo murgilduta zegoen bere lanean, eta ez zen irakurketaren etenaz ohartu.

— Ez al du batere entzun?

— Ezta hitzik ere. Hitzik ez du aditu aurreneko gauetik, bigarren paragrafoan arreta galdu zuenetik.

Johnek liburua itxi eta apalean utzi zuen. Ez zuen adierazi nahi zenbateraino sentitzen zen zauritua.

— Segur aski oraindik ez du garaia. Urtebete itxoin eta beste froga bat egingo dut.

— Behin ere ez zaio gustatuko, John. Ez dago zu edo zure aita bezala osatua.

— Zer interes ditu, hortaz? —galdetu zuen Johnek etsita.

— Ibarreko beste mutilei gustatzen zaizkien gauzak, eskopetak eta zaldia eta behiak eta zakurrak. Ihes egin dizu, John, eta ez zait iruditzen sekula harrapatu ahal izango duzunik.

— Esadazu egia, Willa. Ez da ba izango... inuzentea?

— Ez —esan zuen Willak erantzuna pentsatu ondoren—. Ez, ez da inuzentea. Zenbait aldetik zu baino gogorragoa eta bizkorragoa da. Ez da zure terrajekoa, John, eta geroago jakitea baino orain jakitea hobe duzu.

Johnek nabaritu zuen lurrarekiko bere ardura gero eta ahulagoa zela. Lurra seguru zegoen. Egunen batean Billek landuko zuen. Etxea ere seguru zegoen. Bill ez zen inuzentea. Gauza

mekanikoetarako interes eta trebetasun handia erakutsi zuen beti. Gurdi txikiak egiten zituen, eta Gabonetako opari bezala, jostailuzko lurrun-makinak eskatzen zituen. Johnek beste desberdintasun bat ere antzeman zuen mutikoagan, Whiteside familiari arrotza zitzaion alderdi bat. Oso isilkoia izateaz gain, zorrotza zen, hitzaren zentzu komertzialean. Bere ondasunak beste mutilei saltzen zizkien, eta haietaz nekatzen zirenean, erosi egiten zizkien atzera prezio merkeagoan. Egiten zizkioten diru oparitxoak modu misterioetsuan ugaritzen ziren bere eskuetan. Johni kosta egin zitzaion bere semearekin komunikatzerik ez zeukala onartzea. Billi bigantxa bat eman zionean, eta Billek berehala txerrikumealdi batekin trukatu zuenean, eta bai txerrikumeak hazi eta saldu ere, Johnek barre egin zuen berekiko.

— Ni baino bizkorragoa da, inondik ere — esan zion Willari—. Behin batean bigantxa bat eman zidan nire aitak, eta neurekin eduki nuen zahartuta hil zen arte. Bill arbaso baten berrargitzea da nolabait, pirata batena, beharbada. Bere umeak Whiteside-tarrak izango dira segur

aski. Odol boteretsua da. Dena dela, nahiago nuke hain isila ez balitz egiten dituen gauza guztiekin.

Bai bere larruzko besaulkiak, bai bere itsas bitsezko pipa beltzak eta bere liburuek ere, apartatu egin zuten ostera John granjako zereginetatik. Eskola-batzarreko idazkari aukeratu zuten. Nekazariak berriro ere bere etxean biltzen ziren hitz egiteko. Johnen ilea zuritzen ari zen, eta ibarrean zuen eragina sendotuz zihoan urteak aurreratu ahala.

Whiteside-tarren etxea Johnen nortasun gorpuztua zen. Ibarrekoek John imajinatzerakoan, behin ere ez zuten gizona bakarrik ikusten soro batean edo kotxe batean edo dendan. Buruan osatutako irudia herren geratzen zen etxea ere hartzen ez bazuen. Bere larruzko besaulkian eserita zegoen bere liburu lodiei irribarre eginez, edo portxeko sila batean deskantsatzen bere galeria zabal, xarmantean, edo aitzur txiki eta saski batekin loreak mozten lorategian, edo

mahaiaren buruan errekoa zatitzen kontu handiz eta trebeki.

Mendebaldean, non familia bateko bi belau-naldi etxe berean bizi izan badira etxea zahar-tzat eta familia pionerotzat hartzen baiten, mes-prezios nahastutako halako benerazio bat senti-tzen da etxe zaharrekiko. Oso etxe zahar gutxi daude Mendebaldean. Lurra kolonizatu zuten amerikar artega haiek behin ere ez dira gai izan toki batean oso luzaro geratzeko. Etxe txatxuak altxa eta, luze gabe, Promisioko Herri berri bate-ra abiatzen ziren. Etxe zaharrak hotzak eta itsu-siak izaten dira ia beti.

Bert Munroek bere familia Zeruko Belardieta-ko Battle granjara ekarri zuenean, ez zitzaion asko kosta John Whitesidek zeukan posizioa uler-tzea. Ahal bezain azkar, Whitesideren galerian biltzen ziren gizonekin elkartu zen. Bere granja mugakide zen Whitesideren lurrekin. Ailegatu eta laster, Bert eskola-batzarreko partaide auke-ratu zuten, eta hala Johnekin harreman ofizia-lean jarri zuten. Gau batez, batzarraren bilera batean, Johnek Tuzididesen lerro batzuk aipatu

zituen. Bertek beste batzarkideak etxera abiatu arte itxoin zuen.

— Zerbait galdetu nahi nizun gaur aipatu duzun liburu horri buruz, Mr. Whiteside.

— Peloponesoko Gerrez, alegia?

Liburua ekarri eta Berten eskuetan jarri zuen.

— Pentsatu dut gustura irakurriko nukeela, niri uztea axola ez bazaizu.

Une batez zalantza egin zuen Johnek.

— Horixe. Eraman ezazu. Nire aitarena zen liburu hau. Bukatzen duzunean, beste batzuk ere badauzkat beharbada gustura irakurriko zenituzkeenak.

Pasadizo harrezkero halako intimitate bat erne zen bi familien artean. Batak bestea bazkaltzera gonbidatzen zuen, bisitatxoak egiten zizkioten elkarri. Bert libre sentitzen zen Johni tresna hau edo bestea eskatzeko.

Ilunabar batez, Munroe-tarrek urte t'erdi zeramatenean ibarrean bizitzen, Bill tentetasun handiz Whiteside-tarren salara sartu eta aita-amen aurrean jarri zen. Bere urduritasunean, zakar mintzatu zen.

— Ezkondu egingo naiz —esan zuen.

Berri txarra zela pentsarazten zuen bere jokamoldeak.

— Zer kontu da hori? —esan zuen Johnek—. Zergatik ez diguzu orain arte ezer esan? Nor da neska?

— Mae Munroe.

Bat-batean Johnek konprenitu zuen berri ona zela hura, ez krimen baten aitormena.

— Hara! Hara zer ederki! Pozten naiz. Neska ona da, ez al da hala, Willa?

Willak ebitatu egiten zituen gizonaren begiak. Goiz hartan bisita egina zien Munroetarrei.

Billek gelaren erdian segitzen zuen mozolotuta bezala.

— Noizko duzue asmoa? —galdetu zuen Willak. Tohnek pentsatu zuen ia zipotza zela emaztearen doinua.

— Denbora gutxi barru. Monterreyko etxea bukatzen digutenean.

John bere besaulkitik altxa, hartu itsas bitsezko pipa beltza tximiniako koskatik eta piztu egin zuen. Gero bere besaulkira itzuli zen.

— Oso isilik gorde duzu kontua —adierazi zuen serioski—. Zergatik ez diguzu ezer esan?

Billek ez zuen erantzun.

— Monterreyn biziko zaretela diozu. Zer esan nahi duzu, ez duzula emaztea hemen bizitzera ekarriko? Ez al zara etxe honetan biziko eta ez al duzu lur hau landuko?

Billek ezetz egin zuen buruaz.

— Lotsatu egiten al zara zerbaitez. Bill?

— Ez, jauna —esan zuen Billek—. Ez naiz ezertaz lotsatzen. Behin ere ez zait gustatu nire gauzez hitz egitea.

— Ez al zaizu iruditzen gure gauza ere bade-la neurri batean, Bill? —galdetu zion Johnnek garratz—. Gure semea zara. Zure umeak gure bilobak izango dira.

— Mae hirian hazi zen —eten zuen Billek—. Bere lagun guztiak, berarekin eskolan ibilitakoak-eta, Monterreyn bizi dira. Hau ez du gustukoa, hemen zereginik ez dago eta.

— Ulertzen dut.

— Horregatik, hirian bizi nahi zuela esan zue-nean, akzio batzuk erosi nituen Ford agentzian. Beti izan dut negoziotan sartzeko gogoia.

Johnek buruari eragin zion poliki-poliki. Bere hasierako haserrea baretzen ari zen.

— Ez al duzu uste beharbada onartuko lukeela etxe honetan bizitzea, Bill? Hainbeste toki daukagu! Nahi dituen aldaketa guztiak egin genitzake.

— Ez zaio ordea gustatzen herri txiki batean bizitzea. Bere lagun guztiak Monterreyn daude.

Willaren ezpainen estu-estu itxita segitzen zuten.

— Begiratu zure aitari, Bill! —agindu zuen.

Johnek kolpetik burua tentetu eta irribarre egin zuen goibelki.

— Ederki. Nik uste ondo aterako dela dena. Nahiko diru ba al duzu?

— Bai, noski! Nahikoa. Eta entzun gauza bat, aita. Etxe handi samarra ari gara eginarazten, bi lagunentzako handi samarra, alegia. Hitz egiten aritu gara, eta pentsatu dugu beharbada ama eta bioi gustatuko litzaizuekeela gurekin bizitzera etortzea.

Johnek irribarrez segitzen zuen goibeltasun adeitsu batez.

— Eta orduan zer gertatuko litzateke etxearekin eta granjarekin?

— Begira, hitz egin dugu horretaz ere. Dena salduz gero, nahiko diru aterako zenukete bizitza guztia hirian bizitzeko. Nik astebetean salduko nizueke.

Johnek hasperen egin eta bere besaulkiaren kuxinetan hondoratu zen.

Willak esan zuen:

— Bill, garrasi egingo zenukeela baneki, makilarekin emango nizuke.

Johnek bere pipa piztu eta tabakoa zanpatu zuen kazolan.

— Ezin zara denbora luzerako joan —esan zuen onez-onean—. Egunen batean, eramanezina egingo zaizun etxe-mina sentituko duzu. Toki hau zure odolean dago. Haurrak izaten dituzunean konprenituko duzu ezin direla beste inon hazi. Aldi baterako joatea badaukazu, baina ez betirako. Hirian zauden bitartean, Bill, gu zain egongo gara hemen eta etxea pintatuta edukiko dugu, eta lorategia ere txukun-txukun. Itzuliko zara. Zure umeak zisterna ondoan ibiliko dira jostatzen. Horren zain egongo gara. Nire aita

umeekin amets eginez hil zen —irribarre egin zuen lotsatuta bezala—. Ia ahaztua neukan hori.

— Emango nioke makilarekin —murmuratu zuen Willak.

Bill joan egin zen gelatik, lotsatuta.

— Itzuliko da —errepikatu zuen Johnek, semea joan eta gero.

— Horixe —egin zuen bat emazteak goibelki.

Johnek burua goratu eta, susmati, emazteari begiratu zion.

— Benetan pentsatzen duzu hori, ezta, Willa? Ez duzu ba ni lasaitzeagatik esango? Zahartua sentituko nintzateke hala balitz.

— Horixe pentsatzen dudala. Txistua alferri-kaltzen ari naizela uste al duzu?

Bill uda bukaeran ezkondu zen, eta ezkondu eta segituan Monterreyra joan zen bere iztukuzko etxe berrian bizitzera. Udazkenean John Whitesideri ezinegona jarri zitzaion berriro ere, Bill jaio aurretik bezalaxe. Etxea pintatu zuen nahiz premia handirik izan ez. Lorategiko zuhaixka guztiak inausi zituen gupidagabeki.

— Lurrak ez du behar hainbat ematen —esan zion Bert Munroeri—. Utzia daukat aspalditik.

Ateratzen dudana baino askoz gehiago atera nezake.

— Bai —esan zuen Bertek—. Ez diogu lurrari behar bezalako etekinik ateratzen. Beti pentsatu izan dut zergatik ez ote zeneukan artalde bat. Nik uste zure muinoetan artalde oso batentzako jana balegokeela.

— Nire aita bizi zela artalde bat baguenen. Aspaldiko kontua ematen du. Baina, esan dizudan bezala, utzia eduki dut lurra. Sastraka ugartu egin da.

— Erre ezazu —esan zion Bertek—. Udazken honetan sastraka hori errez gero belardi ederra izango duzu datorren udaberrian.

— Ideia ona da. Baina sastraka etxearen ondo-ondoraino ailegatzen da. Laguntza handia beharko dut.

— Beno, nik lagunduko dizut, eta Jimmie ere ekarriko dut. Zuk beste bi gizon badituzu eta, zeu ere kontatuta, horra bost lagun. Goizez hasten bagara, haizerik gabeko egun batean, eta aurrena euri pixka bat egin dezan itxoiten badugu, ez da inolako arriskurik izango.

Udazkena garaiz etorri zen. Urrirako, erreka ertzetako sahatsak garrak bezain hori zeuden Zeruko Belardietan. Zeruan, ia bistaz kanpo, basahate bandada handiak hegoalderantz zihoa-zen, eta granjako esparruan etxeko ahateek hegoei eragin, zintzurak luzatu eta karranka egiten zuten irrikaz beterik Zozoak jira eta buelta zebiltzan soroen gainetik, gidari baten atzean bilduz. Izotz goiztiar pixka bat zegoen giroan. John Whiteside kezkatu egiten zen negua hurbil-tzen ikusita. Baratzean lan eta lan pasatzen zuen egun osoa, zuhaitzen inausketan laguntzen.

Gau batez esnatu eta euri langarra sentitu zuen arbel gainean zurrumurruka eta lorategian astiro zipriztinka.

— Esna al zaude, Willa? —galdetu zuen isilka.

— Horixe.

— Estreinako euria da. Zuk ere aditzea nahi nuen.

— Esna nengoen hasi denean —esan zuen Willak satisfazioz—. Parterik onena huts egin duzu, zaparrada bota duenean. Zurrungaka zeunden.

— Beno, ez du luze iraungo. Estreinako euri-txoia besterik ez da, hautsak garbitzeko.

Goizean, eguzkiak urez ñirñirka zegoen atmosfera batean distiratzten zuen. Eguzkiaren argiak zerbait bazuen kristala gogorarazten zuena. Gosaria bukatu berria zutela, Bert Munroe eta bere seme Jimmie sukaldera sartu ziren atzeko eskaileratik.

— E'unon, Mrs. Whiteside! E'unon, John! Egun aproposa dela pentsatu dut sastraka hori erretzeko. Euri polita izan dugu bart.

— Ideia ona da. Eseri eta hartu kafea.

— Oraintxe gosaldu dugu, John. Ezingo nuke beste ezer eztaarritik pasa.

— Hik, Jimmie? Kaferik?

— Ezingo nuke beste ezer eztaarritik pasa — esan zuen Jimmie.

— Beno, hortaz, hasi gaitezen belarra lehortu baino lehen.

John soto handira jaitsi zen sukaldeko eskaileraren ondoan zegoen okerkako atetik. Handik une batera keroseno lata batekin itzuli zen. Bi morroiak baratzetik heldu zirenean. Johnnek arpi-

Ilkerazko zaku hezeak banatu zituen gizon guztien artean.

— Haizerik ez —esan zuen Bertek—. Momentu aproposa da hau. Hasi hemen bertan. John! Sua eta etxearen artean geldituko gara harik eta zerrenda handi bat erre arte. Ez dugu arriskatu behar.

Johnekin murgildu kerosenozko zuzi bat sastraka tupituan eta suzko lerro bat marraztu zuen haren ertzean. Sastraka kraskaka eta zartaka hasi zen amorru bizian. Garrak lasterka abiatu ziren lur arrasetik, erretxinez kutsatutako zurtoinen artean. Pixkanaka, gizonak suaren atzetik zihoazen muinotxo malkartsuan gora.

— Hemen nahikoa dugu —hots egin zuen Bertek—. Etxetik nahiko urruti gaude orain. Orena izango da bi lagunek goiko aldetik su ematea.

Gorantz jo zuen sasitza inguratuz, Jimmie atzetik zuela. Une hartan, udazkeneko haizetxo zurrumbilotsu bat dantzan abiatu zen maldan beheara, bihurrituz eta balantza eginez jaitsi ahala. Sartu-atera arintxo bat egin sutara, txinpartak eta txingarrak harrotu eta etxe zuriaren

kontra bota zituen. Gero, jokoaz nekatuta bezala, haize zutabetxoak desegin egin zen. Bert eta Jimmie lehengo tokirantz zetozen korrika. Bost gizonak lurra miatu eta txinparta guztiak zanpazten zituzten.

— Eskerrak ikusi dugun —esan zuen Johnek—. Horrelako huskeria batek etxe guztia erre lezake.

Bertek eta Jimmiek sasitza inguratu eta su eman zioten goiko alderditik. John eta bere bi gizonak muinoan gora ziharduten, garren eta etxearen artean mantenduz. Giroa lodituta eta kez urdinduta zegoen. Ordu laurden batean, sasitza ia erabat errea zuten.

Bat-batean garrasi bat aditu zuten etxe aldetik zetorrena. Etxea bera ia ezin zen ikusi erretzen ari zen sastrakak botatako keagatik. Bost gizonak jiratu eta korrikari eman zioten. Kea saretu ahala, zurrumbilo gris, trinko bat ikusi zuten goiko leiho batetik parrastaka ateratzen.

Willa haien aldera zetorren eroa bezala korrika erretako terrenotik. John gelditu egin zen elkarren parera heldu zirenean.

— Soinu bat aditu dut sotoan —hots egin zuen Willak—. Ireki dut sukaldeko atea, sotora eramaten duena, eta gauza hori ziztuan pasa zait ondotik. Etxe guztian dago orain.

Bert eta Jimmie elkartu zitzaizkien.

— Mangerak zisterna ondoan al daude? — egin zuen garrasi Bertek.

Johnek begirada apartatu zuen erretzen ari zen etxetik.

— Ez dakit —esan zuen dudati.

Bertek besotik heldu zion.

— Mugitu! Zeren zain zaude? Zerbait salba genezake. Behinik behin altzari batzuk atera genitzake.

Johnek bere besoa libratu eta etxerantz abiatu zen paseatuz bezala.

— Ez dut uste ezer salbatu nahi dudarik — esan zuen.

— Erotu egin zara —hots egin zuen Bertek. Korrika jarraitu eta zisterna ondora jo zuen, mangeren bila.

Kea eta garrak oparo ateratzen ziren orain leihotik. Etxe barrutik asaldura amorratuko soinu

bat zetorren; batimenduzaharra bere burua salbatu nahian ari zen.

Morroietako bat Johnen ondora etorri zen.

— Sikiera leiho hori itxita balego, aukera bat izango genuke —esan zuen, desenkusatu nahiz bezala—. Hain dago lehorra, etxe hori. Eta tximini batek bezalakoxe tiroa dauka.

John egur metaraino joan eta zerrako astoaren gainean eseri zen. Willak aurpegira begiratu zion une batez eta gero haren ondoan geratu zen isil-isilik. Kanpoko paretak kea botatzen zuten orain, eta etxeak orme egiten zuen haize handi baten hotsarekin.

Orduan oso gauza bitxi eta krudela gertatu zen. Alboko pareta kanporantz erori zen teatroko dekoratu bat bezala, eta hantxe, lurretik hamabi oinera, eta artean suak ukitu gabe, egongela azaldu zen. Begira zeuden bitartean, mihi luzeek latigazoka eraso zioten gelari. Larruzko besaulkiak dardarka hasi eta uzkurtu egin ziren beroaren aurrean, bizidunak balira bezala. Koadroetako kristalak pitzatu eta altzairuzko grabatuak zeharo zimurtu ziren, zarpail beltz bihurtzeraino. Itsas bitsezko pipa beltz handia tximiniako kos-

karen gainean eskegita ikus zezaketen. Gero garrek gelaren luze-zabalera guztia hartu eta ezabatu egin zuten. Arbelezko teilatu astuna erori egin zen, horma eta zoruak zanpatuz bere pisuaren pean, eta etxea formarik gabeko su erraldoia bihurtu zen.

Bert itzulia zen ordurako eta Johnen ondoan zegoen etsi-etsi eginda.

— Haize zirimola horrengatik izango zen — azaldu zuen—. Txinpartaren bat sotoraino jaitsi eta su emango zion kerosenoari. Bai, adiskide, keroseno horrengatik izango zen.

Johnek burua goratu eta irribarre egin zion halako dibertimendu izutu batez.

— Bai, adiskide, keroseno horrengatik izango zen —errepikatu zuen oihartzunaren modura.

Suak, bere garaipena lortuta, gozo-gozo erretzen zuen; gar geroz handiagoak airean gora igo-tzen ziren. Ez zuen jadanik etxe baten inolako antzik. John Whitesidek zerrako astotik altxa, bizkarra zuzendu eta hasperen egin zuen. Bere begiak garren puntu jakin batean, zorutik hama-bost oinera pausatu ziren une batez, egongela egondako tokian.

— Beno, akabo da —esan zuen—. Eta uste dut badakidala nola sentitzen den arima bere gorputza lurperatua eta galdua ikusten duenean. Goazemazu zure etxera, Bert. Telefonoz hots egin nahi diot Billi. Segur aski izango du gela bat guretzat.

— Zergatik ez zarete gurekin geratzen? Tokia sobera daukagu.

— Ez, Billengana joango gara.

Johnek beste begiratu bat bota zion sutan zegoen tontorrari. Willak eskua luzatu, senarrari besotik heltzeko, baina erretiratu egin zuen ukitzera ailegatu baino lehen. Johnek keinua ikusi eta irribarre egin zion.

— Nahiago nuke nire pipa salbatu ahal izan banu —esan zuen.

— Bai, adiskide —sartu zen Bert kartsuki—. Ez dut sekula ikusi hain ederki ketutako itsas bitsezko piparik. Museoetan makina bat pipa badaude hain ederki ketu gabeak. Aspalditik izango zuen erretzailea.

— Bai —onartu zuen Johnek—. Oso aspalditik. Eta gauza bat esango dizut, gustu ona zuen gainera.

Arratsaldeko ordu bietan turistentzako autobusak bere Monterreyko geltokia utzi zuen penintsulara joan-etorri bat egiteko. Autobusak publizitateak goraipatutako Hamazazpi Miliako Txangoa burutzen zuen bitartean, bidaiariek jakin-minez begiratzen zituzten jende aberatsaren etxe ikusgarriak. Turistak apur bat lotsati sentitzen ziren hautsez betetako leihoetatik begiratzean —zelata egiten duen jendea bezala, pixka bat— baina bai pribilegiatu ere. Autobusa Carmelgo hiritik eta muino batean gora arrastatu zen Carmelo Misioa erdietsi arte, bere bati-mendu marroi eta kupula okerrarekin, eta han txofer gazteak ibilgailua errepide bazterrera eraman eta guardabarroaren gainean jarri zuen oina, bidaiariak eliza ilun, zaharretik gidatzen zituzten bitartean.

Beren eserlekuetara itzuli zirenerako, bidaiariek beren inguruan altxa ohi dituzten barrereta-ko batzuk erorita zeuden.

— Aditu al duzue? —esan zuen gizon prospe-
roak—. Gidariak esan du eliza itsasontzi bat
bezala eraikita dagoela, harrizko gila batekin eta
gilaren azpitik kroskoa lurrean barruraino sartu-
ta. Lurrikarentzat da hori... itsasontzi bat bezala
ekaitza denean, badakizue. Baina alfer-alferrik
izango litzateke.

Apaiz gazte batek, musu garbi, gorrikoa eta
bere sargazko sotana berriarekin harro-harro
zegoena, bi asientu atzeragotik erantzun zuen:

— Baina ez da alferrik izan. Lurrikarak izan
dira, eta misioak oraindik ere zutik dirau; buzti-
nez egina eta oraindik ere zutik dirau.

Gizon zahar bat sartu zen tartean, gizon
zahar eta osasun oneko bat begi irrikatsuekin:

— Gauza bitxiak gertatzen dira —esan zuen—
. Emaztea galdu nuen lehengo urtean. Berrogei-
ta hamar urtetik gora egin genituen ezkondata.

Iribarrez, ingurura begiratu zuen komentario
bat entzuteko esperantzarekin, eta ahaztu egin
zituen gertatzen diren gauza bitxiak.

Ezkon bidaian zebilen bikote bat ere hantxe
zegoen eserita, biak elkarri besotik helduta. Nes-

kak estutu gogor bat eman zion senarraren besoari.

— Galdetu txoferrari nora joango garen orain.

Autobusak poliki-poliki jarraitu zuen Carmelgo ibar aldera, baratzak eta alkatxofa sailak pasa zituen, eta haitz gorri bat ere bai, aihen berdez zaineztatua. Arratsaldea apalduz zihoan, eta eguzkia itsasora ematen zuen ibarraren ahoan hondoratzen zen. Errepideak Carmel ibaia utzi eta malda bat igotzen zuen, bizkar estu baten tontorretik segitu baino lehen. Han txoferrak bat-batean autobusa errepide bazterrera eramán, eta lau aldiz maniobratu zuen atzera eta aurrera buelta ematea lortu baino lehen. Gero motorra itzali eta bidaiariengana jira zen:

— Hemen bukatzen da gure paseoa, jaun-andreok. Hankak luzatzea gustatzen zait etxerako bidea hartu baino lehen. Beharbada zuetako batzuk ere gustura aterako zarete bueltatxo bat ematera.

Beren eserlekuetatik gogor-gogor eginda altxa, mendi-bizkarraren tontorrean gelditu eta beherantz begiratu zuten, Zeruko Belardietara. Airea gasa doratu bat bezalakoa zen eguzkiaren

azken kondar haietan. Han beheko lurra zatituta zegoen fruta-arbola berde, gari hori eta lur bioletako laukietan. Lorategien erdian kokatutako etxe sendoetatik, ilunabarreko suen kea gorantz kiribiltzen zen muinoetako brisarak eskobatzen zuen arte. Zintzarriek eztiro jotzen zuten ibarrean; zakur bat zaunka ari zen, hain urruti non soinua zurrumurrutxo txorrotxetan igotzen baitzen bidaiariengana. Juxtu gailurraren behealdean, artalde bat haritz baten azpian bilduta zegoen gauerako.

— *Las Pasturas del Cielo* deitzen diote —esan zuen txoferrak—. Barazki ederrak biltzen dituzte hor, mahats ederra ere bai, eta fruta lehenago heltzen da hemen beste inon baino. Izenak Zeru-ko Belardiak esan nahi du.

Bidaiariak ibarrera zuzendu zituzten begiak.

Gizon arrakastatsuak eztarria garbitu zuen. Bere ahotsak profezia doinua zeukan.

— Gauzak nik uste bezala ateratzen badira, horra zer esaten dizuedan: Egunen batean etxe handiak egongo dira ibar horretan, harrizko etxeak eta lorategiak, golf zelaiak eta burdin landuko hesate handiak. Gizon aberatsak biziko dira

hor, hirian lan eta lan jarduteaz nekatutako gizonak, diru mordoxka bat egin dutenak eta toki baketsu baten bila datozenak atsedean hartzeko eta disfrutatzeko. Behar den dirua banu, dena erosiko nuke. Bolada batez eutsi, eta gero zatika salduko nuke.

Isildu eta zerbait biltzeko bezalako keinutxo bat egin zuen eskuaz.

— Bai, eta alajainkoa, ni neu ere bertan biziko nintzateke.

Bere emazteak esan zuen:

— Ixo!

Gizonak errudun itxuraz bere ingurura begiratu eta inork ez ziola entzuten ikusi zuen.

Muinoaren itzal purpura ibarraren erdialderantz lerratzen zen; han nonbait, behealdean, txerri batek garrasi egin zuen haserre. Gizon gazteak begiak lurretik altxa eta, irribarrez, aitorpen bat egin zion bere emazte berriari, eta honek irribarre irmo eta gaitzesle batez erantzun zion. Gizonaren irribarreak esan nahi zuen: «Ia-ia pentsatu dut. Atsegina izango litzateke... baina ezinezkoa zait, jakina.»

Eta emaztearenak erantzun zuen: «Ez, horixe ezinezkoa zaizula! Anbizioa aintzat hartu beharra dago, eta gure adiskide guztiek gauza handiak espero dituzte gugandik. Izen bat egin beharra daukazu zutaz harro egoteko modua izan dezadan. Ezin diozu ihes egin erantzukizunari, zeure burua honelako toki batean lurperatuz. Baina atsegina izango litzateke.» Eta bi irribarreak bigundu eta beren begietan geratu ziren.

Apaiz gaztea harantz eta honantz zebilen bere kabuz. Otoitz bat xuxurlatzen zuen, baina, praktikak trebatuta, kapaza zen otoitz egin eta aldi berean beste zerbaitetan pentsatzeko. «Eliza polit askoa egon liteke behealde horretan», pentsatzen zuen. «Pobretasunik ez hor, usainik ez, buruhausterik ez. Nire jendeak bekatutxo arinak konfesatuko lituzke, Agur Maria bat edo besteko penitentziaz ezabatzen direnak. Dena bake-bakean egongo litzateke hor; behin ere ez litzateke gertatuko ezer zikin edo biolentorik, niri atsekabea, zalantza edo lotsa eragiteko modukorik. Etxe horietako jendeak bihotzez maiteko ninduke. Aita deituko nindukete, eta

zorrotz jokatu nuke beraiekin zorrotz jokatzeari egokia izandakoan.» Kopeta zimurtu eta baztertu egin zuen pentsamendu hura. «Ez naiz apaiz ona. Neure burua zigortuko dut pobreekin, beren usainarekin eta beren borrokarekin. Ezin diet Jainkoaren tragediei ihes egin.» Eta pentsatu zuen: «Beharbada hildakoan horrelako toki batera etorriko naiz.»

Gizon zaharrak iharrean jarrita zeuzkan bere begi irrikatsuak, eta bere belarri gortuetan altzipres batean dabilen haizetxo bezala harrotzen zen isiltasuna. Muino urrunenak lauso artean bezala zeuden berarentzat, baina argitasun doratua eta iluntasun purpura ikusi ahal zituen. Bere arnasa estutu egin zen eta malkoak etorri zitzaizkion begietara. Etsipenez, eskuak aldaketara erortzen utzi zituen. «Sekula ez dut pentsatzeko betarik izan. Buruhauste gehiegi izan ditut ezer arretaz pentsatzeko. Hor behera jaitsi eta boladatxo batez bertan bizitzerik banu... alajainkoa! gertatu zaizkidan gauza guztiak errepasatuko nituzke, eta beharbada zerbait atera ahal izango nuke, zerbait pieza batekoa eta esanahia lukeena, orain zintzilik dauzkadan mutur guzti

horien orde. Ezerk ez ninduke hor behean kezkatuko eta pentsatzeko aukera izango nuke.»

Autobus txoferrak zigarroa errepidera bota eta zanpatu egin zuen hautsean.

— Ea ba, jaun-andreok —hots egin zuen—. Abiatu beharrean gara.

Autobusera igotzen lagundu eta atea itxi zizkien. Baina denak leihoen ondoan pilatu eta beherantz begiratu zuten, Zeruko Belardietara. Aire urdin-urdina zen orain, laku bat bezalakoa, eta granjak baretasunean murgilduta zeuden.

— Aditzen al didazue —esan zuen txoferrak—. Beti pentsatzen dut atsegina izango litzatekeela hor behean etxetxo bat edukitzea. Nahikoa litzateke behi bat haztea, txerri batzuk eta txakur bat edo beste. Bizitzeko adina eman lezake granja txiki batek.

Hanka estarterraren gainean jarri eta motorrak orro egin zuen une batez, berak haizea gutxitu arte.

— Xelebrea irudituko zaizue segur aski, baina niri gustatu egiten zait hor behera begiratzea, gizona etxe txiki batean zer lasai eta zer aise bizi litekeen pentsatuz.

Martxa aldatzeko palankari eman zion; ibilgailuak abiadura hartu eta ziztu bizian jaitsi zen Carmelgo ibar luze aldera eta eguzki aldera, orduantxe ara baitzen eguzkia ozeanoan sartzen, han, abarraren ahoan.